

# Bakio

## 1936-1945

Giza Eskubideen zapalketa  
eta errepresioa Gerra Zibilean  
eta Lehen Frankismoan

*Conculcación de los Derechos Humanos y  
represión durante la Guerra Civil y  
el Primer Franquismo*





## **Zuriñe Goitia Bilbao**

(Bilbo, 1994)

Bilbon jaio zan 1994.urtean. Gizarte eta Kultura Antropologian graduatu zan 2016an Euskal Herriko Unibertsitatean eta ordutik aurrera Bakiori buruzko ikerketa historiko ezbardinak garatu izan dauz. Hau da bere lehenengo argitalpen idatzia, eta beragaz batera, Bakion Gerra Zibila bizi izan eben emakumeen lekukotasunak biltzen dauazan dokumentala be argitaratu dau.

Nació en Bilbao en 1994. Graduada en Antropología Social y Cultural por la Universidad del País Vasco en 2016, a partir de ese año ha desarrollado trabajos de investigación histórica sobre diversos aspectos locales del municipio de Bakio. Esta es su primera publicación escrita, y paralelamente a ella, ha editado un documental con testimonios personales de mujeres que vivieron la Guerra Civil en Bakio.



## NEURE "BITZGANE"-RI!

"Koipe de Llano"-ri Bitzganeko zirikadagaitik.

*Jataren goyan  
dabiltz egazka  
egazkin zuri  
zitalak.*

*Geure mutilak  
bildurrik gabe  
aurrera doyaz,  
Aurrera...!*

*Gero Bakio-ra  
Bermeorantza  
"Kanala" aldeko  
ibairañ.*

*Andik aurrera  
joan biarko dabe  
urruti aldeko  
mugarañ.*

*Zumetxagako  
Deun Mikel-eri  
eskatuko dautsot  
gauza bat:  
bere ezpata  
zorrotz-zorrotzaz  
uxatu daizela  
moruak...*

*Txakolin gorri  
baita zuriya  
Bakiotar danan  
edariya  
"Pulgen" etxeko  
parra azpiyan  
asetuko du  
egariya...*

*Nok ikusi deu  
olako lanik,  
moruak "ermite"  
barruban.  
Ze "kristiñabak"?  
ze "erlegiyo"?  
dira orrenak  
oinguan.*

*Neure "Bitzgane"  
zoragarriya,  
nola ete dau  
itxas ertz,  
etxe maitia,  
baratz txukuna,  
pelotaleku  
"tennis"-ek?*

*la mutilak!  
indar pizkabat  
"Andiño" goiko  
atxerañ,  
itxas-urdinak  
artuko ditu  
pozik "sakelan"  
barrurañ.*

*Oi! "Koipe de Llano"  
barregarriya,  
zer esan dozu  
gugaitik...?  
Bitzganekuak  
egingo dabe  
barre ugari  
zugatik.*

ERLETXUE

## **EGUNA 117 - 1937.05.19**

Juan Abando Urrejola, 1885.urtean Bilbon jaio eta 1945.urtean uri beratan hil zan. 1933.urtean Bilboko Udaleko zinegotzi jeltzalea izan zan. Idatzi egiten eban, batez be euskal olerkiak "Excelsior", "Euzkadi", "Eguna" eta "Euzko" aldizkarietan *Erletxu(e)* ezizenagaz euskeraz eta *Egas* ezizenagaz erderaz idazten izan ebanean. María Zubizarreta Ezpeletagaz ezkondu zan. Bakioko Bitzgane etxaldea sortu ebenetariko bazkidea izan zan eta han pasetan ebazan udak.

Juan Abando Urrejola, nació en 1885 en Bilbao y murió en 1946 en la misma ciudad. Fue concejal del Ayuntamiento de Bilbao en 1933, de ideología nacionalista. Escribía, sobre todo poesía vasca, en las revistas "*Excelsior*", "*Euzkadi*", "*Eguna*" y "*Euzko*", con el alias *Erletxu(e)* en euskera y *Egas* en castellano. Se casó con María Zubizarreta Ezpeleta. Fue uno de los socios que creó Bitzgane y allí pasaba los veranos.



# BAKIO

Matxinada eta diktadura frankistaren zapalkuntzea jasan eben bakiotarrei eta Euskal Herriaren askatasunaren eta Errepublikaren alde borrokatu ebenei eskainita dago liburu hau.

A todas las personas de Bakio que sufrieron la sublevación franquista y la posterior represión durante décadas de dictadura. A aquellas personas que lucharon por las libertades del pueblo vasco y por la República.

Sustatzailea  
Promotor



# BAKIO

1936-1945

Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan  
Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Zuriñe Goitia Bilbao

Bakio 2019



## **PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINACIÓN DEL PROYECTO**

Juantxo Agirre-Mauleon, Javier Buces Cabello.

## **IKERLARI KOLABORATZAILEAK / PERSONAS INVESTIGADORAS COLABORADORAS**

Anartz Ormaza Ugalde, Igone Abio Zapirain, Ines Baraiazarra Apraiz, Iniaki Martiartu, Laura Uriarte Bilbao, Matxin Goitia Garay eta Karlos Almorza Arrieta.

## **ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS**

Ikerketa honetan zehar, testigantza eman, dokumentazioa biltzen lagundu eta beti laguntzeko prest egon diren guztiei / A las personas que han dado testimonio, a las que han ayudado a la recopilación de documentos y a todas aquellas que han estado ayudando en todo momento. Sabino Arana Fundazioa. Euskal Memoria.

## **EDUKIAREN ZUZENTZAILEA / REVISIÓN DE CONTENIDOS**

Karlos Almorza Arrieta.

## **AZALEKO ARGAZKIA / IMAGEN DE PORTADA**

Jata mendia Zumetxagatik ikusita / El monte Jata visto desde Zumetxaga (Fotomontaje actual en base a una foto original de Indalecio Ojanguren AGG-GAO\_OA01183).

**ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA.** Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. [www.aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus)

### **Egilea / Autora**

Zuriñe Goitia Bilbao

### **Itzulpena / Traducción**

Labayru Fundazioa

### **Maketazioa / Maquetación**

TamTam S.L.

### **Imprimatzen du / Imprime**

Leitzaran Grafikak S.L.

ISBN 978-84-17713-09-6

L.G. SS 369-2019

# Aurkibide orokorra

## Índice general

<b>1. AURKEZPENA / PRESENTACIÓN</b> .....	09
<b>2. BAKIO BIGARREN ERREPUBLIKAN / BAKIO DURANTE LA SEGUNDA REPÚBLICA</b> .....	13
2.1. Testuinguru politikoa / Contexto político.....	36
2.2. Autogobernuaren defentsea / La defensa del autogobierno.....	40
<b>3. GERRA ZIBILA HASI ZANETIK BAKIO JAUSI IZAN ARTE / DEL INICIO DE LA GUERRA A LA CAÍDA DE BAKIO</b> .....	53
- I. ZERRENDEA: GERRAN ZALLAN EGONDAKO ERREFUJIADU BAKIOTARRAN ZERRENDEA LISTADO I: LISTADO DE REFUGIADAS DE BAKIO EN ZALLA DURANTE LA GUERRA .....	60
<b>3.1. Mobilizautako bakiotarrak / Bakiotarras movilizados</b> .....	61
- II. ZERRENDEA: EUSKO GUDAROSTEAN EDO ARMADA ERREPUBLIKANOAN ERROLDATUTAKO BAKIOTARRAK LISTADO II: BAKIOTARRAS ENROLADOS EN EL EJÉRCITO VASCO O EN EL EJÉRCITO REPUBLICANO .....	63
- III. ZERRENDEA: FRONTEAN HILDAKO EDO DESAGERTUTAKO GUDARI EDO MILIZIANO BAKIOTARRAK LISTADO III: GUDARIS O MILICIANOS BAKIOTARRAS MUERTOS O DESAPARECIDOS EN EL FRENTE .....	68
- IV. ZERRENDEA: GERRAN HILDAKO BURRUKALARI ERREBOLTARI BAKIOTARRAK LISTADO IV: COMBATIENTES SUBLEVADOS BAKIOTARRAS MUERTOS EN LA GUERRA .....	70
<b>3.2. Bonbardaketak / Los bombardeos</b> .....	70
<b>3.3. Kolpistak Bakiora ailegau ziranean / La llegada de los golpistas a Bakio</b> .....	73
<b>3.4. Jatako burrukaldiak / La batalla de Jata</b> .....	78
<b>3.5. Bakio galtzean kazetariak emondako informazioak / Informaciones periodísticas sobre la pérdida de Bakio</b> .....	82
<b>4. GERRAREN ONDORIOAK: BAKIOKO ETA BAKIOTARRAN KONTRAKO ZAPALKUNTZEA LEHENENGO FRANKISMOAN / CONSECUENCIAS DE LA GUERRA: REPRESIÓN EN BAKIO Y CONTRA BAKIOTARRAS DURANTE EL PRIMER FRANQUISMO</b> .....	87
4.1. Behargin publikoen eta abadeen bazterketa / Depuración de empleados públicos y sacerdotes .....	97
4.2. Zapalkuntza ekonomikoa / La represión económica .....	102
4.3. Espetxeratu ebezan bakiotarrak / Bakiotarras ingresados en prisión .....	109
- V. ZERRENDEA: ATXILOTUTAKO ZIBILAK ETA GERRAKO PRESOAK LISTADO V: CIVILES APRESADOS Y PRISIONEROS DE GUERRA BAKIOTARRAS.....	112
4.4. Auzitegi militar frankistek epaitutako bakiotarrak / Bakiotarras juzgados por tribunales militares franquistas .....	113
4.5. Andra bakiotarran ganeko zapalkuntzea / La represión sobre mujeres bakiotarras .....	142
4.6. Frankismoaren ezarpena Bakion / La implantación del franquismo en Bakio .....	148
<b>5. LEKUKOTZAK / TESTIMONIOS</b> .....	157
<b>6. ERANSKINAK / ANEXOS</b> .....	185
<b>7. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA / FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA</b> .....	199





# Aurkezpena

Presentación



### **Beharraren helburuak / Objetivos del proyecto:**

Behar honen helburu nagusia, gitxi ezagutzen izan diran datuak erabiliz eta herriko memoria kolektiboa errekuaratzean oinarrituz, Gerra Zibileko gertaerei argia emotea da. Bestalde, gerrea bizi izan eben horiengan oraindik mendean dagoen isiltasuna eta bildurra gainditu gura da.

El objetivo principal de este trabajo es aportar un poco de luz a los episodios de la Guerra Civil en Bakio, con la inclusión de datos e informaciones poco conocidas, haciendo especial hincapié en la recuperación de la memoria colectiva local. También se ha pretendido superar el silencio y el miedo imperante sobre el tema que han tenido quienes vivieron el conflicto bélico.

### **Azterketea eta idazketea / Análisis y redacción:**

Behar hau, dokumentazio eta arxibo ikerketen eta landutako gaiaren inguruko oroitzapen, bizipen eta sentimenduak helarazi dabezen bakiotarren lekukotzetatik jasotako informazioaren analisi eta uztartzearen fruitua da. Iturri batzuetako eta besteetako datuen artean agertutako kontraesanei urtenbidea aurkitzeko eraketa eta depurazioa egin behar izan da azken emoitza honetara heldu ahal izateko, non oinarri sendodun datuak baino agertuko ez diran.

Hizkuntza eta toponimia irizpideak erabili izan dira testigantza eta dokumentuen jatorrizko aniztasunak kohesionatzeko. Honetara, esate baterako, oinarri euskalduna ez eben izenak erdal grafiagaz errespetatu dira eta oinarri euskaldunak euskal grafiara bateratuta idatzi dira. Behar honen testuetarako euskera bizkaitarra aukeratu da, Bakioko kokapen geografikoa eta hizkuntzaren testuingurua kontuan hartuta. Azkenik, liburuaren izaera dibulгатiboa eta ulermenerako irakurterraza izatea nabarmendu gura izan da.

El trabajo es fruto del análisis y compaginación de los estudios documental y de archivo con la información proveniente de testimonios de bakiotarras que han trasladado sus recuerdos, vivencias y sentimientos acerca del tema analizado. La aparición de algunas contradicciones entre los datos provenientes de unas fuentes y de otras ha necesitado de cierto trabajo de cotejo y depuración hasta obtener el resultado final, al que solo se han incorporado los que contaban con suficiente soporte documental.

Se han aplicado criterios lingüísticos y toponímicos con el fin de cohesionar la diversidad formal original de documentos y testimonios, respetando, por ejemplo, los nombres de origen no vasco en grafía castellana y uniformizando al euskera actual los apellidos de raíz vasca. Se ha tenido en cuenta la localización geográfica y el contexto lingüístico de Bakio a la hora de elegir el euskera bizkaino para los textos de este trabajo. Por último, se ha pretendido primar el carácter divulgativo del libro y la mejor comprensión de su contenido.



Kaixo lagun,

Plazer bat da niretzat eskuartean dozun liburua aurkeztea. Urte luzez Bakioko herri mugimenduak gure memoriari eutsi deustso, orain, Udalarari pausu bat aurrera emotea eta herriak jasotako informazio guztia osatu eta babestea tokatzen jaku.

Plazer bat da Aranzadi Zientzia Elkartearekin kolaboratzea lan hau Bakioko herriari aurkeztu ahal izateko. Azpimarratu nahiko neuke gure helburua ez dala liburutegiko apal batean gelditu egongo dan liburu bat aurkeztea. Memoria, belaunaldiz belaunaldi transmititu behar dogun tresna bat da, beraz, liburu hau bere dinamiko bilakatu behar dogu. Gure ume eta gazteak begirada kritikotik hezten lagunduko deuskun tresna bilakatu behar dogu. Argi izan behar dogu eta, memoria, etorkizuna irudikatzeke ezinbesteko dala.

Gerra garaiko eta ondorengo urteetako (1936-1945) bizimodua ezagutarazteke helburua dau liburu honek, baina, berau, omenaldi xume bat bihurtzea bere nahiko genduke. Garai gogor hareek bizi behar eben bakiotarrei omenaldia, alegia. Historiako pasarte hau zuri baltzean bizi izan eben herritar guztiei eskerrak emoteko aprobetxatu nahi dogu, bizirik dagozanei, baina baita gure oroimenean leku bat betetzen dabenei be.

Izan zirelako gara, garelako izango dira. Hona hemen zuri baltza koloreztatzeke helburuarekin jaio dan proiektua.

Hola amigo/a,

Es un placer para mí presentar el libro que tienes en tus manos. Durante muchos años el movimiento popular de Bakio ha mantenido nuestra memoria y ahora nos corresponde completar y preservar la información aportada por el pueblo dando un paso más desde el Ayuntamiento.

Es un placer haber colaborado con la Sociedad de Ciencias Aranzadi para poder presentar este libro al pueblo de Bakio. Quisiera subrayar que nuestro objetivo no es presentar un libro que vaya a estar en un estante de la biblioteca. La memoria es algo que debemos transmitir de generación en generación, por lo tanto, este libro debe ser también algo dinámico. Tenemos que convertirlo en un medio para educar la mirada crítica de nuestros descendientes. Debemos tener claro que la memoria es imprescindible para dibujar el futuro.

Este libro tiene el objetivo de dar a conocer la vida en la época de la Guerra y en los años posteriores (1936-1945) pero, también quisiéramos convertirlo en un sencillo homenaje. Es decir, un homenaje a los y las bakiotarras a quienes les tocó vivir aquella durísima época. Queremos aprovechar la ocasión para dar las gracias a todos los vecinos y vecinas que vivieron en blanco y negro aquella época de la historia, a los que aún viven pero también a quienes ocupan un lugar en nuestro recuerdo.

Somos, porque fueron, seremos porque somos. He aquí un proyecto que nació para dar color al blanco y negro.

**AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA**  
BAKIOKO ALKATEA / ALCALDESA DE BAKIO

**Harrijasotzailea Bakioko frontoian eta bere atzean “*Casa Alegría*”,  
1920ko hamarkadan udaletxea izandako eraikina. /  
Un harrijasotzaile en el frontón de Bakio y detrás la “*Casa Ale-  
gría*”, edificio que fue ayuntamiento durante la década de 1920.**

(Aintzane Bilbaok itxitakoa / Cedida por Aintzane Bilbao).



# Bakio bigarren errepublikan

Bakio durante la segunda república



orr.

## INGURUNE FISIKOA

Bakioko erliebea argi eta garbi bananduten da alde bitan. Batetik, Jata eta Sollube mendietako bizkar mendiitsuak dagoz, eta, hurrengorik hurrengo, itsasaldegino luzatuten dira Jata-txikerra eta Arrastakulo-gane (Gaubieta) mendietako muinoen bidez, sartaldetik; eta Garbolaren<sup>1</sup> zein Burgoaren bidez, sortaldetik. Azkenean, barriz, biak alkartzten dira hegoaldean, Tallu mendian, hain zuzen be. Bestetik, beste aldea erdian dago, ugarana da eta ibai bi dagoz bertan. Biak, ganera, haretza luzearen albo banatan itsasoratuten dira Estepona-Zarraga<sup>2</sup> ibaiagaz bat egin ostean. Izan be, ibairik emoitsuena da, eta haretzearen ezkerraldean dago, arroko eremurik garrantzitsuenean, hatan be.

Haretzearen eskoiko aldean, Ondarreko zubipetik igarotakoan, Luzarraga eta Ureta erreketako urak itsasoratuten dira Areaga baserriaren alboan bat egin ostean.

Antza danez, eraketa hori dala eta, zeozelako mikroklimea dago bertan, tenperaturak inguruko beste lurralde batzuetakoak baino leunagoak diralako eta edurra zein leia egiteko arriskua txikiagoa dalako. Horregaitik, klima mediterraneoan ohikoak diran labrantzak garatu ahal izan dira bertan (zitrikoak eta mahatsa).

## ENTORNO FÍSICO

El relieve de Bakio se divide claramente en dos zonas. Por un lado, están las laderas montañosas correspondientes a los montes Jata y Sollube que se prolongan, respectivamente, hasta la línea de costa con las elevaciones de los montes Jata-txikerra y Arrastakulo-gane por el oeste, y Garbola<sup>1</sup> y Burgoa en el este, para terminar encontrándose ambas en el sur, en el monte Tallu. Por otro, queda en medio la otra zona, esta deprimida, con dos ríos localizados en ella, que desembocan a ambos lados de una larga playa, recogiendo el río Estepona-Zarraga<sup>2</sup>, el más caudaloso y situado a la izquierda del arenal, la parte más importante de la cuenca.

En el lado derecho de la playa, tras pasar bajo el puente de Ondarre, vierten tras unirse junto al caserío Areaga las aguas de los arroyos Luzarraga y Ureta.

Se afirma, coloquialmente, que esta configuración determina un microclima local con temperaturas algo más suaves que las de otros territorios del entorno, con un menor riesgo de nevadas y heladas, lo que ha permitido desarrollar cultivos más propios del clima mediterráneo (cítricos y vid).



Bakio 1930 inguruan. / Bakio hacia el año 1930. (Archivo Lucien Roisin agiritiega).

<sup>1</sup> XVII. gizaldian Galbarrola moduan dago dokumentauta, eta XIX. gizaldiaren hasikerara arte ez da *Garbola* moduan agertzen. / Está documentado como Galbarrola en el s. XVII y no es hasta comienzos del s. XIX que pasa a recogerse como *Garbola*.

<sup>2</sup> Ibai honen izena *Oiaurtako errekea/Oiaortako errekea* izan da XVI.-XVII. gizaldietatik, eta, gaur egun be, bakiotar askok holan esaten deutesie. Zarraga hasikerako tartearen izena da, eta, XIX. gizalditik aurrera, lehenengo aitemenak agertu ziran Estepona ibai moduan. Hain zuzen be, holan agertzen da gaur eguneko agiri administratiboetan. / *Oiaurtako erreka/Oiaortako erreka* ha venido siendo el nombre de este río desde los siglos XVI-XVII y es con el que aún lo conocen numerosos bakiotarras hoy en día. El nombre Zarraga corresponde a su tramo inicial y las primeras referencias como río Estepona aparecen a partir del s. XIX, habiendo quedado así reflejado en la documentación administrativa actual.

Bestetik, Bakio itsasaldean badago be, udalerrian bertan ez da itsas (arrantza) jarduerarik garatu, horretarako aukerea eukiko eban arren, eta biztanleen kokalekuak (auezodiak, baserriak...) udal-mugarte osoan dagoz sakabana-tuta, erreketatik zein ibaietatik (errotak, burdinolak...), eraikin erlijiosoetatik eta komunikazio-bideetatik hur.

Bakioko itsasaldean be, ez zan ezer eregi joan dan gizaldiko 70eko hamarkadara arte, hau da, bigarren etxebizitzarako altuerako eraikinen eraikuntzea ugarituten hasi zan arte.

Ez egoan udalerraren eta itsasoaren arteko hartu-emon handiagoa sortuko eban porturik, baia errua ez zan kasuan kasuko udal-agintariena, arduratu egiten ziralako. Izan be, gero azalduko dogun lez, unadan-unadan udalerraren interesa jagoten eben korporazioek behin eta barriro eskatu eutsien administrazio eskudunari azpiegitura hori egiteko.


Holan, bada, eskabide horrerik erantzuna emon gurean, Bizkaiko Aldundiak, 1920ko garagarriaren 6ko batzarrean, Bakioko portua eregiteko proiektua egitea erabagi eban. Proiektu hori bideetako ingeniaria zan José G. de Langarikak egin eban 1923an. Proiektu horrek<sup>3</sup> 705.812,85 pezetako aurrekontua eukan.

Por otra parte, a pesar de situarse Bakio en la línea de la costa, no se ha desarrollado en la localidad la actividad marítima (pesquera) que podía haber tenido lugar, y los distintos asentamientos de la población (barriadas, caseríos...) se emplazan diseminados por todo el término municipal, acercándose a las regatas y ríos (molinos, ferrerías...) a las construcciones religiosas y a los viales de comunicación.

Tampoco el frente costero de Bakio ha tenido interés edificatorio hasta la década de los años 70 del siglo pasado, cuando empezó a proliferar la construcción de edificaciones en altura destinadas a residencia secundaria.

La carencia de un puerto, que hubiese generado una mayor relación de la localidad con el mar, no debe achacarse a la indiferencia de las autoridades municipales correspondientes, pues, tal y como comentaremos, esta es una infraestructura reclamada de forma reiterada ante la administración competente por las diferentes corporaciones que velaban en cada momento por el interés del municipio.

Así, y queriendo dar respuesta a tal demanda, la Diputación de Bizkaia, en su sesión del 6 de julio de 1920, acordó que se confeccionara un proyecto para la construcción de un puerto en Bakio, proyecto que fue redactado por el ingeniero de caminos José G. de Langarika, con fecha de 1923. Ese proyecto<sup>3</sup> tenía un presupuesto de 705.812,85 pesetas.



Bakioko portuko proiektuaren planoak. / Planos del proyecto del puerto de Bakio. (BFAH, AGV-DC2597 espedientea / AHFB, Expediente AGV-DC2597).

Edozelan be, espediente horren izapideek ez eben aurrera egin. Hori dala eta, 1935. urtean, Udalak beste laguntza batzuk bilatu behar izan ebazan, portuko proiektua ostera be bultzatuteko. Horretarako, sasoi haretan Tortosako gotzaina zan Félix Bilbao Ugarriza bakiotarragaine jo eban, eta eskatu egin eutsan *“beraren esku egoan guztia egiteko, podere publikoek ahal danik eta ekarpen ekonomikorik handiena egin eien eta portuaren inguruan hasitako proiektua egia egin eiten”*. Horrezaz ganera, aho batez be erabagi zan podere publikoei hori eregiteko eskatzea<sup>4</sup>.

Pero la tramitación de este expediente no avanzó y el Ayuntamiento se vio en la necesidad de recabar en el año 1935 otro tipo de apoyos para impulsar nuevamente el proyecto portuario, dirigiéndose al que era en aquellos momentos obispo de Tortosa, Félix Bilbao Ugarriza, nacido en Bakio, solicitándole *“que se interesase para lograr de los poderes públicos la mayor aportación económica posible para que se trocase en realidad el proyecto ya iniciado de puerto”*. También se acordó, por unanimidad, solicitar de los poderes públicos su construcción<sup>4</sup>.

<sup>3</sup> BFAH, AGV-DC2597 espedientea. / AHFB, Expediente AGV-DC2597.

<sup>4</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1935/09/22ko aktea. Sign.: 0008/001. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 22/09/1935. Sig.: 0008/001.

orr.

1936. urtearen hasieran, sasoi haretan Bizkaia gobernetan eban Probintziako Kudeaketa Batzordeak<sup>5</sup> izapide horreei heldu eutsen ostera be, eta Pedro Ispizua arkitekto bermeotarra inpliketea lortu eban Udalak.

Gerotxuago, 1936. urte horretan bertan, altzeta militarra jazo eta Autonomia Estatutua (urriaren 6an) onartu ostean, Udalbatzak erabagi egin eban Eusko Jaurlaritzaren barriko Herrilan Sailari eskatuko eutsala portua eregiteko proiektua administrazio hori atonduten ebilen *“obren planean”* sartu eiala *“eta behar ziran kudeaketa guztiak egin eizala, herriaren asmoa beteteko: portua eukitea”*<sup>6</sup>. Gerreak aurrera egin ebanez, proiektu hori gelditu egin zan, beste asko lez.

Modu beratan, azpiegiturako beste proiektu handi bat be gorpuztu zan, paperetan baino ez bada be, eta goitik behera aldatuko ebazan Bakioko errealidadeko arlo guztiak (giza arloa, beharrekoa, ekonomikoa...): trenbidea.

1890. urtean, Bermeoko Udalaren ekimenez eta Bilbogaz lotu gurean, lehenengo proiektua egin zan, Bakion eta Larraurain zehar udalerrri hori Mungia-gero lotuko eban trenbidea eregiteko. Hobekuntza eta aldaketa batzuk egin ostean, Bizkaiko Aldundiak proiektu hori onartu eban 1920. urtean, eta, gerotxuago, 1926. urtean, José Urzelai ingeniariak egindako behin betiko proposamenean zehaztu zan. Bertan adierazoten zanez, geltokia imingo zan erdibidean, Landabarrena ganaren eta Goikolaren artean.

1936. urtearen hasieran, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak proiektua beteteko planaren izapideei heldu eutseen ostera be, baia, portugaz jazo zan lez, komunikazio-bide horren lorpena bertan behera lotu zan gerrea hasi zanean.

## Zubiaur eta San Pelaio auzoakaz bat egitea

1931ko apirilean Bigarren Errepublikak aldarrikatu zanean, artean behin betiko ebatzi barik egoan Bermeoko Udalak 1927ko Errege Lege Dekretuaren kontra aurkeztu eban errekursoa, dekretu horren bidez San Pelaio eta Zubiaur auzoak Bakioko udal-mugarteko parte egin ziran-eta.

Antxina, Bermeoko udalerrria Bakioko herria luzetara kurutzatzen dauan errepide nagusiaren parean doan Estepona ibaigino ailegetan zanez, gaur eguneko Zubiaur eta San Pelaio auzoak marinel-urikoak ziran.

San Pelaio<sup>7</sup> eta Zubiaurrek Bermeotik aparte gartzatzen eben euren jarduerak, *“errentak eta arielak”* batzeko eta Batzar moduan kudeatzeko gaitasuna eukielako autortuta. Izan be, tratamendu hori berbatu eben, udalerrri bermeotarreko bertako eta hurren egoan in-

A comienzos del año 1936, la Comisión Gestora Provincial<sup>5</sup> que en esos momentos regía Bizkaia retomó dicha tramitación, consiguiendo el Ayuntamiento la implicación del arquitecto bermeano Pedro Ispizua.

Poco más tarde de ese mismo año 1936, habiéndose producido ya el levantamiento militar así como la aprobación del Estatuto de Autonomía (6 de octubre), el Ayuntamiento en Pleno acordó solicitar al Departamento de Obras Públicas del nuevo Gobierno Vasco el que se incorporase este proyecto de construcción del puerto al *“plan de obras”* que se venía preparando por parte de dicha Administración *“y que se realizasen cuantas gestiones sean necesarias para que sea un hecho la consecución de lo que es aspiración del pueblo: contar con un puerto”*<sup>6</sup>. El avance de la guerra paralizó, como tantos otros, este proyecto.

De manera similar, también quedó plasmado únicamente en los papeles otro importante proyecto de infraestructura que hubiese modificado sustancialmente la realidad de Bakio en todas sus facetas (humana, laboral, económica...): el ferrocarril.

En el año 1890 se elaboró, a iniciativa del Ayuntamiento de Bermeo y con el deseo de conectarse a Bilbao, un primer proyecto para la construcción de una línea de ferrocarril que uniría este municipio con el de Mungia, pasando por Bakio y Larrauri. Tras diversas mejoras y modificaciones, la Diputación de Bizkaia aprobó tal proyecto en el año 1920, que más tarde se concretó, en el año 1926, en una propuesta definitiva redactada por el ingeniero José Urzelai. En el mismo se contemplaba establecer una estación a medio camino entre el alto de Landabarrena y Goikolea.

A comienzos del año 1936 la Diputación y el Gobierno Vasco retomaron la tramitación del plan de ejecución, pero, al igual que en el caso del puerto, el comienzo de la contienda frustró la consecución de este medio de comunicación.

## Agregación de los barrios de Zubiaur y de San Pelaio

Cuando en el mes de abril de 1931 se declara la Segunda República estaba pendiente de resolverse de manera definitiva el recurso formulado por el Ayuntamiento de Bermeo contra el Real Decreto-Ley de 1927 por el que los barrios de San Pelaio y de Zubiaur pasaron a formar parte del *término municipal* de Bakio.

El municipio de Bermeo se extendía antiguamente hasta el río Estepona que discurre en paralelo a la carretera principal que recorre longitudinalmente el pueblo de Bakio, de manera que los actuales barrios de Zubiaur y de San Pelaio pertenecían a la Villa pesquera.

San Pelaio<sup>7</sup> y Zubiaur venían manteniendo un funcionamiento autónomo respecto de Bermeo, estándoles reconocida la capacidad de recaudar *“rentas y arbitrios”* y gestio-

<sup>5</sup> Kudeaketa Batzordeak Gobernu zentralak izentau ebazan, eta, bitarteko moduan, diputazio probintzialen administrazioa hartu eben ardurapean 1931ko udabarriko hauteskundeetatik aurrera. / Las Comisiones Gestoras, nombradas por el Gobierno central, se hicieron cargo interino de la administración de las Diputaciones Provinciales desde las elecciones de la primavera del año 1931.

<sup>6</sup> BFAH, Udai Atala; Bakio. 1936/11/01eko aktea. Sig.: 0008/001. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 01/11/1936. Sig.: 0008/001.

<sup>7</sup> San Pelaio eleizatea zan; eta Zubiaur, bertako berezko lurraldea. DE LA PLAZA Y SALAZAR, C. *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil* (137. eta 171. or.). / San Pelaio tenía rango de anteiglesia, siendo Zubiaur territorio propio de la misma. DE LA PLAZA Y SALAZAR, C. *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil* (pags. 137, 171).

guruko biztanleen aldean zerbitzuak eta hornikuntzak erabilerik ez eukiteagaitik zeozelan konpentsau gura ebezan-eta.

Halanda be, auzo horreetako biztanleak orokorrean gustura ez egozanez, ostera be (lehenengo ekintzak 1803an<sup>8</sup> hasi ziran), 1882. urtean, Bizkaiko Diputazio Probintzialari eskatu eutsien Bermeotik bananduteko eta Bakioko parte izateko baimena emon eiel, udalerrri haretako Udala beti-beti asmo horren kontra egon ban be.

narlos bajo la figura de una Junta, tratamiento acordado en compensación por la carencia de servicios y dotaciones de los que sí podían disfrutar los vecinos del propio municipio bermeano y de su entorno más cercano.

A pesar de ello, el descontento de los habitantes de estos barrios era general y una vez más (las primeras acciones habían comenzado en 1803<sup>8</sup>), en el año 1882 solicitaron a la Diputación Provincial de Bizkaia el que autorizase su desvinculación de Bermeo, para pasar a formar parte de Bakio, pretensión a la que, en todo momento, se opuso el Ayuntamiento de aquella localidad.



Olaskoetxe 1930 inguruan. Ezkerreko erriberea, Bermeo; eskoiko erriberea, Bakio. / Olaskoetxe hacia el año 1930. La ribera izquierda, Bermeo; la ribera derecha, Bakio. (Archivo Lucien Roisin agiritlegia).

Eskabidea gobernadore zibilar bialdu behar izan jakon, aldi beratan Gobernazino ministroari bialdu eion, erantzun egokia lortzeko eskumena eukana zalako, ebazpen hori legearen bitartez onartu behar zala kontuan hartuta. Edozelan be, espediente lotuta gelditu egin zan.

1893. urtean, auzo bietako biztanleek euren eskabideari eutsi eutsien ostera be, eta, ostera be, administrazioak ez eutsan ezelako jaramonik egin erreklamazioari.

Halanda be, sasoi haretan bermeotarrak ziran auzo horreetako bizilagunek ez eben etsi, eta, 1924. urtean, Bakioko parte izan gura ebela adierazo eben ostera be.

La petición se tuvo que remitir al Gobernador Civil, para que, a su vez, la trasladara al Ministro de la Gobernación, que era el competente, para obtener la respuesta oportuna, puesto que dicha resolución debía ser aprobada por medio de Ley. En cualquier caso, el expediente quedó paralizado.

Los vecinos de los dos barrios retomaron nuevamente su demanda en el año 1893, reclamación que volvió a quedar desatendida por parte de la Administración.

Pero a pesar de ello, los vecinos de estos barrios entonces bermeanos no cejaron en su empeño y en el año 1924 reiteraron sus deseos de pasar a formar parte de Bakio.

<sup>8</sup> ALLIKA, I. eta URIARTE, B. *Bermeoko toponimia* (940. or.) / ALLIKA, I. y URIARTE, B. *Bermeoko toponimia* (pag.940).

**SOLICITUD DE AGREGACION  
AL MUNICIPIO DE BAQUIO**

Una comisión de vecinos de los barrios de Sampelayo y Zubia ha visitado al gobernador para solicitar la agregación de aquellos barrios al Municipio de Baquio.

La Voz, 1925/05/05.

**REAL DECRETO-LEY**

**Núm. 1.721.**

De conformidad con el Consejo de Estado y de acuerdo con el de Ministros,

Vengo en decretar lo siguiente:

**Artículo 1.º** Se accede a la segregación de las anteiglesias de Zubiaur y San Pelayo, pertenecientes al Ayuntamiento de Bermeo, y su agregación al de Baquio, ambos de la provincia de Vizcaya.

**Artículo 2.º** La demarcación, deslinde y amojonamiento de los nuevos términos municipales se hará con arreglo a lo dispuesto en los artículos 27, 28 y 29 del Reglamento sobre población y términos municipales de 2 de Julio de 1924.

Dado en Palacio a cuatro de Octubre de mil novecientos veintisiete.

**ALFONSO**

El Ministro de la Gobernación,  
**SEVERIANO MARTÍNEZ ANIDO.**

Gazeta de Madrid, 1927/10/06.

Orduan, auzokoen asmoen aldeko ebazpena hartu zan, ostera. Holan, bada, hasikera baten, 1927ko urriaren 4ko Errege Lege Dekretuaren bitartez lortu zan "Bermeoko udalerrikoak ziran Zubiaur eta San Pelayo eleizateak banandutea eta Bakiogaz bat egitea (...)".

Halanda be, Bermeoko Udalak ebazpen horren kontrako errekursoa aurkeztu eban Gorengo Auzitegian, eta, ostean, Bakioko Udalak be errekursoa aurkeztu eban udal-lurren arteko mugariak zehaztu ebazan 1929ko abenduaren 4ko Errege Aginduaren aurka<sup>9</sup>.

Errekurso horreek aurkeztean, zehaztasun bako epealdia sortu zan. Ondorio ofizialei begira, auzo horreek Bakiokoak baziran be (Erregistro Zibila, huteskunde-barrutiak...), Bermeok bertako udalaren menpe egozan zerbitzuak eta instalazioak kontrolatzen segidu eban (eskolak, berbarako), harik eta azken epaiak auzia behin betiko ebatzi eban arte<sup>10</sup>.

Prentsan bertan be emon zan auzi horren barri. Halanda ze, *Euzkadi*<sup>11</sup> egunkarian, udalerrri bietako biztanleek bialdutako eskutitzak emon ziran argitara, eta, bertan, alderdi bakotxarentzat mingarriak ei ziran irainak azaltzen ziran. Hain zuzen be, eztabaidea be sortu zan San Joan Lepamoztuaren eguna edo San

En esta ocasión sí que se resolvió a favor de las aspiraciones del vecindario, de manera que, en un primer momento, se logró que por Real Decreto – Ley del 4 de octubre de 1927 se accediese "a la segregación de las anteiglesias de Zubiaur y de San Pelayo, pertenecientes al Ayuntamiento de Bermeo, y a su agregación al de Baquio (...)".

Sin embargo, esta resolución fue recurrida por el Ayuntamiento de Bermeo ante el Tribunal Supremo, así como también fue recurrida posteriormente, esta vez por el Ayuntamiento de Bakio, la Real Orden del 4 de diciembre de 1929 que había fijado el deslinde entre los terrenos municipales<sup>9</sup>.

La interposición de estos recursos generó un período de indeterminación. Aunque a efectos oficiales estos barrios ya se consideraban integrados en Bakio (Registro Civil, circunscripciones electorales, etc.), Bermeo retuvo el control de los servicios e instalaciones que dependían de su Ayuntamiento (p. ej. las escuelas) hasta que la Sentencia final resolvió definitivamente el pleito<sup>10</sup>.

Este litigio también se trasladó a la prensa y, así, en el diario *Euzkadi*<sup>11</sup> se publicaron varias cartas remitidas por vecinos de ambos municipios en las que afloraban los agravios que cada parte entendía que le afectaban, llegando incluso a polemizar por la campa de Urizarreta<sup>12</sup>, don-

<sup>9</sup> 1930/01/27ko Madrilako Aldizkaria./ Gaceta de Madrid del 27/01/1930.

<sup>10</sup> Inguruabar horregaitik, gatxa izan da lan honetan gogora ekarritako persona batzuen jatorriaren ganeko informazioa bilatzea. / Esta circunstancia ha dificultado la búsqueda de información sobre los orígenes de algunas de las personas recordadas en este trabajo.

<sup>11</sup> 1931ko bagilaren 4ko, 14ko eta 21eko aleak. / Ejemplares de los días 4, 14 y 21 de junio de 1931.

<sup>12</sup> Jatorriz, Oruezarreta edo Orbezarreta. / Originariamente Oruezarreta u Orbezarreta.

Joan Doloz eguna egiten zaneko (eta gaur egun be egiten daneko) Urizarretako<sup>12</sup> zelaiaren inguruan.

Azkenean, 1932ko garagarriaren 9ko epaiaren bidez, 1927ko urriaren 4ko Errege Lege Dekretuaren balioaren aldeko ebazpena emon zan, eta, unada horretan, San Pelaio eta Zubiaur auzoak Bermeoko uritik banandu eta behin betiko bat eginda lotu ziran Bakioko eleizateagaz.

Jazokera hori ospatuteko, Bakioko Udalak 1932ko urriaren 1ean erabagi eban *“mezea, bazkaria eta erromeria egitea, San Pelaio eta Zubiaur auzoak eleizate honegaz bat egin izana behar besteko gorentasunaz ospatuteko”*. Ospakizun hori hiru egun geroago egin zan, urriaren 4an, hatan be.

### Biztanleak, euren banaketea eta baliabideak

Gerra Zibila baino lehenagoko sasoiari, baieztu egiten dogu Bakion 1930eko abenduaren 31n egiaztaturako biztanle-erroldearen emoitzea honako hauxe zana: egitatezko biztanleak, 1.340 lagun (649 gizon eta 691 andra); eta zuzenbidezko biztanleak, 1.420 lagun (733 gizon eta 687 andra)<sup>13</sup>. Oso kontuan hartu beharra dago datu horreetan Zubiaur eta San Pelaio auzoetako biztanleen kopurua dagoala sartuta, bat egite horregaitik Bakioko biztanleen kopurua bitu egin zalako praktikan. Lau urte geroago, 1934an, honako hauxe zan *“biztanleen erroldearen”* emoitzea: zuzenbidezko biztanleak, 1.635 lagun; eta egitatezko biztanleak, 1.596 lagun.

1943ko erroldan, gerraostearen hasieran, zuzenbidezko 1.319 biztanle eta egitatezko 1.215 biztanle egozan<sup>14</sup>.

de se celebraban (y aún hoy en día se celebran) los festejos de San Juan Degollado.

Finalmente, por Sentencia del 9 de julio de 1932, se resolvió favorablemente la validez del Real Decreto-Ley del 4 de octubre de 1927, momento en el que los barrios de San Pelaio y de Zubiaur se segregaron de la villa de Bermeo y pasaron a formar parte, ya de manera definitiva, de la anteiglesia de Bakio.

Para celebrar el acontecimiento, el Ayuntamiento de Bakio acordó, el 1 de octubre de 1932, *“celebrar misa, banquete y romería a fin de festejar con la solemnidad que el caso requiere la anexión de los barrios de San Pelayo y Zubiaur a esta anteiglesia”*. Dicha celebración tuvo lugar tres días más tarde, el 4 de octubre.

### La población, su distribución y recursos

Refiriéndonos a la época previa a la Guerra Civil, constatamos que el censo de población de Bakio, verificado a fecha 31 de diciembre de 1930, arrojaba el siguiente resultado: población de hecho, 1.340 personas (649 varones y 691 mujeres) y población de derecho, 1.420 personas (733 varones y 687 mujeres)<sup>13</sup>. Hay que tener en cuenta que en estos datos ya se está computando la población de los barrios de Zubiaur y San Pelaio, anexión que supuso que la población de Bakio se duplicara en la práctica. Cuatro años después, en 1934, el resultado del *“padrón de vecindad”* era el siguiente: población de derecho, 1.635 habitantes y población de hecho, 1.596 habitantes.

En el censo del año 1943, en el inicio de la posguerra, constaban 1.319 habitantes de derecho y 1.215 de hecho<sup>14</sup>.



Bakio 1930 inguruan. / Bakio hacia el año 1930. (Archivo Lucien Roisin agiritegia).

<sup>13</sup> Egitatezko biztanleak: udalerrian bertan era fisikoa dagozanen moltsoa. Zuzenbidezko biztanleak: udalerrian bertan erroldatuta dagozanak. / Población de hecho: el conjunto de la que se encuentra físicamente en el municipio. Población de derecho: la que está empadronada en el municipio.

<sup>14</sup> BUA. 1944/02/26ko aktea. Sig.: 0113/005. / AMB. Acta del 26/02/1944. Sig.: 0113/005.

orr.

Urte horreetan, bakiotar gehienek baserriaren inguruan garatzen eben euren bizimodua, lurak ereitea eta ganadua jagotea zalako euren zeregin nagusia. Mahastiak zabal-zabalak ziran, eta mahatsa bera txakolina egiteko erabilten eben.

Ezaguna be bada Bakion zainzuriak ereiten zirana eta, horretarako, haretzako hareea erabilten ebena. Gaur egun, oindinokarren harrigarriagoa izan leiteke guretzat udalerrian bertan garia be ereiten zana jakitea. Izan be, eskualdean batzeko egozan erakundee-tara eroaten zan ogiketea (1935. urtera arte, Gernika-ko Gari Kontratazinorako Batzarraren menpe egozan).

Neurri handian, nekazaritzatik lortutako produktua zan biztanleen bizibidea. Artoaren ekoizpena handi-handia zan, eta, era beratan, udalerrian egozan errota ugariakaz be baegoan lotuta.

Nabarmendu beharra dago 1931ko garagarrila-ren 2an harri-txingordun ekatx ikaragarria egon zala Bizkaiko herri askotan (Bakio, Mungia, Morgia, Zornotza...) eta kalte handiak sortu ebazala soloetan zein ondasunetan. Sekulako ezbeharra izan zan, hurrengo negurako janaria izan behar ziran uztak galdu ziralako bertan.

Bakion, hain zuzen be, bestelakoa izan behar izan eban, udal-aktetan zer azaltzen dan kontuan hartuta. Bertan adierazoten dan lez, Bakioko Udalbatzak eskerrak emon eutsezan probintziako udal ugariei diru-laguntzea emotearren.

En esos años, la mayor parte de los bakiotarras desarrollaban sus vidas en torno al caserío, con el laboreo de las tierras y el cuidado del ganado como principales tareas. Eran amplias las plantaciones de uva, cuya producción era destinada a la elaboración del txakolin.

Es conocido que también en Bakio se cultivaba el espárrago, haciéndose uso para ello de la arena de la playa. Más nos puede sorprender actualmente que también hubiera plantaciones de trigo en la localidad, cuya producción era entregada a entidades comarcales de recogida (hasta el año 1935 se dependía de la Junta de Contratación de Trigo de Gernika).

El sustento de la población se basaba, en gran medida, en el producto obtenido de la agricultura, con una importante producción de maíz, que iba igualmente vinculada al elevado número de molinos establecidos en el municipio.

Hay que reseñar cómo el día 2 de julio de 1931 una terrible tormenta con pedrisco cayó sobre numerosos pueblos de Bizkaia (Bakio, Mungia, Morgia, Zornotza, ...) causando enormes daños en las huertas y en los bienes, lo que supuso una gran desgracia puesto que se perdieron las cosechas que debían servir de manutención a lo largo del siguiente invierno.

En el caso concreto de Bakio, la destrucción debió de ser enorme, como se deduce de lo recogido en diversas actas municipales, en las que consta el agradecimiento del Pleno bakiotarra a los numerosos ayuntamientos de la provincia que hicieron entrega de ayuda económica.

Bilbao 4, 4 tarde. El alcalde de Baquio comunicó al gobernador que una tormenta arrasó los campos, arruinando a los labradores.

El Ayuntamiento acordó auxiliar a los damnificados y dirigirse a la superioridad reclamando ayuda.

En la Diputación se presentaron nutridas comisiones de Amorebieta, Baquio, Munguía, Morgia y otros pueblos, con los alcaldes respectivos, los cuales se entrevistaron con el presidente de la Comisión gestora, exponiéndole detalladamente los daños ocasionados por el pedrisco de ayer y por el temporal de lluvia de estos días, que ha dejado en situación angustiosísima a numerosas familias de aquellos Municipios.

El presidente de la Comisión gestora suplicó a los alcaldes que envíen oficios detallando los daños registrados en cada pueblo para que la Comisión gestora acuerde lo que estime pertinente.

Estas mismas comisiones se entrevistaron momentos después con el gobernador civil, que, a su vez, les indicó la conveniencia de que le presentasen un escrito para dar traslado del mismo al Gobierno, por si éste decidía indemnizarles en parte de esos daños

Abeltzaintzeari jagokonez, Udalak 1931. urtearen amaieran zabalduzako jakinarazpenaren arabera, danetara 5 ganadu-ermandade egozan udalerrian: *San Martín* (Daniel Garai zan burua), *San Antonio* (Leandro Oraindi zan burua), *Santa Katalina* (Fulgencio Garai zan burua), *Mintuatze* (Miguel Barturen zan burua) eta *Urizarreta*. Guztiak *Bizkaiko Abeltzainen Federazioan* egozan, eta 161 kide ziran danetara<sup>15</sup>.

Ermandade horreek gremioak ziran, eta, batez be, honako hauxe zan euren eginkizuna: alkarri laguntzea eta segurtatzea, bazkea alkarregaz erostea...

Ukertzeko modukoa danez, lehen sektoreagaz artezean lotutako jarduerak ez eze, merkataritzearen, ekoizpenaren, artisautzearen... arloko beste jarduera batzuk be garatu behar ziran Bakioko ekonomiari begira.

Hurrengo informazioa 1929. urteko "Euskadiko Merkataritzearen, Industriaren, Ogibideen eta Zergen Urtekarrian" azaltzen da. Bertan, hain zuzen be, udalerriko administrazinoko, epailetzako eta eleizako agintari nabarienak nortzuk ziran agertuten zan, baia, horrezaz ganera, udalerriko jarduera ekonomiko nagusiak zein ziran jakiteko aukerea be emoten deusku:

Respecto a la ganadería, de acuerdo con una notificación extendida por el Ayuntamiento a finales del año 1931, constaban en el municipio un total de 5 hermandades ganaderas: la de *San Martín* (presidente Daniel Garai), *San Antonio* (presidente Leandro Oraindi), *Santa Catalina* (presidente Fulgencio Garai), *Mintuache* (presidente Miguel Barturen) y *Urizarreta* acogidas a la *Federación de Ganaderos de Vizcaya* y que sumaban un total de 161 asociados<sup>15</sup>.

Estas hermandades tenían carácter gremial, con una función primordialmente de socorro y aseguramiento mutuo, compra conjunta de forraje, etc.

Lógicamente, además de las actividades directamente vinculadas con el sector primario, la actividad económica de Bakio necesitaba contar con otras actividades de carácter comercial, productivo, artesanal, etc.

La siguiente información viene recogida en el "Anuario del Comercio, Industria, Profesionales y Tributación del País Vasco" correspondiente al año 1929 y, además de reflejar la identidad de las más destacadas autoridades administrativas, judiciales y eclesiásticas del municipio, permite hacernos una idea de las principales actividades económicas en el municipio:

<p><b>Bakio</b> P. j. de Guernica. Anteiglesia de 692 hab. de H. y 729 de D., a 27 km. de Bilbao y 25 de Guernica. Carretera de Bilbao a Bermeo. F. C. Estac. más próxima a 12 km. en Munguía, línea de L. M. Teléfono. Servicio de automóviles a Munguía combinado con el F. C.</p>	
<p><b>Alcalde.</b>—D. Máximo Zabala.  <b>Secretario.</b>—D. Ciriaco Eguía.  <b>Juez municipal.</b>—Don Juan C. Gaubeca.  <b>Fiscal.</b>— D. Carlos Bilbao.  <b>Secretario.</b>—D. Domingo Laucirica.  <b>Parroco.</b>— D. Felipe Jaureguizar.  <b>Coadjutor.</b>—D. Aniceto Elorriaga.  <b>Abnceerías</b>                  Barturen (Adrián).</p>	<p>Bilbao (Carlos).                  Garay (Fulgencio).                  Garay (Pedro).                  Larragan (Antonio).                  Olascoaga (Severiano).  <b>Abonos minerales</b>                  Garay (Nemesio).                  Ugalde (Justo).  <b>Barberías</b>                  Laucirica (Domingo).                  Longaray (Cecilio).  <b>Cafés</b>                  Longaray (Cecilio).  <b>Carniterías</b>                  Garay (Ciriaco).</p>
<p><b>Carpinterías</b>                  Arruzabala (Eutiquiano).                  Bilbao (Raimundo).                  Garay (Fulgencio).                  Larrauri (Faustino).  <b>Carpinterías de armur</b>                  Zabala y Uriarte.  <b>Casas de comidas</b>                  Bilbao (Carlos).                  Garay (Fulgencio).                  Garay (Pedro).                  Longaray (Cecilio).  <b>Cereales</b>                  Abio (Pedro).                  Bilbao (Carlos).                  Garay (Nemesio).                  Ugalde (Justo).  <b>Colegios de enseñanza</b>                  HH. de la Doctrina Cristiana.  <b>Chacoli</b> (Compraventa)                  Bilbao (Domingo).</p>	<p>Garay (Domingo).                  Garay (Nemesio).                  Iturrioz (Segundo).  <b>Ebanisterías</b>                  Zabala y Uriarte.  <b>Fondas</b>                  Bilbao (Carlos).  <b>Herrerías</b>                  Zabala (Máximo).  <b>Ladrillo y cal</b>                  Elorriaga (Juan).  <b>Médicos</b>                  Cirada (José M.<sup>a</sup>).  <b>Sociedades</b>                  La Recreativa Baquiense.  <b>Tabernas</b>                  Olascoaga (Severiano).  <b>Telidos</b>                  Garay (Pedro).                  Ortubay (Vda. de).  <b>Tecinerías</b>                  Laucirica (Ricarda).  <b>Vinos</b> (Almacenes de) Ayuntamiento.</p>

Zerrendea zehatzagoa agertzen da 1932. urteko "Aberastasun industrialaren indizearen udal-liburuan". Bertan, Bakion be garatzen ziran beste jarduera batzuk aitatzen dira, eta zergapean be baegozan; barbarako, *igeltseruak*, *jostunak*, *kinkilen salmentea...*, *tabernak*, "bainuetarako txabolak" eta ibaiko bokalean egoan "kare harrobia eta lantegia". Batzuetan, persona berak era bateko eta besteko jarduerakaitik ordaintzen ebazan zergak.

Una relación más exhaustiva la encontramos en el "Libro municipal del índice de riqueza industrial" fechado en el año 1932 y en el que se recogen otras actividades, también establecidas en Bakio, y sujetas al pago de tributos, tales como *albañil*, *modistas*, *venta de quincalla...*, y diversas *tabernas* e incluso "las casetas de baños" además de la "cantera y fábrica de cal" situada en la desembocadura del río. En algunas ocasiones, una misma persona tributaba por diversas actividades.

<sup>15</sup> Salamancako Paperak. Gerra Zibilaren Atala - Serie PSko Inbentarioa - Bilbo. EAH - 203/8 (241. erroilua). / Papeles de Salamanca. Sección Guerra Civil - Inventario de la Serie P.S. - Bilbao. EAH - 203/8 (rollo 241).

Orf.

“Industrialagoak” ziren instalazinoei jagokenez, azpimarratu beharra dago apurka-apurka euren jardue-rea itxi ebela udal-mugar-tean bertan finkatuta egozan burdinolek. Bakio<sup>16</sup>, 8 burdinola be egon ziran (Goikolea, Ondarra, Bengolea eta Ureta, besteak beste), baia, XVII. gizalditik aurrera, euretariko batzuk zarratu egin ziran, beste batzuk errota egin ziran eta beste batzuk burdinola zein errota moduan segidu eben beharrean. Hori dala eta, esan leiteke euren emonkortasuna ez zala lar handia, honako honeexen baldintzapean egozalako bete-betea: indar eragilea emoten eutsen ibaiaren ur-etorria, sano lantzean behingoa zalako orokorrean, eta erabilgarri egozan ikatza eta burdingaia. Alogerpean ustiatzen ziran, jatorridun familienak ziran-eta.

En cuanto a las instalaciones con un carácter más “industrial”, ha de apuntarse que, de forma progresiva ya habían cesado en su actividad las ferrerías que se asentaban dentro del término municipal. Bakio<sup>16</sup> llegó a tener hasta 8 ferrerías (entre ellas las de Goikolea, Ondarra, Bengolea y Ureta) pero a partir del siglo XVII algunas de ellas cerraron, varias se convirtieron en molinos y otras continuaron su actividad como ferrería y molino. Se puede deducir que su productividad no era elevada al estar fuertemente condicionada al caudal del río que les surtía de fuerza motriz, por lo general muy intermitente, y a la disponibilidad del carbón y del mineral de hierro. Su explotación era en forma de arrendamiento, correspondiendo su propiedad a familias de raigambre.



Karobiaren eta labearen kokapena 1919.urtean. / Ubicación de la cantera y horno de cal en el año 1919. (Indalecio Ojanguren).

Erroten iraupena, barriz, oso ezbardina zan. Izan be, beharrezkoagoak ziran, ezinbestekoak ziralako zerealak prozesetako eta, ostean, jateko.

Sasoi horretan, honako honeexek dira arroa kurutzatzen daberen erreka eta ibai guztietan abian egozan errotak: Goikolea, Kurtzikene (Gaztañezarreta), Olatxu, Eitzaga, Bekoerrotta, Errotabarri, Telleria, Urgitxi, Ureta, Azeretxokoerrota eta Olabarri. Hori dala eta, holako ekipamentuen kopurua handi-handia zan, Busturialdean egozan errota guztien %20 ziralako, gitxi gorabehera<sup>17</sup>.

Muy distinta era la pervivencia de los molinos, cuya presencia es más necesaria puesto que resultaban imprescindibles para el procesamiento y posterior consumo de los cereales.

Los molinos que funcionaban en esta época en el conjunto de las regatas y ríos que recorren la cuenca eran los de Goikolea, Kurtzikene (Gaztañezarreta), Olatxu, Eitzaga, Bekoerrotta, Errotabarri, Telleria, Urgitxi, Ureta, Azeretxokoerrota y Olabarri, lo que suponía un número considerable de este tipo de equipamientos, pues venía a suponer aproxi-

<sup>16</sup> Hau da, Bakiok eta Zubiaur zein San Pelaio auzoek bat egin baino lehen osotutako lurraldea. / Entiéndase referido al territorio conformado por Bakio y los barrios de Zubiaur y de San Pelaio antes de la anexión.

<sup>17</sup> GUTIÉRREZ IBARRECHEBEA, A.M., MUÑOZ LOBO, J.J. eta ARIZTONDO AKARREGI, S. La industria molinera en Vizcaya en el siglo XVIII. 1984. / GUTIÉRREZ IBARRECHEBEA, A.M., MUÑOZ LOBO, J.J. y ARIZTONDO AKARREGI, S. La industria molinera en Vizcaya en el siglo XVIII. 1984 .

Errotek kasuan-kasuan eukiezan errotarren kopuruaren arabera ordaintzen ebezan zergak, eta, gitxi gorabehera, bat eta lau artean eukiezan.

Azkenik, gogoan be euki behar da elektrizitatea sortzeko zentrala be baegoana Bakion. Goikolan egon, gaur eguneko errepide nagusiaren alboan, eta Zarraga ibaiko goiko aldeko ibilguko ura batzen eban. Hasi keran, *“indar eragilea ustiatzeko asmotan Infernuko Trokako (Bermeo) Zarraga erreka ur-jauziari onurea ataratea helburu eukan”* “Electra Industrial de Baquio” soziedadeak ustiatu eban zentral hori, eta “soziedade horrek Bilbon eukan beraren egoitzea”. Gero, 1910. urtean, Bermeoko Euskaria soziedadeagaz eta Electra de Bedia soziedadeagaz bat egin eban, eta Irurak-Bat<sup>18</sup> enpresa elektrikoak eratu eban.


Soziedade horretan, Bakiokoa zan Aurelio Artetxe Arana jaunak behar egin eban gaztetan. Gerra Zibila hasi zanean, erbestera joan behar izan eban, eta, atzera etorritakoan, Mungian dagoan “Arteche Hermanos” enpresea sortu eban.

madamente el 20% del total de molinos de la comarca de Busturialdea<sup>17</sup>.

Estos molinos tributaban dependiendo del número de piedras de moler que disponían en cada caso y que oscilaban entre una y cuatro.

Por último, cabe también recordar que Bakio contaba con una central de producción eléctrica que se ubicaba en Goikolea, junto a la actual carretera general, y que captaba el agua en el curso alto del río Zarraga. Esta central fue explotada inicialmente por “Electra Industrial de Baquio”, sociedad constituida con objeto de *“aprovechar el salto de agua del arroyo Zárraga en el barranco del Infierno (Bermeo) para la explotación de fuerza motriz, teniendo su domicilio social en Bilbao”*. Posteriormente, en el año 1910, esta se fusionó con la sociedad Euskaria de Bermeo y con la sociedad Electra de Bedia, conformando la Eléctrica Irurak-Bat<sup>18</sup>.

En esta sociedad trabajo en su juventud, como ingeniero, Aurelio Artetxe Arana, vecino de Bakio que hubo de exiliarse al comienzo de la Guerra Civil, fundando a su regreso la empresa “Arteche Hermanos”, emplazada en Mungia.



1934. urteko mapa kartografikoa. Zentral elektrikoaren non egoan ikusten da bertan. / Mapa cartográfico del año 1934, reflejando la ubicación de la central eléctrica.

50eko hamarkadearen amaieran, sasoi haretan instalazioetako titularra zan Iberduero SA enpresara jo eban Udalak, *“ur-jauzia eta eranskinak (...) erosteko, beraren ur-etorriaren bidez behin betiko eta urte askotarako konponduko ebalako bertako auzokoentzako edateko uraren hornikuntza isurikoarraren preminazko arazoa (...)”*.

Enpresa elektrikoak eta Bakioko Udalak akordua berbatu eban, zentral elektriko txiki horrerri amaiera emoteko.

A finales de la década de los 50, el Ayuntamiento se dirigió a la ya entonces titular de las instalaciones, Iberduero S.A., al objeto de *“adquirir el salto de agua y sus pertenecidos (...) ya que con el caudal que el mismo arroja resolvería de un modo definitivo y para muchos años, el acuciante problema de un normal abastecimiento de agua potable a este vecindario (...)”*

La empresa eléctrica y el Ayuntamiento de Bakio llegaron a un acuerdo con el que se dio fin a la vida de esta pequeña central eléctrica.

<sup>18</sup> 1911/5/10eko *La energía eléctrica* aldizkaria. / Revista *La energía eléctrica* del 10/5/1911.

orr.

Adierazotakoaren ondorioz, argi eta garbi dago Bakion bertan industria-bilbe nabaririk ez egoana. Hori dala eta, ez zan gizarte eta behar arloko gorabeherak sortu bertan, 30eko hamarkadan, Gerra Zibilaren aurretik, beste udalerrri eta eskualde batzuetan jazo zan lez. Sasoi haretan, herrialde osoan krisi ekonomikoa nagusi zanez, ordura arte arlo politiko zein ekonomikoetan eta gizarte zein behar arloko hartu-emonetan ezarritako sistema onartzen eban gizartea matxinatu zan.

## ESKOLAK

1931n II. Errepublikaa ezarri zanean, lau ikastetxe egozan Bakion, eta bakotxak beraren inguruabar bereziak eukazan.

Bakioko udalerrriari berez egokon “*Eskola Nazionala*” “*Urkitzaurrealden*” edo “*Eskolalden*”<sup>19</sup> egoan, eta nesken-tzako irakaskuntzea emoten zan bertan.

De lo expuesto se concluye, claramente, la ausencia de un entramado industrial relevante en Bakio, por lo que no se llegó a dar la conflictividad social y laboral presente en otros municipios y regiones en los años 30 como preludio a la Guerra Civil, en los que la crisis económica, que era generalizada en todo el país, desencadenó la rebelión de una sociedad que permanecía condescendiente con el sistema establecido, tanto en los aspectos políticos y económicos, como en lo referente a las relaciones sociales y laborales.

## LAS ESCUELAS

Cuando en 1931 se instauró la II República, Bakio contaba con cuatro edificios con función docente, en cada uno de los cuales concurrían circunstancias particulares.

Como “*Escuela Nacional*” que correspondía propiamente al municipio de Bakio estaba la emplazada en “*Urkitzaurrealde*”, paraje también llamado “*Eskolalde*”<sup>19</sup>, y que estaba destinada a la enseñanza a las niñas.



Urkitzaurreko eskola eta, bat eginda, udaldea. / Escuela de Urkitzaurre y ayuntamiento. (Aintzane Bilbaok itxitakoa / Cedida por Aintzane Bilbao).

Eraikinean udaldea be baegoan kokatuta, mutilek egokitu beharko litzakien gelatan, hain zuzen be. Honek garetiko eskola bitan bananduta egozan. Egoera hori, 1930eko hamarkadatik 1950eko hamarkadearen bigarren erdira arte luzatu zan. Harrezkeroan, alde batetik, udaldea Villa Genara izeneko eraikinera aldatu zalako eta, bestetik, toki beratan eta Bentan eskola publiko barriak eregi ziralako.

Beste hezkuntza-ekipamentu bi be baegozan, hau da, “*San Pelaioko eskolea*” edo “*Bentako eskolea*”, mistoa zana eta Bentalde inguruan egoana, eta “*Auzodiko eskolea*”, Zubiaurren egoana<sup>20</sup> eta neskentzat zana.

Compartía el edificio con las dependencias del ayuntamiento, que ocupaba la mitad que correspondería a las aulas para niños pues estos estaban repartidos entre dos de las escuelas restantes. Esta situación se mantuvo desde la década de 1930 hasta la segunda mitad de la década de 1950, con el traslado, por una parte, del ayuntamiento a la conocida como *Villa Genara* y, por otra, la construcción de las nuevas escuelas públicas, una en este mismo emplazamiento y, otra, en La Benta.

Otros dos equipamientos educativos eran la “*Escuela de San Pelayo*”, denominada igualmente como “*Escuela de la Venta*”, que era mixta y se ubicaba en la zona de Bentalde, y la “*Escuela de Barriada*”, situada en Zubiaur<sup>20</sup>, que era femenina.

<sup>19</sup> Gaur egun, “*Estankoalde*” esaten jako. / Actualmente conocido como “*Estankoalde*”.

<sup>20</sup> Gaur eguneko olgeta-gune publikoan egoan, Zubialde etxearen alboan. / Se levantaba sobre la actual zona pública de juegos, junto a la casa Zubialde.

Halanda be, nabarmendu beharra dago eskola bi horreen ganeko jurisdikzinoa Bermeoko Udalarena zala oso-osorik, harik eta auzo biak Bakioko udalerrian benetan sartu ziran arte, behintzat.

Udal bermeotarrak eskola horreek jagoteko behar ziran beharrak egiten ez ebazanez, Bakioko Udal Korporazioak behin eta barriro egiten ebazan erreklamazioak, familia interesdunen kexen barri emoteko eta Bermeokoari hori guztia konpondu eiala eskatzeko, eskabide horri behar dan lez erantzuten ez eutsalako.

“Auzodiko Eskolak” “Eskola Nazionalen” alternatibea zan hezkuntza-esperientzia nabaria izan ziran, eta Bizkaiko Aldundiak sustatu ebazan 1919. urtetik aurrera. Horrezaz ganera, nazionalista ezagunek be bultzatu eben, batez be landa-inguruneetako eta meatzaritzako zein industriako auzoetako analfabetismo-maila handiak gixitzeko moduko ikastetxeak sortu gurean. Bestetik, lehenengoz, euskeraz irakatsi zan eredu ofizialean bertan. Ostean, eredu berbera ezarri zan Gipuzkoan “landa-eskolen” bitartez.

Dana dala, 1921etik aurrera, herrialdeko eskolak ardurapean eukazan Valladolideko Unibersidadeko errektoreak emondako erespenaren ostean, maisu-maistrek gaztelan idatzita egozan testuliburuak erabili behar izan ebazan derrigorrean; eta euskerea bera, irakaskuntzarako lagungarri moduan baino ez.

Pero es preciso anotar que sobre estas dos escuelas ejercía jurisdicción plena el Ayuntamiento de Bermeo, al menos hasta que se hizo efectiva la anexión de dichos barrios al municipio de Bakio.

La dejación por parte del Ayuntamiento bermeotarra de los trabajos necesarios de mantenimiento de dichas escuelas era motivo reiterado de reclamación por parte de la Corporación municipal de Bakio, que recogía las quejas de las familias afectadas, e instaba al de Bermeo para que procediese a su arreglo, petición que no era atendida debidamente.

Las “Escuelas de barriada” constituyeron una relevante experiencia educativa alternativa a las “Escuelas nacionales”, promovida por la Diputación de Bizkaia a partir del año 1919 e impulsada por personalidades nacionalistas con el objeto de crear centros de educación para reducir los elevados niveles de analfabetismo, sobre todo de las zonas rurales y de los barrios minero-industriales, siendo la primera ocasión, dentro de un modelo oficial, en la que se impartía la enseñanza en euskera. Posteriormente se seguiría el ejemplo en Gipuzkoa con las “Escuelas rurales”.

Pero a partir de 1921, tras un dictamen del rector de la Universidad de Valladolid, de la que dependían las escuelas del país, los maestros y maestras se vieron obligados a utilizar los libros de texto que estaban escritos en lengua castellana y a emplear la lengua vasca solo como medio auxiliar de enseñanza.



Zubiaurreko Auzodiko Eskola. / Escuela de Barriada de Zubiaur. (BAUA/AMBA).

Zubiaurko “Auzodiko eskolea” 1921. urtetik 1929. urtera arte egon zan zabalik, urte horretan “errazoi ezezagunakaitik zarratu ebelako”, 1934ko apirilaren 24ko udal-aktean adierazoten dan lez. Bertan be, aitatu egiten da 50 familiak baino gehiagok idatzia aurkeztu ebela eskolea ostera be edegi eiala eskatzeko. Eskabide hori Bizkaiko Aldundira bialdu zan.

La “Escuela de Barriada” de Zubiaur estuvo abierta desde el año 1921 hasta el año 1929, en el que “fue cerrada por causas que se desconocían”, tal y como lo recoge el acta municipal del 24 de abril de 1934, que también alude a la presentación de un escrito por parte de más de 50 familias solicitando su reapertura, petición que fue trasladada a la Diputación de Bizkaia.

orr.

Zoritzarrez, eskola horretako hormak garbitu eta zuritu egin ziran arren eta beraren bisitaldian Irakaskuntzako ikuskatzaileari behar dan moduko kontua emon jakon arren (45 pezetako gastua egin zan), 1929. urteko bertako bagilean, Diputazio Probintzialeko Kudeaketa Batzordearen erabagia jaso zan, eta ostera be edegiko ez zala esaten eban bertan.

Aurreko hiru eskolak ez eze, *La Purísima Concepción* ikastetxea be baegoan Bakion, eta Elexalde bidean egoan. Bertan, “Menesianoak” kongregazio erlijioso frantseseko anaiek irakasten eben, eta 1904an ailegau ziran Espainiara, herrialde frantsesetik bota ebezanean.

Anaia menesiano horreen irakaskuntza-jarduerearen jatorria Juan Barturen Gangoitik 1914. urtean aitaren omenez sortutako fundazioa izan zan, eta, handik aurrera, Barturen Fundazioa esan eutsien. Ongintzarako eta irakaskuntzarako fundazioa zan, eta “*Bermeoko udalerrikoak ziran Zubiaur zein San Pelaio auzoetako eta Bakioko Basigoko eleizateko neska-mutilei doako irakaskuntza kristinaua*” emotea zan beraren zeregina. Horretarako, “*Altamira izeneko etxea edo Etxepinto*” imini eben sorrerako ondasun moduan. Horrezaz ganera, sorrerearen klausulan azaldutakoa azalduta be, eskola horren inguruan arakatutako aitamen personal guztien arabera, agirikoa da bertako ikasleak mutilak izan zirana beti.

Desgraciadamente, y a pesar de que se procedió a la limpieza y al blanqueo de paredes de dicha escuela, así como a atender debidamente al Inspector de Enseñanza en su visita (se consignó un gasto de 45 pesetas), en el mes de junio de dicho año 1929 se recibió el acuerdo de la Comisión Gestora de la Diputación Provincial denegando dicha reapertura.

Además de las tres escuelas anteriores, contaba Bakio también con el *Colegio de La Purísima Concepción*, ubicado en Elexalde bidea, en el que impartían enseñanza los hermanos de la congregación religiosa francesa de “Los Menesianos” que llegó a España en el año 1904, tras su expulsión del país galo.

El origen de la actividad docente de estos hermanos menesianos estuvo en una Fundación, creada en el año 1914 por Juan Barturen Gangoiti en memoria de su padre, y que pasó a conocerse como Fundación Barturen. Esta fundación era de carácter benéfico-docente y su función era la “*enseñanza gratuita y cristiana para niños y niñas en la Anteiglesia de Básigo de Baquio y los barrios de Zubiaur y San Pelayo, pertenecientes al Ayuntamiento de Bermeo*” aportando, como bien fundacional, “*la casa llamada Altamira o Etxepinto*”. Cabría añadir que, a pesar de lo recogido en la cláusula fundacional, todas las referencias personales recabadas en relación a esta escuela señalan que el alumnado fue siempre masculino.



La Purísima Concepción eskolako ikasleak. / Alumnos del Colegio La Purísima Concepción. (Isidra Agirrek itxikitakoa / Cedidas por Isidra Agirre).



Hasikeran, Barturen Fundazioa hiru patronoren ardurapean egoan: *Manuel Eléspuru y Olaguibel, Celestino Rentería y Goyenechea eta parrokiako abade ekonomoa, Felipe de Jaureguizar y Benguría* <sup>21</sup>.

Halanda ze, Gerra Zibilaren hasikeran, Bakion bertan, hiru eskola egozan zabalik: pribadu bat eta publiko bi. 1958. urtean, azken horreen orde, hau da, *Urkitzurrekoaren eta Bentakoaren* orde, beste barri batzuk eregi ebezan, “*maistreatentzako etxebizitzeta eukien eskola*” bi iminteko. Lehenengoa unitarioa zan (neskentzat), hain zuzen be; eta bigarrena, mistoa. Bestetik, Zubiaurreko “*Auzodiko eskolea*” 1980ko hamarkadan bota eben.

En su inicio, la Fundación Barturen estaba al cargo de tres patronos: *Manuel Eléspuru y Olaguibel, Celestino Rentería y Goyenechea y el cura ecónomo de la parroquia, Felipe de Jaureguizar y Benguría* <sup>21</sup>.

Con todo ello, al comienzo de la Guerra Civil, eran tres las escuelas abiertas en Bakio, una privada y dos públicas, siendo sustituidas estas últimas, concretamente las de *Urkitzaur* y la de *La Venta*, en el año 1958 por unas nuevas construcciones levantadas para albergar sendas “*escuelas con vivienda para la maestra*”, siendo unitaria (chicas) la primera de ellas y mixta la segunda. Por su parte, la “*Escuela de Barriada*” de Zubiaur fue demolida en la década de 1980.

<sup>21</sup> Eraketearen eskriturea. [www.opendata.euskadi.eus/](http://www.opendata.euskadi.eus/) / Escritura de constitución. [www.opendata.euskadi.eus/](http://www.opendata.euskadi.eus/).

Nabarmendu beharra dago 1876. urtean foruak galdu ziranetik, irakaskuntza publikoko irakasleak administrazio zentralaren ardurapean egozala eta euren lurralde-esleipena administrazio horrek egindako izentapenaren bidez ebazten zala. Hori dala eta, ohi-ohikoa zan eskola bakiotar horreetako maisua edo maistrea beste eskualde batzuetakoa izatea. Hain zuzen be, adibide moduan, holantxe adierazoten da lanpostu horreek Ourenseko probintziatik edo Kordobakotik etorritako irakasleek beteten ebezala. Halanda ze, ez da harriztekoa gorabeherak sortzea, ikasleek berez erabiltzen ebelako euskerea eta irakasleek euskeraz tautik be ulertzuten ez ebelako.

Halanda be, euskerea eskolan erabiltea errazoi politikoakaitik galazon eben, batez be, eta, Errepublikako Gobernu barriak irakaskuntza elebiduna babesten eban dekretua<sup>22</sup> onartu baeban be, katalanaren erabileria baino ez eban aitatuten.

Liburu honetarako alkarrizketak egin dabezan persona batzuk Bakioko eskoletara joaten ziran joan dan gizadiko lehenengo zatian, eta argi-argi gogoratuten dabe zelakoa izan zan eskolako esperientzia eta, batez be, zein zan klasea emon eutseen irakasle batzuen izena. “*Urkitzaurreko Eskola*” Jacinta Arostegi (Portugalete) egon zan irakasle; eta, ostean, Emilia Zarate (Sestao). “*Bentako eskolan (mistoa)*”, José Torrelas Rubio (Kordoba) eta Moisés de la Fuente Leiva (Burgos) egon ziran irakasle (azken hori, ganera, Udal Korporaziozino kidea be izan zan); eta, *La Purísima Concepción* ikastetxean, Bakiokoa bertakoa zan Paulino Uriarte (Artza baserrian jaio zan). Azken hori oso jakintsua zan, gazte-gaztetan sartu zan kongregazioan eta, azkenean, bertako maisu egin zan.

Resulta oportuno hacer notar que, a partir de la pérdida de los fueros en el año 1876, el cuerpo de profesores de la enseñanza pública dependía de la Administración central y que su asignación territorial se resolvía mediante el correspondiente nombramiento por parte de la misma. Por ello, lo más frecuente era que el maestro o maestra de dichas escuelas bakiotarras proviniera de otras regiones y así consta, a modo de ejemplo, que estas plazas fueron ocupadas por personas que procedían de la provincia de Orense o de la de Córdoba, siendo lógico entender los conflictos que se originaban por el natural uso del euskera por parte del alumnado y la nula comprensión de este idioma por parte del profesorado.

Aun así, la prohibición del uso del euskera en la escuela tenía mayoritariamente una motivación política y si bien el nuevo Gobierno de la República aprobó un Decreto<sup>22</sup> que amparaba la enseñanza bilingüe, aquél solo se refería al uso del catalán.

Algunas de las personas entrevistadas para la confección de este libro que acudían a las escuelas de Bakio en la primera mitad del siglo pasado, recuerdan claramente su experiencia escolar y, sobre todo, el nombre de algunos de quienes les impartieron clase. En la “*Escuela de Urkitzaur*” estuvo como profesora Jacinta Arostegi (Portugalete) y, posteriormente, Emilia Zarate (Sestao). En la “*Escuela (mixta) de la Venta*” fueron profesores José Torrelas Rubio (Córdoba) y Moisés de la Fuente Leiva (Burgos), quien formó igualmente parte de la Corporación municipal, y en el Colegio de la *Purísima Concepción*, Paulino Uriarte, procedente del mismo Bakio (nacido en el caserío Artza). Este último destacaba por sus conocimientos y se incorporó a la congregación siendo muy joven, terminando siendo maestro de la misma.



Urkitzaur eskolako ikasleak. / Alumnas de la escuela de Urkitzaur. (BAUA/AMBA).

<sup>22</sup> 1931/04/30eko Madriloko Aldizkaria. / Gaceta de Madrid del 30/04/1931.

orr.

## Bizitza administratiboa

Arlo ekonomikoan, diru-iturri ezbardinak erabilten ziran udal-jarduerara finantzetako.

1933. urteko udal-aktetan agertuten diran oharren arabera, diru-sarrera batzuk honako honeexen bidez lortutako errentetatik etozan: udal-eraikinak alogeran emotea (Tabernatxu etxea, maisu-maistren etxea, Alegria etxea, etab.), herri-lurak lanbarrizeko (ereiteko) alogeran emotea, herri-lurretako egurra zein otea saltzea (ohikoa zan txortak enkantearen bidez esleitzea) edo udal-baskulan piseteagaitik zergak kobretea. Era beratan, herrian orioa sartzeagaitik be batzen ziran arielak, eta ardaoak, txakolina zein pattarrak saltzeagaitik eta ura kontsumiduteagaitik be bai. Azken zerga hori era bitakoa zan, ganera: kontagailuaren bidez eta zurrusta askearen bidez. Horrezaz ganera, ondasunakaitik (lurak eta eraikinak) eta ezarritako jarduerakaitik ordaindutako zergak be baegozan.

Era beratan, haretzeari be ataraten jakon onurea, hareea erauztearen »burdien iragaitzarako ezarritako kanonaren» bitartez. Harea hori eraikuntzarako (Mungia-ko eleizea eregiteko, berbarako)<sup>23</sup> erabilten zan, batez be, eta nekazaritzarako be bai, zainzuriak ereiteko, zehatz-mehatz.

Udalerrian sartzen ziran udal-kanonen bat be ordaindu behar eben produktuk kontroletako orduan, zeresan handia eukan «jagoleak», eta herriko sarreran errepidearen alboan egoan «zergategian»<sup>24</sup> garatzen eban beraren jarduerara. Holan, bada, berbarako, beraren zeregina zan oliba-orioaren lata bat gidari barik sartu zala edo txakolinaren mobimentuak behar zan modukoak ez zirala salatzea. Beraren beharraren biztugarri, konfiskautakoaren ehunekoak emoten jakon sari moduan.

## La vida administrativa

En el ámbito económico, las fuentes de ingresos con las que se financiaba la actividad municipal eran diversas.

De acuerdo con las anotaciones recogidas en las actas municipales del año 1933, algunos de esos ingresos provenían de las rentas que se obtenían por el alquiler de edificios municipales (casa Tabernatxu, casa Preceptoría, casa Alegría, etc.), por el arrendamiento de los terrenos comunales para roturación (aprovechamiento para siembra), por la venta de leña y de argoma de los terrenos comunales (era habitual asignar los lotes mediante subasta) o por el cobro de tributos por el pesaje en la báscula municipal. También se recaudaban arbitrios por la introducción de aceite en el pueblo, la venta de vinos, txakolin y de licores y por el consumo de agua, contando este impuesto con dos modalidades: con contador y con chorro libre; además de los correspondientes a la contribución por los bienes (terrenos y edificaciones) y a las actividades implantadas.

Igualmente se sacaba aprovechamiento de la playa, más en concreto, por el «canon de paso de carros» establecido para la extracción de la arena, que era utilizada principalmente para la construcción (por ejemplo, en la construcción de la iglesia de Mungia<sup>23</sup>) y también para el uso agrícola, concretamente, en el cultivo del espárrago.

Una figura relevante en el control de los productos que entraban en el municipio y que estaban sujetos, también, al pago de algún canon municipal, era el «celador», que desarrollaba su actividad en el «fielato»<sup>24</sup>, situado junto a la carretera, en la entrada al pueblo. Así, le correspondía, por ejemplo, denunciar la entrada de una lata de aceite de oliva sin guía o los movimientos irregulares del txakolín. Para incentivar su labor se le gratificaba con un porcentaje de lo decomisado.

Seguidamente se acordó que el celador reciba los derechos que entran a la localidad basándose para en el fielato con el fin de que si introduce mercancías gravadas con impuestos municipales sin guía ni declaración, proceder al decomiso, cediéndole al celador el 50 por ciento de decomiso como gratificación.

Era beratan, ganadua hiltea eta okelea saltzea be baegoan Udalaren zergapean. Udalak berak animalietatik ebagitako zati ezbardinak saltzeko prezioa zehazten eban, eta, ganera, Janarien Batzar Probintzialeko goren-go organuaren onarpena be euki behar eban horretarako. Udalak berak animaliak hiltean sortzen ziran produktu

También el sacrificio del ganado y la venta de carne estaban fiscalizados por el Ayuntamiento, que fijaba el precio de venta de los distintos cortes de los animales que, además, tenía que contar con la aprobación del órgano superior de la Junta Provincial de Abastos. Era el propio Ayuntamiento el que prestaba el espacio en el que se procedía a la

<sup>23</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1940/01/04ko aktea. Sig.: 0002/003. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 04/01/1940. Sig.: 0002/003.

<sup>24</sup> Zergategia: herrietako sarreran egoan bulegoa da, eta, bertan, salgaien zirkulazioaren ganeko udal tasak eta arielak kobretan ziran. / Fielato: oficina situada en la entrada de las poblaciones para el cobro de los arbitrios y tasas municipales sobre el tráfico de mercancías.

horreek saltzeko lekua be ixten eban, eta leku horri harategia edo okelen ohola esaten eutsien; eta oholduna edo harakina, jenteari saltzen eutsanari. Leku horren alogerea be bazan beste diru-iturri bat.

Behar egiteko orduan udalaren aurrekontua gitxi gorabehera zenbatekoa zan jakin gura izan ezker, 1934. urteko kontuetara jo baino ez daukagu, bertan azaldutakoaren arabera, Bakioko Udalaren diru-sarreak 32.057,58 pezetakoak izan ziralako; eta gastuak, 32.727,55 pezetakoak.

Udalaren baliabide ekonomikoak oso mugatuak ziran, eta, ulertzeko modukoa danez, sarri askotan udal-administrazioak era guztietako bideak edo eremuak konpontzeko, udalerriko ibaietako bazterrak garbitzeko edo jabari publikoko guneak atontzeko eskabideei erantzun behar eutsenean, udalak ez eukan behar beste behargin egokiro eskabide horreek behar dan lez beteteko. Halanda ze, *“auzokoek eurek egiten eben, udal-aurrekontuaren kalterako ez izateko”*.

Holakoetan, auzokoei dei egiten jaken, eta, orokorrean, borondatezkoa bazan be, ez beti<sup>25</sup>, zeregin horreek auzolan moduan egin eiezan (jarduera horri *“bidegintzea”* esaten jakon). Ostean, bertan parte izan ziranez zaragi bat ardao emoten jaken ordaintetan, edo bazkaria be egiten zan, eta, zer esanik ez, beti-beti udal-ogasunaren konturakoa zan. Bien bitartean, auzokoen beste talde bat bazkarirako lapa bila joaten zan. Jardunaldi hori bagileko San Joanak baino lehen egiten zan<sup>26</sup>.

Bestetik, batez be nekazaritzan oinarritutako ekonomia sozial horretan, sarri askotan jentea babes barik egoanez, udal-administrazioak ongintzako eginkizunak bete behar ebazan derrigorrean baliabide ekonomiko gitxi eukiezanakaz edo euren preminei aurre egiteko moduko familia-ingurunerik ez eukienakaz.

Holan, batzuetan, Udalak preminea eukienei laguntzen eutsen inguruko osasun-zentroetan sartzen (Bermeo, Gorliz), eta, behar besteko ahalmen ekonomikorik ez baeukien, kasuan kasuko gastuak ordaintzen eutsezan. Era beratan, preminarik euki ezker, jatekoa be emoten jaken (eguneroko ogia), edo udal-jaubetzako eraikinen baten hartzen ebezan alogerea kobrau barik, eta berbera egiten eben babes barik egozan seme-alabakaz.

Bigarren Errepublikako urteetan, Bakioko Udalak aurreko hamarkadan hasitako jarduketak zein obrak egiten segidu eban, udalerririk ur-hornikuntzarako sare publikoa euki eian. Abiapuntutzat hartutako egoeran, baserri gehienek ura Jatako zein Burgoko bizkarretan sakabanatutako iturburuetatik hartzen ebenez, ezinezkoa zan biztanle guztientzako eten bako hornikuntzea bermatzea.

venta de estos productos procedentes del sacrificio animal, denominándose al mismo carnicería o tabla de carnes, y tablajero o carnicero a la persona que despachaba al público, suponiendo su alquiler otra fuente de ingresos.

A la hora de tener un conocimiento aproximado del presupuesto municipal con el que se trabajaba podemos referirnos a las cuentas del año 1934, en el que el Ayuntamiento de Bakio dispuso de unos ingresos de 32.057,58 pesetas y unos gastos de 32.727,55 pesetas.

Los recursos económicos municipales eran muy limitados y, lógicamente, eran frecuentes las ocasiones en las que la administración municipal debía atender las peticiones para que se reparasen caminos o espacios diversos, se procediese a la limpieza de las riberas de los ríos del municipio o se adecentasen ámbitos de dominio público, sin que el Ayuntamiento contase con el personal propio suficiente para satisfacer convenientemente esas demandas. Entonces se acudía a la *“prestación personal del vecindario, a fin de no gravar el presupuesto municipal”*.

Se pasaba a convocar al vecindario, generalmente con carácter voluntario, pero no siempre<sup>25</sup>, para que se ejecutasen tales labores en la forma de trabajo comunitario (actividad conocida como *“bidegintzea”*), siendo posteriormente compensados los intervinientes, bien con el reparto de un pellejo de vino o con la celebración de una comida siempre a cargo, eso sí, de la hacienda municipal, mientras que otro grupo de vecinos se encargaba de recoger lapas para la ocasión. Dicha jornada solía convocarse en fechas previas a la festividad de San Juan<sup>26</sup>.

Por otro lado, en esta economía social de base predominantemente agrícola, era frecuente que se diesen situaciones de desamparo ante las que la administración municipal se veía obligada a asumir funciones de beneficencia para con las personas de escasos recursos económicos o con aquellas que carecían de un entorno familiar que cubriese sus necesidades.

Así, el Ayuntamiento promovía en ocasiones el ingreso de las personas que lo necesitasen en los centros de salud del entorno (Bermeo, Gorliz), haciéndose cargo de los gastos correspondientes en el caso de que no dispusiesen de capacidad económica. También se facilitaba sustento (entrega diaria de pan) o se acogía en alguna de las edificaciones de propiedad municipal, sin cobro de alquiler, a las personas igualmente necesitadas, asumiendo el mismo papel en el caso de los hijos o hijas que se encontrasen desamparados.

En los años de la Segunda República, el Ayuntamiento de Bakio continuó con las actuaciones y obras ya iniciadas en la década anterior para dotar al municipio de una red pública de suministro de agua. Se partía de una situación en la que la mayor parte de los caseríos se servían de aquellos manantiales diseminados por las laderas de Jata y Burgoa, por lo que no era posible garantizar un abastecimiento continuo para el conjunto de la población.

<sup>25</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1931/06/20ko aktea. Sig.: 0009/001. *“Aguazilari agindu jakon auzoko guztiei deitzeko eta bidegintzara joaten ez zanari 6 pezetako isuna imingo jakola esateko”*. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 20/06/1931 Sig.: 0009/001: *“se ordenó al alguacil que avisase a todo el vecindario bajo multa de 6 pts. a quien no acudiese al arreglo de caminos”*.

<sup>26</sup> Auzolaneko azken jardunaldietako baten, eleizan sartzeko eskilarea txukundu eta konpondu egin zan: Kurtzeperioko mailak. / En una de las últimas jornadas de auzolan se adecentó y restauró la escalera de acceso a la iglesia, Kurtzeperioko mailak.

Orf.

Zerbitzu hori lortzeko, akordu ekonomikoak berba-tu behar izan ziran iturri eta iturburu<sup>27</sup> horreetako jau-beakaz, hargune barriak garatu behar izan ziran eta sare barrietako proiektu teknikoak egin behar izan ziran. Urte horreetan, behar ziran azpiegiturak egiteko inbersinoak egin behar izan ziran eten barik, eta dirutza handikoak izan ziran, ganera. Halanda be, ez etozan bat ura kontsumiduteagaitik lortutako diru-sarrerakaz, sarri askotan jenteak ordaintzen ez ebalako eta norberaren kontsumoa kontroletako sistema eraginkorrik ez egoalako, etxebizitza gehienek kontagailurik ez eukiela kontuan hartuta.

Gaur egun be, holako iturburu asko dagoz abian, eta ur-biltegi osogarriak be bai.

Azkenik, sasoi haretan, errepide barriak edegiteko obrak be izan ziran nabarmenak (Goitisologino ailegeten zana, San Pelaiojinokoa, Larraurirako errepidea...). Obra horreek Aldundiaren koordinaziopean egin ziran, ibilgailuen bidezko komunikazioak hobetu ebezan leku altuenetan egozan auzoakaz zein udalerrri mugakidea-kaz (Bermeo, Mungia) eta era guztietako hartu-emonak bultzatu ebezan (personalak, merkataritzakoak...).

Para alcanzar tal servicio fue necesario llegar a acuerdos económicos con los propietarios de dichas fuentes y manantiales<sup>27</sup>, llevar a cabo nuevas captaciones y elaborar los proyectos técnicos de las nuevas redes. Fueron continuas las inversiones que se tuvieron que acometer durante estos años para ejecutar las infraestructuras precisas, inversiones de bastante alcance económico que no se vieron correspondidas con los consiguientes ingresos por el consumo del agua, tanto por ser frecuentes los casos de impago como por la falta de sistemas efectivos de control del consumo particular, al carecer de contador la mayor parte de las viviendas.

Todavía hoy en día se conservan en uso gran número de estos manantiales, así como los depósitos de almacenamiento complementarios.

Por último, también fueron muy relevantes en esta época las obras de apertura de nuevas carreteras (la que llegaba hasta Goitisoló, hasta San Pelaio, la carretera a Larrauri, etc.) que se acometieron en coordinación con la Diputación y que posibilitaron la comunicación rodada con los barrios más elevados y con los municipios limítrofes (Bermeo, Mungia), favoreciendo todo tipo de relaciones (personales, comerciales, etc).



## Bizitza soziala

XX. gizaldiko lehenengo hamarkadetan, ohiturea zan domeketan eta jaiegunetan erromeriak egitea, eta honako honeexek sortzen eben giroa: tanbolinteroa (txistularia), soinu-jolea edo gramofonoa. Ganera, ezinbestekoa zan otoitz-ordua baino lehen amaitzea, eta, holan ez bazan, isuna be iminten zan.

## Vida social

Durante las primeras décadas del siglo XX era costumbre que se celebrasen romerías los domingos y los días festivos, las cuales solían estar amenizadas por un tamborilero (txistulari), acordeonista o haciendo uso de la gramola, imponiéndose como condición ineludible el que debían finalizarse antes de la hora de oración, llegándose a imponer multa cuando no se daba cumplimiento a tal requisito.

<sup>27</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1929/12/15eko aktea. Sig.: 0009/001. Besteak beste, Artetxe-Zubizarretarren jaubetzakoa zan Pozuaga iturburuaren kasua. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 15/12/1929. Sig.: 0009/001. Caso entre otros, del manantial Pozuaga propiedad de la familia Artetxe-Zubizarreta.

Lantzean behin (urtean behin, orokorrean), Udalak enkantearen bidez esleitzen eban “giroa sortzeko” zeregin hori, eta gehien eskaintzen ebanari emoten eutsan. Ostean, erromerian bertan, musikariak edo gramofonoaren arduradunak dantza egin gura eben mutilei kobretan eutsen (andrek ez eben ordaindu behar), eta ikurra imintzen eutsen papar-hegalean.

Erromeriak herrian egozan plazetan egiten ziran: *Benta, Eskolalde, Olaskoetxe* eta *Tabernalde*, baia ezin ziran egin ez Garizuman ez Abendualdian.

Taberna eta janari-leku asko eta asko ez eze, kasinoa be baegoan, eta adierazo be egiten da *Antolín Larragan* jaunari behar besteko baimena emon jakola “*La Baquiense*”<sup>28</sup> etxean “*zine-ermonaldiak*” eskaintzeko.


Artean, tradizioa be bazan San Josetako idi-probak egitea, eta aktetan bertan azaltzen da zer baldintza bete behar ebezan aurkezten ziran buztarriek eta zenbatekoak ziran bananduten ziran sariak.

Periódicamente (normalmente, con carácter anual), el Ayuntamiento sacaba a subasta dicha función de “amenizador”, adjudicándosele al mejor postor. Posteriormente, y ya en la propia celebración de la romería, el músico o encargado del funcionamiento de la gramola cobraba a los chicos que se animaban a bailar (las mujeres no debían pagar), a los que les colocaba un distintivo en la solapa.

La celebración de tales romerías solía repartirse entre las distintas plazas existentes: *Benta, Eskolalde, Olaskoetxe* y *Tabernalde*, pero no se podían celebrar ni en el periodo Cuaresmal ni en Adviento.

Además de las numerosas tabernas y establecimientos de comidas, también había un casino e incluso consta igualmente la concesión de autorización a *D. Antolín Larragan para dar funciones de “cine” en la Casa “La Baquiense”*<sup>28</sup>.

Era ya tradición celebrar las pruebas de bueyes con motivo de la festividad de San José quedando recogidas en las propias actas las condiciones que habrían de cumplir las parejas que se presentaban y la cuantía de los premios que se concedían.



Bakioko Kasinoa, 1930 inguruan. / El Casino de Bakio, hacia el año 1930. (Archivo Lucien Roisin agrirtegia).

Era beratan, zaindariaren jai be bazan tradizionala, hau da, abuztuaren 15ean egindako Jasokundeko Andra Mariaren jai (gailetak zein ardaoa bananduten ziran bertan), eta abuztuaren 29an, 30ean zein 31n egindako San Joan Dolozak be bai. Horretarako, urtero, “*jai-batzordea*” eratzen zan, egun horretarako musika-banda kontratatuko eta bizikleten, astoen zein oinezkoen lasterketak atonduteko.

Bien bitartean, haretzan, uda osorako zedarritzen zan “*eguzkia hartzeko gunea: Ondarreko zubitik Askadako hatxetagine*”<sup>29</sup>.

Y también eran tradicionales la fiesta de la patrona, la Virgen de la Asunción, el día 15 de agosto con el reparto de galletas y vino, y las fiestas de San Juan Degollado a celebrar los días 29, 30 y 31 de agosto, conformándose anualmente una “*comisión de festejos*” que se encargaba del contrato de una banda de música para dichos días y de organizar carreras de bicicletas, de burros y pedestre.

Mientras, en la playa se delimitaba, a lo largo de todo el verano, una “*zona para la toma de los baños de sol: la comprendida entre el puente de Ondarre y Peñas de Ascada*”<sup>29</sup>.

<sup>28</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1934/01/28ko aktea. Sig.: 0008/001. Sasoi haretan, La Baquiense bat etorren kasinoaren eraikinagaz. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 28/01/1934. Sig.: 0008/001. En aquella época, La Baquiense se correspondía con la edificación del casino.

<sup>29</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1933/06/10eko aktea. Sig.: 0008/001. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 10/06/1933. Sig.: 0008/001.

Orr.



Idi-probak herriko frontoian. / Pruebas de bueyes en el frontón del pueblo. (Aintzane Bilbaok itxitakoa / Cedida por Aintzane Bilbao).

## Erlijinoa

II. Errepubliketa ezartean eta 1931. urtean Konstituzioa onartzean Estatuaren eta Eleiza Katolikaren arteko hartu-eremona goitik behera aldatu bazan be, udal-akteak irakurtean ez dau emoten erakunde bi horreen arteko gorabeherak tokian-tokian ezelako eraginik euki ebanik. Izan be, Bakion hartu-eremona hori lehengoa lakoa zala emoten eban.

Udalan, EAJko lau zinegotzi (alderdi konfesionala zan orduan) eta hiru zinegotzi monarkiko-tradizionalista (argi-argi inoen konfesionalak zirana) egozan arren, gai horrek ez eban euren arteko desadostasunik sortu, eta, adibide moduan, nabarmendu beharra dago Korporazioa bera ospakizun erlijiosoetara joaten zala eta Erramu eguneko eleizkizunera joateko palmondoak be erosten ei ebazala.

Bestetik, Bakioko Korporazioan bertan, barriz, aho batez erabagi eben beste instituzio batzuk erlijioaren aurka hartutako erabagien kontra joatea; berbarako, Gijoneko Udalak egindako proposamena, jesuitak Espainiatik bota eiezan, edo kongregazio horren ondasunen konfiskazioa, Errepublikako Gobernuak hori berbatu osten<sup>30</sup>.

Lan honetako pasarte batzuetan aitatzen dan lez, kongregazio erlijioso bi finkatu ziran udallerrian: Ploërmeleko Kristinau Heziketako Anaiak (anaia menesianoak), irakaskuntzan behar egiten ebenak, eta Jesusen Konpainia, haretzearen alboko egoitzea eukana.

## La cuestión religiosa

Si bien la instauración de la II República y la aprobación de la Constitución del año 1931 supuso un giro radical en la relación entre el Estado y la Iglesia Católica, de la lectura de las actas municipales no se deriva que el enfrentamiento entre ambas instituciones se hubiese trasladado al ámbito local de Bakio, sino que más bien se mantuvo la misma anterior relación.

En el Ayuntamiento, con cuatro concejales del PNV (que entonces era un partido confesional) y tres concejales monárquico-traditionalistas (que eran abiertamente confesionales), no fue esta una cuestión que generase desacuerdos entre los mismos y, a modo de ejemplo, hay que señalar cómo la Corporación solía asistir a las celebraciones religiosas, constandingo la compra de palmas para acudir al oficio del Domingo de Ramos.

Más al contrario, lo que sí que se dieron en el seno de la Corporación bakiotarra fueron tomas de posición por unanimidad en contra de decisiones antirreligiosas adoptadas por otras instituciones, como la propuesta del Ayuntamiento de Gijón para que los jesuitas fuesen expulsados de España o la incautación de los bienes de esta congregación acordada por el Gobierno de la República<sup>30</sup>.

Tal y como se cita en diversos momentos de este trabajo, dos eran las congregaciones religiosas establecidas en el municipio: los Hermanos de la Instrucción Cristiana de Ploërmel (hermanos menesianos), dedicados a la docencia, y la Compañía de Jesús, que disponía de la residencia junto a la playa.

<sup>30</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1931/05/03ko eta 1932/01/30eko akteak. Sig.: 0009/001. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Actas del 03/05/1931 y del 30/01/1932. Sig.: 0009/001.



Ezkerraldean, udako "Oporretxea" egoitzea, gaurko "Itxas-begi". / A la izquierda, la residencia de verano "Casa de Vacaciones", hoy en día "Itxas-begi". (Archivo Lucien Roisin agiritegia).

Sasoi haretan, Bakion, herriko semeak ziran lau jesuita egozan, gitxienez: Vicente Agirre Jauregizar, nazionalistak izatearren gerra-kontsejuan zigortu ebezan anaia bi euki ebazana; aita Francisco Uriarte, frankismoak fusilautako Francisco Uriarte izen beratako senarra eukan Julianaren nebea zana; eta espetxeratu eben Casiano Imatzen seme bi: Martiniano eta Juan.

1934. urtetik aurrera, 1899. urtean Bermeon jaiotako Antonio Alegria Erreterria izan zan herriko abade ekonomoa, eta 1948. urtera arte egon zan bertan.

Azpimarratu beharra dago 1937. urtetik aurrera kleroak oso zeresan nabari barria euki ebala personen patuan, beraren txostenak erabagigarriak ziralako presoaren aldeko edo kontrako epaiketa sumarisimoetan eragina eukiteko orduan. Alde horretatik, Antonio Alegriak prozesu baten baino gehiagotan parte hartu eban. Edozelan be, zigortutakoen ganeko kapituluan ikusiko dogunez, hartu-emona abegitsua bazan be, erregimen frankista barriak udalerriko erlijiosoren bat edo bat be aurretik erabili eban.

## Persona ospetsuak

### Félix Bilbao Ugarritza (gotzaina):

Bakion jaio zan 1873. urtean, eta, hamabi urte eukazala, Madrilako Abadeen Seminarioan sartu zan. Ostean, Teologian doktorau zan Toledoko Unibersidade Pontifikalean.

1924. urtean, Tortosako eleizburuaren gotzain launguntzaile izentau eben. Gero, haren oinordekoa izan zan, eta, hurrengo urtetik aurrera, gotzain-kargua hartu eban. Errepublikaren aurkakoa eta katalanen aurkakoa ei zan.

Gerra Zibila hasitakoan, eleizbarruti hori gunerepublikanuan egoanez eta jazarpen erlijiosoaren bildur zanez, 1936ko abuztuan Espainiatik ines egin eban. Hainbat eta hainbat gotzainek, abadek eta monjek egingo eben lez, Italiara joan zan, eta oindinokarren Jesusen Bihotzaren Ahizta Abegitsuen kongregazioak

En aquel momento, Bakio tenía, cuando menos, cuatro hijos del pueblo que ejercían como jesuitas: Vicente Agirre Jauregizar, que tuvo dos hermanos condenados en consejo de guerra por ser nacionalistas; el padre Francisco Uriarte, hermano de Juliana cuyo esposo, también llamado Francisco Uriarte, fue fusilado por el franquismo, y dos de los hijos del que sería encarcelado Casiano Imatz: Martiniano y Juan.

A partir del año 1934 se incorporará al pueblo, como cura ecónomo, Antonio Alegria Erreterria, nacido en Bermeo en el año 1899 y que permaneció hasta el año 1948.

Es preciso apuntar que a partir de 1937 el clero adquiere un nuevo papel muy relevante en la suerte de las personas, porque sus informes llegan a ser decisivos a la hora de influir en los juicios sumarisimos a favor o en contra del reo, y, en tal sentido, Antonio Alegria intervino en varios procesos. Pero como se verá en el capítulo relativo a las personas represaliadas, a pesar de esa cordial relación, el nuevo régimen franquista también persiguió a algún religioso de la localidad.

## Personas ilustres

### Félix Bilbao Ugarritza (obispo):

Nacido en Bakio en el año 1873, a los doce años ingresa en el Seminario Conciliar de Madrid, doctorándose posteriormente en Teología, en la Universidad Pontificia de Toledo.

En el año 1924 es nombrado Obispo Auxiliar del prelado de Tortosa, al que le sucede, ocupando su cargo de Obispo a partir del año siguiente. Es considerado antirrepublicano y anticatalanista.

Comenzada la Guerra Civil y emplazándose esta diócesis en zona republicana y ante el miedo de sufrir persecución religiosa abandona España en el mes de agosto de 1936, para trasladarse a Italia, al igual que lo harían innumerables obispos, sacerdotes y religiosas, refugiándose en una casa que la congregación Hermanas Hospitalarias del Sagrado Corazón de Jesús aún dispone en la villa de

orr.

Viterboko urian daukan etxean babestu zan. 1938ko urrian, Tortosako eleizbarrutiko lurretara atzera etorri zan, eta armada kolpistek 1939ko urtarrilaren 13an okupau eban arte ez zan uriburura itzuli.

1943ko zemendian hil zan Tortosan, eta beraren gorpua Tortosako katedraleko Sant Pere kapilan dago lurperatuta.

#### José María Zirarda Latxiondo (gotzaina):

José María Zirarda Bakion jaio zan 1917ko maiatzaren 23an, beraren familia Mundakakoa bazan be. Filosofian eta Teologia Sagraduan lizentziau zan, eta 1942ko garagarrilaren 5ean egin zan abade. Ostean, Teologia Dogmatikoko irakaslea izan zan Gasteizko Seminarioan.

Joan XXIII.a Aita Santuak gotzaintzara eroan gura eban, baia Franco jeneralak behin eta berrero imini eutsan betoa gotzain moduan, errazoi ideologikoakaitik. Hori dala eta, gotzain laguntzaile izentau eben hasikera baten, erregimenak ezin ebalako bertan ezelako betorik imini.

Holan, 1960. urtean, gotzain laguntzaile egin eben Sevillan. 1968ko garagarrilean, Santanderreko gotzain izentau eben; eta, urte beratako zemendian, Bilboko administratzaile apostoliko.

1971ko abenduan, José María Zirardak Kordobako gotzain-kargua hartu eban. Ostean, Iruñeko gotzainburu egin eben 1978an; eta Tuterako gotzain, 1984an. Azken kargu horretan egon zan 1993ko maiatzaren 15era arte, hau da, 75 bete ebazan arte. Vatikanoko II. Kontzilioko osoko bilkuretan parte hartu eban alde progresistan. 2008ko irailaren 17an hil zan Gasteizen, eta beraren gorpua Mundakako kanposantuan dago lurperatuta.

Eleizburu bikaina izan zan, erregimen frankistako nazional-katolizismoari egin eutsan aurre eta ezelako zailantza barik inplikau zan Francoren erregimenaren eta Vatikanoren arteko hartu-emonetan nagusi izan ziran gorabeheretan, Euskal Herria Eleizearentzat oso gorabeheratsua izan zan sasoiaren.

Viterbo. Regresa a territorio de la diócesis de Tortosa en el mes de octubre de 1938, retornando a la capital cuando fue ocupada por el ejército golpista, el 13 de enero de 1939.

Fallece en Tortosa en el mes de noviembre de 1943 y su cuerpo está enterrado en la Capilla de Sant Pere en la Catedral de Tortosa.

#### José María Zirarda Latxiondo (obispo):

José María Zirarda nació en Bakio el 23 de mayo de 1917, si bien su familia era originaria de Mundaka. Licenciado en Filosofía y Sagrada Teología, fue ordenado sacerdote el 5 de julio de 1942. Posteriormente, ejerció como profesor de Teología dogmática en el Seminario de Vitoria.

El Papa Juan XXIII deseaba incorporarlo al episcopado, pero fue reiteradamente vetado como obispo, y por cuestiones ideológicas, por el General Franco. Por ello, se optó por la vía de nombrarlo, en una primera instancia, para un obispado auxiliar, sobre los que el régimen no tenía posibilidad de veto.

Así, en el año 1960 fue consagrado obispo auxiliar en Sevilla. En julio de 1968 fue nombrado obispo de Santander y, en noviembre del mismo año, administrador apostólico de Bilbao.

José María Zirarda recibió en el mes de diciembre de 1971 el cargo de obispo de Córdoba y, posteriormente, los de arzobispo de Pamplona (1978) y obispo de Tudela en el año 1984, ejerciendo como tal hasta el 15 de mayo de 1993, cuando alcanzó los 75 años. Participó en las sesiones plenarias del Concilio Vaticano II, encuadrándose en el ala progresista. Falleció en Gasteiz el 17 de septiembre de 2008 y sus restos mortales descansan en el cementerio de Mundaka.

Fue un prelado brillante que se enfrentó al nacional-catolicismo del régimen franquista, no dudando en implicarse en las tensiones que jalonaron las relaciones entre el régimen de Franco y el Vaticano en una época muy convulsa para la Iglesia de Euskal Herria.



Félix Bilbao Ugarritza.



José María Zirarda.

**Aurelio Artetxe Arana (enpresaria):**

1908ko urtarrilaren 8an jaio zan Bakion, eta bost anaia-tatik gazteena izan zan. Euretari-ko bat, Luki Artetxe, EAJko burukidea izan zan ostean, eta, horregaitik, aurretik erabili eta urte batzuk emon ebazan kartzelan. Gero, zabalago berba egingo dogu beraren ganean. Aureliok anaia menesianoek udalerrian eukien *La Purísima Concepción* ikastetxean ikasi eban. Ama alargun lotu zanean, Bilbora joan ziran biziten.

Bermeon hasi zan beharrean, Irurak-Bat SA soziedadean sartu zanean, besteak beste, Bakioko udalerrian ur-jauziak ustiatzen ebazan konpainia elektrikoan, hain zuzen be. Hiru urte geroago, Gernikara joan zan biziten, eta, 1932. urtean, Anastasia de Zubizarreta Ezpeletagaz ezkondu zan.

1937ko apirilaren 26an, Gernika bonbardeau ebe-nez, Artetxe-Zubizarretarren etxea eta bulegoa triskau ebezan. Zorionez, apur bat lehentuago alde egin eben bertatik.

1937ko garagarriaren 18an, bakar-bakarrik joan zan erbestera. Kantabriako eta Asturiaseko udalerr-ri batzuetan egon ostean, Laredora bueltau zan. Bertan, atxilotu eta Santanderreko "Neira" txekan euki eben sartuta, har-rik eta "Luki" anaiak (Lucio Artetxek) eta beraren kideek askatu eben arte.

Aureliok Baionaranzko itsasontzia hartu eban San- tanderren. Ostean, Parisera zein Liejara joan zan, eta azken leku horretan lotu zan biziten. Bien bitartean, Anastasia emaztea lau seme-alabakaz atzera etorri zan Bakiora, hasikera baten, baia, gero, Bilbora joan zan, eta 1939ra arte egon ziran bertan. Urte beraren amaieran, eta, bitxia bada be, Mola jeneralaren alargunaren bitar- tekaritzaz lortutako urtekera-baimenaren bidez, Caraca- serantz itsasoratu ziran Bartzelonan.

Bigarren Mundu Gerrea hasi zanean, Aureliok Ve- nezuelako erbestean segidutea erabagi ebanez, familia alkartu eban bertan.

1945. urtean, familia apurka-apurka bueltetan hasi bazan be, bera 1946. urtera arte lotu zan Caracasen. Euskal pentsamentu nazionalisteagaz eukan leialtasu- naren erakusgarri, Caracaseko Euskal Etxea sortu eban.

Euskal Herrira atzera etorri zanean, Electrotécnica Artech Hermanos SA enpresea sortu eban Mungian, eta transformadore elektrikoak egin eta saltzen ebezan. Enpresako jarduera ezin nabariagoa ez eze, jarduera so- ziala be bultzatu eban beti, era guztietako ekintza ugarien bitartez. Holan, bada, aitatu egin behar dogu inguruko herrie- tako nekazariei lagundu eutsela lantegian behar egiten, "Artech Behar Fundazi- noa" zein "Mungiako Parrokiako Oinarriz- ko Behar Eskolea" (lanbide-heziketarako) sortu ebazala, Mungiako Lehen eta Erdiko Hezkuntzako eskoleari emoten eutsazala laguntza ekonomikoak...

Bilbon hil zan 1983ko urtarrilaren 24an, 75 urte eukazala.

**Aurelio Artetxe Arana (empresario):**

Nació en Bakio el 8 de enero de 1908, siendo el menor de cinco hermanos, uno ellos Lucio Artetxe, posterior diri- gente (burukide) del PNV, sufriendo por ello persecución y varios años de cárcel y a quien nos referiremos posterior- mente de forma más extensa. Aurelio fue escolarizado en el Colegio de la *Purísima Concepción* que disponían los hermanos Menesianos en esta localidad. Cuando su ma- dre enviudó trasladaron su domicilio a Bilbao.

Su andadura profesional se inicia en Bermeo, incor- porándose en la sociedad Irurak-Bat, S.A., la compañía eléctrica que explotaba saltos de agua en distintas locali- dades, entre ellas Bakio. Tres años más tarde se traslada a Gernika y en el año 1932 se casó con Anastasia de Zu- bizarreta Ezpeleta.

El 26 de abril de 1937 Gernika fue bombardeada, quedando destruida la casa y oficina de la familia Arte- txe-Zubizarreta. Afortunadamente la habían abandonado momentos antes.

El 18 de julio de 1937 inicia en solitario su exilio. Tras recorrer diversas localidades de Cantabria y Asturias, vuel- ve a Laredo donde fue arrestado y recluido en la checa "Neira" de Santander, de donde es liberado por su herma- no "Luki" (Lucio Artetxe) y sus compañeros.

Aurelio embarca en Santander con destino a Baiona y posteriormente a París y Lieja, donde finalmente fija su re- sidencia. Mientras tanto, su esposa Anastasia regresa con sus cuatro hijos, primeramente a Bakio, para después tras- ladarse a Bilbao, donde permanecen hasta 1939. A finales de ese mismo año, y curiosamente, con un permiso de sa- lida conseguido por la mediación de la viuda del General Mola, embarcan desde Barcelona con destino a Caracas.

Al inicio de la II Guerra Mundial, Aurelio decide conti- nuar su exilio en Venezuela, reuniendo allí a su familia.

En el año 1945 la familia inicia de forma escalonada su regreso, mientras que él permanece en Caracas hasta el año 1946. Su fidelidad al pensamiento nacionalista vasco explica su impulso para fundar el Centro Vasco de Caracas.

Una vez vuelve a Euskal Herria, funda la empresa Elec- trotécnica Artech Hermanos, S.A., emplazada en Mungia, dedicada a la fabricación y venta de transformadores eléc- tricos. Además de su muy relevante faceta empresarial pro- movió siempre la faceta social, con innumerables acciones de todo tipo. Así, cabe citar que favoreció la incorporación de los labradores de las poblaciones cercanas como tra- bajadores de la fábrica, impulsó la creación de la "Fundación Laboral Artech" así como de la "Escuela Parroquial Elemental de Trabajo de Mungia" (para la formación profesional), conce- diendo ayudas económicas a la Escuela de Educación Primaria y Media de Mungia, etc.

Falleció en Bilbao el 24 de enero de 1983, a los 75 años de edad.



Aurelio Artetxe Arana.

orr.

## 2.1. TESTUINGURU POLITIKOA

1930ean Primo de Riveraren diktadurea jausi ostean, monarkiak babesak galdu ebazanez, beraren aurkako alderdi politikoek bat egin eben, indar barik ixteko eta Bigarren Errepublikoa ezarteko.

1931ko zezeilean, Alfontso XIII.a erregeak Berenguer jeneralaren erregimenari emon eutsan amaiera, eta Juan Baustista Aznar almirantea imini eban haren orde. Hain zuzen be, urte beratako apirilaren 12rako egin eban udal-hauteskundeetarako deia, eta, hareen ostean, Errepublikoa aldarrikatu zan, Errepublikaren aldeko indarrek Espainiako 41 probintzia-uriburutan irabazi ebelako, garaipen monarkikoa bederatzitan bakarrik lortu zala kontuan hartuta. Era beratan, oso kontuan be hartu beharra dago monarkikoek hainbat eta hainbat boto lortu ebezala landa-inguru-neetan, euren buruzagiek presino handia egiten eutseelako maila kultural zein ekonomiko txikiagokoak ziran nekazariei. Hori dala eta, euren botoak baldintzatuta egozan, erosita ez esatearren. Testuinguru horretan, monarkikoek landa-ingurunean eta errepublikanuek uri handiagoetan irabazi ebe-la kontuan hartuta, argi eta garbi egoan sistema soziala oso nahastetsua zana eta batzuk zein besteek zelako trikima-luak erabilten ebezan euren mesederako.

Hauteskundeen emoitzeak Alfontso XIII.aren erregetzea zilegitasun barik ixten ez baeben be, errepublikanuek uri handienetan irabazi ebenez, errepublikanuek kalean nagusi izango zirala eta herrialdea euren helbururantz eroango ebela pentsau eban jentekak.

Erregeak urietan herriaren babesik ez eukala ikusi eba-nean, apirilaren beraren 14ko gauean erbesteratu zan, eta Niceto Alcalá-Zamora estaduburu zein Behin-behineko Gobernuko presidente izentau eben, Sanjurjoren eta, horregaz batera, Guardia Zibilaren zein armadearen babesa lortu ostean. Errepublikako Batzorde Politikoa (erregimen barria ezarteko bat egin eben indar politikoek osotzen eben) Errepublikako Behin-behineko Gobernua izan zan aurrerantzean, eta beraren osoketea hurrengo egunean emon zan argitara Madrileko Aldizkarian. 1931ko apirilaren 12ko hauteskunde horreetan, 7 zinegotzi aukeratu ziran Bakioko Udalerako, eta 4 nazionalista (EAJ) eta 3 monarkiko aldarrikatu ebezan. Alkatea izentau behar eben, eta, aho batez, Leandro Oraindi Kortazar aukeratu eben. Beraren karguko intsigniak emon eutsiezan. Segiduan, aho batez be bai, aretoan eskegita egoan Alfontso XIII.a erregearen erretratua kentzea erabagi zan<sup>31</sup>.

## 2.1 CONTEXTO POLÍTICO

Tras la caída de la dictadura de Primo de Rivera en 1930, la monarquía perdió sus apoyos y los partidos políticos detractores a la misma se unieron para derogarla y dar paso a la Segunda República.

En febrero de 1931, el rey Alfonso XIII puso fin al régimen del general Berenguer y lo sustituyó por el almirante Juan Baustista Aznar, quien convocó elecciones municipales para el 12 de abril de ese mismo año, tras las cuales fue proclamada la República al haberse impuesto las fuerzas pro-republicanas en 41 capitales de provincia de España, por solo nueve de victoria monárquica. También hay que tener en cuenta que gran número de votos conseguidos por los monárquicos en las zonas rurales eran obtenidos mediante presiones que ejercían sus dirigentes a la población campesina de menor nivel cultural y económico, de tal manera que sus votos estaban condicionados cuando no comprados. En este contexto, la victoria monárquica en el ámbito rural y la republicana en las mayores ciudades reflejaban la complejidad del sistema social y los artificios que usaban unos y otros en beneficio propio.

A pesar de que las cifras de los resultados electorales no deslegitimaban el reinado de Alfonso XIII, la victoria republicana en las mayores ciudades hizo creer que los republicanos podrían dominar la calle y arrastrar al país hacia su objetivo.

El Rey, al constatar su falta de apoyo popular en las ciudades, marchó hacia el exilio la noche del 14 del mismo mes de abril, siendo designado Niceto Alcalá-Zamora Jefe del Estado y Presidente del Gobierno Provisional, tras haber obtenido el apoyo de Sanjurjo, y con él, el de la Guardia Civil y el del Ejército. El Comité Político de la República (compuesto por las fuerzas políticas coaligadas para la instauración del nuevo régimen) pasó a convertirse en Gobierno Provisional de la República, publicándose la composición del mismo en la Gaceta de Madrid del día siguiente. En estas elecciones del 12 de abril de 1931 se eligieron 7 concejales para el Ayuntamiento de Bakio, saliendo proclamados 4 nacionalistas (EAJ-PNV) y 3 monárquicos. Se procedió al nombramiento del alcalde, que, por unanimidad, resultó ser elegido Leandro Oraindi Kortazar, el cual recibió las insignias de su cargo. Seguidamente, también por unanimidad, se acordó retirar el retrato del rey Alfonso XIII que colgaba en el salón<sup>31</sup>.

### 1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeen ostean eratutako udal-korporazioa Corporación municipal constituida tras las elecciones municipales del 12 de abril de 1931

#### ALKATEA / ALCALDE

Leandro Oraindi Kortazar (EAJ / PNV)

#### LEHENENGO ALCATEORDEA / PRIMER TENIENTE-ALCALDE

Celestino Ibinaga Olaskoaga (EAJ / PNV)

#### SINDIKOAREN ORDEZKOA / SUPLENTE DEL SÍNDICO

Segundo Markaida Azeretxo (EAJ / PNV)

#### ERREJIDOREAK / REGIDORES

Claudio Abio Intxausti (MONARKIKOA / MONÁRQUICO)

Víctor Francisco Uriarte Azkorra (MONARKIKOA / MONÁRQUICO)

Martín Uriarte Bilbao (MONARKIKOA / MONÁRQUICO)

#### IDAZKARIA / SECRETARIO

Ciriaco Egja Mardaraz

<sup>31</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1931/04/15eko aktea. Sig.: 0009/001. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 15/04/1931. Sig.: 0009/001.

- Leandro Oraindi Kortazar Ubidebitarte baserrian jaio zan (Kurtzikenalde) 1871ko zezeilaren 27an. Tiburcio Oraindi Eguzkitzagaren (Bakio) eta Gabriela Kortazar Zulueta (Almika-Bermeo) semea zan, eta Diputazinoko bideetako beharginen arduraduna izan zan. Bergarako Ciriaca Amutxastegi Arregigaz ezkondu zan, eta 8 seme-alaba euki ebezan: Máximo, Lina, Aurea, Ángel, Luis, Felisa, Pedro eta Casiano. Leandro Bakioko alkatea izan zan Errepublikako sasoiari, 1931tik 1934ra eta 1936tik 1937ra. 1948an hil zan.

Alkate zala, euskal herriaren burujabetzearen alde inplikau zala nabarmendu behar da, eta, horretarako, zentzun horretan egiten ziran deialdietan parte hartzen eban bete-betean. Holan, Bakioko Korporazinoko ordezkari moduan, Lizarrara<sup>32</sup>, Madrilera<sup>33</sup>, Iruñera<sup>34</sup> eta Gasteizera<sup>35</sup> joan zan, eta Bizkaiko Aldundiak zein Bilboko Udalak egindako deialdietan be parte hartu eban. Era beratan, José Antonio Agirreren aukeraketan be parte hartu eban, 1937ko urriaren 6an Gernikan egindako ekitaldian.

- Doroteo Uriarte Ugalde 1883ko martiaren 28an jaio zan Bakion, eta Domingoren zein Juanaren semea zan. Ortube-goikoa baserriko nekazaria zan. Damiana Intxaustigaz ezkondu zan.
- Celestino Ibinaga Olaskoaga 1893ko apirilaren 6an jaio zan Bakion, eta Gregorioren zein Modestaren semea zan. Ugarte baserriko nekazaria zan. Anselma Aurrekoetxegaz ezkondu zan.
- Segundo Markaida Azeretxo 1887ko maiatzaren 13an jaio zan Bakion, eta Feliperen zein María Carmenen semea zan. Azeretxo baserriko nekazaria zan. María Goitigaz ezkondu zan.
- Claudio Abio Intxausti 1884ko irailaren 26an jaio zan Bakion, eta Juliánen zein Sebastianaren semea zan. Goitisoloko baserriko nekazaria zan. Tomasa Agirre Unibasogaz ezkondu zan.
- Francisco Uriarte Azkorra 1898ko martiaren 6an jaio zan Bakion, eta Franciscoren zein Agustinarene semea zan. Uriarte baserriko nekazaria zan. Calixta Rementería Bilbaogaz ezkondu zan.
- Martín Uriarte Bilbao 1869ko urtarrilaren 31n jaio zan Bakion, eta Martinen zein Hilariaren semea zan. Artza baserrikoa zan, eta maisu egin zan. Benita Basáñez Basartegaz ezkondu zan.

- Leandro Oraindi Kortazar, del caserío Ubidebitarte (Kurtzikenalde); nacido el 27 de febrero de 1871, hijo de Tiburcio Oraindi Eguzkitzaga (Bakio) y Gabriela Kortazar Zulueta (Almika-Bermeo), fue capataz de peones camineros de la Diputación. Se casó con Ciriaca Amutxastegi Arregi de Bergara y tuvieron 8 hijos: Máximo, Lina, Aurea, Ángel, Luis, Felisa, Pedro y Casiano. Leandro fue alcalde de Bakio en la época republicana, de 1931 a 1934 y de 1936 a 1937. Falleció en 1948.

Ha de destacarse su implicación, desde el cargo de alcalde, con la defensa de la soberanía del pueblo vasco participando activamente en cuantas citas se convocaban en tal sentido. Así, y en representación de la Corporación de Bakio, se trasladó a Lizarra<sup>32</sup>, Madrid<sup>33</sup>, a Iruña<sup>34</sup> y a Gasteiz<sup>35</sup>, además de acudir a llamamientos de la Diputación de Bizkaia y del Ayuntamiento de Bilbao. También participó en la elección de José Antonio Agirre, en el acto que se desarrolló en Gernika el 6 de octubre de 1937.

- Doroteo Uriarte Ugalde, nacido en Bakio el 28 de marzo de 1883; hijo de Domingo y Juana, era baserritarra, del caserío Ortube-goikoa. Se casó con Damiana Intxausti.
- Celestino Ibinaga Olaskoaga, nacido en Bakio el 6 de abril de 1893; hijo de Gregorio y de Modesta, era baserritarra, del caserío Ugarte. Se casó con Anselma Aurrekoetxea.
- Segundo Markaida Azeretxo, nacido en Bakio el 13 de mayo de 1887; hijo de Felipe y María Carmen, era baserritarra, del caserío Azeretxo. Se casó con María Goitia.
- Claudio Abio Intxausti, nacido en Bakio el 26 de septiembre de 1884; hijo de Julián y Sebastiana, era baserritarra, del caserío Goitisoloko. Se casó con Tomasa Agirre Unibaso.
- Francisco Uriarte Azkorra, nacido en Bakio el 6 de marzo de 1898; hijo de Francisco y Agustina, era baserritarra, del caserío Uriarte. Se casó con Calixta Rementería Bilbao.
- Martín Uriarte Bilbao, nacido en Bakio el 31 de enero de 1869; hijo de Martín e Hilaria. Del caserío Artza, ejerció como maestro. Se casó con Benita Basáñez Basarte.



Korporazioa. / La Corporación: 1 - Ignacio Olaskoaga, 2- Celestino Ibinaga, 3- Leandro Oraindi, 4- Ciriaco Egia. (Oraindi familiak itxikoa / Cedita por la familia Oraindi).

<sup>32</sup> .Euskal Udalen Batzarrak Euskal Estaduaren Estatutu Orokorra onartu eban. / Aprobación del Estatuto General del Estado Vasco por parte de la Asamblea de Municipios Vascos.

<sup>33</sup> Lizarrako Estatutua Espainiako Gobernuari aurkeztea, 1931/08/31. / Entrega del Estatuto de Estella al Gobierno de España, el 31/08/1931.

<sup>34</sup> Euskal Herriko Estatutuaren botazinoa, 1932/05/15. / Votación del Estatuto Vasco-Navarro, el 15/05/1932.

<sup>35</sup> Hiru probintzietako kudeaketa-batzordeen deialdia, 1933/06/10. / Convocatoria de las Gestoras de las tres provincias, el 10/06/1933.

orr.

1931ko bagilaren 4an, Madrileko Aldizkarian emon zan argitara Korte Konstituzinogileak urte beratako garagarriaren 14an batzartu behar zirala adierazoten eban dekretua. Horretarako, hauteskunde orokorretarako deialdia egin zan bagilaren 28an, eta, horrezaz ganera, sistema parlamentario errepublikanua be zehaztu zan, ganbera bakarra, diputaduen, eukiko eba-la ebatzikeran.

Lizarrako Autonomia Estatutuaren proiektua defendiduten eben indarrak, hau da, EAJ eta Batasun Tradizionalistea (katoliku independente batzukaz), alkarregaz aurkeztu ziran hauteskunde orokor horreetara, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako barrutietan, bai Arabakoan ez, ostera. Era beratan, PSOE be aurkeztu zan beste alderdi errepublikanua eta errepublikanua independente batzukaz batera, eta monarkiaren aurkako blokea eratu eben.

Danetara, Tradizionalisten eta EAJren arteko koalizioak 9 diputadu lortu ebazan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan (5 EAJkoak eta 2 Batasun Tradizionalistakoak ziran, gehi katoliku independente bat eta foruen aldeko katoliku bat). Horrezaz ganera, Batasun Tradizionalistek Araban lortutako diputadua be hartu behar da kontuan. Hiru lurralde horreetan bertan, ezkertiarren blokeak 7 diputadu lortu ebazan (hiru PSOEkoak, erradikal bat, erradikal autonomo bat eta erradikal-sozialista bi).

Bakion, nazionalistak nagusitu ziran (253 boto), Ekintza Errepublikanuko ordezkaria babestu eben 5 boto bakarren eta Alderdi Sozialistek lortutako 3 botoen aldean. Ez Batasun Tradizionalistek ez Eusko Abertzale Ekintzeak (EAE) ez eben ezelako babesik lortu botazino horretan.

El 4 de junio de 1931 se publicaba en la Gaceta de Madrid el decreto por el cual las Cortes Constituyentes debían reunirse el 14 de julio del mismo año. Para ello, se convocaban elecciones generales el 28 de junio, definiéndose además el sistema parlamentario republicano al decretar que este estaría formado por una sola cámara, la de los diputados.

Las fuerzas que defendían el proyecto de Estatuto de Autonomía de Estella, es decir el PNV y la Comunidad Tradicionalista (junto a varios católicos independientes) se presentaron coaligadas a estas elecciones generales en las circunscripciones de Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra, aunque no en la de Araba. También se presentó coaligado el PSOE junto con otros partidos republicanos y republicanos independientes, conformando el llamado bloque antimonárquico.

La coalición entre los Tradicionalistas y el PNV obtuvo en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa un total de 9 diputados (5 pertenecían al PNV y 2 a la Comunidad Tradicionalista, a los que se unían un católico independiente y un católico fuerista). A ello habría que añadirle el diputado obtenido en solitario por la Comunidad Tradicionalista en Araba. El bloque de izquierdas logró, en esos mismos tres territorios, 7 diputados (tres del PSOE, un radical, un radical autónomo y dos radical-socialistas).

Bakio se pronunció mayoritariamente como nacionalista (253 votos), frente a los únicos 5 votos que apoyaron al representante de Acción Republicana y a los 3 votos obtenidos por el Partido Socialista. Ni Comunidad Tradicionalista ni Acción Nacionalista Vasca obtuvieron apoyo alguno en esta votación.

#### KORTE KONSTITUZINOGILEETARAKO DIPUTADUEN HAUTESKUNDEAK, 1931KO BAGILAREN 28AN. BAKIOKO BOTOAK ELECCIONES DE DIPUTADOS A CORTES CONSTITUYENTES DEL 28 DE JUNIO DE 1931. VOTOS EN BAKIO

HAUTAGAIK / CANDIDATOS							Zuriak / En Blanco
José Antonio Agirre EAJ / PNV	Marcelino Oreja Batasun Tradizionalistea / Comunidad Tradicionalista	Ramón Madariaga Ekintza Errepublikanua / Acción Republicana	Julian Zugatzagoitia PSOE	Luis Areitioaurtena EAE / ANV	Luis Urrengoetxea EAE / ANV	Francisco Basterretxea EAJ / PNV	
253		5	3			253	2

Etapa errepublikanuan, beste udal-hauteskunderik egin ez zanez, Gerra Zibilaren hasieran Korporazioa aurretikoaren bardina zan.

Bigarren Errepublikan aldarrikatu zanean, alderdi politikoak legeztatzen hasi ziran, eta, 1931ko maiatzaren 24an, EAJk Bakioko lehenengo udal-batzarra aukeratu eban. Holantxe osotu zan:

- Batzarburua: Francisco Uriarte Erreterria (Bakio, 1889), Barturen Goikoa baserrikoa.
- Diruzaina: Severiano Ormatza (Bakio, 1860), Jauregi baserrikoa.
- Idazkaria: Cecilio Longarai (Mungia, 1905).

No se produjeron más elecciones municipales durante la etapa republicana; de tal manera que al inicio de la Guerra Civil la Corporación seguía siendo la anteriormente citada.

A raíz de la proclamación de la Segunda República, empiezan a legalizarse los partidos políticos y el 24 de mayo de 1931 EAJ/PNV elige su primera junta municipal de Bakio con la siguiente composición:

- Presidente: Francisco Uriarte Erreterria (Bakio, 1889) caserío Barturen Goikoa.
- Tesorero: Severiano Ormatza (Bakio, 1860) caserío Jauregi.
- Secretario: Cecilio Longarai (Mungia, 1905).

- Bokalak: Martín Legarreta (Errigoiti, 1891), Mendialde baserrikoa, eta Juan Ormatza (Bakio, 1892), Garai baserrikoa.

Primo de Riveraren diktadura (1923-1930) jardue- ra politiko nazionalista guztiz galazota egon ostean, 1931ko abuztuaren 15ean, Bakioko Batzoki barria edegi zan, "Euzko Batzokija": "errepidetik hur, leku eder baizen zabalean, bakiotarrek aberriaren tenplua edegi dabe (...). Jentetzea, mitin zoragarria, alaitasuna, bizipoza eta abertzaletasuna"<sup>36</sup>.

Gogoan euki beharra dago 1908. urtean edegi zala aurreko "Batzoki Bakiotarra", eta José Antonio Lorra zala bertako burua. Gero, oster, Casiano Imatzek hartu eban kargu hori. Holan, bada, 1924. urteko "Aberastasun industrialaren indizearen udal-liburuan", "Batzoki Bakiotarra" agertzen da zergadun moduan, "Goikosoloalde" auzoan egoan eta "kafeak eta pattarrak" jardueragaitik ordaintzen ebazan zergak.

1932an, "Emakume Abertzale Batza" eratu zan, hau da, Euzko Alderdi Jeltzaleko Andren Alkartea. Udalerrri horretan, mitinak eratuten ebazan, eta, "gorularien taldean", euskal dantzak irakasten eutsezan gazteei, besteak beste.

- Vocales: Martín Legarreta (Errigoiti, 1891) caserío Mendialde, y Juan Ormatza (Bakio, 1892) caserío Garai.

Después de haber estado prohibida toda actividad política de corte nacionalista durante el periodo de la dictadura de Primo de Rivera (1923-1930), el 15 de agosto de 1931 se inaugura el nuevo batzoki de Bakio "Euzko Batzokija", "cerca de la carretera, en un local hermoso y amplio, han abierto los bakienses un templo de la patria (...) Mucha gente, mitin hermoso, alegría, vida y patriotismo"<sup>36</sup>.

Cabe recordar que fue en el año 1908 cuando se procedió a la apertura del anterior "Batzoki Bakiotarra", figurando José Antonio Lorra como presidente, cargo que posteriormente fue ocupado por Casiano Imatz, y, así, en el "Libro municipal del índice de riqueza industrial" fechado en el año 1924, figura como contribuyente el "Batzoki Bakiotarra", emplazado en el barrio "Goikosoloalde", tributando por la actividad de "café y licores".

En 1932 comenzó su andadura el "Emakume Abertzale Batza", la asociación femenina del Partido Nacionalista Vasco que en esta pequeña localidad se dedicaba, entre otras actividades, a organizar mítines y a enseñar danzas folclóricas vascas a jóvenes en el "grupo de hilanderas".

**1934an Bakioko Emakume Abertzale Batzako Zuzendaritza Batzordea osotzen ebenen zerrendea** (kideen kopurua: 80)

**Relación de componentes de la junta directiva de Emakume Abertzale Batza de Bakio en 1934** (número de asociadas: 80)

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA**  
Julia Erkoreka

**PRESIDENTEORDEA / VICEPRESIDENTA**  
Juana Agirre

**IDAZKARIA / SECRETARIA**  
María Abio

**DIRUZAINA / TESORERA**  
Ana María Etxebarrieta

**BOKALAK / VOCALES**  
Jesusa Arrutzazabala  
Miren Jauregizar



Bakioko Batzokia Longarai etxean 1931.urtean. / Batzoki de Bakio en la casa Longarai en el año 1931. (Larragan familiak itxitakoa / Cedida por la familia Larragan).



Zehaztu bako mitina Bakioko pelotalekuan. / Mitin sin determinar en el frontón de Bakio. (Paul Gandariasbeitiak itxitakoa / Cedida por Paul Gandariasbeitia).

<sup>36</sup> 1931/08/16ko *Euzkadi* egunkariko kronikea. / Crónica del diario *Euzkadi* del 16/08/1931.

Orr.

## 2.2. AUTOGOBERNUAREN DEFENTSEA

Bigarren Errepublikoa ezarri zanetik, zeozelako burujabetza-mailea berreskuratzeko aukerea emoten eban Autonomia Estatutuaren onarpenaren bidez Euskal Herriaren eskubideak eta askatasunak defendiduten ziranez, zeresan handia euki eban euskal udalerrietako udal-politikan. Hain zuzen be, gizaldibete igaro zan foruak indar barik itxi ebezanetik, ordenamentu juridiko zein instituzional espainiar barria ezarri zan eta Bigarren Errepublikoa aldarrikatu zan. Hori dala eta, itxaropen handia sortu zan euskal gizartearen zati handi baten.

Estatutuaren lehenengo proiektua Eusko Ikaskuntzak alkarteak egin eban, eta "Euskal Estaduaren Estatutu Orokorra" zan beraren izenburua, "Lizarrako Estatutua" edo "Euskal Herriko Estatutua" esaten baeutsien be.

1931ko bagileko osoko bilkuran, Bakioko Udalak Euskal Herri osoan Estatutuaren alde eratu zan udal-kanpainagaz bat egitea eta horrerri begira udalentsat atondutako batzarrera joatea erabagi eban. Honako honeexek aukeratu ebezan deialdi haretara Bakioko herriaren ordezkari moduan joateko: alkatea, Leandro Oraindi; alkateordea, Doroteo Uriarte; eta idazkaria, Ciriaco Egia. Erabagi hori hartu zaneke osoko bilkurako aktea<sup>37</sup> Getxoko alkateari (José Antonio Agirre Lekuberi) bialdu jakon, ekimen horretako burua zan-eta.

1931ko bagilaren 14an, lau probintzietako (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako) alkateen batzarra egin zan Lizarran, eta, 520 euskal udaletatik, 480k Estatutuaren proiektua onartu eben, bertara joandako batzuk aurkeztutako zuzenketak ontzat emon ostean. Dana dala, urte beratako irailaren 26an, Espainiako Korteeke proiektua bota eben atzera, Eleiza Katolikuaren eta Euskal Estaduaren arteko alde bikotasuna ezarten ebalako Estadu zentrala bera kanpoan itxita. Espainiako parlamentarioak ez egozan hartu-emon hori onartzeko prest, Konstituzioaren aurkakoa zala uste eben-eta.

## 2.2. LA DEFENSA DEL AUTOGOBIERNO

A partir de la instauración de la Segunda República, la defensa de los derechos y libertades del pueblo vasco mediante la aprobación de un Estatuto de Autonomía que permitiera recuperar ciertas cotas de soberanía marcó una gran parte de la política municipal de los ayuntamientos vascos. Había transcurrido un siglo desde la abolición de los Fueros y la imposición de un nuevo ordenamiento jurídico e institucional español y la proclamación de la Segunda República generó amplias expectativas en gran parte de la sociedad vasca.


El primer proyecto de Estatuto fue elaborado por la Sociedad de Estudios Vascos y tenía por título "Estatuto General del Estado Vasco", aunque fue conocido como el "Estatuto de Estella" o "Estatuto Vasco-Navarro".

El Ayuntamiento de Bakio, en sesión plenaria celebrada en junio de 1931, acordó adherirse a la campaña municipal pro-Estatuto que se había organizado en todo el País Vasco y acudir a la reunión de ayuntamientos convocada para ello. Las personas elegidas para acudir a esa convocatoria en representación del pueblo de Bakio fueron las siguientes: el alcalde, Leandro Oraindi; el teniente alcalde, Doroteo Uriarte y el secretario, Ciriaco Egia. El acta<sup>37</sup> de la reunión plenaria en la que se tomó esta decisión fue remitida al alcalde de Getxo (José Antonio Agirre Lekube), que lideraba dicha iniciativa.

El 14 de junio de 1931 se celebró en Lizarra (Estella) una asamblea de alcaldes de las cuatro provincias (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa), siendo aprobado el proyecto estatutario por 480 de los 520 municipios vascos tras la aceptación de una serie de enmiendas presentadas por diferentes asistentes. Sin embargo, el 26 de septiembre de aquel mismo año, las Cortes españolas rechazaron el proyecto porque establecía la bilateralidad entre la Iglesia Católica y el Estado Vasco sin la concurrencia del Estado central. Los parlamentarios españoles no estaban dispuestos a aceptar dicha relación, que venían a considerarla anticonstitucional.



ABC, 1931/12/09.



<sup>37</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1931/06/06ko aktea. Sig.: 0009/001. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 06/06/1931. Sig.: 0009/001.



Lizarrako estatutua entregau ostean euskal alkateak Ministroen Kontseiluko presidentziatik urteteen. / Los alcaldes vascos saliendo de la presidencia del Consejo de Ministros después de entregar el estatuto de Estella. (Mundo Gráfico, 1931/09/30).

1931ko abenduaren 9an, II. Errepublikako Konstituzioa aldarrikatu zan. Konstituzino barri horretan, Eleizea eta Estadua bananduten ziran, eta ordena erlijiosoei irakastea galazoten jaken. Horrezaz ganera, bertan ebatzitakoaren arabera, diputazino probintzietako kudeaketa-batzordeek izan behar eben (Gobernuak lehen ezarritako diputazinoen ordeztentakoak) Estatutua egiteko prozesua bideratu behar ebenak. Hori dala eta, abenduaren 15ean, lau probintzietako kudeaketa-batzordeak batzartu ziran Bilbon, eta, lurralde bakotxean, udal-batzarrak egin ziran, lau probintzietarako Estatutu bakarra edo bakotxarentzat bat idatzi behar zan erabagiteko.

1932ko urtarrilaren 16an, Bakioko Udalak erabagi eban Leandro Oraindi alkatea Bizkaiko Aldundiko Kudeaketa Batzordeko buruak hilebete beraren 31n diputazinoan bertan deitutako batzarrera joango zala, Euskal Herriaren asmo autonomikoak Estatutuan edo Estatutuetan zehaztuko ziran ebazteko.

Lau probintzietan egindako batzarren ostean, egiaztatu egin zan guzti-guztiek Estatutu bateratua egin gura ebena, eta Estatutua egiteko izentutako batzordea 1932. urteko bertako martian hasi zan beharrean. Behar hori arin-arin egin ebanez, aztertzeko batzar orokorra eratu zan Iruñean, maiatzaren 22rako. Azkenean, barriz, bagilaren 19ra arte atzeratu zan. Batzar haretan, euskal 550 udaletatik, Bakio be kontuan hartuta, 354k proiektuaren aldeko botoa emon eben, baia tradizionalistek testu "ateoa" onartzen ez ebenez, Nafarroako udal gehienek Estatuturako proponidutako proiektu barriaren aurkako botoa emon eben<sup>38</sup>. Horren ondorioz, Estatutuaren proiektu hori 1933ko udabarrira arte eten zan, orduan Nafarroa lau probintzietarako Estatutu bakarrean sartuko ez zala behin betiko ikusi zan-eta.

El 9 de diciembre de 1931 quedó promulgada la Constitución de la II República. En esta nueva Constitución se separaban la Iglesia y el Estado y se prohibía a las órdenes religiosas el ejercicio de la enseñanza. Además de ello, fijaba que debían de ser las comisiones gestoras de las diputaciones provinciales (nombradas por el Gobierno en sustitución de las diputaciones anteriormente establecidas) las encargadas de conducir el proceso de elaboración de un Estatuto. Como consecuencia de lo anterior, el 15 de diciembre se reunieron en Bilbao las comisiones gestoras de las cuatro provincias, convocando en cada territorio asambleas de ayuntamientos en las que se decidiría si había que redactarse un único Estatuto para las cuatro provincias, o uno para cada una de ellas.

El 16 de enero de 1932 el Ayuntamiento de Bakio acuerda que el alcalde, Leandro Oraindi, acudiese a la asamblea convocada por el presidente de la Comisión Gestora de la Diputación de Bizkaia para el 31 de ese mismo mes en la propia Diputación, a fin de resolver respecto del Estatuto o Estatutos en los cuales se concretarían las aspiraciones autonómicas del País Vasco.

Tras las reuniones celebradas en las cuatro provincias, se constató que todas ellas eran partidarias de elaborar un Estatuto conjunto y la comisión nombrada para encargarse de su redacción se puso a ello en marzo de ese mismo año 1932. Dicho trabajo fue realizado rápidamente, y se convocó, para estudiarlo, una asamblea general en Pamplona para el 22 de mayo, la cual finalmente se retrasó hasta el 19 de junio. En dicha asamblea, 354 de los 550 ayuntamientos vascos, incluido Bakio, votaron a favor del proyecto, pero el rechazo de los tradicionalistas a un texto "ateo" hizo que la mayoría de los municipios navarros votaran en contra del nuevo proyecto estatutario propuesto<sup>38</sup>. Como consecuencia de ello, este proyecto estatutario quedó en suspenso hasta la primavera de 1933, cuando fue descartada, ya de manera definitiva, la integración de Nafarroa en un Estatuto único de las cuatro provincias.

<sup>38</sup> José María Jimeno Jurio historialari jaunak "Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco" liburuan agertuten dan azterketan dinoanez, ezezko botoa emon eben ordezkari askok ez eben ordeztent ebezan udal-korporazinoen benetako eretxia adierazo, Estatutu bakarraren aldekoak ziran-eta. / El historiador D. José María Jimeno Jurio sostiene en el estudio recogido en el libro "Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco" que muchos de los compromisarios que votaron negativamente no trasladaron el sentir real de las corporaciones municipales que representaban, que sí eran partidarias del Estatuto único.



1933. urteko bertako maiatzaren 13an, Bakioko Udalak aho batez erabagi eban Bilboko Udalaren zirkularraren bigarren idatz-zatiagaz bat egitea, Estatutuaren onarpena lortzeko asmotan. Hori dala eta, Bizkaiko Probintziako Kudeaketa Batzordeari eskatu eutsan Iruñean agindutakoa beteteko, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko udalek Estatutu Autonomikoaren proiektua onartu eien eta, ahal zala, Nafarroak berak be parte hartu eian, euskal herriarentzat sano garrantzitsua zalako euskal herritar guztiek Estatutu bakarrean bat egitea. Ostean, Gobernuak 1931ko abenduaren 8an emondako Dekretuan aurreikusitako erreferendumerako eguna zehaztu behar zan. Deialdi-eskabide hori kontuan hartu zan, eta, abuztuaren 6an, batzar orokorra egin zan Gasteizen, “*hiru probintziatarako Estatutu bakarraren proiektua lantzeko*”.

Horretarako sortutako Kudeaketa Batzorde Mankomunauak erabagi egin eban 1933. urte beratako zemen-diaren 5ean Estatutuaren onarpenaren inguruko kontsulta (plebiszitua) egingo zala hiru probintzietan.

Egun batzuk lehenago, Udalak Bakioko eta San Pelaioiko maisu-maistrei eskatu eutsen eskoletako giltzak emoteko, Euskal Estatutuaren inguruko plebisziutaren botazinoa egingo ebelako bertan. Era beratan, Bentako eskolako hauteslekuari eskatu eutsan mahaiko sei laguntzako janaria ekarteko. Izan be, Vicente Larrauriri ordaindu jakon laguneko 5 pezeta.

Azpmarratu behar da andren botorako erabateko eskubidea (1924. urteko Udal Estatutuan egoan onartuta, baia sano mugatua zan) 1931ko urriaren 1ean onartu zala Espainiako Korteetan, eztabaida historikoaren ostean. Bertan, hain zuzen be, Clara Campoamor diputaduek beraren alderdiaren kontra be (Erradikala) defendidu eban eskubide hori. Victoria Kent zein Margarita Nelken diputaduek eta diputadu ezkertiar gehienek, barriz, andren botoa Errepublikarean onerako atzeratu behar zala adierazo eben, gehienen botoa eskoi tradizionalako alderdientzat izango zalakoan. Edozelan be, eskubide hori behin betiko agertu zan urte beratan aldarrikatu zan Konstituzinoaren 36. artikuluan.

El 13 de mayo de ese mismo año 1933 el Ayuntamiento de Bakio acordó, por unanimidad, adherirse al apartado segundo de la circular del Ayuntamiento de Bilbao, en orden a la obtención de la aprobación del Estatuto y, en consecuencia, requirió a la Comisión Gestora Provincial de Bizkaia el cumplimiento de la promesa hecha en Iruña de someter el proyecto de Estatuto Autonomico a la aprobación de los ayuntamientos de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia, haciéndolo extensivo, si fuera posible, a Nafarroa, por ser de primordial importancia para el pueblo vasco la unión de todos los vascos en un solo Estatuto. Posteriormente, debía señalarse una fecha para el referéndum previsto en el decreto gubernamental del 8 de diciembre de 1931. Esta solicitud de convocatoria fue atendida y el 6 de agosto se celebró en Gasteiz una asamblea general “*para tratar el proyecto de Estatuto único para las tres provincias*”

Por parte de la Comisión Gestora Mancomunada, creada a tal efecto, se determinó que el día 5 de noviembre de dicho año 1933 se celebrase, en las tres provincias, la consulta (plebiscito) sobre la aprobación del Estatuto.

Unos pocos días antes de esa fecha, el Ayuntamiento solicitó a los maestros de Bakio y San Pelaio la entrega de las llaves de las escuelas, para poder celebrar en ellas la votación del plebiscito del Estatuto Vasco. Así mismo, pidió suministrar al colegio electoral de la Escuela de la Benta la comida para las seis personas de la mesa, que sería abonada a Vicente Larrauri a razón de 5 pts. por persona.

Cabe añadir que el derecho pleno a voto de la mujer (el Estatuto Municipal del año 1924 lo admitía pero con un carácter muy restringido) fue aprobado el 1 de octubre de 1931 por las Cortes españolas tras un histórico debate en el que la diputada Clara Campoamor, en contra de su propio partido, el Radical, defendió dicho derecho, mientras que las diputadas Victoria Kent y Margarita Nelken, así como el grueso de los diputados de izquierdas, sostuvieron la necesidad de aplazar el voto femenino por el bien de la República, ya que alegaban que su voto, en mayoría, iría para formaciones de la derecha tradicional. En cualquier caso, este derecho quedó recogido definitivamente en el artículo 36 de la Constitución que se promulgó ese mismo año.

Holan, Euskal Herriko Estatutuaren inguruko kontsultan, andrekin lehenengoz emon ahal izan eben euren botoa Estatu espainolean, Indalecio Ojangurenek Eibarreko udalerrian egun haretan hartutako argazkian agertuten dan lez.

De esta manera, la consulta sobre el Estatuto del País Vasco fue la primera ocasión en la que la mujer pudo emitir su voto dentro del Estado español, tal y como quedó recogido en la fotografía de esa jornada, tomada en el municipio de Eibar por Indalecio Ojanguren.



Estatutuaren generako botazinoa Eibarren. /  
Votación sobre el Estatuto en Eibar.  
(Indalecio Ojanguren).

252278/035

### PLEBISCITO SOBRE EL ESTATUTO DEL PAIS VASCO

TERMINO MUNICIPAL DE Baquió DISTRITO MUNICIPAL Unico  
Sección de 1ª Núm. \_\_\_\_\_

#### RESULTADO DEL ESCRUTINIO

Los que suscriben, Presidente y Adjuntos de la Mesa electoral de la expresada Sección,

CERTIFICAN: Que el escrutinio de la votación del Plebiscito sobre el Estatuto del País Vasco, verificado en esta Sección en el día de hoy, ofrece el siguiente resultado:

Número de Electores de la Sección . . . . .	371
Idem de papeletas leídas . . . . .	369
Idem de votantes . . . . .	369

	NÚMERO DE VOTOS OBTENIDOS	
	En número	En letra
Votos en favor del Estatuto.	369	trescientos sesenta y nueve
Votos en contra del id.	0	Cero

Y en cumplimiento del art. 45 de la Ley de 8 de Agosto de 1907, expedimos la presente por duplicado, fijando uno de los ejemplares en la parte exterior del edificio en que se ha verificado la votación, y remitiéndolo otro al Sr. Presidente de la Comisión Gestora de la Diputación de Vizcaya, en el tiempo que el citado artículo determina.

Baquió a 5 de Noviembre de 1933.  
El Presidente de la Mesa.

El Adjunto. *José Omsaga* El Adjunto. *Enrique de Echeburua*

Interventor de la Comisión Gestora. *Hidalgo* Interventor del Ayuntamiento. *Sancho*

(BFAH/AHFB).

252278/035 8

### PLEBISCITO SOBRE EL ESTATUTO DEL PAIS VASCO

TERMINO MUNICIPAL DE Baquió DISTRITO MUNICIPAL Baquió  
Sección de 2ª Núm. \_\_\_\_\_

#### RESULTADO DEL ESCRUTINIO

Los que suscriben, Presidente y Adjuntos de la Mesa electoral de la expresada Sección,

CERTIFICAN: Que el escrutinio de la votación del Plebiscito sobre el Estatuto del País Vasco, verificado en esta Sección en el día de hoy, ofrece el siguiente resultado:

Número de Electores de la Sección . . . . .	332
Idem de papeletas leídas . . . . .	331
Idem de votantes . . . . .	331

	NÚMERO DE VOTOS OBTENIDOS	
	En número	En letra
Votos en favor del Estatuto.	331	trescientos treinta y uno
Votos en contra del id.	0	Cero

Y en cumplimiento del art. 45 de la Ley de 8 de Agosto de 1907, expedimos la presente por duplicado, fijando uno de los ejemplares en la parte exterior del edificio en que se ha verificado la votación, y remitiéndolo otro al Sr. Presidente de la Comisión Gestora de la Diputación de Vizcaya, en el tiempo que el citado artículo determina.

Baquió a 5 de Noviembre de 1933.  
El Presidente de la Mesa.

El Adjunto. *Carrión* El Adjunto. *de Jaurriola*

El Interventor de la Comisión Gestora. *José de Jaurriola* El Interventor del Ayuntamiento. *Segundo Marcaride*

Boto-zenbaketako aktetan adierazo zan lez, Bakioko 703 hautesleetatik, 700ek baiezko botoa emon eben, hiru abstenidu egin ziran eta ez zan aurkako botorik egon<sup>39</sup>.

Tal y como quedó recogido en las actas del escrutinio, de los 703 electores correspondientes a Bakio, 700 votaron afirmativamente y hubo tres abstenciones, con ningún voto en contra<sup>39</sup>.

<sup>39</sup> José Luis de la Granja "Nacionalismo y II República en el País Vasco" lanean dinoanez, Estatutuaren aldeko gehiengoak ikaragarria izan zala kontuan hartuta (hautesle-erroldearen %90ek baino gehiagok emon eban botoa, eta boto-emoileen %97k baiezkoa emon eben), emoten dau iruzurrezko jarduketak egin zizala, gitxienez probintzia bakoitzeko hautesleen hiruren biren babesa lortu behar zalako Korteetan bideratzen segiduteko eta alderdietako ikuskatzailerik egon ez zalako prozesua kontrolatuko. Sasoi haretako nazionalista batzuk jokabide horreek autortu ebezan. / Apunta José Luis de la Granja, en su trabajo "Nacionalismo y II República en el País Vasco", que la abrumadora mayoría favorable al Estatuto (votó más del 90 por 100 del censo electoral y el 97 por 100 de los votantes lo hizo afirmativamente) hace suponer que hubo actuaciones fraudulentas, incitadas por la necesidad de obtener el apoyo mínimo de 2/3 de los electores de cada provincia para que prosiguiese su tramitación en las Cortes y por la carencia de interventores de los partidos que supervisasen el proceso, comportamientos reconocidos por algunos nacionalistas de la época.

Orr.

Ganera, hiru probintzietan (Nafarroa ez zan Estatutuaren proiektuaren inguruan zer uste eben adierazoteko deitutako lurraldeen parte) botoa emoten joan ziran 426.309 lagunetatik, 411.756k aldeko botoa emon eben. Hori dala eta, Korte Errepublikanuetan bideratzen hasteko legezko eskakizun nagusia beteten zan. Halanda be, kontsulta hori egin zanetik aste bi igarotakoan, legegintzako hauteskundeak egin ziran Estatu espainolean, eta Espainiako Eskoi Autonomoen Konfederazioak (CEDA) irabazi eban. Dana dala, hauteskundeetako irabazlea izan bazan be, Alderdi Errepublikanu Erradikaleko hautagaia zan Alejandro Lerrouxen izentapena babestu eban.

Koalitzino horrek "urtebiko baltza" izeneko epealdian (oso kontserbadorea eta kontrarreformista izan zalako) gobernau eban, eta mehatxutzat jo eban euskal proiektu autonomista barria.

Bestetik, Arabako tradizionalistek amarruak egin ebezan, Araba bera Euskal Estatututik kanpo ixteko, eta holantxe defendidu eben Korteetan balioa emoteko hasitako eztabaida parlamentarioetan.

Eskoitiar asko eukazan Ganberan behar ziran akorduak berbatzea ezinezkoa izan zanez, 1934ko zezeilean, Estatutuaren izapideak guztiz blokeata lotu ziran, eta ez jakan 1936. urtera arte ostera be eutsi, Fronte Popularrak urte horretan egindako hauteskundeetan irabaztea lortu ostein.

Aldi beratan, 1934. urteko udearen hasieran, "Ardaoaren Gerrea" hasi zan. Jatorriz, euskal udalek eukien arazoa ekonomikoa baino ez zan arren, errazoi politiko bat edo beste be nahastau zan.

140 diputaduk Korteetan aurkeztu eben proposamenagaitik sortu zan "Ardaoaren Gerrea", "*Ardaoaren Estatutua*" indarrean sartu eitela eskatzen eben-eta. Alkoholen ganeko zerga guztiak kentzeko estatutu hori 1932an onartu eban Ganbera horrek, baia ez zan ezarri.

Aurreko urteetan Espainiako ardaogintzeak gora egin ebanez, oso gatxa zan merkaturatzea. Hori dala eta, 140 diputadu horreek (eremu ekoizleetatik etozan, batez be) "Ardaoaren Estatutua" behingoan indarrean imini eiela eskatu eben, biltegiko hondarrak egoera abantailatsuan merkaturatu ahal izateko.

Espainiako Gobernuak eta Ogasuneko ministroak asmo hori ontzat jo ebenez, euskal diputaduek eta euskal eretxi publikoaren zatirik handienak aurka egozala adierazo eben, proponidutakoa Euskadin ezarten bazan, probintzietako zein udalerrietako etxaldeek porrot egingo ebelako. Nazionalistentzat, barriz, oindinokarren arazo handiagoa egoan, neurri hori ezartean Kontzertu Ekonomikoa urrututen zalako. Izan be, hori ezarteko itunaren arabera, euskal instituzinoak ziran zerga-arloko eskumena eukienak.

Garagarrilaren 5erako, alkateen batzarra eratu zan Bilbon. Bizkaiko eta Gipuzkoako ia-ia alkate guztiak joan ziran bertara, eta Arabako 17 baino ez (Arabako udalek beste jarrera bat eukien Ardaoaren Estatutuaren inguruan, ardaogintza handi-handiko Arabako Errioxako eskualdea egoalako bertan).

1934. urte horretako bagilaren 29an egindako ezo-hiko batzarrean, Bakioko Udalbatzak Leandro Oraindi

Por otra parte, de las 426.309 personas que acudieron a votar en las tres provincias (Nafarroa no formaba parte de los territorios llamados a pronunciarse sobre este proyecto de Estatuto), 411.756 votaron favorablemente, lo que supuso dar cumplimiento al principal requisito legalmente exigido para que comenzase su tramitación en las Cortes republicanas. Sin embargo, dos semanas después de esta consulta se celebraron elecciones legislativas en el Estado español, triunfando en ellas la Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA), la cual, pese a ganar los comicios, apoyó en las Cortes la investidura del candidato del Partido Republicano Radical, Alejandro Lerroux.

Esta coalición, que gobernó durante el periodo conocido como "bienio negro" (por su carácter conservador y contrarreformista), vio como una amenaza el nuevo proyecto autonomista vasco.

Por otro lado, los tradicionalistas alaveses maniobraron para excluir a Araba del Estatuto Vasco, y así lo defendieron en los debates parlamentarios que se habían iniciado para su validación por las Cortes.

La imposibilidad de alcanzar los acuerdos necesarios en una Cámara con fuerte presencia derechista derivó en que en el mes de febrero de 1934 quedase totalmente bloqueada la tramitación del Estatuto, que no fue retomada hasta el año 1936, tras la victoria del Frente Popular en las elecciones celebradas ese año.


De forma paralela, en el inicio del verano del año 1934 dio comienzo lo que se iba a conocer como la "Guerra del Vino". El problema que se planteó por los ayuntamientos vascos fue, en su origen, estrictamente económico, si bien se entremezclaron algunas motivaciones políticas.

El germen de esta "Guerra del Vino" estuvo motivado por la proposición que 140 diputados presentaron en las Cortes, solicitando que entrase en vigor el llamado "Estatuto del Vino". Este, que había sido aprobado por dicha Cámara en 1932 y que suponía la supresión de todo impuesto sobre los alcoholes, no había llegado a aplicarse.

El aumento de la producción vinícola en España durante los años anteriores dificultaba su salida al mercado, lo que llevó a los citados 140 diputados -provenientes fundamentalmente de zonas productoras- a solicitar la inmediata puesta en vigor del "Estatuto del Vino" a fin de poder comercializar, en situación ventajosa, los excedentes almacenados.

Esta pretensión fue asumida por el Gobierno de España y su Ministro de Hacienda, provocando la reacción en contra de los diputados vascos y de gran parte de la opinión pública vasca, puesto que se entendía que la aplicación de estos preceptos en el País Vasco supondría la ruina de las haciendas, tanto provinciales como municipales. Pero, para los nacionalistas, lo más importante era que, además, con tal medida se vulneraba el Concierto Económico, que fue establecido en base a un pacto, conforme al cual, les corresponde a las instituciones vascas la competencia en materia tributaria.

Para el día 5 de julio se convocó en Bilbao una asamblea de alcaldes a la que asistieron la casi totalidad de los ayuntamientos vizcaínos y guipuzcoanos y tan solo 17 alaveses (en Araba la postura de los ayuntamientos respecto del Estatuto del Vino era distinto, dado que contaban con la comarca de la Rioja alavesa, con importante producción vinícola).



Korporazioa Gernikan. / La Corporación en Gernika: 1- Ciriaco Egia, 2- Leandro Oraindi.  
(Oraindi familiak itxitakoa / Cedida por la familia Oraindi).

alkatea aukeratu eban “batzar horretan beraren izenean botoa eukiko eban ordezkaria izan eiten”, eta honako hauxe baimentzeko (aldeko botoa emoteko) agindu eutsan: *“konpondu barik egozan arazoakaz zerikusia eukien erabagi guztiak, udalen eskumen zein baliabideetan eragina eukienean eta batzarrean bertan batzuk zein besteak defendiduteko proponiduten ziranean”*.

Batzar haretan hartutako erabagien arabera, garrilaren beraren erdialdean, Euskadi osorako Bitarteko Batzordea izentau zan. Probintzia bakotxeko bost ordezkari ziran bertako kideak, eta, abuztuaren 12rako, “Kontzertu Ekonomikoaren Defentsarako Batzordearen” behin betiko izentapena eratu eban, batzordekideen aukeraketa artezaren bidez.

Egia esan, “Kontzertu Ekonomikoaren Defentsarako Batzordeko” kideak aukeratzean, Bitarteko Batzorde moduan Bilbon batzartutakoek probintziako zeharkako hauteskunde ostenduak egitea proponiduten eben, bertan udal-tako zinegotzien botoak bakarrik hartuko ziralako kontuan.

Probintzia bakotxeko errealidade politikoagaz hobeto bat etorren ordezkari-tza probintziala lortzea zan helburua, lurralde-ordezkaritza Gobernu zentrolean ezarritako indarren banaketaren erakusgarri izan ez eiten, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kudeaketa-batzordeen bitartez.

Espaniako Gobernuak abuztuaren 12ko deialdi horren aurka egin eban bete-betean, eta, gobernadore zibilen bidez, ekitaldia galazon eta aukeraketa horretan parte hartzen ebenentzako neurri zapaltzaileak iragarri ebazan. Behin eta barriro adierazo arren, aurreikusitako egunean egin ziran hauteskundeak. Egun haretako gora-

El Ayuntamiento Pleno de Bakio, en sesión extraordinaria celebrada el día 29 de junio de ese año 1934, había acordado designar a su alcalde Leandro Oraindi, *“representante del ayuntamiento con voto, en nombre del mismo, para la citada asamblea”* con el mandato de autorizar (votar favorablemente) *“todos los acuerdos que se relacionasen con los problemas pendientes y que afectasen a las facultades y recursos de los ayuntamientos y que se propusiesen en la asamblea con el fin de defender unos y otros”*.

En consonancia con los acuerdos adoptados en esa asamblea, a mediados del mismo mes de julio se designó una Comisión Interina para todo el País Vasco, formada por cinco representantes de cada una de las provincias y que convocó para el 12 de agosto la designación definitiva de la “Comisión Defensora del Concierto Económico” mediante la elección directa de sus miembros.

En realidad, lo que los reunidos en Bilbao, como Comisión Interina, proponen con la elección de los miembros de la “Comisión Defensora del Concierto Económico” es la celebración de unas elecciones provinciales indirectas y encubiertas ya que, en las mismas, tan solo iban a contar los votos de los concejales de los diferentes ayuntamientos.


El objetivo perseguido era lograr una representación provincial más acorde a la realidad política de cada provincia, evitando, de esta manera, que la representación territorial fuese un reflejo del reparto de fuerzas establecidas en el Gobierno central a través de las Gestoras correspondientes a Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

orr.

beherak ugariak izan ziran. Indar publikoak udaletxeak okupau ebazan, eta hainbat alkate eta zinegotzi atxilotu ebezan, Bakion jazo zan lez.

Udaletako zinegotziek egindako botazinoetako emoitzearen arabera, hautagai nazionalistek irabazi eben, eta gehiengo lortu eben hiru probintzietan. Bizkaian, EAJ izan zan irabazlea, 20 ordezkarietatik 10 lortu ebazalako. Garetiko indarrak asago lotu ziran. Gipuzkoan be, EAJk irabazi eban, 20 ordezkarietatik 11 lortu ebazalako. Alderdi berberak aukeratutako 8 ordezkarietatik 4 lortu ebazan Araban.

Aitatu dogun lez, arazo eta gorabehera larriak egon ziran euskal udalerrietan. Bakion, berbarako, Udaltzatzak abuztuaren 12 horretan egindako ezohiko batzarreko aktean azaltzen danez, Ordenako Indarrek esku hartu egin eben, eta, hasikeran, Korporazioari ez eutsien *“gaueko zortzi eta erdietara arte”* sartzen itxi, bilerea *“hamabietarako”* deitu bazan be. Ostean, aktean bertan azaldu zan *“udalerrri hone-tako Miñoien Postuko komandanteak”* ekitaldia etengo ebala jakin eragin ebala. Halanda be, Bakion, *“Kontzertu Ekonomikoaren Defentsarako Batzordeko”* kideak aukeratzeko botazinoa egin zan, eta, ostean, komandantea batzar-aretoan sartu zan, eztabaidak eten ebazan eta *“Leandro de Oraindi Cortázar alkatea atxilotu eban atoan”*, beraren eretxiz herriaren borondatearen zapalkuntza larria zanaren aurrean adoretu protestau eban arren.



La Época,  
1934/09/11.

Hurrengo egunean, abuztuaren 13an, honako hauxe ebatzi eban Gernikako Instrukzinoko epaileak: *“Bakioko alkatea dan Leandro Oraindi Cortázar (...) zinegotzi-kargutik kentzea (...), desobedientziagaitik edegitako sumarioan zehazten dan prozesamentu-autoaren arabera (...), eta beraren ordegearen arabera jagokona imintea”*. Gobernadore zibilak Korporazioari ofizio bidez emon eutsan kargua ixteko ebazpenaren barri.

Bakioko Udalaren hurrengo osoko bilkurea abuztuaren 25ean egin zan, lehenengo alkateordea zan Doroteo Uriarteren zuzendaritzapean. Alkatetzeari beraren alkartasuna adierazo ostean, dimisino ezeztuezina aurkeztu ebanez, Celestino Ibinaga Olaskoaga egin eben Korporazinoko buru, udal-hauteskundeetan boto gehien euki ebazan hurrengoan zan-eta. Berak be ez eban kargu hori onartu.

Esta convocatoria, a celebrar el 12 de agosto, cuenta con la frontal oposición del Gobierno de España que, a través de los Gobernadores Civiles, prohíbe el acto y anuncia medidas represivas para los que participaran en dicha elección. Pese a las múltiples advertencias, las elecciones tienen lugar el día previsto. Los incidentes de la jornada son múltiples. Los ayuntamientos son ocupados por la fuerza pública y numerosos alcaldes y concejales son detenidos, como ocurrió en Bakio.

El resultado de las votaciones realizadas por los concejales de los ayuntamientos supone el triunfo de los candidatos nacionalistas, que obtienen la mayoría en las tres provincias. En Bizkaia la elección supone la victoria del PNV, que logra 10 de los 20 compromisarios, seguido a distancia por las demás fuerzas. También en Gipuzkoa gana el PNV, con 11 de los 20 compromisarios, mientras que en Araba ese mismo partido consiguió 4 compromisarios de los 8 elegidos.

Como se ha citado, hubo graves problemas y disturbios en los distintos municipios vascos. En el caso de Bakio, en el acta de la sesión extraordinaria del Pleno celebrado ese 12 de agosto se constata la intervención de las Fuerzas del Orden que, en principio, no permitieron, la entrada de la Corporación *“hasta las ocho y media de la noche”* a pesar de que la sesión estaba convocada *“para las doce horas”*. Posteriormente, se recogió en el acta la advertencia de que se procedería a la suspensión del acto *“hecha por el Comandante del puesto de Miñones de este municipio”*. A pesar de ello, se celebró la votación para la elección, en Bakio, de los miembros de la *“Comisión Defensora del Concierto Económico”* tras lo cual, el Comandante penetró en el salón de sesiones, suspendió las deliberaciones y procedió *“a la inmediata detención del alcalde, Leandro de Oraindi Cortázar”* a pesar de sus enérgicas protestas ante lo que consideraba un grave atropello a la voluntad popular.

Al día siguiente, 13 de agosto, el Juez de Instrucción de Gernika decretó *“la suspensión en su cargo de concejal (...) del alcalde de Bakio, Leandro Oraindi Cortázar (...) en virtud del auto de procesamiento dictado en el sumario por desobediencia (...) debiendo ser sustituido por el que le corresponde con arreglo a la ley”*, suspensión que el Gobernador Civil transmitió, mediante oficio, a la Corporación.

La siguiente sesión plenaria del Ayuntamiento de Bakio fue celebrada el día 25, siendo presidida por Doroteo Uriarte, primer teniente de alcalde quien, tras manifestar su solidaridad con la alcaldía, presentó su dimisión irrevocable, por lo que la presidencia de la Corporación le correspondió a quien había obtenido el siguiente número de votos en las elecciones municipales, Celestino Ibinaga Olaskoaga, que tampoco aceptó dicho puesto.


Al mismo tiempo, la situación general del País Vasco fue agravándose durante los días sucesivos. El 3 de septiembre, en el transcurso de la visita que una representación de parlamentarios catalanes realizó a Euskadi con el fin de corresponder al hecho de que los diputados nacionalistas hubiesen abandonado en el mes de julio las Cortes, en solidaridad con los electos catalanes porque el Tribunal de Garantías Constitucionales había

Era batera, Euskadiko egoera orokorra oindinokarren gehiago larriagotu zan hurrengo egunetan. Irailaren 3an, parlamentario katalanen ordezkartizeak bisitaldia egin eban Euskadira, eskerrak emoteko asmotan, hautetsi katalanei alkartasuna adierazo gurean diputadu nazionalistek Korteetatik alde egin ebelako garagarrilean, Berme Konstituzionalen Auzitegiak Labrantzen ganeko Lege Katalana Konstituzinoaren aurkakoa zala ebatzi ebanean. Bisitaldi horretan, segizioa Gernikara ailegau zanean, Segurtasun Indarrek bertan alkartutako jentetzeari egin eutsien eraso. Hori dala eta, irailaren 4an, "Probintziako Batzorde Betearazleek" alkarregaz egin eben batzarrean, honako hauxe erabagi zan, besteak beste: herrialdeko udal guztiek taldean dimitidutea eta "Behin Betiko Batzordeek" euren eginkizunei eustea, Kontzertu Ekonomikoa, udalen autonomia eta alkate zein zinegotzien aurkako isunak eta prozesuak defendiduteko.

Hori guztia kontuan hartuta, udal-hauteskundeetan boto gehien lortu ebazan zinegotzia izatearren irailaren 7an Doroteo Uriarteren presidentetzapean egin zan ezohiko batzarrean, udala osotzen eben zinegotzi guztiek "bertan behera itxi ebezan herriak 1931ko apirilaren 12an herri-botazinoaren bidez esleitu eutsezan karguak".

declarado inconstitucional la Ley catalana de Cultivos, cuando la comitiva llegó a Gernika se produjo una carga de las Fuerzas de Seguridad contra la multitud allí congregada, lo que provocó que el día 4, en una reunión conjunta de los "Comités Ejecutivos Provinciales", se acordase, entre otros puntos, la dimisión colectiva de todos los ayuntamientos del País, así como que las "Comisiones Definitivas" continuaran en sus funciones para la defensa del Concierto Económico, de la autonomía de los municipios y de los procesos y multas contra los alcaldes y concejales.

Pues bien, de acuerdo a lo anterior, en sesión extraordinaria celebrada el 7 de septiembre bajo la presidencia de Doroteo Uriarte, por ser el concejal con más votos obtenidos en las elecciones municipales, los ediles que componían la totalidad del Ayuntamiento "renunciaban (a) los cargos que el pueblo les otorgó por elección popular el 12 de abril de 1931".



Acta del 1934/09/07ko aktea.

Karguak bertan behera ixtean, bitarteko egoera sortu zan, eta 1936ko zezeilera arte luzatu zan.

Hasikera baten, hurrengo astean, 1934ko irailaren 13an, hain zuzen be, bitarteko udala eratu zan, gobernadore zibilak izentautako kudeatzaileei dei egin ostean. Izentapen barri horreei erantzuteko asmotan, Moisés de la Fuente Leiva eta Bernardo Ortuzar bertaratu ziran.

Con dicha renuncia se dio inicio a una situación de interinidad que se prolongaría hasta febrero de 1936.

En un primer momento, a la semana siguiente, concretamente el 13 de septiembre de 1934, se constituye el Ayuntamiento interino tras haberse convocado a los gestores nombrados por el Gobernador Civil. En respuesta a estos nuevos nombramientos acudieron a la sesión Moisés de

orr.

Deitutako garetikoak, hau da, Pedro Ormatza, Juan Elorriaga, Adriano Larrauri, Cecilio Garai, Justo Ugalde eta Andrés García, barriz, ez ziran agertu, eta zergaitik ez joiazan argitzeko ezelako azalpenik be ez eben emon. Bertaratu ziran bietatik, urte gehien eukazan Bernardo Ortuzarrek hartu eban bitarteko presidentetzea, eta berak zein aurkeztutako bigarren zinegotziak izentapenei ezetza emon barik urten eben udaletxetik. Dana dala, ez ziran garetiko karguak aukeratu. Irailaren 23ko hurrengo osoko bilkuran, jentetza eurrez sartu zan aretoan, bertan egozan zinegotziak zemaitu eta iraindu egin ebezan eta protestau be egin eben bertan batzartu eta eztabaidatzen egozalako.

Ostean, gobernadore zibilak bitarteko zinegotzi bariak izentau ebazan: Justo Elorriaga, Saturnino Ormatza Uriarte, Félix Ormatza Uriarte eta Antonio Llaguno, baia banan-banan (Justok izan ezean, aurkeztu ez zalako) ez ebezan bitarteko zinegotziak izateko karguak onartu. Hirugarrenean, Antolín Larragan eta Antonio Etxebarria izentau ebezan, baia eurek be ezetza emon eben. Azkenean, Julián Ugalde Asteintza izentau eben bitarteko zinegotzi. Hori dala eta, alkatea aukeratu ahal izan zan, eta, boto bi bakarrik lortu arren, Bernardo Ortuzar Zobaran izan zan.

Kudeaketa Batzorde horrek urtebete eta erdiz zuzendu eban Bakioko Udala (1936ko zezeilera arte), eta 1931ko apirileko hauteskundeetan zilegi aukeratutako udal-ordezkariek lekua hartu eban.

Sano gatxa izan zan Bakioko Bitarteko Udal hori eratzea, eta horren adierazgarri dira ezezko horreek guztiak. Izan be, argi eta garbi ixten eben herri bakiotarrak konpromiso handia eukana Kontzertu Ekonomikoaren eta Euskal Herriaren eskubideen defentseagaz. Udalak holantxe segidu eban, harik eta 1936ko zezeilaren 23an Fronte Popularrak hauteskunde orokorretan irabazi eban arte, Gobernu barriak delitu politiko eta sozialakaitik zigortutakoei eta auzipetuei amnistia emoteko Lege Dekretua egin ebalako eta, euren artean, 1934. urtean zigortutako euskal alkateak eta zinegotziak egozalako. Hori dala eta, hauteskontzietatik sortutako Udala berreskuratu eban Bakiok.

Korporazino horretako kideek (Leandro Oraindi alkatea zala) euren karguetan segidu eben, harik eta soldadu-talde frankistek Bakio hartu eben arte.

Dana dala, 1934. urteko bertako udagoienean, aldi beratan, politikearen eta beharraren arloko beste gatazka bat be zabaldu zan euskal probintzietan, eragina ezbardina izan bazan be: "1934ko urriko iraultzea", alegia.

Urriaren 5ean, CEDA eskoitiarreko hiru ministro sartzean Espainiako Gobernu barria eratu zanean, beharginen mobimentuek bat egin eta greba orokorreako deia egin eben. Asturiasen jarraipen handi handia euki ebanez, gogor galazon zan, eta gorabeherek urriaren 18ra arte iraun eben. Katalunian be, babes handi handia euki eban grebeak, eta, urriaren 6an, Generalitateko presidentea zan Lluís Companyssek "*Espainiako Errepublikako Federaleko Estatu Katalana*" aldarrikatu eban Palauko balkoian. Militarrek arin-arin menderatu eben matxinadea, eta Companys zein Kataluniako Gobernuko kontsejariak atxilotu ebezan.

Matxinadako mobimentuarentzat, balio handikoa zan Euskadik emondako erantzuna, Bilbo inguruko meatzal-

la Fuente Leiva y Bernardo Ortuzar. Los demás convocados, Pedro Ormatza, Juan Elorriaga, Adriano Larrauri, Cecilio Garai, Justo Ugalde y Andrés García no se personaron en la misma, sin que aportaran, tampoco, ninguna razón que justificase su ausencia. El mayor en edad de los dos asistentes, Bernardo Ortuzar, pasó a ocupar la presidencia interina y tanto él como el segundo edil presentado se retiraron del consistorio sin renunciar a los nombramientos pero quedando en suspenso la elección de los demás cargos. En la posterior sesión plenaria del 23 de septiembre irrumpió en la sala numeroso público profiriendo amenazas e insultos a los concejales presentes y protestando en contra de que se reunieran y deliberaran.

Posteriormente, el Gobernador Civil nombró nuevos concejales interinos: Justo Elorriaga, Saturnino Ormatza Uriarte, Félix Ormatza Uriarte y Antonio Llaguno, pero uno a uno (menos Justo que no se presentó) fueron renunciando a sus cargos de concejales interinos. En un tercer intento fueron nombrados Antolín Larragan y Antonio Etxebarria, que también renunciaron. Por último, se nombró concejal interino a Julián Ugalde Asteintza y esta vez sí pudo procederse a la elección de alcalde que, con solo dos votos, resulto ser Bernardo Ortuzar Zobaran.

Esta gestora dirigió el Ayuntamiento de Bakio durante año y medio (hasta febrero de 1936) y vino a suplantar a los representantes municipales legítimamente elegidos en las elecciones de abril de 1931.

Prueba de la dificultad que supuso la configuración del Ayuntamiento interino en Bakio fue esta sucesión de renunciaciones que eran el reflejo del grado de compromiso del pueblo bakiotarra en defensa del Concierto Económico y los derechos del pueblo vasco. Así se mantuvo hasta que el 23 de febrero de 1936, tras la celebración de elecciones generales con el triunfo del Frente Popular, el nuevo Gobierno dictó un Decreto-Ley por el que se concedió una amnistía a los penados y encausados por delitos políticos y sociales entre los que estaban los alcaldes y concejales vascos sancionados en el año 1934, lo que supuso que Bakio recuperase el Ayuntamiento popular nacido de las urnas.

Los miembros de esta Corporación (con Leandro Oraindi como alcalde) siguieron en sus cargos hasta la toma de Bakio por las tropas franquistas.

Pero en el otoño de este mismo año 1934, y de manera simultánea, otro conflicto de naturaleza política y laboral se extendió igualmente, si bien de manera dispar, por las provincias vascas. Es la conocida como "*La revolución de octubre de 1934*".

El día 5 de octubre, tras la formación de un nuevo Gobierno de España con la entrada de tres ministros de la derecha CEDA, los movimientos obreros se alían y declaran una huelga general que es seguida mayoritariamente en Asturias, donde es duramente reprimida, prolongándose los enfrentamientos hasta el día 18. También en Catalunya se apoya intensamente la huelga, y el día 6 de octubre, Lluís Companys, que era el Presidente de la Generalitat, proclamó en el balcón del Palau el "*Estado Catalán de la República Federal Española*". Los militares sofocaron la revuelta con rapidez deteniendo a Companys y sus consejeros del Gobierno catalán.

Para el movimiento insurreccional, la respuesta del País Vasco alcanzaba un gran valor por la importancia estratégica de la zona minera del entorno de Bilbao y de la zona fabril (mayoritariamente de armas) de Eibar.

deak eta Eibarreko lantegi-eremuak (armagintzakoak, batez be) garrantzi estrategikoa eukielako.

Bizkaian, grebeak kutsu iraultzailea euki eban meatzaldean (Somorrostro, Gallarta, Galdames, La Arboleda) eta Nerbioiko erribera industrialean (Erandio, Barakaldo, Sestao, Portugalete). Gipuzkoan, gorabeherak egon ziran lantegien eta arrantzaleen guneetan (Pasaia, Errenteria, Hernani), matxinadako mobimentu nabarienak Eibarren eta Arrasaten jazo arren.

1934ko urriaren 5etik 12ra arte, 22 hildako egon ziran Bizkaian; 18, Gipuzkoan; eta 2, Nafarroan. “Greba iraultzaile” hori, barriz, ez zan Bakiora ailegau.

Lehen esan dogun lez, bertako biztanleen bizibide nagusia nekazaritza zan, eta, tokian-tokian, ez egoan beharginen eskubideen aldeko alkarerik. Ganera, Udal Korporazioan ordezkartzarik handiena eukan alderdi politikoa EAJ zan, eta beste idea batzuen agerpena gixienekoa zan, nozonoz monarkikoak eta karlistek baino ez ebelako berbarik euki. Ez EAJk ez beragaz lotutako sindikatuak, Eusko Langileen Alkartasunak<sup>40</sup>, ez eben ekintza horreetan parte hartu.

En Bizkaia la huelga tuvo cariz revolucionario en la zona minera (Somorrostro, Gallarta, Galdames, La Arboleda) y en la ribera industrial del Nerbioi (Erandio, Barakaldo, Sestao, Portugalete). En Gipuzkoa se produjeron altercados en los núcleos fabriles y pesqueros (Pasaia, Rentería, Hernani) si bien los movimientos de insurrección más relevantes tuvieron lugar en Eibar y Arrasate.

Entre los días 5 y 12 de octubre de 1934 hubo 22 víctimas mortales en Bizkaia, 18 en Gipuzkoa y 2 en Nafarroa. Pero esta “*huelga revolucionaria*” no llegó a alcanzar Bakio.

Ya se ha señalado que su población vivía predominantemente de la agricultura, no constando la existencia de agrupaciones locales de defensa de los derechos de los trabajadores. Además, el partido político con mayor representación en la Corporación municipal era el PNV-EAJ mientras que era minoritaria la presencia de otros idearios, siendo el monárquico y el carlista los que tuvieron alguna voz. Ni el PNV ni el sindicato a él ligado, Solidaridad de Obreros Vascos<sup>40</sup>, se sumaron a la participación en estas acciones reivindicativas.

Con todo ello, no se tiene constancia de que en este mes de octubre hubiese acaecido algún acto de agitación en el municipio.



Pedro Garairen jantokia. / Restaurante de Pedro Garai. (Archivo Lucien Roisin agirittegia).

<sup>40</sup> Ostean, ELA-STV izena hartu eban. / Posteriormente se denominaría ELA-STV.

orr.

Izan be, ez da inon agiri urri horretan ezelako matxinadarik egon zanik udalerrian.

Edozelan be, zinegotzien kopuruari begira beste idea politiko batzuen berbea oso txikia bazan be, ez dau esan gura udalerriko biztanleen artean euren aldekorik ez egoanik.

Horren erakusgarri, oso interesgarria da Korteetarako diputaduak aukeratzeko asmotan 1936ko zezeilean, lehenengo txandan, eta martiaren 1ean<sup>41</sup>, bigarren txandan, egin ziran hauteskunde orokorretan Bakion zer emoitza lortu ziran berrikustea:

#### KORTEETARAKO DIPUTADUEN HAUTESKUNDEAK, 1936KO ZEZEILEAN ETA MARTIAN ELECCIONES DE DIPUTADOS A CORTES. FEBRERO Y MARZO DE 1936

HERRIA MUNICIPIO	EAJ / Votos a PNV-EAJ	Batasun Tradizionalista / Votos a Comunion Tradicionalista	Barriztapen Espainiarra / Votos a Renovacion Española	PSOE Votos a PSOE	Batasun Errepublikanua / Votos a Union Republicana	DANETARA Total de electores
BAKIO	74,80 %	12,07 %	11,45 %	1,35 %	0,36 %	570

Boto-zenbaketea kontuan hartuta, argi eta garbi dago Bakioko biztanle gehienak bat etozana gehien-go politikoak bultzatutako autogobernu-asmoakaz, eta, sasoi haretan, EAJk eta indar errepublikanua zein ezkertiar guztiek osotzen eben, hau da, Korte Errepublikanuetan Estatutuaren proiektua babestu ebenek.

Hauteskunde hareetan, Bakion babesa lortu eben beste hautagaitza biak, barriz, ez ziran Euskal Estatutuaren aldekoak: Batasun Tradizionalistek, *"Foruak bai, Estatuturik ez"* lelopean, erregimen monarkikoaren barruan egoan foru-sustraiako autogobernu probintzialistearen alde egiten eban. José Calvo Soteloren buruzagitzapeko Barriztapen Espainiarra, barriz, alderdi monarkiko eskoi-tiarra zan, eta ez eban inondik inora Euskadirako autogobernu-erregimenik autortu gura.

Ostera be, sasoi haretan Bakion egoan dibersidade politikoaren erakusgarri, Errepublikaren iraupenaren kontra egozan alderdi batzuk kanpaina politikorako ekitaldiak atondu ebezan herrian, hauteskunde horreek egin baino lehen.

Holan, aurreko asteetako prentsan argitara emon zanez, Bizkaiko Batasun Tradizionalistek hauteskunde-propagandarako mitina egin eban Bakion, eta *"biztanle asko joan ziran"*<sup>42</sup>. Egun batzuk geroago<sup>43</sup>, *"Iraultzearen eta beraren konplizeen aurkako fronteko"* hiru ordezkari hauteskundearen aurretik Egia aretoan eskainitako beste mitin baten barri emon zan. Hauteskunde-koalitzino hori eskoi-tiarrek bultzatu eben (CEDA, batez be), eta José María Gil-Robles zan euren liderra. Kasu horretan, beren-beregi adierazoten zan berbagnetako batek *"euskeraz"* berba egingo ebala.

Pero la reducida voz de otras ideas políticas en número de concejales no ha de entenderse como la ausencia de partidarios entre la población del municipio.

Como reflejo de ello, resulta de interés revisar los resultados, en Bakio, de las elecciones generales para el cargo de diputados a Cortes celebradas en el mes de febrero de 1936, en primera vuelta, y con una segunda, el 1 de marzo<sup>41</sup>:

A la vista del escrutinio puede concluirse que la mayor parte de la población de Bakio era partícipe de los deseos de autogobierno promovidos por la mayoría política, integrada en aquel momento por el PNV-EAJ y por el conjunto de las fuerzas republicanas y de izquierdas, que fueron las que apoyaron el proyecto de Estatuto en las Cortes republicanas.

Las otras dos candidaturas que obtuvieron apoyo en Bakio en estas elecciones no eran partidarias de impulsar el Estatuto Vasco: la Comunion Tradicionalista, bajo el lema *"Fueros sí, Estatuto no"*, propugnaba un autogobierno provincialista, de raíz foral e integrado en un régimen monárquico mientras que Renovacion Española, liderada por José Calvo Sotelo, era una formación monárquica y de derechas, radicalmente contraria al reconocimiento de un régimen de autogobierno para Euskadi.

Una muestra más de la diversidad política que existía en Bakio en aquel momento es que algunos de los partidos que se oponían a la pervivencia de la República convocaron, con anterioridad a la celebración de estas elecciones, actos de campaña política en el pueblo.

Así, en la prensa de las semanas previas se recogía la celebración, en Bakio, de un mitin de propaganda electoral por parte de la Comunion Tradicionalista de Vizcaya *"con asistencia de numerosos vecinos"*<sup>42</sup> y, unos días después<sup>43</sup> se daba cuenta de otro mitin preelectoral celebrado en el Salón Eguía por tres representantes del *"Frente contra la revolucion y sus cómplices"*, coalición electoral promovida por las derechas (principalmente por la CEDA) cuyo líder era José María Gil-Robles. En este caso se indicaba expresamente que uno de los oradores utilizaría *"el vascuence"*.

<sup>41</sup> Hauteskundeetako emoitzen artxibotik lortutako datuak: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus). / Datos obtenidos del archivo de resultados electorales en [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus).

<sup>42</sup> 1936/02/05eko *El Siglo Futuro* egunkaria. / Periódico *El Siglo Futuro* del 05/02/1936.

<sup>43</sup> 1936/02/10eko *El Nervión* egunkaria. / Periódico *El Nervión* del 10/02/1936.



*Casa Genara*. 1950 hamarkadako bigarren erdian Udala bertan egon zan. Sakonean, oso txiki, San Fernando kalpilea. / Albergó el Ayuntamiento en la segunda mitad de la década 1950. Al fondo, diminuta, la capilla de San Fernando. (BFAH/AHFB).

**Soldadu errepublikanua Sollubeko batailean. /**  
**Soldado republicano en la batalla de Sollube.**  
(Robert Capa, Magnum Photos).



# Gerra Zibila hasi zenetik Bakio erori arte

Del inicio de la Guerra Civil a la caída de Bakio

3.

orr.

1936ko zezeilaren 17ko hauteskunde orokorretan, ezkertiarrek irabazi eben, baia, alderdi eskoitiarrek hautesontzietako emoitzea onartzen ez ebenez, matxinadara jo eben atoan, eta gorabeherak zein hilketak sortu ebezan. Ostean, talde ezkertiarrek egoera horri erantzun eutsinez, giro sozial aproposa sortu zan, neurri baten Euskadin be aspalditik sortzen egoan altzeta justifiketako.

Berton, Nafarroa izan zan estadu-kolpea gehien babestu eban probintzia, eta, besteak beste, gorengo mailan, Iruñeko gobernadore militarra zan Emilio Mola jenerala izan zan babeslea. Araban be, babes handia euki eban altzeteak, indar karlistek eta falangistek argi adierazo ebelako prestetan egoan altzeta militarra babesten ebena.

Bien bitartean, Francok Kanarietako Komandantzia Militarra eukan ardurapean, eta bigarren mailan parte hartzen eban, besteak beste, Sanjurjo eta aitaturako Mola jenerala eratuten egozan estadu-kolpean.

Filtrazino baten ondorioz, altzeta militarra Melillan hasi zan 1936ko garagarrilaren 17an, aurreikusitakoa baino egunbete lehenago, hatan be. Hasi zanetik ordu gitxi igaro ziranean, Yagüe teniente koronelak gerra-egoera aldarrikatu eban Ceutan, eta, hurrengo egunean, Franco, ugartegi osoan be aldarrikatu ostean, Marokoko protektoradura joan zan, Leginoa eta Erregularrak agindupean hartzeko<sup>44</sup>. Garagarrilaren 18an, Queipo de Llano jenerala altzau zan Sevillan, eta, hurrengo egunetan Marokotik ailegautako indargarrien bidez, sartaldeko Andaluzia osoa kontrolau eban arin-arin.

Garagarrilaren 19ko goizean, Alonso Vega teniente koronelak Araban eta Emilio Mola jeneralak Nafarroan gerra-egoera aldarrikatu eben, probintzia bietako podere zibil zein militarra hartu eben eta soldadu-taldeak imini ebezan kalean. Egun beratan, hegazkin-ezbeharrean hil zan altzautako indarretako burua izango zan Sanjurjo jenerala.

Altzautako bandoa *Defensa Batzorde Nazionalpear*<sup>45</sup> eratu zan, eta, irailaren 28an egin eban batzarrean, "*Estadu Espainoleko gobernuburu eta lurreko, itsasoko zein aireko indar nazionaletako gorengo jeneral*"<sup>46</sup> izentau eban Franco.

Edozelan be, kolpeak Espainiaren zatirik handiena kontroletako hasikerako asmoan egin eban porrot, armadearen zatirik handienaren babesa euki arren. Estadu-kolpearen ondorioz, Gerra Zibila sortu zan, eta 1939. urtera arte iraun eban. Bertan, Bakioko udalerrriak be jasan ebezan ondorioak. Altzautako soldadu-taldearen artean, Mola jenerala "Iparraldeko Armadako jeneral-buru"<sup>47</sup> izentau eben.

Bizkaian, altzeteak ez eban arrakasta handirik euki, ofizialik gehienak leialak ziralako Errepublikagaz eta

Con la victoria de las izquierdas en las elecciones generales del 17 de febrero de 1936, los partidos de la derecha, que no aceptaban el veredicto de las urnas, optaron de inmediato por la vía insurreccional, provocando una serie de disturbios y asesinatos que eran posteriormente replicados por los grupos de izquierdas, dando origen a un clima social apropiado que serviría de justificación de la sublevación que venía gestándose desde tiempo atrás, también en parte de Euskadi.

Aquí, fue Nafarroa la provincia con el mayor apoyo al golpe de estado, auspiciado, entre otros y en su más alto nivel, por el general Emilio Mola, gobernador militar de Pamplona. También en Araba la sublevación contaba con gran respaldo, pues las fuerzas carlistas y falangistas habían venido mostrando su apoyo al alzamiento militar que se estaba preparando.

Mientras tanto, Franco estaba al cargo de la Comandancia Militar de Canarias participando de un modo secundario en el golpe de Estado que estaba siendo organizado, entre otros, por los generales Sanjurjo y el ya citado Mola.

Debido a una filtración, la sublevación militar empezó en Melilla el 17 de julio de 1936, un día antes de lo previsto. Pocas horas después de su comienzo, el teniente coronel Yagüe decretó el estado de guerra en Ceuta y al día siguiente, Franco, tras proclamarlo igualmente en todo el archipiélago, se desplazó al protectorado de Marruecos poniéndose al mando de la Legión y de los Regulares<sup>44</sup>. El 18 de julio se amotinó el general Queipo de Llano en Sevilla y, con refuerzos que irían llegando en fechas posteriores desde Marruecos, controló rápidamente toda Andalucía occidental.

La mañana del día 19 el teniente coronel Alonso Vega, en Araba y el general Emilio Mola, en Nafarroa, proclamaron el estado de guerra y asumieron los poderes civil y militar de ambas provincias, poniendo las tropas en la calle. Ese mismo día falleció en accidente de aviación el general Sanjurjo, llamado a ser el jefe de las fuerzas sublevadas.

El bando sublevado se organizó bajo una *Junta de Defensa Nacional*<sup>45</sup>, la cual, en la reunión celebrada el 28 de septiembre, nombró a Franco "*Jefe del Gobierno del Estado Español y Generalísimo de las fuerzas nacionales de tierra, mar y aire*"<sup>46</sup>.

Pero el golpe fracasó en su objetivo inicial de controlar la mayor parte de España, aunque una buena parte del Ejército lo apoyase. El golpe de estado derivó en una Guerra Civil que se alargaría hasta el año 1939 y en la cual la localidad de Bakio también sufriría sus consecuencias. Entre las tropas sublevadas, el general Mola fue nombrado "General Jefe del Ejército del Norte"<sup>47</sup>.

En Bizkaia la rebelión tuvo poco éxito porque la mayor parte de los oficiales eran leales a la República y los millones<sup>48</sup> se opusieron a que las instituciones fueran toma-

<sup>44</sup> Espainiako ofizialen agindupeko marokoaurrek osotutako soldadu-taldeak. / Tropas formadas por marroquíes bajo el mando de oficiales españoles.

<sup>45</sup> Garagarrilaren 24ko Dekretuaren bidez sortu ostean, Estaduko podere guztiak hartu ebezan. / Creada por Decreto del 24 de julio, se arroga todos los poderes del Estado.

<sup>46</sup> Batzorde horrek egindako eta irailaren 30ean argitara emondako 138. Dekretua. / Decreto nº 138 de dicha Junta, publicado el día 30 de septiembre.

<sup>47</sup> *Defensa Batzorde Nazionalaren 2. Dekretua*. / Decreto nº 2 de la *Junta de Defensa Nacional*.

miñoiek<sup>48</sup> ez eutseelako altzautako indarrei instituzinoak hartzen itxi. 1936ko garagarriaren 23an, errepublikanuek, sozialistek eta EAEk, EAJ be sartu zan, eraturako Errepublikako *Defentsa Komisaria Orokorra* sortu zan Bilbon, baia, abuztuaren 12an, Bizkaiko Defentsa Batzordea ezarri zan haren orde. CNT be sartu zan bertan. Organu horrek, hain zuzen be, lurraldearen kontrola hartu eban beste instituzino batzuen ganetik. Holan, bada, probintziako erabagi politiko administratibo guztiak *Bizkaiko Defentsa Batzorde* horren kontrolpean lotu ziran. Bertako presidentea José Etxeberria Novoa gobernadore zibila zan, Errepublikak lurralde horretan eukan gorengo ordezkaria eta Ezker Errepublikanuko kidea zan-eta<sup>49</sup>.

das por alguna fuerza facciosa. El 23 de julio de 1936 se constituyó en Bilbao la *Comisaría General de Defensa* de la República formada por republicanos, socialistas y ANV con la incorporación del PNV, la cual fue sustituida el 12 de agosto por la Junta de *Defensa de Vizcaya* en la que se integró igualmente la CNT, siendo este el órgano que asumió el control del territorio por encima de otras instituciones. Así, todas las decisiones político administrativas de la provincia quedaban bajo el control de dicha *Junta de Defensa de Vizcaya*, que era presidida por el gobernador civil, José Etxeberria Novoa, como máximo representante de la República en dicho territorio histórico y miembro de la Izquierda Republicana<sup>49</sup>.

**Bizkaiko Defentsa Batzordearen osoketea**

**Composición de la Junta de Defensa de Vizcaya**

**PRESIDENTETZEA ETA GOBERNAZINOA / PRESIDENCIA Y GOBERNACIÓN**

José Etxeberria Novoa (Bizkaiko gobernadore zibila, IR / gobernador civil de Bizkaia, IR)

**DEFENTSEA / DEFENSA**

Paulino Gómez Saíz (PSOE)

**FINANTZAK / FINANZAS**

Heliodoro de la Torre (EAJ-PNV)

**OSASUNA / SANIDAD**

Juan Carlos Bazterra (EAE-ANV)

**LORRETAK / TRANSPORTES**

Juan Astigarrabia (PCE)

**KOMUNIKAZINOAK / COMUNICACIONES**

Alfredo Espinosa (UR)

**INDUSTRIA / INDUSTRIA**

Julio Jauregi (EAJ-PNV)

**BEHARRA / TRABAJO**

José Gorostitza (PSOE)

**MERKATARITZEA ETA HORNIKUNTZEA / COMERCIO Y ABASTECIMIENTO**

Ramón María Aldasoro (IR)

**GIZARTE LAGUNTZEA / ASISTENCIA SOCIAL**

Pablo Valle (CNT)

*Bizkaiko Defentsa Batzordearen* jarduketek aurrera egiten eben neurrian, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrietan *Tokiko Defentsa Batzordeak* sortzen hasi ziran, eta ezkertiarren zein nazionalisten ordezkariak sartu ziran bertan. Gerra-sasoian, komunikazinoen, lorretearen eta armen arloko gaiak jorratu ebezan batzorde horreek, eta, era beratan, kolpisten aldekoak ei ziranak atxilotu edo zi-

A la vez que se sucedían las actuaciones de la *Junta de Defensa de Vizcaya*, en los municipios bizkainos y gipuzkoanos se extiende la creación de los *Comités de Defensa* locales integrando en ellos a representantes de izquierdas y nacionalistas. Estos comités que actuaron en tiempos de guerra sobre cuestiones relativas a comunicaciones, transporte y armas también fueron responsables de detenciones o san-

<sup>48</sup> Bizkaiko Miñoien Taldea *Bizkaiko Jaurerriak* euki eban foru-indar polizia bakarra izan zan, eta bertako jarduera-araubidea behin baino gehiagotan birreratu eta aldatu egin zan. Ia-ia bizkaitarrek baino ez eben osotzen, eta, berezko polizia-jarduerak ez eze, beste era askotako zereginak be garatzen ebazan; berbarako, zergen kontrola, ehizearen eta arrantzearen ganeko legeen zaintzea.... / El Cuerpo de Miñones de Bizkaia fue la única fuerza policial foral que tuvo el *Señorio de Vizcaya* siendo objeto de diferentes reorganizaciones y modificaciones en el régimen de funcionamiento. Se componía casi en exclusividad por vizcainos y desarrollaba una amplia diversidad de funciones además de las propiamente policiales, tales como el control de tributos, vigilancia de las leyes de caza y pesca, etc.

<sup>49</sup> 1936/08/13ko Excelius egunkarian argitara emondako eraketa-aktea. / Acta de constitución publicada en el diario Excelius del 13/08/1936.

orr.

gortu be egiten ebezanez, erabagi-gaitasun hori kendu eutseen udal-korporazinoei.

Kasuan kasuko aktetan azaltzen dan lez<sup>50</sup>, badakigu Bakion ezarritako Errepublikako Defentsa Batzordea 1936ko abuztutik abendura arte egon zana abian, eta Nominen Erregistro Liburuan egiaztetan da, Bizkaiko Defentsa Batzordearen ardurapean ordaintzen jakolako<sup>51</sup>. Ez dogu Defentsa Batzorde horrek egindako batzarren, ebazpenen... ganeko berezko agiririk topau. Halanda ze, baleiteke agiri horreek (akten liburua, artxiboak...) Zallara bertara eroan izana, Korporazinoko kideakaz eta Udaleko agiri ofizialakaz batera. Ustezko lekualdaketa horretan, oinarritzko zeregina eukiko eban Udaleko idazkaria zan Ciriaco Egiak. Izan be, beraren inguruko datu gehiagoko emongo doguz liburu honetako hurrengo kapituluan. Leitekena danez, lehenengo eta behin, agiri horreek ostendu egingo ebezan, eta, gero, birrindu egingo ebezan, frankisten esku jausi ez eitezana eta osteko zapalkuntzarako erabili ez eiezan. Baleiteke horrexegaitik be ez egoitea sasoi haretako beste jazokera nabarmen batzuen ganeko daturik eta, horren ondorioz, liburu honetan aitzatzeko aukerarik ez eukitea.

Handik aurrera, udal-agintaritzea eratutako *Errepublikako Defentsa Batzordearen* aginduak beteten hasi zan. Era beratan, Bizkaiko Gobernu Zibilaren ofizioak be beteten ebezanez, Errepublikako erregimenagaz bat ez etozan Claudio Abio Intxausti, Martín Uriarte Bilbao eta Francisco Uriarte Azkorra zinegotziei be kendu eutsezana eginkizunak. Halanda ze, aurrerantzean, zinegotzi nazionalistak baino ez ziran osoko bilkuretara joaten.

Bestetik, "Opor-etxea" izeneko eraikina konfiskau zan (lehen azaldu dan lez, Madrileko Gobernuak konfiskau eban aurretiaz, II. Errepublikara ezarri ostean), baita Llona (Uribarrena) etxeko solairu bi be, eta gobernadore zibilar jakin eragin jakon udalerrian bertan ez egoala Errepublikaren etsai nabaria zan udal-beharginik.

Era beratan, *Bizkaiko Defentsa Batzordearen* aginduz be, irakaskuntzarako eraikin erlijiosoen barri emon eta konfiskau egin behar ziran. Dana dala, unada haretan, *Purísima Concepción* ikastetxea baino ez egoan Bakion, patronatuak zuzentzen eban eta Euskal Eskolen Federazinoko kidea zan. Hori dala eta, ez eben konfiskau.

Leandro Oraindi Kortazar alkatea Bakioko Udaleko *Defentsa Batzordean* parte hartu eban Korporazinoko kide bakarra izan zan, eta Merkataritza eta Hornikuntza Zuzendaritza Nagusira bertara joan zan gerra-sasoian udalerriri egokozan janariak erosteko baimenaren bila. Sasoi haretan, erroldatutako biztanleen kopurua 1.420 lagunekoa zan, eta, udatiarrak zein errefujiaduak kontuan hartuta, 2.500ra hurreratu arte be igan eban.

1936ko urriaren 7an, Autonomia Estatutua onartu eta José Antonio Agirre lehendakariaren zuzendaritza zapeko Eusko Jaurlaritza eratu zan. Hori dala eta, goitik behera aldatu zan altzeta militarri emondako erantzunaren ku-

ciones a los considerados afines a los golpistas quitando esa capacidad decisoria a las corporaciones municipales.

Tal y como se desprende de las actas correspondientes<sup>50</sup> se sabe que el Comité de Defensa de la República establecido en Bakio estuvo activo entre los meses de agosto y de diciembre de 1936, corroborado por el Libro de Registro de Nóminas que, a cargo de la Junta de Defensa de Vizcaya, se abonaba a la misma<sup>51</sup>. No ha sido posible encontrar documentación propia de las reuniones, resoluciones..., que adoptó dicho Comité de Defensa, pudiendo ser que la misma (libro de actas, archivos, etc.), junto con la documentación oficial del Ayuntamiento, acompañase a la Corporación cuando esta se trasladó a Zalla días antes de la entrada de las fuerzas italianas en Bakio. En ese posible traslado habría jugado un papel fundamental el Secretario del Ayuntamiento, Ciriaco Egi, del cual se aportan más datos en el siguiente capítulo de este libro. Es probable que los documentos primero fueran ocultados y después destruidos por temor a que cayeran en manos de los franquistas y ser utilizados para la posterior represión. Este mismo motivo habría podido ocasionar la ausencia de datos referidos a otros aspectos relevantes de esa época, impidiendo poder incorporarlos a este libro.

A partir de ese momento la autoridad municipal comenzó a asumir las órdenes del constituido *Comité de Defensa de la República* y a dar igualmente cumplimiento a los oficios del Gobierno Civil de Bizkaia suspendiendo de sus funciones, como desafectos al régimen de la República, a los concejales Claudio Abio Intxausti, Martín Uriarte Bilbao y Francisco Uriarte Azkorra. De ahí en adelante, a los plenos solo asistirían los concejales nacionalistas.

Por otro lado, se llevó a cabo la incautación del edificio denominado "Casa de Vacaciones" (como ya se ha indicado, había sido confiscado previamente por el gobierno de Madrid tras la instauración de la II República) y de dos pisos de la casa de Llona (Uribarrena) y se informó al gobernador civil que en esta localidad no había empleado municipal alguno que fuera notoriamente enemigo de la República.

Por orden de la *Junta de Defensa de Vizcaya* debía asimismo informarse e incautarse de los edificios religiosos consagrados a la enseñanza; pero, en aquel momento, en Bakio solo existía el Colegio de la *Purísima Concepción*, que era regido por un patronato y estaba afecto a la Federación de Escuelas Vascas, razón por la que no se procedió a su incautación.

El alcalde Leandro Oraindi Kortazar fue el único miembro de la Corporación que formó parte del *Comité de Defensa de la República* de Bakio, y quien se encargó de acudir a la Dirección General de Comercio y Abastecimiento a recoger la autorización correspondiente para adquirir los comestibles que correspondían al municipio en tiempos de guerra. Por esas fechas, la población censada era de 1.420 habitantes que, con veraneantes y refugiados, llegó a incrementarse hasta acercarse a los 2.500.

El 7 de octubre de 1936 se aprobó el Estatuto de Autonomía y se formó el Gobierno Vasco liderado por el lehendakari

<sup>50</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1936/08/02ko eta 1936/12/20ko akteak, hurrengorik hurrengo. Sig.: 0008/001. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Actas del 02/08/1936 y del 20/12/1936, respectivamente. Sig.: 0008/001.

<sup>51</sup> BEHA, Kontabilidate Atala, 681. paper-txortea, 02. zenbakia. / AHFB, Sección Contabilidad, Legajo 681, Número 02.



La Purísima Concepción ikastetxea Etxepinto etxean. / Colegio de la Purísima Concepción, en la casa Etxepinto. (BAUA/AMBA).

deaketea. Eusko Jaurlaritzak eratu zantetik, altzau ziranen menpe ez egoan lurraldearen kontrola beraren esku lotu zan, eta Bizkaiko Defentsa Batzordea zein Udaleko Defentsa Batzordeak desagertu ziran. Beraren agintaldiaren hasieran, Agirre lehendakariaren Gobernuak Bizkaia, Gipuzkoako sartaldea eta Bizkaia mugakidea zan Arabako iparraldea kontroletan ebazan.

Eusko Jaurlaritzak Kalifikazio Batzorde Zentrala sortu eban. Arlo ekonomikoko erakunde autonomiaduna zan, eta altzau ziranen ondasunen ganeko isunak zein konfiskazioak bideratu eta bete eragin egiten ebazan. Batzuetan, Bizkaiko Defentsa Batzordeak edegitako zigor-espeditentzaz segidu eban, eta, beste batzuetan, barriak edegi ebazan. Zeregin hori garatzeko, Udaleko lerketa Batzordeak sortu ziran tokian-tokian, eta auzokoei edegiten eutseezan espeditentzaz, altzautako enbimentuaren aldekoak zirala susmetan ebanean.

Urriaren bertan, Fronte Popularreko Tokiko Nekazaritza Batzordea eratu zan Bakion, eta honako honeexek ziran batzordekideak: Leandro Oraindi, Tomas Arrugaeta, Francisco Uriarte, Daniel Garai, Ventura Elgezabal eta Ciriaco Egia.

Handik egun gitxira, 1936ko zementiaren 16ko Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak ebatzi egin eban Euskadiko udalek hildako edo kargutik kendutako zinegotzien kargu hutsak bete behar zirala. EAJK eta Fronte Popularrak proponidutako hautagaiek bete ebezan hutsik egozan karguok. Bakion Fronte Popularreko alderdietako ordezkariarik ez egoanez, kargutik kendu ebezan zinegotzi monarkikoek hutsik itxitako hiru karguetatik, bat baino ez

José Antonio Agirre, lo cual supuso un cambio absoluto en la gestión de la respuesta al levantamiento militar. A partir de la formación del Gobierno Vasco, el control del territorio que no estaba sometido por los sublevados fue asumido por este, desapareciendo la Junta de Defensa de Vizcaya y los Comites de Defensa locales. Al inicio de su mandato, el Gobierno del lehendakari Agirre controlaba Bizkaia, el oeste de Gipuzkoa y la zona limítrofe del norte de Araba con Bizkaia.

El Gobierno Vasco creó la Junta Calificadora Central, un organismo administrativo en el ámbito económico que se encargaba de tramitar y ejecutar multas e incautaciones sobre los bienes de los considerados sublevados. En algunos casos continuaron con los expedientes sancionadores abiertos por la Junta de Defensa de Vizcaya y en otros, se abrieron nuevos. Para llevar a cabo esta labor se crearon a nivel local las Juntas Municipales Investigadoras que eran las encargadas de abrir expediente a los vecinos sospechosos de apoyar el movimiento faccioso.

En el mismo mes de octubre se constituyó el Comité Agrícola Local del Frente Popular en Bakio, que lo componían Leandro Oraindi, Tomas Arrugaeta, Francisco Uriarte, Daniel Garai, Ventura Elgezabal y Ciriaco Egia.

A los pocos días, por Decreto de 16 de noviembre de 1936, el Gobierno Vasco dispuso que los ayuntamientos de Euskadi cubrieran las vacantes producidas por los concejales fallecidos o destituidos. Las vacantes se cubrieron por candidatos propuestos por el PNV y el Frente Popular. Dado que en Bakio no había representación de partidos del Frente Popular, de las tres vacantes dejadas por los concejales monárquicos que fueron destituidos solo se cubrió una. Se

Orf.

zan bete. Bertan egoan alderdi bakarreko, hau da, EAJko ordezkaria zan Félix Muruaga Olaskoaga izentau eben, Kalifikazio Batzordea eratzeko.

- Félix Muruaga Olaskoaga: 1904an jaio zan Bakion. Gregorioren eta Eusebiaren semea zan. Etxebarri base-rikkoa zan. Faustina Uriagereka Iturainegaz ezkondu zan. Seme-alaba bi eukazan. Baserritarra zan.

1936ko abenduaren 8an, Euskadiko Gobernuo idazkari nagusiari bialdu jakon udalerriko lkerketa Batzordearen eraketa-aktea, eta udal-mailako epaileak zein fiskalak izentau ziran. Guzti-guztiek, Juan Ormatza Uriartek izan ezean, zapalkuntza ezin gogorragoa bizi behar izan eben ostean:



Félix Muruaga Olaskoaga.

Itsas poliziaren kuartela atondu zan haretzatik paraje egoan Luisena etxean. Horrezaz ganera, behar besteko kudeaketak be egin ziran bete-betean, Antolin de Larraganen etxean (idea monarkikoak eukazan) egoan Bakioko telefono-gunea Victor Agirreren eta Juana arrebearen etxera bueltan eroateko (erregimen errepublikanuko defendatzaile irmeak ziran).

Abenduan, Bakioko Udala Tokiko *Defentsa Batzordearen* eginkizunak oso-osorik beteten hasi zan, eta holaritze atondu ebazan beraren eskumenak zein zereginak:

#### ORDENA PUBLIKOA / ORDEN PÚBLICO

Leandro Oraindi (alkatea / alcalde)

#### HORNIKUNTZAK ETA FINANTZAK / ABASTOS Y FINANZAS

Félix Muruaga

#### GIZARTE LAGUNTZEA / ASISTENCIA SOCIAL

Segundo Markaida

#### LORRETA / TRANSPORTES

Doroteo Uriarte

#### NEKAZARITZEA ETA KULTUREA / AGRICULTURA Y CULTURA

Celestino Ibinaga

designó a Félix Muruaga Olaskoaga como representante del único partido existente que resultaba ser el PNV, para proceder a la constitución de la Junta de Calificación.

- Félix Muruaga Olaskoaga: Nacido en Bakio en 1904. Hijo de Gregorio y Eusebia. Del caserío Etxebarri. Casado con Faustina Uriagereka Iturain. Tenía dos hijos. Baserritarra.

El 8 de diciembre de 1936 se remitió al Secretario General del Gobierno de Euskadi el acta de constitución de la Junta de Investigación del municipio y se nombraron los jueces y fiscales municipales. Todos ellos, menos Juan Ormatza Uriarte, fueron después represaliados duramente:

#### UDAL-EPAILEAK / JUECES MUNICIPALES

- Titularra / Titular: Francisco Uriarte Erreterria

- Ordezkoa / Suplente: Juan Ormatza Uriarte

#### UDAL-FISKALAK / FISCALES MUNICIPALES

- Titularra / Titular: Vicente Uriarte Gaubeka

- Ordezkoa / Suplente: Valentín Uriarte Ugalde

#### IDAZKARIA / SECRETARIO

Ciriaco Egia

Se habilitó el cuartelillo del cuerpo de policía marítima en la casa Luisena situada cerca de la playa. También se realizaron con mucho afán las gestiones pertinentes para devolver la central telefónica de Bakio instalada en casa de Antolin de Larragan (de ideas monárquicas) al domicilio de Victor Agirre y de su hermana Juana (defensores firmes del régimen republicano).

Es en el mes de diciembre, cuando el Ayuntamiento de Bakio asumió plenamente las funciones de la del *Comité de Defensa* local, organizando sus competencias y funciones de la siguiente manera:

Esta Corporación facilitó la relación de edificios incautados ("Casa de Vacaciones" y pisos de la casa de Llona) disponibles para prestar servicios de asistencia social y dio instrucciones respecto de la forma de facilitar billetes gratuitos de ferrocarril, abonos de consumo de luz y agua para los refugiados. Además, se crearon comedores de Asistencia Social y se determinó el porcentaje sobre el costo de comida que habrían de abonar los refugiados que habían comenzado a presentarse en el pueblo.

A comienzos del año 1937, se remitió al Director General de Seguridad una lista de aparatos radio-receptores y de escopetas de caza incautadas por la autoridad en la localidad. Fueron medidas que se tomaron en concordancia con las órdenes del Gobierno Vasco.

En abril, el alcalde se abstuvo de extender salvoconductos necesarios para desplazarse por el territorio y se comenzó la construcción de refugios, localizados, principalmente en los puntos de concurrencia de la población escolar. Por otra parte, se incautaron los taxis propiedad

Korporazino horrek konfiskautako eraikinen zerrendea aurkeztu eban (“Opor-etxea” eta Llona etxeko solairuak), Gizarte Laguntzako zerbitzugintzarako erabili eitezana, eta behar besteko jarraibideak be emon ebazan, errefujiaduei argiaren zein uraren kontsumorako abonauk eta doako tren-txartelak zelana emon behar jakezana jakiteko. Ganera, Gizarte Laguntzarako jantokiak be sortu ziran, eta herrian agertzen hasi ziran errefujiaduek ordaindu beharreko janari-kostuaren ehunekoa zein zana zehaztuzana.

1937. urtearen hasieran, Segurtasuneko zuzendari nagusiari bialdu jakon udalerrian konfiskautako irratihar-gailuen eta ehizako eskopeten zerrendea. Eusko Jaur-laritzak agindutakoaren arabera hartu ziran neurri horreek.

Apirilean, alkateak ez eban lurraldean hara-hona ibilteko behar zana baimenik egin, eta batez be ikasleak egozana guneetan kokatutako babeslekuak eregiten hasi ziran. Bestetik, Aniceto Barturenena eta Raimundo Bilbao-ren jaubetzako taxiak be konfiskau ziran gerra-zerbitzueta-rako, eta bertan behera itxi ziran eguneroko autobus-zerbitzua eta posta-zerbitzua.

Apirilaren 29an Gernika jausi zanean, Bakio eta beste udalerrri batzuk gerra-eremuaren barruan lotu ziran, hurrengo egunean prentsan bertan jakin eragin zana lez.

Egoera horren ondorioz, 1937ko maiatzaren 1ean, Udal Korporazinoak instituzinoa bera Zallako udalerrira eroatea erabagi eban. Halanda ze, udalerrri horretako eskolan imini zana udaletxea, bagilaren 4ra arte egon zana bertan eta epealdi horretako osteko osoko bilkurak egin ziran han (hiru baino ez ziran egin, eta azkena bagilaren 4ko hori izana zana). Korporazinoako kideakaz batera, Bakioko biztanleek eta bertara aterpe bila joandako jente askok be alde egin eban, baia ez dakigu azken horreek nora joan ziran gero.


Bestetik, nabarmendu beharra dago Zallako Korporazinoak maiatzaren 20ko osoko bilkuran jakin ebala *ebakuazinoagaitik udalerrri honetan finkatutako Bakioko Udalak eskerrik beroena emoten deusana (...), udal-murgarte honetara ailegutakoan jasotako abegiagaitik.*

Bagilaren 21ean, Zalla bonbardeau eban, eta, maiatzaren 29an, soldadu-talde frankistak sartu ziran udalerrri horretan.

Ahoz jasotako lekukotasun batzuetan, baieztatu egiten da familia askok Zallara alde ez egitea erabagi ebana, euren etxea eta jaubetzak galduko ete ebezan bildur ziran-eta. Holan, bada, gerrako fronteak aurrera eginke-ran oso arriskutsua bazana be, gurago izana eban etxean lotu eta euren ondasunak babestu. Beste familia batzuk, barriz, alde egin eta etxea itxi eban hutsik. Hori dala eta, atzera etorri ziran-ean, euren baserrietan bando kolpistea-ren aldekoak bizi ziralana, laskitu egin ebezalana edo hutsik egozalana ikusi eban. Sano gatxa izana zana alde egiteko erabagia hartzea, ondorioak ezin larriagoak izana eiteke-zana-eta: *“Zertarako joango zarie? Arazo gehiago eukiko dozuez atzera etorritakoan”,* esaten zana.

de Aniceto Barturen y Raimundo Bilbao para servicios de guerra, y se suspendieron el servicio diario de autobuses y el servicio de correos.

En Baquío todas las casas están intactas. Allí no ha habido tiros más que en dos ocasiones. Las dos en esta semana pasada. Un miliciano cogió el fusil y se pegó un tiro en una pierna. Explicó su actitud ante las mujeres y niños que presenciaron el hecho. — Así me llevarán a un hospital y estaré tranquilo siquiera unos días. En Baquío no ha habido hambre del accecado de los dos milicianos que se negaban a subir a una posición. En Baquío estaban, ocupando un convento, gentes que escaparon de San Sebastián, al entrar allí nuestras tropas. Eran, en realidad, los dueños del pueblo. Hay que dejarlos en los primeros puseitos en las colas. Se permite insultar a todo el mundo, sobre todo si vestían con cierta puerilidad. Escaparon hace unos días. En Baquío no ha habido hambre propiamente dicha. Como en todos estos pueblecitos pequeños, plagados de caseríos, había leche y huevos en abundancia relativa. Lo que no había es pan, al menos, ni otra porción de artículos de primera necesidad. En algún sitio, si. Cerca del mar hay un grupo de pequeñas casas que hizo una cooperativa separatista. Vivían allí los nacionalistas más destacados. En sus despensas ha aparecido de todo. Se cuidaban bien, mientras los demás vecinos carecían de lo indispensable. DINERO A RAUDALES

DINERO?

No. Papeles que hacen de moneda. Jamás se ha derrochado tanto en Vizcaya, como todo el mundo ve que la república de Boniqui se va al feso, como todo el mundo sabe que el papel moneda que ha creado no valdrá para nada, nadie quiere conservarlo. Se gasta a manos llenas. Los milicianos cobran, como es sabido, sesenta duros al mes. Sus familiares no pagan alquiler en Vizcaya, como todo el mundo sabe que los empleados de los Municipios todos, siguen cobrando en Bilbao como si estuvieran trabajando. Solo así se puede conseguir que trampan con lo que están sufriendo. Pues bien, todo ese dinero, o lo que sea, lo invierten en cuanto lo perciben. Por una docena de huevos se pagan diez y ocho pesetas, en los pueblos, porque en Bilbao no hay quien venda. Los comerciantes procuran que nadie les compre ninguna clase de artículo, porque no quieren dinero rojo separatista. Pero como no pueden negarse a vender, toda la recaudación de cada día la invierten en lo que pueden. En ropa, en perfumería, en lo que sea. El caso es no ahorrar ni un solo céntimo. Se han dado casos de milicianos que llegan de Bilbao a un caserío, pidiendo talda. — ¿No hay. — Por un cacho te doy este montón de billetes. ¡Tener dinero y pasar hambre! NUEVE MESES ESCONDIDOS

NUEVE MESES ESCONDIDOS

Nuestras tropas entraron en Baquío al mediodía del domingo. Por los montes. Ya he dicho que los rojos separatistas hubieron antes, de esta Brigada Mixta que tan heroicamente se está portando en la costa, bajó a las calles del pueblo, flameando al viento una humilde bandera de campaña. Fue algo impresionante. Los recibieron con entusiasmo sin límites. Jamás se ha reverenciado a la bandera española como en estos casos. Hombres, mujeres y niños la besaban llorando. Tres hombres se postaron de rodillas ante ella. ¡Qué emoción, Dios mío! Son dos hermanos Olasoara y el gran propagandista del Tradicionalismo don Manuel María Arredondo. Han estado nueve meses escondidos. Nueve meses de angustias infinitas, que han dejado huellas de veinte años. — Todo lo compensa este momento. (Continúa en la página siguiente)

orr.

Interes hori apurka-apurka gitxitu zan gerreak iraun eban bitartean, baia badago Solluben eta Jatan garatutako ekintzen ganeko kronikak irakurterik; esate baterako, New York Timesen<sup>62</sup> eta antzeko beste egunkari batzuetan be bai.

Este interés fue decreciendo a lo largo de la duración de la guerra, pero sí que pueden encontrarse crónicas sobre las acciones acaecidas en Sollube y en Jata en diarios como el New York Times<sup>62</sup>, y otros.

**In Baquio, a village of scarcely 1,000 inhabitants, no one was either arrested or shot during the time that the Government was in power. In spite of this, in the early days of the occupation of the village by the rebels Francisco Uriarte, municipal judge, Aniceto Alascoaga, and a boy aged 17 called Raimundo, the village drummer, were executed. In the prisons of Bilbao more than**


Errakuntzaz Raimundo fusilatu moduan agertzen da, frentean hil zan arren. / Se recoge erróneamente a Raimundo como fusilado cuando realmente falleció en el frente.

Prensa idatzian zein zinegintzan<sup>63</sup>, Italiako komunikabideek gerrearen inguruan egin eben jarraipena aitatu beharra dago. Mussolinik Francori armetan eta aideko indarrean (Aviazione Legionaria) emon eutsan laguntzea albo batera itxita, gitxi gorabehera, 80.000 soldadu italiar<sup>64</sup> izan ziran hiru urteko gerran bando kolpistako kanpainetan parte hartu ebenak. Hori dala eta, ulertzeko modukoa da italiarrek informazioa eskatzea.

Es pertinente mencionar el seguimiento de la contienda por parte de los medios de comunicación italianos, tanto por parte de la prensa escrita como por los medios cinematográficos<sup>63</sup>. Además del apoyo en armamento y fuerza aérea (la Aviazione Legionaria) que Mussolini prestó a Franco, se estima que fueron alrededor de 80.000 soldados italianos<sup>64</sup> los que a lo largo de los tres años de guerra participaron en las distintas campañas del bando golpista, motivo por el cual era lógica la demanda de información por parte de la población italiana.



(ELN / BNE).



<sup>62</sup> Maiatzean ia-ia egunekoak ziran kronikak. / Crónicas casi diarias durante el mes de mayo.

<sup>63</sup> Badago ISTITUTO LUCE CINECITTÀko Artxibo Historikoan konsultetarik. / Puede consultarse el Archivo Histórico del ISTITUTO LUCE CINECITTÀ.

<sup>64</sup> CARRUBBA, M. *La Memoria del Cuerpo de Tropas Voluntarias en las publicaciones del Régimen Fascista y en las Biografías de los Voluntarios*. HGAko Historia Garaikideko Ikertzaile Gazteen I. Topaketako komunikazioak - Pisako Unibersidadea. / CARRUBBA, M. *La Memoria del Cuerpo de Tropas Voluntarias en las publicaciones del Régimen Fascista y en las Biografías de los Voluntarios*. Comunicaciones del I encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea de la AHC-Universidad de Pisa.

1937/07/04ko La Domenica del Corriere egunkariko domekako gehigarriko azalean, argi eta garbi azaltzen da kronika horreen helburua propagandea dana. Bertan, hain zuzen be, "indar askatzaileak" agertzen dira, eta, Mungiako udaletxearen aurrean ("Bilboko auzo-herrian"), ogia emoten deutsee biztanleei, egun batzuk lehenago indar horreen bonbardaketek udalerrria bera birrindu dabenean, argazkian ikusten dan lez.

El carácter propagandístico de tales crónicas queda claramente recogido en la portada del suplemento dominical del diario La Domenica del Corriere de fecha 04/07/1937, en la que "las fuerzas liberadoras" se presentan entregando pan a la población, delante del Ayuntamiento de Mungia ("barrio de las afueras de Bilbao"), destruido por los bombardeos realizados por esas mismas fuerzas, días antes, tal y como se aprecia en la fotografía.



Asturiaseko milizianoak argazkilariren aurrean jarrita Bidebieten. / Milicianos asturianos posan ante el fotógrafo, en Bidebieta. (ELN/ BNE).





# Errepresioa Bakion eta bakiotarren aurka Lehen Frankismo garaian

La represión en Bakio y contra bakiotarras durante el primer franquismo



orr.

1937ko maiatzaren 9an, errebolta-riek udalerrira okupatu eban egunean, historia garaikideko sufrimenturik handieneko epealdietakoa hasi zan Bakion. Epealdi horretan, zapalkuntzea (kulturala, ekonomikoa, genero-arlokoa, militarra, polizia...) eta askatasun zibilen zein politikoen faltea izan ziran nagusi. Maila handiangoan edo txikiangoan, altxeta militarren aurka egon ziran guztiek zapalkuntza horren ondorio latzak jasan behar izan ebezan; esate baterako, heriotza bortitzak, torturak, lapurretak... Horrezaz ganera, beste egitate bihoz bako batzuk be jazo ziran urteetan eta urteetan. Bakiotar batzuk espetxeratu egin ebezan, euren lanpostuetatik baztertu ebezan, ondasunak kendu eutsezan konfiskazioaren bidez, aurretik erabili egin ebezan, gerra-kontseju sumarisimoetan epaitu ebezan eta, orokorrean, kartzela-zigorra ezarri eutseen, beharginen eremuetan sartu ebezan esklabotza-erregimenpean eta fusilau be egin ebezan.

Gerraosteko lehenengo urteetan, erregimen frankistek jarduera zapaltzaile zabal baizen bizi-bizia hedatu eban herrialde osoan, 40 urte iraun eban ia-ia eta ezin gogorragoa izan zan hasieran. Holan, bada, zapalkuntzea benetan garatzeko beren-beregi sortutako instituzinoak eratu ziran, eta gizarteko arlo guztietara heldu ziran.

El 9 de mayo de 1937, fecha en la que los sublevados ocuparon la localidad, comenzó en Bakio uno de los periodos de mayor sufrimiento de la historia contemporánea. Este periodo estuvo marcado por la represión (cultural, económica, de género, militar, policial, etc.) y la falta de libertades civiles y políticas. En mayor o menor grado, todos los que se opusieron a la sublevación militar tuvieron que padecer las duras consecuencias de esa represión, como fueron las muertes violentas, torturas, saqueos..., y otros hechos atroces que se sucedieron durante años. Hubo bakiotarras que fueron encarcelados, depurados de sus puestos de trabajo, privados de sus bienes por la vía de incautación, perseguidos, juzgados en consejos de guerra sumarísimos y, generalmente, condenados a prisión, a reclusión en campos de trabajadores en régimen de esclavitud y también bakiotarras que fueron fusilados.

En los primeros años de la posguerra el régimen franquista desplegó una amplia e intensa actividad coercitiva por todo el país que duraría prácticamente 40 años, siendo marcadamente dura en sus inicios. Así, se crearon instituciones específicamente concebidas para hacer efectiva la represión, que actuaron en todos los ámbitos de la sociedad.

1

## Constitución de la Gestora del Ayuntamiento de Baquio.

En la Antigualla de Baquio a diez de Mayo de mil novecientos treinta y siete, se reunieron en el local designado al efecto los Srs Dn. Manuel María Medondo y Dn. Juan Elorriaga por orden superior del Excmo. Sr. Gobernador de las provincias de Guipúzcoa y Vizcaya, al objeto de constituir la Gestora Nacional, y abierta la sesión por los Srs presentes, se procedió al nombramiento de Alcalde Presidente, recayendo el nombramiento en Dn. Manuel María Medondo y nombrando a Dn. Juan Elorriaga y a Dn. Juan Demaza y Goitia, en su nombre de este último justificada, Gestores administradores de este Ayuntamiento, quienes a continuación proceden tomar los acuerdos siguientes: Primero. Nombrar Secretario del Ayuntamiento y dar posesión del cargo del mismo a Dn. Moises de la Fuente Liza con carácter de interino. Segundo. Nombrar igualmente a Dn. José Aguirre Aguacil interino, al servicio de este Ayuntamiento. Tercero. Emitir un bando notificando al vecindario la situación que de aquí en adelante tendrá este Ayuntamiento en el orden económico, sanitario, de policía y administrativo como se hizo por Dios y por la Patria. Y no habiendo otros asuntos de que tratar el Presidente levanta la sesión de que yo como Secretario certifico.

Alcalde Presidente  
Dn. Manuel M. Medondo  
Concejal  
Dn. Juan Elorriaga  
Secretario  
Dn. Moises de la Fuente

BAKIOKO ORGANIGRAMA INSTITUZIONAL LEHENENGO FRANKISMOAN  
 ORGANIGRAMA INSTITUCIONAL DE BAKIO DURANTE EL PRIMER FRANQUISMO

Soldadu-talde kolpistak Bakion sartu osteko hurrengo egunean, Korporazino barria eratu zan, eta bertako kideak aldatzen eta osotzen joan ziran lehenengo urteen joan-etorrian.

Al día siguiente de la entrada de las tropas golpistas en Bakio se constituyó la nueva Corporación cuyos integrantes se irían modificando y ampliando en el transcurso de los primeros años

Agintari militarrek izentautako Udaleko Bitarteko Kudeaketa Batzordea (Korporazinoa). 1937ko maiatzaren 10etik aurrera euki eban agintea / Gestora Municipal interina (Corporación) nombrada por el mando militar, con autoridad a partir del 10 de mayo de 1937:

**PRESIDENTEA (ALKATEA) / PRESIDENTE (ALCALDE)**

Manuel María Arredondo

**KUDEATZAILEAK (ZINEGOTZIAK) / GESTORES (CONCEJALES)**

Juan Elorriaga Abaroa; Juan Ormatza Goitia

**IDAZKARIA / SECRETARIO**

Moisés de la Fuente Leiva

(aldi beratan, "Eskola Nazionalako" maisua). Beharragaitik, bertan behera itxi eban kargua, 1937/10/30ean / (a su vez, maestro de la "Escuela Nacional"). Presentó renuncia a su puesto, por razones de trabajo, con fecha 30/10/1937.

**AGUAZILA / ALGUACIL**

José Agirre

(1939/03/02an armada frankistan sartu zan, 1939/05/30ean kargura atzera eskuratu eban eta, epealdi horretan, Antonio Llaguno izan zan beraren ordezkoa). / (se incorporó a las filas franquistas el 02/03/1939, regresando al puesto el 30/05/1939, siendo sustituido durante dicho periodo, por Antonio Llaguno).

Bizkaiko eta Gipuzkoako gobernadore zibilak izentautako Udaleko Bitarteko Kudeaketa Batzordea (Korporazinoa). 1937ko abuztuaren 22tik aurrera euki eban agintea / Gestora Municipal interina (Corporación) nombrada por el Gobernador Civil de Bizkaia y Gipuzkoa, con autoridad a partir del 22 de junio de 1937:

Presidente barria (aurrekoa Bilboko Udalera joan zalako) eta kudeatzaile barria (zinegotzia) izentau ziran. / Se produce el nombramiento de un nuevo presidente (debido a la marcha del anterior al Ayuntamiento de Bilbao) y de un nuevo gestor (concejal).

**PRESIDENTEA (ALKATEA) / PRESIDENTE (ALCALDE)**

Juan Ormatza Goitia

**KUDEATZAILEAK (ZINEGOTZIAK) / GESTORES (CONCEJALES)**

Juan Elorriaga Abaroa; Martín Garai Ibinaga (Manuel María Arredondoren ordezkoa / que sustituye a Manuel María Arredondo)

**IDAZKARIA / SECRETARIO**

Moisés de la Fuente Leiva

Bizkaiko eta Gipuzkoako gobernadore zibilak izentautako Udaleko Kudeaketa Batzordea (Korporazinoa). 1937ko irailaren 7tik aurrera euki eban agintea / Gestora municipal (Corporación) nombrada por el Gobernador Civil de Bizkaia y Gipuzkoa, con autoridad a partir del 7 de septiembre de 1937:

Karguen behin betiko esleipena baieztu zanez, aurrerantzean ez ziran bitarteko izentapenak izan. / Se confirma la asignación definitiva de los diferentes puestos, perdiendo su carácter anterior de nombramientos interinos.

**PRESIDENTEA (ALKATEA) / PRESIDENTE (ALCALDE)**

Juan Ormatza Goitia

**KUDEATZAILEAK (ZINEGOTZIAK) / GESTORES (CONCEJALES)**

Juan Elorriaga Abaroa; Martín Garai Ibinaga

**IDAZKARIA / SECRETARIO**

Moisés de la Fuente Leiva

1937tik 1939ra Udaleko Kudeaketa Batzordean (Korporazinoan) egindako aldaketak / Modificaciones en la Gestora Municipal (Corporación) entre 1937 y 1939:

- 1937ko zemendiaren 7a / 7 de noviembre de 1937:

Moisés de la Fuentek idazkari-kargua itxi ebanean, Pedro Agirre Ibargutxi izentau eben kargu horretarako. / Tras la renuncia como secretario de Moisés de la Fuente, fue nombrado en tal puesto Pedro Agirre Ibargutxi.

• **1938ko maiatzaren 16a / 16 de mayo de 1938:**

Honako honeexek lehendik egoan taldean sartu ziran, eta kudeatzaile (zinegotzi) moduan hartu eben kargua, Barne ministroak izentau ebazanean / Tomaron posesión como gestores (concejales) que se incorporaron al equipo existente, las siguientes personas, nombradas por el Ministro del Interior:

Justo Ugalde Elorriaga; Timoteo Barturen Telleria; Francisco Uriarte Azkorra; Claudio Abio Intxausti

• **1939ko urriaren 30a / 30 de octubre de 1939:**

Kudeaketa Batzordeko presidentea (alkatea) zan Juan Ormatzaren orde, Martín Garai Ibinaga sartu zan eta Fulgencio Garai Andraka izentau eben alkateorde / Juan Ormatza, presidente de la Gestora (alcalde) fue sustituido por Martín Garai Ibinaga y se incorporó Fulgencio Garai Andraka, como teniente de alcalde.

Bakioko parrokia-eleizako abade ekonomoa: Antonio Alegria (1934-1948). / Cura ecónomo de la iglesia parroquial de Bakio: Antonio Alegría (1934-1948).

**EPAITEGIA / JUZGADO**

Epailea / Juez: Lope Intxausti Uriarte

Ordezko epailea / Juez suplente: Justo Elorriaga Elortegi

Fiskala / Fiscal: Carlos Bilbao Endemaño

Ordezko fiskala / Fiscal suplente: Francisco Uriarte Azkorra

Idazkaria / Secretario: Francisco Uriarte Azkorra

**EPAITEGIKO ALDAKETAK / MODIFICACIONES EN EL JUZGADO**

• 1937ko abuztuaren 20a: Justok, Carlosek eta Franciscok kargua itxi eben, eta honako honeexek izan ziran euren ordezkioak: Timoteo Barturen Telletxea (ordezko epailea), Segundo Iturriotz Expósito (fiskala) eta Nicolás Uriagereka (ordezko fiskala). / 20 de agosto de 1937: Justo, Carlos y Francisco cesaron el cargo y fueron sustituidos por Timoteo Barturen Telletxea (Juez suplente), Segundo Iturriotz Expósito (Fiscal) y Nicolás Uriagereka (Fiscal suplente).

• 1937ko urriaren 17a: Moisés de la Fuente Leivak kargua itxi eban, eta Pedro Agirre Ibargutxi izentau eben idazkari. / 17 de octubre de 1937: cesa Moisés de la Fuente Leiva y se nombró Secretario Pedro Agirre Ibargutxi.

• 1939ko abuztuaren 18a: Antonio Lauzirika Gaubeka ordezko fiskal izentau eben. / 18 de agosto de 1939: Se nombró Fiscal suplente a Antonio Lauzirika Gaubeka

• 1942ko urtarrilaren 2a: Asensio Ugalde Goitia fiskal izentau eben; eta Saturnino Ormatza Uriarte, ordezko fiskal. / 2 de enero de 1942: Se nombró Fiscal a Asensio Ugalde Goitia y Fiscal suplente a Saturnino Ormatza Uriarte.

• 1942ko maiatzaren 10a: Ciriaco Egiak kargua hartu eban bitarteko idazkari moduan. / 10 de mayo de 1942: Ciriaco Egi toma posesión como Secretario interino.

Manuel María Arredondo frankismoak ezarritako lehenengo alkatea izan zan. Abogadu bilbotarra zan, eta zeresan handia euki eban *Batasun Tradizionalistea* alderdian. Karlismoak izen hori hartu eban 1931n, baia, modu formalean, 1937ko apirilean desagertu zan, Falangea eta Batasun Tradizionalistea FET eta JONS alderdi bakarrean bateratu ebazan *Batasunaren ganeko Dekretuaren*<sup>65</sup> ondorioz. Hori dala eta, garetiko erakundeak eta alderdi politikoak desegin behar izan ziran.

6 astean izan zan Bakioko alkatea, Bilbo jausi ostean eta udal barria eratu ostean, bertako zinegotzi kudeatzaile izentau ebelako.

Orokorrean, jarduera zapaltzailea lurraldea edo udalerria konkistatu orduko hasten zan, armada erreboltariko kupuleak beraren soldaduak zigor barik ixteko diseinutako planaren esparruan garatzen bazan be, okupatutako eremuan ikarea zabaltzeko asmotan. Holan, bada, argi eta garbi ixten eben gerra haretan irabazleak eta irabaziak egon zirana. Horretarako, epai bako ekizuzinoak egiten ebezan, jentea erbesteratuten eben edo

Manuel María Arredondo, el primer alcalde impuesto por el franquismo, era abogado bilbaíno y figura relevante del partido *Comunión Tradicionalista*, nombre que adoptó el carlismo en 1931 y que desapareció formalmente en el mes de abril de 1937 a consecuencia del conocido como *Decreto de Unificación*<sup>65</sup>, que fusionó la Falange y la *Comunión Tradicionalista* en el partido único FET y de las JONS y dejaba disueltas las demás organizaciones y partidos políticos.

Fue alcalde de Bakio durante 6 semanas, puesto que, tras la caída de Bilbao y conformación de su nuevo ayuntamiento, fue nombrado concejal gestor del mismo.

Con carácter general, la actividad represora comenzaba nada más conquistado un territorio o municipio, aunque se desarrollaba en el marco del plan diseñado desde la cúpula del ejército rebelde para dotar de impunidad a sus soldados a fin de extender el miedo en la zona ocupada, dejando patente que aquella era una guerra con vencedores y vencidos, valiéndose, para ello, de ejecuciones extrajudiciales, destierros o episodios de violencia sexista

<sup>65</sup> 1937/04/19ko 255. Dekretua. / Decreto nº 255, del 19/04/1937.

andren aurkako indarkeria-pasarteak jazoten ziran. Komandantzia militarrek eurek eta hasikera baten udalerrri edo lurralde bakotxean kolpistek sortzen ebezan beste instituzino batzuk holako jarduketak bultzatu eta giza eskubideak urrututen ebezan.

contra las mujeres. Las mismas comandancias militares y otras instituciones que eran creadas por los golpistas en los primeros momentos en cada localidad o territorio favorecían este tipo de actuaciones, que vulneraban los derechos humanos.



Preso errepublikanoak Larrinagako kartzelan. / Presos republicanos en la cárcel de Larrinaga. (ELN/BNE).

Gerreak aurrera egin eban neurrian, altzetea justifikau eta ordena militar barria nazinoartean zilegi egin gurean, epai bako zapalkuntzearen orde, apurka-apurka ezarri zan zuzenbide zibilari uko egiten eutsan legezko estalduradun zapalkuntzea. Ganera, *preminazko prozedura sumarísima* be hasi zan erabilten, "Mobimentuaren" aurkakoa ei zana epaitzeko. Bestetik, honako jokabide honeek be zigortzen ebazan, matxinadea bera edo matxinadearen sustapena delituzat jotzen ebalako: indarreko ordena konstituzionala defendidutea edo altzeta militarrari berari aurka egitea.

Jarduera zapaltzaile horretako pieza garrantzitsua FET eta JONSeko Tokiko eta Probintziako Burutzak ziran. Oso kontuan hartu beharra dago Francisco Francok berak beraren burua aldarrikatu ebala erakunde horretako burua izateko eta ez zala izan, harik eta, bera hildakoan, 1977. urtean alderdi politiko guztiak legeztatzea lortu zan arte.

Gure kasuan, ez dogu topau udalerrian bertan eratu zan *Mobimentuko Tokiko Burutzearen* barruko eraketearen ganeko informazioa eskaintzen dauan berezko agiririk (jarduerak, kideak, karguak...). Hori dala eta,

Conforme avanzó la confrontación, y con el deseo de justificar el alzamiento y legitimar el nuevo orden militar ante la opinión internacional, se procedió a la gradual sustitución de la represión extrajudicial por una represión de cobertura legal que desdeñaba el derecho civil, que pasaría a hacer uso del *procedimiento sumarísimo de urgencia* para juzgar a quien se consideraba contrario al "Movimiento" y que condenaba por delitos de rebelión o incitación a la rebelión conductas tales como la defensa del orden constitucional vigente o la oposición a la propia insurrección militar.

Una pieza importante de esta actividad represiva eran las Jefaturas Locales y Provinciales de la FET y de las JONS. Ha de tenerse en cuenta que para la jefatura de dicha organización se autoproclamó el propio Francisco Franco y que no fue hasta que una vez hubo fallecido, se logró la legalización de todos los partidos políticos, en el año 1977.

En nuestro caso, no ha sido posible localizar documentación propia que pudiera aportar información sobre la organización interna de la correspondiente *Jefatura Local del Movimiento* que se llegó a constituir en el municipio (sus actividades, integrantes, cargos, etc.) y es a partir de las referencias que figuran en actas<sup>66</sup> y otros documentos

<sup>66</sup> Burutza hori aitutzen dauan lehenengo udal-aktea 1939ko bagilaren 12koa da, eta, bertan azaltzen danez, burutza horrek aurreko udal-idazkariaren idea politikoen inguruko txostena egin eban. / La primera acta municipal en la que se alude a tal Jefatura es la del 12 de junio de 1939, en la que se da cuenta de que la misma había emitido un informe acerca del ideario político del anterior secretario municipal.

Orr.

soldadu-talde frankistak sartutakoan eta udal barria eratutakoan idatzitako aktetan<sup>66</sup> eta beste agiri batzuetan agertzen diran aitamenak erabili behar izan doguz, 1950eko hamarkadearen hasikerara arte unadan-unadan *FET eta JON*Seko tokiko buruak izan diranen zerrendea egin ahal izateko.

Bakion, Errepublikagaz leiala zan Udal Korporazioa Zallara joan zan altzautakoek udalerrria okupau baino lehen. Auzoko batzuk be herritik ines egin eben aldean eroan eikien apurragaz, eta bertan behera itxi ebezan euren jaubetzak, ereindako soloak, ganadua eta, kasu batzuetan, familia bera be bai. Batez be, ines egindakoen senideak ziran andrek, neska-mutilek eta edadekoek bizi behar izan ebezan udalerrian lotutearren sortutako ondorio ugariak. Andra batzuk gogorkeriak zein gizarte-bazterketea bizi behar izan ebezan, eta batzuk preso be eroan ebezan. Andra batzuk, ganera, euskarri ekonomiko barrik be lotu ziran, familiaren diru-sarrerak (sasoi haretan, orokorrean, gizonen ardurea zirala kontuan hartuta) gitxitu egin ziralako, gizonen frankisten zapalkuntzea ez eroateko ines egin ebenean.

#### FET eta JONSeko tokiko buruak / Jefes locales de la FET y de las JONS

1937	Manuel María Arredondo Anastasio Olaskoaga Goitia Moisés de la Fuente Leiva
1939	Justo Ugalde Elorriaga
1945	Juan Ormatza Goitia
1946	Tomás Abio Mendizabal
1949	Bernardo Ortuzar
1950	Tomás Abio Mendizabal

Bizkaiko frentea. Altzariak hartuta ines egin eban familia. / Frente de Vizcaya. Familia evadida transportando sus ajuares. (ELN/BNE).



Neurri handi baten, Bakioko okupazioaren lehenengo asteetan eroandako zapalkuntzearen barri daukagu, hori bizi behar izan ebenen edo euren senideen ahozko lekukotasunei esker, kasurik gehienetan ez zalako prozedura formalik ezarri, egintza horreek idatzita lotu eta, gobernari barrien arbitrariotasunaren aurrean, herritarren babeserako erabili eitezan.

Liburu honetan, sasoi hori bizi izan eben personen lekukotasunak agertzen dira, eta euren senide zuzenenak be bai. Hori dala eta, bertan azaldutako datuen eta ondorioen oso zati garrantzitsua dira.

Honako honeexek ziran frankisten garaipenaren ostean sortutako probintziako instituzioen eta udal-korporazioen ezaugarri bereizgarriak: euren eginkizun zapaltzaileak; bando irabazleko gerrariei, izandako gerrariei zein izandako presoiei emondako laguntzea; eta diktaturako erregimena goratzeko egintzen eraketea eta sustapena.

de carácter administrativo redactados tras la entrada de las tropas franquistas y la conformación del nuevo ayuntamiento, que se ha podido elaborar la relación de personas que en distintos momentos han figurado como *Jefe local de la FET y de las JONS*, hasta el comienzo de la década de 1950.

En Bakio, la Corporación municipal leal a la República se trasladó a Zalla antes de la ocupación de la localidad por parte de los sublevados y algunos vecinos huyeron también del pueblo con lo poco que podían acarrear, abandonando sus pertenencias, campos cosechados, ganado y, en ciertos casos, dejando atrás su familia. Fueron particularmente las mujeres, los niños y niñas y las personas mayores emparentadas con los huidos, las que sufrieron muchas de las consecuencias de haberse quedado en la localidad. Hubo mujeres que padecieron coacciones, marginación social e, incluso, algunas fueron apresadas. Varias quedaron sin soporte económico porque los ingresos de la familia (que en esa época corrían generalmente a cargo de los hombres) se vieron mermados como consecuencia de que estos huyeron para no ser represaliados por los franquistas.

La represión sufrida durante las primeras semanas de la ocupación de Bakio se conoce, en buena parte, gracias a los testimonios orales de quienes la padecieron o de sus familiares, dado que, en la mayoría de los casos, no se observaron procedimientos formales establecidos en los que quedara constancia escrita de tales actos y que pudieran servir para amparar a los ciudadanos frente a la arbitrariedad de los nuevos gobernantes.

Este libro recopila diversos testimonios de las personas que vivieron esa época, así como de sus familiares más directos, lo que constituye una parte muy importante de los datos y conclusiones recogidos en el mismo.

Las instituciones provinciales y corporaciones municipales surgidas tras la victoria franquista se caracterizaron, además de por sus funciones represoras, por su labor asistencial a combatientes, excombatientes y excautivos del bando vencedor, así como por la organización y promoción de actos de exaltación del régimen dictatorial.

Bakio 1937ko maiatzaren 9an okupau baeben be, Gerra Zibila ez zan 1939ko apirilaren 1era arte amaitu. Urte beratako urtarriletik, Burgoseko Gobernuak beraren bandoan burrukan egiten eben gerrari boluntarioen familientzako diru-laguntzea imini eban abian, eta udalerrri baktotxean sortutako Gerrariaren Diru Laguntzarako Tokiko Batzordearen bitartez bideratzen zan. Behar ziran fondo ekonomikoak Bizkaiko Probintziako Batzordeak iminten ebazan, eta astero ordaintzen zan.

Bakion, 1937ko abuztuaren 24an sortu zan Tokiko Batzorde hori. Juan Ormatza Goitia alkatea presidentea zan; eta bokalak, Fulgencio Garai zein Lope Intxausti Uriarte udal-epailea. Bertan, ganera, Antonio Alegria parroko-abadea be bazan parte. 1939ko martiaren 4ko osoko bilkuran jakin eragin zanez, José Agirre Larrauri udal-aguazilaren emazteari gerrariaren aldeko diru-laguntzea ordainduko jakon kanpainan egoan bitartean, eta eguneko zenbatekoa 4 pezeta eta 50 zentimokoa izango zan.

Orokorrean, bando errebolitariak urtean jaiegun bi egon behar zirala ebatzi eban, eta erregimena goratzea euki behar eben helburu: estadu-kolpea hasi zaneke eguna eta altzautakoek udalerrria hartu ebeneko eguna. Errebolitariak eta Espainiako eleizako hierarkiak estadu-kolpea omendu eta gerrea bera "kurutzadea" izango balitz lez sustatu gura ebenez, holako ekitaldiak eleizkizunez beteten ebazan, euskal kleroaren zati handi bat erregimen frankistearen aurka egoan arren.

Udalerrria okupau ebenetik urtebete igaro zanean, Udalbatzak erabagi egin eban 1938ko maiatzaren 9an "soldadu-talde nazionalek Bakio askatu izanaren" urteurrenaren omeneko ekitaldiak eratuko ebezala eta egun hori jai patriotikoa izango zala. Halanda ze, ezin izango ziran soloko beharrak egin. Omenezko ekitaldian, kanpainako mezea emon zan, FET eta JONSeko gazteen erakundeek desfilea egin eben eta bazkari ofiziala eratu zan.

Urte beratako abenduaren 27an, Korporazioak atsekabetuta egoala adierazo eban, udalerrriko Anastasio Olaskoaga Goitia erreketea batailako frontean hil zalako. Hori dala eta, parrorkian egingo zan hiletara joateko erabagia hartu eban. Bestetik, Udalbatzak onartu egin eban herriko gerrari guztien hiletak ordainduko ebazala udal-fondoan bidez, betibe, frontean bertan edo kanpainan hartutako zauriakaitik hiltzen baziran eta, zer esanik ez, errebolitarien bandokoak baziran.

Gerrea amaitutakoan, soldadu-talde frankistak errazago desmobilizau eitezana, izandako gerrariantzako diru-laguntzea sortu zan aurrekoaren orde. Diru-laguntza hori be horretarako sortutako udal-batzordeen bitartez bideratzen zan.

Aunque Bakio fue ocupado el 9 de mayo de 1937, la Guerra Civil no finalizó hasta el 1 de abril de 1939. Desde el mes de enero de ese año, el Gobierno de Burgos había puesto en marcha un subsidio para las familias de los combatientes voluntarios que luchaban en su bando, la cual se canalizaba a través de una Junta Local de Subsidio al Combatiente que se creaba en cada municipio. Los fondos económicos necesarios los aportaba la Junta Provincial de Bizkaia y el pago se realizaba semanalmente.

En Bakio, esta Junta Local se creó el 24 de agosto de 1937, siendo su presidente el alcalde Juan Ormatza Goitia y vocales Fulgencio Garai y el juez municipal, Lope Intxausti Uriarte, tomando parte de la misma, también, el cura-párroco Antonio Alegria. En el Pleno del 4 de marzo de 1939 se informó sobre el abono a la esposa del aguacil municipal, José Agirre Larrauri, durante el tiempo que permaneciese en campaña, de un subsidio pro-combatiente, con un importe de 4 pesetas y 50 céntimos por día.

El bando rebelde instauró, con carácter general, la celebración anual de dos festividades destinadas a la exaltación del régimen: el día del inicio del golpe de estado y la toma de la localidad por parte de los sublevados.

Los sublevados y la jerarquía eclesiástica española pretendían sacralizar el golpe de estado y promocionar la guerra como una "cruzada", por lo que impregnaron estos actos con oficios religiosos, a pesar de que una parte considerable del clero vasco se posicionó en contra del régimen franquista.

Un año después de la ocupación de la localidad, el Pleno municipal acordó celebrar, el 9 de mayo de 1938, actos conmemorativos del aniversario de "la liberación de Bakio por las tropas Nacionales", declarando esta fecha como fiesta patriótica en la que no se permitía realizar labores en el campo. El acto conmemorativo consistió en una misa de campaña, un desfile

de las organizaciones juveniles de la FET y de las JONS, y una comida oficial.

El 27 de diciembre de ese mismo año, la Corporación manifiesta su sentimiento por la muerte, en el frente de batalla, del requeté de la localidad Anastasio Olaskoaga Goitia y acuerda asistir a su funeral, a celebrar en la parroquia. El Pleno aprueba asimismo pagar con fondos municipales todos los funerales de los combatientes del pueblo que hubiesen muerto en el frente o a consecuencia de las heridas sufridas en campaña, bien entendido que sería siempre referido únicamente al bando de los sublevados.



Antonio Alegria.

Orr.

Testuinguru horretan, 1939ko maiatzaren 30ean, Udalbatzak ebatzi egin eban bando irabazlekoak ziran eta burrukaldian hil ziran 6 gerrarien hiletak ordainduko zirala eta, horrezaz ganera, frontetik atzera etorri zan José Agirre Larrauri aguazilari beraren kargua emongo jakola ostera be eta beraren ordezkoa izandakoa kenduko ebela kargutik. Hilebete geroago, gerran be hil zan beste soldadu baten gastuak ordaindu ebazan.

1939. urtearen amaieran, Gerra Zibila urte beratako apirilaren 1ean amaitu bazan be, Armadako Ministerioak beraren jarduera zapaltzailea garatzen segidu eban tokiko instituzinoen bidez. Horretarako, edade militarrean egozan eta soldadiskarako deia hartzen eben gazteak jarraitzaileak, ardurabakoak, aurkariak edo auzipetuak<sup>67</sup> zirala esaten eben, Mobimentu Nazionalaren aurrean zelako jokabidea erakusten eben kontuan hartuta. Auzipetuak atoa atxilotu behar ziran, ganera.

Dana dala, hainbat eta hainbat jente preso egotean era guztietako arazoak sortu ziranez, diktadurearentzat eurak jagotea oso karga ekonomiko eta sozial handia zala kontuan hartuta (biztanle aktiboen %10 ziran), beste era bateko erabagiak hartzen hasi ziran.

Holan, 1940ko bagilaren 4an, kondenautako presoek baldintzapeko askatasuna emotea arautzen eban legea egin zan, betibe, euren zigorrak sei eta hamabi urte artekoak baziran. Horrezaz ganera, 1945eko urriaren 9an, indultu orokorra aldarrikatu zan Matxinada Militarragaitik eta Gerra Zibila amaitu arte garatutako egitateen ondorioz egindako antzeko beste delitu batzukaitik kondemnata egozantzat. Azken neurri horren bidez, erregimen frankisteak atzerrian eukan irudia hobetu gura eban, beraren aliaduak Bigarren Mundu Gerrako galtzaileak izan zirala kontuan hartuta.

Ebazpen horreen haritik, 1943an, Jagoletzapeko Askatasunerako Zerbitzua sortu zan, eta probintziako zein tokiko batzordeek askatutako presoek jarduerak ikuskatzen eben. Izan be, lantzean-lantzean aurkeztu behar ziran esleitutako Guardia Zibileko Komandantzian. Preso horreei etxetik urtetea galazon eutseen, ekitaldi erlijiosoetara joateko ez bazan. Aldi beratan, udalerriko auzoko batek persona horren egintzen ganeko ardura be hartu behar eban. Holan, oindinokarren presino handiagoa egiten jaken jagoletzapekoei.

Horregaitik, askatutako preso horreek guztiak espetetik kanpo baegozan be, tokiko instituzino frankisten zapalkuntzea erooten segidu eben.

Bakioko Jagoletzapeko Askatasunerako Batzordeko aktea-liburuan agertzen dan azalpenaren arabera, *“Justizia Ministerioak Jagoletzapeko Askatasunerako Batzordearen zerbitzua sortu eban, iraultza marxistearen ondorio larriak zentzun kristinau eta patriotikoz garbitzeko asmatan. Holan, bada, hainbat laguneri jagoletzapeko eta baldintzapeko askatasuna emon jake, euren jarduerak ikuskatzeko eta bide seguruetatik onerantz joteko. Zerbitzua Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren menpe egoan.*

Finalizada la contienda, y con el fin de facilitar la desmovilización de las tropas franquistas, se crea el subsidio al excombatiente, que sustituyó al anterior. Este subsidio se tramitaba igualmente a través de unas Juntas Municipales creadas con ese fin.

En este marco, el 30 de mayo de 1939 el Pleno del Ayuntamiento dispone que se abonen los funerales de los 6 combatientes pertenecientes al bando ganador fallecidos en la contienda, así como que se restituya en su puesto, al aguacil, José Agirre Larrauri, que había regresado del frente, cesando en sus funciones al que lo había sustituido. Un mes más tarde, asume el pago de los gastos correspondientes a otro soldado, también fallecido en la guerra.

A finales de 1939, y a pesar de que la Guerra Civil había finalizado el 1 de abril de ese mismo año, el Ministerio del Ejército continúa con su labor represiva a través de las instituciones locales, catalogando a los jóvenes en edad militar y que eran llamados a filas entre adictos, indiferentes, desafectos y encartados<sup>67</sup> en función de su conducta ante el llamado movimiento nacional. Los encartados debían ser detenidos inmediatamente.

Pero ante la diversa problemática generada por el ingente número de personas apresadas, cuyo mantenimiento implicaba una fuerte carga económica y social para la dictadura (suponía el 10% de la población activa) se comienza a adoptar acuerdos en otro sentido.

Así, el 4 de junio de 1940 se dictó una ley que regulaba la concesión de la Libertad Condicional a los reclusos condenados con penas comprendidas entre los seis y los doce años y el 9 de octubre de 1945 se promulgó un indulto general para los condenados por Rebelión Militar y otros delitos semejantes por hechos cometidos hasta la terminación de la Guerra Civil. Con esta última medida se pretendía mejorar la imagen del régimen franquista en el exterior tras la derrota de sus aliados en la II Guerra Mundial.

En consonancia con estas disposiciones, en 1943 se creó el Servicio de Libertad Vigilada, con juntas provinciales y locales encargadas de supervisar la actividad de los presos liberados, los cuales debían presentarse regularmente en la Comandancia de la Guardia Civil asignada. Estos expresos tenían prohibido abandonar su domicilio, excepto para acudir a actos religiosos. Al mismo tiempo, un vecino del municipio debía avalar que se hacía responsable de sus actos; de esa manera se ejercía aún mayor presión sobre los vigilados.

Por ello, todos estos presos liberados, aunque estaban ya fuera de las cárceles, siguieron sufriendo la coacción de las instituciones locales franquistas.

Según la definición del Libro de actas de la Junta de Libertad Vigilada de Bakio *“El servicio de la Junta de Libertad Vigilada fue creado por el Ministerio de Justicia con objeto de liquidar, con sentido cristiano y patriótico las consecuencias trágicas de la subversión marxista, colocando así a un gran número de personas en libertad condicional bajo vigilancia, para fiscalizar sus actividades y encauzarlas por*

<sup>67</sup> Soldadiskarako deia hartzen eben “mutil gazteei” “auzipetuak” zirala esaten jaken ustezko delitugile moduan auzitan sartzen ebezanean. / “encartados” denominación que se aplicaba a aquellos “mozos” llamados a filas que iban a ser sometidos a procedimiento judicial como presuntos autores de delitos.

*Baldintzapeko askatasunean egozan guztien jokabide politiko eta soziala ikuskatu behar eban”.*

Landa-inguruneke udalerrietan, udal-epaileak Jagoletzapeko Askatasunerako Batzordeko presidentea izan behar eban, eta honako honeexen laguntzea jasoten eban: udaleko ordezkari bat, Guardia Zibilaren postuko komandantea, FET eta JONSeko tokiko burua, Lanpostu Bulegoko tokiko burua eta udalekoa bertakoa zan idazkaria.

Holan, bada, Lope Intxausti udal-epaileak 1943. urteko bertako zemendiaren 2rako batzarrera deitu eban, Jagoletzapeko Askatasunerako Zerbitzuko Tokiko Batzordea eratzeko. Holantxe eratu zan:

*seguros derroteros hacia el bien. El servicio dependía de la Dirección General de Prisiones. Debía observar la conducta político-social de cuantos estaban en libertad condicional”.*

En los ayuntamientos rurales, esta Junta de Libertad Vigilada la debía presidir el juez municipal, acompañado de un representante del ayuntamiento, el comandante del puesto de la Guardia Civil, el jefe local de la FET y de las JONS, el jefe local de la oficina de colocación, así como por un secretario, que era el propio del Ayuntamiento.

Siendo así, el juez municipal Lope Intxausti convocó una reunión para el día 2 de noviembre de ese mismo año 1943 con el fin de constituir la Junta Local de Servicio de Libertad Vigilada, que quedó organizada de la siguiente manera:

**PRESIDENTEA / PRESIDENTE**

Lope Intxausti Uriarte (Udaleko epailea / Juez Municipal del Ayuntamiento)

**BOKALAK / VOCALES**

Juan Elorriaga Abaroa (zinegotzia / concejal), Justo Ugalde Elorriaga (FET eta JONSeko tokiko burua / Jefe local de la FET y de las JONS)

Licinio Rico (udalerrian erantzunbeharra eukan Guardia Zibileko komandantea / Comandante de la Guardia Civil con responsabilidad en el municipio)

**IDAZKARIA / SECRETARIO**

Ciriaco Egia (Udaleko idazkaria / Secretario del Ayuntamiento)

Baldintzapeko askatasunean Jagoletza Batzorde horren menpe egozaneke euren jokabidea ona zana eta ohiko beharrak egiten ebezana egiaztatu behar eben batzordearen aurrean. Era beratan, aldian-aldian be aurkeztu behar ziran bertan. Bakioko Tokiko Jagoletza Batzordea 1951era arte egon zan abian. Desegin zanean, honako honeexek ziran bertako arduradunak:

Las personas en Libertad Condicional que dependían de dicha Junta de Vigilancia tenían que acreditar ante la misma su buena conducta y que se dedicaban a sus trabajos habituales, debiendo presentarse regularmente ante ella. La Junta de Vigilancia local de Bakio estuvo en funcionamiento hasta 1951. En el momento de la disolución, sus responsables eran los siguientes:

**PRESIDENTEA / PRESIDENTE**

Francisco Uriarte Azkorra

**BOKALAK / VOCALES**

Juan Elorriaga Abaroa (Udalekoa / por el Ayuntamiento), Tomás Abio Mendizabal (FET eta JONSeko tokiko burua / Jefe local de la FET y de las JONS) eta Florentino Escalante Esteban (Guardia Zibileko komandantea / Comandante de la Guardia Civil)

**IDAZKARIA / SECRETARIO**

Ciriaco Egia

Bakion, garetiko udalerrietan lez, jagoletzapeko askatasunean egozaneke identifikazio-agiria emoten eutseen, Guardia Zibilari 2na pezeta ordaindu ostean. Hilean-hilean, Bakioko Tokiko Jagoletza Batzordean aurkeztu behar ziran, eta, hilero be bai, Bizkaiko Probintziako Jagoletza Batzordeari bialtzen eutsan euren jokabide publiko zein pribaduaren eta Mobimentu Nazionalaren alde egitearen ganeko txostena.

Honako honeexek jagoletzapeko askatasunean egon ziran<sup>68</sup>:

En Bakio, al igual que en el resto de localidades, a cada persona en situación de Libertad Vigilada se le daba un carnet de identificación, después de que cada una de ellas abonase 2 pts. a la Guardia Civil. Estas personas debían presentarse mensualmente a la Junta de Vigilancia local de Bakio y esta remitía un informe, también mensual, sobre su conducta pública y privada y su adhesión al Movimiento Nacional, a la Junta de Vigilancia Provincial de Vizcaya.

Estuvieron bajo Libertad Vigilada las siguientes personas<sup>68</sup>:



<sup>68</sup> BAUA, Jagoletzapeko Askatasunerako Batzordeko akteak, 1943-1950; Sig.: 0011/008 (epaitegia). / AMBA, Actas de la Junta de Libertad Vigilada 1943-1950; Sig.: 0011/008 (juzgado).

orr.

IZENAK / NOMBRES
Agirre Jauregizar, Florentino
Agirre Jauregizar, Rufina
Álvarez Ormilugue, Eduardo
Arrutzazabala Agirre, Rosalía
Bilbao Markaida, Vicente
Errenteria Armendaritz, Rufino
Etxebarrieta Uriarte, Ramón
Goienetxea Bilbao, Juan
Imatz Bilbao, Casiano
Larrazabal Unibaso, Julián
Legarreta Oar, Martín
Longarai Lauzirika, Cecilio
Uriarte Ugalde, Valentín Luis
Muruaga Olaskoaga, Félix
Olaskoaga Zumarraga, Ignacio
Ruiloba López, Delfín
Santa Ana Iturain, Jovita
Ugarte Agirretxu, Demetrio



1944ko irailaren 27an Bakioko preso "askatu batzuri" egindako jakinarazpena. / Notificación realizada a diversos presos "liberados" de Bakio el 27 de septiembre de 1944. (BAUA/AMBA).



Rufino Errenteriaren Jagoletzapeko Askatasunaren Kartilea. / Cartilla de Libertad Vigilada de Rufino Errenteria. (Senideek itxitakoa / Cedida por sus familiares).

#### 4.1. BEHARGIN PUBLIKOEN ETA ABADEN BAZTERKETA

Diktadurako lehenengo urteetan, erregimen frankistek zeregin zapaltzaileak imini ebazan abian, erregimenaren aurkakoak ei ziran behargin publikoak lehenetik egozan instituzinoetatik baztertzeko. Baztertzeko, lanpostu barik ixten ebezan, zehapen-espeditenteak edegiten eutseezan euren jokabide politikoagaitik eta, era batera, euren erakundetik edo funtzionario-taldetik kanpo ixten ebezan.

Altzautako militarren gorengo organismoa Defentsa Nazionalerako Batzordea izan zan Gerra Zibilean, eta, 1936ko irailaren 12an, 101. Dekretua emon eban argitarara. Bertan, gerreagaitik bizileku ofizialetik kanpo egozan behargin publikoek aurkezpenetan bete beharreko arauak zehazten ziran. Dekretu horretan ebatzitakoaren arabera, kanpoan egozan behargin publikoak atoan aurkeztu behar ziran unada horretan bizileku eukien probintziako uriburuko *“goragoko agintaritzearen, zentroaren edo funtzionarioaren”* aurrean.

Behargin publikoa beraren lanpostuan ez egoanean, *“agintari”* horreek espeditentea edegi behar eben, interesdunen kidetza politikoa zein zan eta euren eginkizunak ez garatzeko *“errazoi zehatzak edo ustezkoak”* zein ziran azaltzeko<sup>69</sup>. Edozelan be, dekretu horretan ez zan zehazten zer zigor ezarriko jaken aurkezten ez ziranei. Hori dala eta, urte beratako abenduaren 9ko osteko Dekretuan ebatzitakoaren arabera, espeditentea edegi barik lanpostutik kanpo itxiko ebezan bertan ez egozan eta aurkezten ez ziran behargin publikoak. Era beratan, Estaduko Batzorde Teknikoaren eretxiz agintari kolpisten aurrean aurkezterik ez eukiena behar dan moduan egiaztetan ez eben guzti-guztiak be kenduko ebezan lanpostutik<sup>70</sup>.

Defentsa Nazionalerako Batzordeak berak be 108. Dekretua emon eban argitarara, Fronte Popularragaz edo kolpisten aurka egozan erakundeakaz behar egin eben edo bertan parte izan ziran alderdi eta alkarte politiko guzti-guztiak be legez kanpokoak izango zirala adierazoteko. Era beratan, euren karguetatik be kenduko ebezan funtzionarioak, euren jarduketak *“antipatriotikoak edo Mobimentu Nazionalaren aurkakoak”* izan baziran, erregimen frankistako agintarien erespedearen arabera<sup>71</sup>.

Bakion, okupazio frankistearen ostean sortutako Udalak beraren bazterketa-prozesua be garatu eban erregimen barriaren aurretiko udal-behargin batzuen kontra. Holan, bada, aitatutako dekretuen eukia bete eban artez-arte.

Sasoi haretako udal-akten arabera, besteak beste, honzko honeexek izan ziran Bakion egindako bazterketako kaltedunak: Ignacio Olaskoaga Zumarraga aguazila, Jesús Ormatza bideetako behargina eta Ciriaco Egia Mardaraz idazkaria. Hiru behargin horreek 1937ko maiatzaren 10ean Bakion eratutako Kudeaketa Batzordeak kendu

#### 4.1. DEPURACIÓN DE EMPLEADOS PÚBLICOS Y SACERDOTES

Durante los primeros años de la dictadura, el régimen franquista emprendió labores represivos con el fin de depurar de las instituciones existentes a los empleados públicos considerados opuestos al régimen. La depuración consistía en cesarles de sus empleos, abriéndoles expedientes sancionadores por su conducta política y, a la vez, apartarlos en su caso de la organización a la que perteneciesen o del cuerpo de funcionarios.

El máximo organismo de los militares sublevados durante la Guerra Civil fue la Junta de Defensa Nacional, la cual emitió el 12 de septiembre de 1936 el Decreto nº 101 que contenía las reglas a las que debían sujetarse las presentaciones de empleados públicos que se hallaran fuera de su residencia oficial a causa de la guerra. Este Decreto fijaba que los empleados públicos ausentes debían presentarse de manera inmediata ante la *“autoridad, centro o funcionario superior”* de la capital de provincia en la que se encontrarán.

Para los casos en los que el empleado público estuviera ausente de su puesto, estas *“autoridades”* debían formalizar un expediente en el que constara la filiación política de los interesados y *“las causas exactas o probables”* por las que no se hallaban en el desempeño de sus funciones<sup>69</sup>. Sin embargo, este Decreto no fijaba las sanciones en las que incurrían los no presentados, por lo que, en un Decreto posterior, del 9 de diciembre de ese mismo año, se declaraban cesados, sin formación de expediente, los trabajadores públicos ausentes que no se hubieran presentado, siendo también destituidos todos aquellos que, a juicio de la Junta Técnica del Estado, no acreditaran suficientemente la imposibilidad de presentarse ante las autoridades golpistas<sup>70</sup>.

La misma Junta de Defensa Nacional publicó también el Decreto nº 108, declarando fuera de la ley a todos los partidos y agrupaciones políticas que hubieran colaborado o formado parte del Frente Popular o con organizaciones que se hubieran opuesto a los golpistas. Así mismo, los funcionarios podrían ser destituidos de sus cargos si sus actuaciones habían sido *“antipatrióticas o contrarias al movimiento nacional”*, según el criterio de las autoridades constituidas por el régimen franquista<sup>71</sup>.

En Bakio, el Ayuntamiento surgido tras la ocupación franquista llevó a cabo su propio proceso de depuración contra varios de los empleados municipales anteriores al nuevo régimen, cumpliendo fielmente con el contenido de los decretos citados.

Algunos de los afectados por la depuración ejercida en Bakio, según las actas municipales de esa época, fueron el alguacil Ignacio Olaskoaga Zumarraga, el peón caminero Jesús Ormatza y el secretario Ciriaco Egia Mardaraz. Estos tres empleados fueron cesados y suspendidos

<sup>69</sup> Espainiako Defentsa Nazionalerako Batzordearen Aldizkari Ofiziala, 20. zk., 1936/09/12koa, 77. or. / Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España núm.20, de 12/09/1936, pág. 77.

<sup>70</sup> Estaduko Aldizkari Ofiziala, 51. zk., 1936/12/09koa, 354. or. / Boletín Oficial del Estado núm. 51, de 09/12/1936, pág. 354.

<sup>71</sup> Espainiako Defentsa Nazionalerako Batzordearen Aldizkari Ofiziala, 22. zk., 1936/09/16koa, 85.-86. or. / Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España núm.22, de 16/09/1936, págs. 85 a 86.

Orr.

ebazan lanpostutik, eta behar zein soldata barik be itxi ebazan aldi baterako. Hirurei Euzko Alderdi Jeltzaleko kideak eta erregimen frankistearen aurkakoak zirala leporatu eutseen.

Ignacio Olaskoaga Zumarraga aguazilari ondasunak enbargau eutsiezan, eta, 1937ko garagarriaren 9an, preso eroan eben Bilbon egoan Bizkaiko espetxe probintziera (Larrinagako kartzelara), lehenengo eta behin; eta, ostean, Cadizeko Puerto de Santa Mariako espetxera. Aldi beratan, Korporazioak behar zein soldata barik be itxi eban behin betiko, *beraren jarduketea Mobimentu Nazionalaren kontrakoa izan zalako*<sup>72</sup>. Ignacio ezkonbakoak zan, 28 urte eukazan, beraren anaia zan Aniceto Olaskoaga Zumarraga fusilatu egin eben eta leporatu egin eutsien Defentsa Batzorde "gorriko" idazkaria zala eta milizianoei lagundu eutsela eskoitiarren etxeak erregistretan. Azkenean, 1938ko bagilaren 4an, espetxetik urten eban, ia-ia urtebete preso egon ostean.

Jesús Ormatzaren kasuan, udal-behargin hau Bakion bideetako behargin moduan eukan lanpostutik kendu eben, *"Mobimentu Nazional Gloriatuaren aurkakoa izatearren"*. Bakioko errepide-tartea eukan ardurapean, eta, lanpostutik kendu ebenean hutsik lotu zanez, Lorenzo Bóveda Goitiak berarentzat eskatu eban 1938ko zezeilean.

Jesúsek alabeagaz ines egin eban Zallara errebolta-riak herrian sartu baino lehen, eta, atzera etorri zanean, lanpostu barik itxi ebela ikusi eban, eta mantenido beharreko lau seme-alaba eukazan. Hori dala eta, bizibide barria topau behar izan eban, eta Jauregizar baserrian hasi zan beharrean.

Ciriaco Egia Mardaraz udal-idazkariaren kontrako zehapenaren historiala luzeagoa izan zan. Egia be Bakioko Korporazioagaz batera joan zan Zallara, eta 1937ko garagarriaren 2an atzera etorri zan. Enkarterriko udalerrira eroandako agiriak eta gauzak itzuli ebazan, eta, aldi beratan, lanpostuan ostera be beharrean hasteko eskabidea egin eban. Maiatzaren 10ean armada frankistearen babespean eratu zan Udaleko Kudeaketa Batzordeak, barriz, ez eban eskabide hori onartu, eta behar zein soldata barik behin betiko ixteko erabagia hartu eban, borondatez ines egin ebalako eta Errepublikaren aldeko lagundu eutsielako. Bien bitartean, Pedro Agirre Ibartutxi izentau eben Udaleko bitarteko idazkari.

Espedientea edegi barik lanpostutik kentzearren Barne Ministerioan gora joteko errekursoa aurkeztu ostean, Egia ostera be hartu behar ebela ebatzi eban Ministerioak, baia Udaleko Kudeaketa Batzordeak ostera be adierazo eban holakorik egingo ez ebala, eta beraren jokabide politiko eta sozialaren inguruan ikertzeko espedientea edegi eban. Era beratan, behar eta soldata barik itxi eban ostera be, harik eta izapideak amaitu arte.

1939ko urtarrilean, izapideak amaitutakoan, Kudeaketa Batzordeak ostera be ebatzi eban lanpostutik kentzea, *agirikoa zalako Udal gorri separatisteari lagundu eutsana eta Mobimentu Nazionalaren kontrakoa zana*.

de empleo y sueldo por la Gestora constituida en Bakio el 10 de mayo de 1937. Los tres fueron acusados de pertenecer al Partido Nacionalista Vasco y de ser desafectos al régimen franquista.

Al alguacil Ignacio Olaskoaga Zumarraga le embargaron sus bienes y fue llevado preso el 9 de julio de 1937, primeramente, a la Prisión Provincial de Vizcaya, en Bilbao (cárcel de Larrinaga) y, posteriormente, a la prisión del Puerto de Santa María (Cádiz). Simultáneamente, la Corporación lo cesa definitivamente de empleo y sueldo *por haber sido su actuación desfavorable al movimiento Nacional*<sup>72</sup>. Ignacio, soltero y de 28 años de edad, hermano del fusilado Aniceto Olaskoaga Zumarraga, fue acusado de ser Secretario del Comité de Defensa "rojo" y de haber acompañado a los milicianos a practicar registros en las casas de los derechistas. Finalmente, el 4 de junio de 1938 salió de la cárcel, tras haber estado preso casi 1 año.

En el caso de Jesús Ormatza, este empleado municipal fue destituido de su puesto de trabajo como peón caminero de Bakio, por *"su desafeción al Glorioso Movimiento Nacional"*. Tenía a su cargo el tramo de carretera de Bakio, y tras quedar vacante dicho puesto por su destitución, lo solicitó para sí, en febrero de 1938, Lorenzo Bóveda Goitia.


Jesús huyó junto con su hija a Zalla antes de la entrada de los rebeldes al pueblo y al volver se encontró con su destitución y con cuatro hijos jóvenes a los que mantener, por lo que tuvo que encontrar un nuevo medio de vida pasando a trabajar en el caserío Jauregizar.

El historial sancionador contra el secretario municipal Ciriaco Egia Mardaraz fue más extenso. Egia también se trasladó, junto con la Corporación de Bakio, a Zalla y regresó el 2 de julio de 1937 entregando la documentación y objetos que se habían llevado al municipio encartado a la vez que solicitaba su reingreso en el puesto. Pero la Gestora Municipal que había sido constituida el 10 de mayo bajo el amparo del ejército franquista no atendió dicha petición y acordó su cese de empleo y sueldo con carácter permanente por haber huido voluntariamente y colaborado con los adeptos a la República. Mientras tanto, se había nombrado a Pedro Agirre Ibartutxi como Secretario interino del Ayuntamiento.

Tras recurrir en alzada ante el Ministerio del Interior por haber sido destituido sin apertura de expediente, el Ministerio determinó que Egia debía ser readmitido, pero la Gestora Municipal insistió en no hacerlo e inició el expediente para investigar sobre su proceder político-social, manteniéndolo sin empleo y sueldo hasta que finalizara su tramitación.

En enero de 1939 y una vez concluida esta, la Gestora resolvió nuevamente que fuera cesado de su empleo *a la vista de la colaboración que había prestado al ayuntamiento rojo-separatista y su desafeción a la causa Nacional*.

<sup>72</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1937/07/24ko aktea. Ciriaco Egia idazkariak kargua itxi dauala be azaltzen da bertan. Sig.: 002/02. / AHFB, Sección Municipal; Bakio. Acta del 24/07/1937, que recoge igualmente el cese del secretario, Ciriaco Egia. Sig.: 002/02.



El Correo Español, 1937-08-17.

Visto pues, los cargos que se le han formulado al Sr. Eguía, sin que en modo alguno haya sido destruidos y demás documentos e informes unidos al expediente se deduce claramente la colaboración prestada por el Sr. Eguía al Ayuntamiento rojo-separatista y el desafecto por la causa Nacional por el que debió prestar su colaboración sin abandonar su puesto en momento culminante para la vida del pueblo de Baquis y por tanto esta Alcaldía hace suya la propuesta del Sr. Insa Instructores y propone la destitución de Sr. Ciriaes Eguía y Mandarás del cargo de Secretario de este Ayuntamiento, sin perjuicio de exigirle las demás responsabilidades administrativas por la vía correspondiente.

Y la Corporación después de larga deliberación por unanimidad acordó en la forma propuesta por el Sr. Alcalde sea la destitución de Sr. Ciriaes Eguía y Mandarás del cargo de Secretario de esta

Horregaz bat ez etorrenez, Egiak lanpostu barik itxi eban ebazpenaren aurka segidu eban auzitan, eta beraren kasua ostera be aztertzea lortu eban 1941eko abenduan. Orduan, sasoi haretako Udal Korporazioaren babesa euki eban<sup>73</sup>. Berrikuspen hori 1942ko martira arte luzatu zan, orduan ebatzi zalako ostera be hartu behar ebela ezelako zigor barik. 1942ko martiaren 16an, udal-idazkariaren kargua hartu eban Justo Ugalde Elorriaga alkatearen aurrean.

Halanda be, beraren eskubideak eskatzen segidu eban, eta beste instantzia bat aurkeztu eban, 1937ko urtarrilaren 1etik 1942ko martiaren 10era arteko epealdiko soldatak ordaindu eioezala eskatzeko.

Hasikeran, Korporazioak erreklamautako zenbatekoaz konpentsetea onartu baeban be, hiru urte geroago, zorra ordaindu barik egoan artean, eta, Udalak adierazo ebanez, udal-interesei begira kaltegarria zan Egiari zehaztutako zenbatekoa ordaintzea.

Azkenean, urteak eta urteak tirabiretan eta auzitan emon ostean, alderdi biek akordua berbatu eben 1947. urtearen hasikeran. Bertan, hartzekodunak autortu eutsiezan, baia ez betebeharra bete gurean, borondatez baino, "funtzionario honek egindako zeregin laudagarria saritzeko".

Era beratan, altzeta militarren hasikera-hasikeratik, hezkuntzea bera garbiketa ideologikoaren helburua izan zan. Hori dala eta, irakasleak baztertu ebezan, oinarritik bertatik biztanleen ganeko kontrola oso-osorik eukiteko: irakas-kuntzea.

No conforme con ello, Egia continuó pleiteando contra la resolución que lo había destituido y consiguió la revisión de su caso en diciembre de 1941 contando en esta ocasión con el apoyo de la Corporación municipal de aquel momento<sup>73</sup>. Esa revisión se alargó hasta marzo de 1942, fecha en la que se determinó que fuese readmitido sin sanciones. El 16 de marzo de 1942 tomó posesión de su cargo como Secretario municipal ante el alcalde Justo Ugalde Elorriaga

Pero a pesar de ello, no cesó en reclamar sus derechos y presentó otra instancia solicitando que se le abonen los sueldos correspondientes al período comprendido entre el 1 de enero de 1937 y el 10 de marzo de 1942.

Si bien la Corporación accede en principio a compensarle con la cuantía reclamada, tres años después la deuda seguía sin ser satisfecha y el Ayuntamiento declara lesivo para los intereses municipales pagarle a Egia la suma establecida.

Finalmente, tras años de desencuentros y litigios, ambas partes alcanzaron un acuerdo a principios de 1947, siéndole reconocidos los haberes, no como cumplimiento de una obligación sino de manera voluntaria, para "premiar la labor laudable realizada por este funcionario".

También la educación fue desde el inicio del levantamiento militar objeto de una limpieza ideológica mediante la depuración del personal docente a fin de ejercer un control absoluto sobre la población desde su base: la enseñanza.

<sup>73</sup> BAUA. 1941/12/15eko aktea. Sig.: 0113/005. / AMB. Acta del 15/12/1941. Sig.: 0113/005.

Orr.

Horretarako, altzautako bandoak ezarri eban Estatu barriaren erakuntzaren barruan, *Kultura eta Irakaskuntza Batzordea* sortu zan, eta bazterketarako lau batzorde ezarri ziran (bakotxak behargin-talde ezbardinean eukan eragina), kasuak epaitzeko eta behin betiko ebazpena hartzeko: lanpostuan lotutea, lekualdatzea, behin betiko baztertzera edo aldi baterako behar eta soldata barik itzea.

Neurri horreek erregimen frankista barriak lurraldean aurrera egiten eban eran ezarten ziran, eta, Bizkaia jausi zanean, bazterketa-ekintza hori prozedura bereziaren<sup>74</sup> bitartez arautu zan. Horren arabera, lehenengo eta behin, irakaskuntzako funtzionario guztiei behin-behinean ixten jaken behar barik. Halanda ze, gura izan ezkerro, irakasleek ostera be sartzeko eskabidea egin eikien Valladolideko Errektoretzan. Horretarako, euren lanpostua zein zan, zer gogaidetasun sozial eta politiko eukiezan eta hori guztia nork egiaztatu leian zehaztu behar eben. Eskabide hori 20 eguneko epean egin ezean, maisua edo maistrea zerbitzutik kanpo lotuten zan, eta ez eukan erreklamaziorik egiteko eskubiderik.

Bakio okupau ebenean, Moisés de la Fuente Leivaren (*Bentako eskolan*) eta Emilia Zárate Fríasen (*Urkitzaurraldekoan*) ardurapean egozan eskola publikoak. Zerbitzuetik kendu ebezanean, ostera be sartzeko eskabidea egin eben. Euren balorazino-espeditenteetan, honako honeexek euren alde egindako derrigorrezko txostenak agertzen ziran: alkatea, abade ekonomoa, Guardia Zibileko komandantea, familiako aita bat eta Mobimentu Nazionalagaz bat egin ebana egiaztatu leien personak. Bertan, hain zuzen be, maisuak “*oso eretxi espainolistak*” eukazana eta maistrea “*erlijinotasunaren adibidea eta guztiz konfiantzako pertsona*” zana baieztan zan, besteak beste.

Moisés de la Fuenteren espeditentean, aitatu egiten da beraren ideia eskoitiarrakaitik aurretik erabili ebela eta, horren ondorioz, 25 egunetan etxeko sotoan ostenduta egon behar izan ebala, “*Armada Nazionalaren Askapen Gloriatzura arte*”.

Kasu bietan, Kultura eta Irakaskuntza Batzordeak irakaskuntzan ostera be sartzera onartu eban 1938ko urtarilaren 28an.

Nabarmendu beharra dago 1937ko maiatzaren 10etik urriaren 30era arteko epealdian, Moisés de la Fuente Udal Korporazino barriko *idazkaria* izan zala. Hori dala eta, maisu-lanpostutik behin-behinean baztertu eben indar zapaltzaileen euren parte izan zan. Erregimen barriagaz eukan kideasuna hain handia zanez, Emilia Zarateri edegitako espeditentean *FET eta JONSeko tokiko buru* moduan sinatu eban maistreaken jokabidearen eta jarrearen alde egindako txostenetako baten.

Edozelan be, azpimarratu behar da Errepublikako Gobernuak antzeko bazterketa-prozesua garatu ebala beragaz leialak ziran lurraldeetan. 1936/09/27ko Dekretuaren bidez, funtzionario guztiak kanporatu ebezan ezelako salbuespen barik. Dana dala, baeukien ostera be sartzeko eskabidea egiterik, alderdi politiko edo sindikaturen baten bermepean «Errepublikagaz» erabateko aldeko zirana egiaztetako moduko inprimaki batzuk bete ostean.

Para ello, y dentro de la organización del nuevo Estado que el bando sublevado había decidido implantar, se creó la *Comisión de Cultura Y Enseñanza* y se establecieron cuatro Comisiones depuradoras (cada una abarcaba distintos cuerpos del personal) que juzgaban los distintos casos y establecían la resolución definitiva: confirmación en el puesto, el traslado, la separación definitiva o la suspensión de empleo y sueldo.

La aplicación de estas medidas iba unida al avance sobre el territorio del nuevo régimen franquista y tras la caída de Bizkaia la acción depuradora quedó regulada por un procedimiento específico<sup>74</sup> en el que, en primer lugar, se suspendía provisionalmente de empleo a todos los funcionarios de la enseñanza pudiendo aquellos docentes que lo desearan solicitar su reingreso ante el Rectorado de Valladolid, detallando su puesto, afinidades sociales y políticas y señalando el nombre de aquellas personas que así lo pudieran corroborar. Caso de no realizar la petición en el plazo de 20 días, el maestro o maestra quedaba separado del servicio sin derecho a reclamación.

En el momento de la ocupación de Bakio, las escuelas públicas estaban atendidas por Moisés de la Fuente Leiva (en la escuela de La Benta) y por Emilia Zárate Frías (en la de Urkitzaurralde), que tras ser separados del servicio solicitaron su reincorporación. En los respectivos expedientes de valoración se acompañaban los preceptivos informes favorables del alcalde, del cura párroco, del comandante de la guardia civil, de un padre de familia y de aquellas personas que podían confirmar su adhesión al Movimiento Nacional, afirmándose en ellos, y entre otras consideraciones, que él era “*de convicciones altamente españolistas*” y ella “*modelo de religiosidad y persona de entera confianza*”.

En el expediente de Moisés de la Fuente se menciona que por haber sido perseguido por sus ideas derechistas hubo de permanecer 25 días escondido en el sótano de su casa “*hasta la Gloriosa Liberación por el Ejército Nacional*”.

En ambos casos, la citada Comisión de Cultura y Enseñanza aprobó su reincorporación a la función docente con fecha 28 de enero de 1938.

Cabe indicar que, en el periodo del 10 de mayo al 30 de octubre de 1937, Moisés de la Fuente ocupaba el puesto de *secretario* de la nueva Corporación municipal, formando así parte de las mismas fuerzas represoras que le *depurarían* provisionalmente de su puesto de maestro. Tal era su complicidad con el nuevo régimen que en el expediente abierto a Emilia Zárate suscribe como *Jefe local de la FET y de las JONS* uno de los informes favorables al comportamiento y actitud de la maestra.

Pero es igualmente preciso señalar que el Gobierno de la República desarrolló un proceso depurador similar en los territorios que le eran leales. Mediante Decreto del 27/09/1936 se aplicó el cese automático de todos los funcionarios sin excepción pudiéndose solicitar el reingreso tras formalizar unos impresos orientados a demostrar la adhesión absoluta a la «causa republicana», avalada por un partido político o sindicato.

<sup>74</sup> 1937/07/03ko Agindua. / Orden de fecha 03/07/1937.



Emilia Zarate maistrea (hirugarren ilaran ezkerrean) eta beraren ikasleak, Urkitzaurreko eskolan. / La maestra Emilia Zarate (tercera fila a la izquierda) con sus alumnas en la escuela Urkitzaur. (Virginia Abiok itxetakoa / Cedida por Virginia Abio).

Bakioko seme erlijiosoei jagokenez, zapal dutako abadeak hiru izan ziran:

Isidro Garai Baskaran. 60 urte eukazan, kolpistak sartu ziranean. Lemoizko erretore-laguna izan zan, eta, egun batzuetan, Begoñako Karmeloko kartzelan egon zan espetxeratuta. Epaiketa barik askatu eben. Gero, 1940an, Gasteizera bialdu eben, eta, bertan, 1941ean hil zan 64 urte eukazala.

Antonio Erretereria Intxausti. 1869an jaio zan, eta 68 urte eukazan, Ingalaterrara erbesteratu behar izan ebanean. Meñakako ekonomoa zan 1914. urtetik, eta, 1946an, Larraurira bialdu eben. Bertan, 1951n hil zan 82 urte eukazala.

Pedro Uriarte Azeretxo. Feliperen eta Leonciaren semea zan. 1901. urtean Ureta baserrian jaio zanez, San Pelaioko parrokiako arduraduna zan. Erasorako Indarrak atxilotu eban 36 urte eukazala, eta Begoñako Karmeloko kartzelan espetxeratu eben. Juan Ormatza alkateak salatu eban, *“kidetza nazionalista separatistea eukalako eta azken hauteskundeetan oso nabarmen lotu zalako familia osoagaz separatistei botoa emon eutsenean”*. Azpimarratu beharra dago udalerriko abadea zan Antonio Alegria Erretereria eta Bermeoko uriko Andra Mariako ekonomoa zan Bernardino Garaizar Muñoa kideek euren alkartasuna adierazo eutsiela, beraren jokabide apostolikoa goratzeko eta inongo alderdi politikoa inplikautu ez egoala azaltzeko txostena aurkeztu ebelako. Epaiketa barik askatu eben, eta, 1938an, Ereñora eroan eben. Mungian hil zan 1975ean, 74 urte eukazala.

Respecto a los religiosos hijos de Bakio, tres fueron los sacerdotes represaliados:

Isidro Garai Baskaran, que tenía 60 años en el momento de la entrada de los golpistas. Fue coadjutor de Lemoiz y estuvo encarcelado en la prisión del Carmelo de Begoña por unos días. Fue liberado sin juicio. Después, en 1940 fue adscrito a Gasteiz, donde falleció en 1941, con 64 años de edad.

Antonio Erretereria Intxausti, nacido en 1869, tenía 68 años de edad cuando se tuvo que exiliar a Inglaterra. Era ecónomo de Meñaka desde 1914 y fue adscrito a Larrauri en 1946. Allí es donde murió, en 1951, con 82 años de edad.

Pedro Uriarte Azeretxo, era hijo de Felipe y de Leoncia. Habiendo nacido en el caserío Ureta, en el año 1901, era responsable de la parroquia de San Pelaio. Fue detenido por la Fuerza de Asalto cuando contaba 36 años de edad y encarcelado en la prisión del Carmelo de Begoña. Había sido denunciado por el alcalde Juan Ormatza por *“filiación nacionalista-separatista y por haberse destacado en las últimas elecciones votando con toda su familia a los separatistas”*. Hay que hacer constar la solidaridad de sus compañeros Antonio Alegria Erretereria, cura del municipio y Bernardino Garaizar Muñoa, cura ecónomo de Santa María, de la villa de Bermeo, por entregar un informe halagando su conducta apostólica y negando su implicación en partido político alguno. Fue liberado sin juicio y trasladado a Ereño en 1938. Murió en Mungia en 1975, con 74 años de edad.

orr.

## 4.2. ZAPALKUNTZA EKONOMIKOA

Gatazka armau guztietan jazoten dan lez, apurka-apurka gerreak be lorratz sakona ixten eban kurutzatzen eban lurraldeko jarduera ekonomikoan, azpiegiturak zein ondusunak laskitukeran, ganadua gitxitzean, labrantzarako lurrak hondatzean... eta, zoritxarrez, biztanleen zati bat hiltean, espetxeratzean edo erbesteratzean.

Geroago azalduko dogun lez, era partikularrean garratu ziran ekintza zapaltzaileak albo batera itxita, indar frankistek ezarritako agintari barriek administrazio-organuak (Udalak, Diputazioa...) okupau ebezanean ezarri ebezan neurri ekonomikoek ondinarren gehiago handitu ebezan Bakioko biztanleek eroandako eguraldi gorriak.

Bilbo jausi zantetik oso aste gitxi igaro ziranean, Bizkaioko Diputazioaren kudeatzaile frankista barriek probintziako nekazariak baztertu ebezan *zorrotasunez eta artez-arte*<sup>75</sup>. Hain zuzen be, aurreko administrazioak honako honexen alde zehaztu eban diru-laguntzea eukien eskatuta: erein bako lurra lanbarritzea, zelaiak sortzea eta fruta-arbolak landatzea. Halanda be, onura horrek guztiak kendu eutseezan *Espainia nazionalagaz bat egiten ebena behar dan lez egiaztetan ez eben guztiei, erdeinu orokorra me-rezidu eben-eta*.

Horretarako, tokiko agintariak (alkatetzak, FET eta JONSeko tokiko burutzeak) banakako txostena egin behar eben diru-laguntzea eskatzen eben guztien ganean.

Bakioko kasuan, eskatu eben hamasei baserritarretatik, hamar baztertu ebezan Moisés de la Fuente irailean *tokiko buru* moduan sinatu eban txosten horren ondorioz. Izan be, bertan adierazoten zan lez, *separatismoaren alde berba egin eben, hautagaitza separatistaren aldeko botoa emon eben* eta, Leandro Oraindiaren kasuan, *Batzorde gorri separatistako alkatea eta separatista amorratua izan zan*. Diru-laguntzea lortu ebenak, barriz, *eskoitiarrak edo Mobimentu Nazionalaren aldekoak* zirala azaltzen zan bertan.

Diru-laguntzea ukatzeko zigorraren osogarri, ostean baztertuen zerrendea emoten zan argitara Probintziako Aldizkarian, jente guztia jakinaren ganean egon eiten.

1937. urteko abenduan, Udal Korporazio frankistek matrikula industrialaren zergearen ganeko %33ko ganordaina ezartea erabagi eban (ezarritako jarduera komertzial eta industrialei egokena). Jaube handiakaz, barriz, beste era bateko tratua eukien. 1939ko zementiaren 27ko aktean adierazoten dan lez, Torrecilla markesak zergea ez ordaintzea erabagi eben.

Bestetik, horniduren gaia (biztanleei jatekoa hornidutea) ordura arte udal-mailakoak<sup>76</sup> izandako zerbitzuetariko bat zan. Dana dala, gerrako ekintzak eta arlo guztietan euki ebezan ondorioak kontuan hartuta, Estatu barriak hornidura-zerbitzua ia-ia oso-osorik kudeatzea erabagi ebenez, hainbat produktu ekoizteko, merkaturatzeko eta saltzeko faseetan esku hartzen hasi zan. Halanda ze, lor-

## 4.2. LA REPRESIÓN ECONÓMICA

Como sucede en todos los conflictos armados, la guerra iba también dejando una profunda huella en la actividad económica del territorio que iba atravesando al destruir infraestructuras y bienes, mermar la cabaña ganadera, dañar los terrenos de cultivo... y, tristemente, suponer la muerte, el encarcelamiento o el exilio de una parte de la población.

Además de las acciones represivas que se ejercieron con carácter particular y que señalaremos más adelante, la ocupación de los órganos de administración (ayuntamientos, Diputación,...) por parte de las nuevas autoridades impuestas por las fuerzas franquistas conllevó la adopción de diversas medidas de carácter económico que vinieron a incrementar las penalidades que habían sufrido los vecinos y vecinas de Bakio.

A las pocas semanas de la caída de Bilbao, los nuevos gestores franquistas de la Diputación de Bizkaia procedieron a la depuración *severa y justiciera*<sup>75</sup> de los labradores de la provincia que tenían solicitada la subvención que había fijado la anterior administración a favor de la roturación de los terrenos no cultivados, creación de prados y plantación de frutales, eliminando de tales beneficios a todos *aquellos que no probasen debidamente su adhesión a la España nacional*, siendo merecedores de la repulsa general.

Para ello, se requería que las autoridades locales (alcaldía, jefatura local de la FET y JONS) emitiesen un informe personalizado sobre cada uno de los solicitantes de subvención.

En el caso de Bakio, de los dieciséis baserritarras que la habían demandado diez de ellos fueron *depurados* en base al citado informe, que fue suscrito por Moisés de la Fuente, como *Jefe Local*, en el mes de septiembre, tras quedar señalados por *hablar en favor del separatismo, votar la candidatura separatista* y, en el caso de Leandro Oraindi, por ser *alcalde presidente del comité rojo separatista y separatista acérrimo*, mientras que aquellos que lograron la ayuda económica constaban como derechista o persona en *favor del movimiento nacional*.

Una pena accesoria a la denegación de la subvención era la posterior publicación de la lista de los excluidos en el Boletín de la provincia, para que ello fuese de dominio público.

En el mes de diciembre del año 1937, la Corporación municipal franquista acordó fijar un recargo del 33% sobre el tributo de la matrícula industrial (el correspondiente a las actividades comerciales e industriales implantadas). En cambio, otro era el trato para con los grandes propietarios. En el acta del 27 de noviembre de 1939 se acordó eximir al Marqués de la Torrecilla del pago de la contribución.

Por otro lado, si bien la materia de abastos (suministro de víveres a la población) era uno más de los servicios que había venido siendo materia municipal<sup>76</sup>, las acciones de guerra y sus consecuencias en todos los ámbitos supuso que el nuevo estado decidiese gestionar, casi con carácter absoluto, el servicio de abastecimiento, de manera que pasó

<sup>75</sup> 1937/09/03ko Bizkaiko Foru Aldundiaren akordioa.BFAH, Atal Administratiboa. Sig.: X-00476/13. / Acuerdo de la Diputación de Bizkaia del 03/09/1937. AHFB Sección Administrativa. Sig.: X-00476/13.

<sup>76</sup> Udalen ganeko Legea, 1935/11/03ko BOE. / Ley Municipal, BOE 03/11/1935.

**RELACION DE VECINOS DEL AYUNTAMIENTO DE BAKIO DE QUIENES SE SOLICITA INFORMAS.**

<u>Nombre del interesado</u>	<u>Casario</u>	<u>Si ha desempeñado cargo alguno o colaborado con el Gobierno de Guzkadi o de Valencia</u>	<u>Si se le ha conocido acusaciones contrarias al movimiento nacional.</u>	<u>Si ha pertenecido a algún partido político o sindical.</u>
Gregorio Aguirre Larrauri	Geraicha	Si	Se supone que si.	Nacionalista Lejarraga
Segundo Larrauri Expósito	Utsategui	No	En favor del movimiento Nacional	No
Francisco Lazaregottia surua	Utsategui-aldia	No	Malicia en favor de los separatistas	Separatista del P. N. R.
Pedro Jaureguizar Urtia	Aidache	No	En favor del movimiento Nacional	No
Felix Hormaza Uriarte	Uoyeneche	No	En favor del movimiento Nacional	No
Juan Santa Urtia	Uertichene	Es Alcaide de construcciones de fincas	Malicia en favor de los separatistas	Separatista del P. N. R.
Bernardo Urtuzar Zubaran	Secoche	No	Voto la candidatura separatista	Separatista
Uelo Bilbao y Bilbao	Churiturri	No	"	Separatista
Faustino Larrauri y Uriarte	Uaxiquena	No	"	Separatista
Raimundo Santa Ana Expósito	Uamizu	No	"	Separatista
Leandro Urtiaga Kortazar	Uribitarte	Es Alcaide presidente del Comité rojo separatista	"	Separatista acerrimo
Julian Ugaldes Astoiz	Uriarte	No	Separatista	No
Juliana Bilbao Zumarraga	Urtiaga	No	Voto la candidatura separatista	Separatista
Agustia Alsaga Bilbao	Uerrondo	No	Separatista	No
Saturnio Hormaza Uriarte	Uebategui	No	Separatista	No
Aniceto Uriarte y Zabillaga	Ulexpuru	No	Separatista	No

Bakio de Septiembre de 1.937 - II Año Triunfal  
EL JEFE LOCAL,  
*José de la Torre*

(BFAH/AHFB)

tu egiten ebazan, kontrolaren edo konfiskazioaren bidez be bai, banandu egiten ebazan, prezioak zehazten ebazan, banandutean errazionetan ebazan...

Horretarako, era bateko eta besteko organuak eta sailak sortu ziran, eta honako honeexek ziran garrantzitsuenak: Gariaren Zerbitzu Nazionala (1937an sortutakoa), Horniduren eta Lorreten Komisaria Nagusia (1939an sortutakoa) eta azken horren menpe egozan Probintziako Komisariak. Gipuzkoa, Araba, Logroño, Nafarroa eta Bizkaia Hornikuntzako Seigarren Gunean egozan. 1943. urtetik aurrera, Baliabideen Komisaria eta Baliabideen Tokiko Batzordeak sortuko ziran aztertu zan, kontrolpean egozan produktuak batzeko.

Indar kolpistak igarotakoan sortutako administrazio barri horrek ezarri ebazan neurrien ondorioz, aldian-aldian baserriek nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenaren zati bat entregau behar eben derrigorrean. Udal-aktetan, hainbat eta hainbat bider azaltzen da zerealen, lekaleen eta, horrezaz ganera, okelearen ekarpen hori egin behar ebela derrigorrean. Holan, bada, 1942ko maiatzean, Baliabideen Komisariaren jakinarazpenaren barri emoten da: "horren bidez, udalerrian bizi ziran abeltzainei jakin eragiten jaken betebeharrak saihestuezina zala erdibituta 100 kg baino gehiagoko pisua eukien 10 abelburu aurkeztea indar militarrentzat eta ongintzako zentroetan babespean egozan gaixoentzat".

Antzera, 1943. urtean, "jentaurrean iragarri" eta "etxerik etxe jakin eragin" ostean, indabak (8.000 kg) eroateko eskatu eban; eta Gariaren Zerbitzu Nazionalak, artoa (8.447 kg, urtea amaitu baino lehen). Dana dala, 1944ko maiatzera arte, ez zan Bizkaiko probintzian guztiz aske itxi indaberen merkataritza. Horrezaz ganera, derri-gorrean emon beharreko kupo be kendu zan.

a intervenir en las fases de producción, comercialización y venta de una gran cantidad de artículos; encargándose de su obtención, incluso por intervención o incautación, de la distribución, de la fijación de precios, del racionamiento en su reparto, etc.

A tal fin se crearon distintos órganos y departamentos, siendo los más importantes el Servicio Nacional del Trigo (creado en 1937) y la Comisaría General de Abastecimientos y Transportes (creada en 1939), dependiendo de esta última las Comisarías Provinciales. Gipuzkoa junto a Araba, Logroño, Nafarroa y Bizkaia formaban la Zona de Abastecimiento Sexta. A partir del año 1943 se contempló la creación de la Comisaría de Recursos y de las Juntas Locales de Recursos, que se encargarían de la recogida de productos intervenidos.

Esta nueva administración surgida tras el paso de las fuerzas golpistas estableció normas por las que los caseríos estaban obligados a hacer periódicamente entrega de parte de su producción agrícola y ganadera, siendo numerosas las alusiones que, referidas a esta aportación obligada de cereales, legumbres y también de carne, se recogen en las actas municipales. Así, en el mes de mayo de 1942 se toma razón de una comunicación de la Comisaría de Recursos "por la que se debía hacer saber a los ganaderos residentes en la localidad de la obligación ineludible para presentar 10 reses con un peso superior a 100 kg. en canal con destino a las fuerzas militares y enfermos acogidos en centros benéficos".

De forma similar, en el año 1943 se requirió, tras los correspondientes "anuncios al público" y "avisos a domicilio", la entrega de alubia (8.000 kg) y, por parte del Servicio Nacional del Trigo, la de maíz (8.447 kg antes de finalizar el año), y no fue hasta el mes de mayo de 1944 que se dejó completamente libre en la provincia de Bizkaia el comercio de la alubia suprimándose además el correspondiente cupo de entrega forzosa.

Orr.

Lehen aitatu doguzan indabak eta artoa ez eze, gariaren sektorea be kontrolau eben (Bakion bertan be batzen zan), ekoizpena, banaketea, prestaketea eta kontsumoa arautzean. Hori dala eta, ogi gitxi egoanez, beste pres-taketa batzuk egin behar ziran zahien eta beste azpi-produktu batzuen bitartez (ogi baltza).

Ekarpen horreek bete egiten zirana bermatzeko, Udalak probintziako konfiskazio-organuen jarraibideak jasoten ebazan idatzien bitartez. 1944ko zezeilean jasotako idatzian, berbarako, behar besteko "jarraibideak" emoten ziran, "gariaren, indaben... kupoak aurkezteko orduan belukorrak ziran baserritarrak ez matxinatzeko".

Era beratan, ekonomiaren eta janariaren kontrolaren haritik, Bizkaiko agintariak udalerriko errota batzuk derrigorrean zarratu ebezanez, 1946. urtean egoera hori konpondu gura izan eben. Horretarako, errotok ostera be edegiteko baimena emon eien, hainbat biztanlek Diputazinora bialdutako eta Korporazioak beraren egindako eskabidea hartu zan kontuan. Hurrengo hilebetean, barriz, Horniduren eta Lorreten Komisaria Nagusiaren jakinarazpena jaso zan, eta, bertan azaltzen ebanez, zarratzeko neurri hori eskuko errota partikularretara be hedatzen zan. Hori dala eta, galazon egiten zan edoze-lako garau eihotea<sup>77</sup>.


Halanda be, errotariak era bateko edo besteko triki-mailuak erabilezan (silua kentzea eta gauez behar egitea, erregistroko agirietan engainetea...), ostendu egin ahal izan ebezan garia eta artoa eihoteko, ikuskaritzaren bat egon ezkerro edo eurakaz hasertratutako nonork salatu ezkerro isuna iminiko eutseen eutseen arren.

Además de las ya mencionadas cosechas de alubia y maíz, de igual manera se intervino el sector triguero (que en Bakio también se recogía), regulándose su producción, distribución, elaboración y consumo, lo que provocó la escasez del pan, que era sustituido por otras elaboraciones con la incorporación de salvados y otros subproductos (pan negro).

Para garantizar el cumplimiento de estas entregas, el Ayuntamiento recibía indicaciones por parte de los órganos requisadores provinciales, mediante escritos como el recibido en el mes de febrero de 1944 en el que se le indicaban "las instrucciones conducentes a evitar actitudes rebeldes por parte de labradores que resulten morosos en las entregas de los cupos de trigo, alubia, etc."

También en esta línea de control económico y de los alimentos, las autoridades de Bizkaia habían obligado a la clausura de varios de los molinos del municipio, situación que se quiso corregir en el año 1946 con la solicitud dirigida a la Diputación por numerosos vecinos y que hizo suya la Corporación, para que autorizase su reapertura. Pero al mes siguiente se recibió una comunicación de la Comisaría General de Abastecimientos y Transportes señalando que dicha medida de clausura se hacía extensiva a los molinos particulares denominados de mano, quedando prohibida la molienda de cualquier clase de grano<sup>77</sup>.

A pesar de ello, los molineros hacían uso de diversas artimañas (levantar el precinto y trabajar de noche, engaños en la documentación de registro,...) para moler el trigo y el maíz que se había podido ocultar, si bien corrían el riesgo de ser multados a causa de una inspección o de la delación por parte de alguien enemistado.



(BFAH/AHFB).

<sup>77</sup> 1943/07/17ko aktea. / Acta del 17/07/1943.

Bestetik, gerrea amaitutakoan, erregimen barriak herrialdea gauzak berak berataraz egiteko gauza izatea gura ebanez<sup>78</sup>, jokabide horrek gerreagaitik sortutako triskantzearen, behar-baldintza ezegonkorren eta diktadurearen zapalkuntza sozialaren ondorioz bizi izandako txirotasuna larriagotu eban.

Janariaren eta premina biziko gaien eskasari erantzun ofiziala emon gurean, 1939. urtean<sup>79</sup> estaduko lurralde osoan ezarri zan *errazionamentua*, eta sistema horrek ondasun zein produktu horreen kontsumoa arautzea eukan helburu.

*Errazionamentuko kartilen* bidez (okeletarako bat egoan eta garetiko produktuetarako beste bat: lekaleak, patatak, arrosa, orioa, azukerea, jaboia...), aitatutako produktu bakoitza familia bakoitxari emoteko zenbateko mugatua zehazten zan (ostean, personala izan zan). Gero, kupoia entregautakoan, produktu hori aurretiaz ezarritako prezioan erosten zan Horniduren Probintziako Komisariari ikuskaritzapean aurretiaz horniduten ziran dendetan.

Herrietan, udal-administrazioa zan kontsumitzaileen erroldak egiten ebazana, familiako aitek bertako kideen, ondasunen... ganean egindako zinpeko automenetan oinarrituta. Horren arabera, zelako kartilea emon behar zan zehazten zan, bakoitxaren bidez (hiru muetakoak egozan) lortu eitekezan zenbatekoak eta produktuak ezbardinak ziralako.

Dana dala, produktu horreen eskaintzea biztanleen eskariagaz bat ez etorrenez, isilpeko merkaduaren agerpena izan zan lehenengo ondorioa: *estraperloa*.

Araupetutako produktu guztiak ez ziran egunero bannanduten, eta oso ohikoa zan biltegiak eta bitartekariak interesgarrienei eustea eta merkatari txikiak ez eroatea, ostean araupeko sistematik kanpo saldu ahal izateko.

Era beratan, janariak eurak be nahastau egiten ziran, salgai egoan kopurua handitzeko eta irabazi gehiago lortuteko.

Jokabide hori orokorra zan lurralde osoan, hau da, produktuen mobimentu handietan (horren ondorioz, aberats barriak agertzen ziran) eta, tokian-tokian, oinarritzko janariak legezko sistematik kanpo saltzen ebezanen biziraupenerako ezkutuko salmentan.

Agintariak ezin izan eutsien estraperloari inoiz erroitik aurre egin, produktuen mobimentuak jagoletzapean egozan arren eta arau-hausleak zigortzeko neurriak ezarten ziran arren, neurri baten, batzuetan administrazinoko bertako kideak be baegozalako tartean eta, beste batzuetan, artez-artezean parte hartzen ebelako "merkadu baltz" horretan.

Estraperloa nagusi zan (hau da, eskasak ziran produktuak putzitutako prezioetan saltzea), baia, horrezaz ganera, lehen esan dogun lez, uztak be derrigorrean entregau behar ebezala kontuan hartuta, gero eta diru-sarrera gitxiago eukiezan Bakiokoa lako nekazari-gizartean. Hori guztia dala

Por otro lado, y una vez había finalizado la contienda, el nuevo régimen pretendía que el país fuese autosuficiente<sup>78</sup>, postura que agravó la pobreza derivada de los destrozos ocasionados por la guerra, de la precariedad de las condiciones laborales y de la represión social de la dictadura.

Como respuesta oficial a la escasez generalizada de alimentos y de artículos de primera necesidad, en el año 1939<sup>79</sup> se implantó en todo el territorio nacional el *raционamiento*, sistema que pretendía regular el consumo de dichos bienes y productos.

Mediante las *cartillas de racionamiento* (había una para carnes y otra para el resto de productos: legumbres, patatas, arroz, aceite, azúcar, jabón,...), se fijaba una cantidad limitada de entrega de cada uno de estos productos a cada familia (posteriormente pasó a ser personal), que podía ser adquirido, a un precio estipulado y tras la entrega del correspondiente cupón, en los establecimientos a los que previamente les eran servidos bajo la supervisión de las Comisarias Provinciales de Abastos.

En los pueblos, correspondía a la administración municipal el confeccionar los censos de consumidores, que se elaboraban a partir de las declaraciones juradas de los padres de familia en relación a los componentes de la misma, bienes, etc. y que determinaba el tipo de cartilla, pues variaban las cantidades y productos que podían obtenerse con cada una de ellas (había tres tipos).

Pero la disparidad entre la oferta de estos productos y la demanda por parte de la población tuvo como primera consecuencia la aparición del mercado clandestino: *el estraperlo*.

No todos los productos regulados se distribuían diariamente y era frecuente que los de mayor interés quedasen retenidos por almacenistas e intermediarios, negándose los a los pequeños comerciantes, para posteriormente venderlos fuera del cauce reglamentario.

Solía darse también la adulteración de los alimentos para incrementar la cantidad disponible para venta, obteniéndose así mayores beneficios.

Dicha práctica, generalizada por todo el territorio, abarcaba desde los grandes movimientos de productos, dando lugar a la aparición de nuevos ricos, hasta el mercadeo furtivo de supervivencia de quienes, en el ámbito local, comerciaban con los alimentos básicos fuera del cauce legal.

El estraperlo jamás pudo ser erradicado por las autoridades a pesar de la vigilancia que se ejercía sobre los movimientos de productos y de las medidas sancionadoras que se adoptaban contra los infractores, en parte también por la complicidad, en ocasiones, y participación directa, en otras, de miembros de la propia administración en este "mercado negro".

Este fenómeno del estraperlo (comerciar a precios desorbitados con los productos que escaseaban) se vino a sumar a la entrega obligada de cosechas que se ha mencionado y a la consiguiente merma de ingresos que ello suponía en

<sup>78</sup> Autarkia ezarri eben: sistema ekonomiko horretan, estadua beraren baliabideen bitartez horniduten danez, ahal dala, ez dau inportaziorik egiten. / Se impuso la autarquía: sistema económico en el que el estado se abastece con sus propios recursos, evitando en lo posible las importaciones.

<sup>79</sup> Industria eta Merkataritza Ministerioak 1939/05/14an emondako Agindua. 1939/05/17ko BOE. / Orden del Ministerio de Industria y Comercio del 14/05/1939. BOE del 17/05/1939.



(SOBERÓN A. eta URIARTE T. 2018. Viñetas para el recuerdo).

eta, gerraosteko hasikerako epealdi horretan, familia asko gosekilik egozan, ezin ebezalako eskuratu irabazi handi-  
goak lortzeko asmotan desbideratu egiten ziran produktu  
horreek. Sasoi haretan, ganera, hondakinak be erabilten  
ziran jateko (azalak, erremolatxearen orriak, ezkurak...).

Errazionamentuko kartilearen sistema 1952. urtera  
arte egon zan indarrean.

Zapalkuntza ekonomiko hori indartzeko, erregimen fran-  
kistek 1937ko urtarrilaren 10eko Lege Dekretuaren bidez  
sortu eban Estatuak Konfiskatutako Ondasunen Administra-  
ziorako Batzorde Zentrala. Bizkaian, erakunde horretako  
probintziako ordezkariak egon zan, hau da, Bizkaiko On-  
dasunen Konfiskaziorako Batzorde Probintziala (CPIBV).  
Batzorde horrek 1936ko irailaren 13ko 108. Dekretua bete  
behar ebanez, altzetearen aurka egon ziran alderdien eta  
personen ondasun guztiak enbargetan ebazan<sup>80</sup>.

Horretarako, tokiko batzordeetara jotzen eban, ustezko  
erantzuleen fitxategiak egiten ebezalako eta, era beratan,  
arduratasunerako neurriak be ezarten ebezalako, gorriek  
eta separatistek bertan behera itxitako ondasunak ez  
desagertzeko eta euren behin-behineko administrazioa  
atontzeko.

Aldi beratan, erregimen frankistek "altzariak eta tres-  
nak birreskuratzeko zerbitzurako" oinarriak zehaztu ebaza-  
nez, aurkarien ondasunak eskuratzeko bidea emon eutsen  
diktadurearen aldeko gutzietan.

una sociedad agraria como era la de Bakio, lo que motivó  
que en este periodo inicial de la posguerra muchas familias  
pasasen hambre al no poder tener acceso a estos productos  
que eran derivados para la obtención de mayores ganancias.  
Eran tiempos en los que se llegaba a hacer uso de los restos  
(peladuras, hojas de remolacha, bellotas...) para alimentarse.

El sistema de la cartilla de racionamiento estuvo vigente  
hasta el año 1952.

Para reforzar esta represión económica, el régimen fran-  
quista creó, por Decreto-Ley del 10 de enero de 1937, la Co-  
misión Central Administradora de Bienes Incautados por el  
Estado. En Bizkaia operó una delegación provincial de este  
organismo, denominada Comisión Provincial de Incautación  
de Bienes de Vizcaya (CPIBV). Esta Comisión debía hacer  
efectivo el Decreto nº 108, del 13 de septiembre de 1936,  
embargando todos los bienes pertenecientes a los partidos y  
personas que se habían opuesto a la sublevación<sup>80</sup>.

Para ello se valía de las juntas locales que realizaban  
ficheros de presuntos responsables y adoptaban asimismo  
medidas precautorias para evitar la desaparición de los bie-  
nes abandonados por los rojos y separatistas, organizando  
su administración provisional.

Al mismo tiempo, el régimen franquista fijó las bases para  
el denominado "servicio de recuperación de muebles y ense-  
res", que vino a dar vía libre a todas aquellas personas afines  
a la dictadura que quisieran hacerse con los bienes de sus  
contrarios.

<sup>80</sup> Espainiako Defentsa Nazionalerako Batzordearen Aldizkari Ofiziala, 20. zk., 1936/09/12koa, 77. or. / Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España núm.20, de 12/09/1936, pág. 77.

Zer ondasun konfiskauko ziran edo zigorrak ezarteko oinarriak zein izango ziran zehazteko “ikerketak” *Birreskurapen Zibilerako Batzordeek* egiten ebezan. Alde horretatik, Bakioko Korporazioak honako biztanle honeek proposatu ebazan, udalerriko ordezkarietako kideak izan eitezan: Javier Bidegain, José Agirre eta Andrés García<sup>81</sup>.

Halanda ze, testuinguru horretan, Udal frankista ezarri barriak, esaterako, lehenengo erabagiak<sup>82</sup> hartu ebazan jaube barik lotu zan ganaduaren inguruan. Izan be, beraren esanetan, ganadu horren jaubetzea kendu, enkantean imini eta udal-kutxan gordeko zan bertan lortutako dirua. Bestetik, Lope Intxaustik, udal-epaileak, Urkitzaurre baserria eta bertako uzta zein jaubetza guztiak ardurapean hartzeko eskabidea egin eban, bertako errentadore bik bertan behera itxi ebezalako errazoi politikoakaitik alde egitean, udal-aktean bertan adierazoten dan lez. Modu beratan, ugariak izan ei ziran udalerriko errefujiaduei eta babespekoei behar besteko baimena emon jaken, okupazio frankisteagaitik bertan behera itxitako lurak lantzeko.

1937ko garagarrilaren 15ean, Bakioko Udalera alegau zan Bizkaiko gobernadore zibilak era guztietako kalte-galtzeen erantzuleen ondasunen konfiskazioaren inguruan bialdu eban zirkularra. Bertan eskatutakoaren arabera, biztanle horreen eta euren ondasunen zerrendea bialdu behar jaken. Zerrendea horretan bertan, honako hauxe be sartu behar zan: konfiskautako eraikinen zerrendea eta bertan egozan tresnen zein altzarien inbentarioak eta euren jaubetzetan eukiezan nekazaritzako produktue-na be bai. Zeregin hori beteteko, Udalak honako honeexek proposatu ebazan epaile, fiskal eta ordezeko moduan:

<b>EPAILE TITULARRAK / JUECES TITULARES:</b>	<b>ORDEZKO EPAILEAK / JUECES SUPLENTE:</b>
<b>Lope Intxausti</b>	<b>Timoteo Barturen</b>
<b>Justo Ormatza</b>	<b>Juan San Juan</b>
<b>Andrés García</b>	<b>Benito Bilbao</b>
<b>FISKAL TITULARRAK / FISCALES TITULARES:</b>	<b>ORDEZKO FISKALAK / FISCALES SUPLENTE:</b>
<b>Segundo Iturriotz</b>	<b>Nicolás Uriagereka</b>
<b>Saturnino Ormatza</b>	<b>Ricardo Armendaritz</b>
<b>Francisco Uriarte</b>	<b>Vicente Aginaga</b>

1937ko garagarrilaren 15eko osoko bilkura horretan bertan, Bizkaiko Kultura eta Irakaskuntza Batzordeko Ordezkarietaren beste zirkular bat irakurri zan, irakaskuntzarako lokalak, eskolak, bertako materiala eta bertan egoan guztia konfisketako. Ganera, konfiskautako gauzen eta euren egoerearen inguruko zerrendea be egin behar zan.

Geroago, 1939ko zezeilaren 9an, Burgosen finkatutako erregimen frankistek jurisdikzio berezia sortu eban Erantzunbehar Politikoen ganeko Legean oinarrituta. Legeok tresna zapaltzailea gerraostean zabaltzea eukien helburu, eta, horretarako, atzeraeraginez ezarten ziran (1934ko urriaren 1etik aurrera jazotako guztia zigortuko zan). Tresna zapaltzaile hori armadeak, magistratureak eta

Las “investigaciones” para determinar los bienes que se incautarían o señalar los fundamentos para la imposición de sanciones las realizaban las *Comisiones de Recuperación Civil* y, en tal sentido, la Corporación de Bakio propuso que su delegación en el municipio la integraran los vecinos Javier Bidegain, José Agirre y Andrés García<sup>81</sup>.

Y es en este contexto que se adoptan, por ejemplo, algunos de los primeros acuerdos<sup>82</sup> del Ayuntamiento franquista recién establecido en relación al ganado que había quedado sin dueño, haciendo constar que el mismo sería expropiado y subastado, ingresándose en la caja municipal el importe obtenido. Por otra parte, Lope Intxausti, juez municipal, solicitaba hacerse cargo del caserío Urkitzaurre con todas las cosechas y pertenencias que dos de sus inquilinos dejaron al ausentarse por motivos políticos, según se refleja también en acta municipal. De igual manera, a los refugiados y alojados en la localidad, que debieron ser numerosos, se les concedió permiso para proceder al laboreo de las tierras abandonadas como consecuencia de la ocupación franquista.

El 15 de julio de 1937 llega al Ayuntamiento de Bakio una circular del Gobernador Civil de Bizkaia sobre la incautación de bienes de los vecinos responsables de daños y perjuicios de todas clases, solicitando que se le enviara una relación de dichos vecinos y de los bienes que poseían. Esa misma lista debería incluir, también, una relación de edificios, incautados con sus inventarios de enseres, muebles, así como de los productos agrícolas que poseyeran en sus propiedades. Para llevar a cabo esta labor el Ayuntamiento acordó proponer como jueces, fiscales y suplentes, a las siguientes personas:

En este mismo pleno del 15 de julio de 1937 se leyó otra circular de la Delegación de la Comisión de Cultura y Enseñanza de Vizcaya para proceder a la incautación de locales de uso docente y escuelas, con su material y todo lo que hubiera en ellas, debiendo hacerse una relación de los objetos incautados y su estado de conservación.

Tiempo después, el 9 de febrero de 1939, el régimen franquista establecido en Burgos creó una jurisdicción especial a partir de la Ley de Responsabilidades Políticas. El objetivo de estas leyes era ampliar el aparato represor en la posguerra, aplicándose con carácter retroactivo (se castigaría todo aquello acaecido desde el 1 de octubre de 1934). Este instrumento represivo estaba integrado por el ejército, la magistratura y la

<sup>81</sup> BFAH, Udal Atala; Bakio. 1937/07/24ko aktea. Sign.: 0002/002. / BFAH, Sección Municipal; Bakio. Acta del 24/07/1937. Sig.: 0002/002.

<sup>82</sup> Lehenengoak, 1937ko bagiletik aurrera. / BFAH, Los primeros, a partir del mes de junio de 1937.

orr.

FET eta JONSeK osotzen eben, eta, besteak beste, honako zigor honeek ezarten ebazan: isun ekonomikoak imintea, ondasun guztiak edo zati bat galtzea, beharrerako gaitasun barik ixtea, egoitza-askatasuna gixtitzea eta, batzuetan, akusadua bera erbesteratzea be bai<sup>83</sup>. Zigor ekonomikoak, barriz, ezarri egiten ziran, akusadua bera prozedurea hasi baino lehen edo bideratu bitartean hil bazan be. Hori dala eta, beraren oinordekoek aurre egin behar eutsien zigorrari.

Lege zapaltzaile horreek abian iminteko, Erantzun-behar Politikoetarako Auzitegi Nazionala eta Eskualdeko Auzitegiak sortu ziran. Bizkaiak, hain zuzen be, Bilbon Instrukzino Epaitegia eukan Burgoseko Erantzun-behar Politikoetarako Eskualdeko Auzitegira jo behar eban, CPIBVren zeregina ordeztu edo jarraipena emoten eutsana zan-eta.

Lortutako agiriak kontuan hartuta, egiaztatu egin ahal izan da Bakion hurrengo taulan ageri direnei eta euren familiei konfiskatu eutseezan ondasunak<sup>84</sup>:

Modu beratan, zapalkuntza ekonomikoa be ezarten zan Galarazpen Zibilaren bidez. Hain zuzen be, zigor penalarik gehitutako zigor judiziala zanez, kaltetunek ezin ebezan euren ondasunak administrazio. Azken horreek kudeatzeko asmotan, legezko ordezkariak izentetan ebezan, euren izenean jokatu eien.

Galarazpen Zibila bizi behar izan eben pertsonak bigarren taulan ageri dira<sup>85</sup>:

#### FRANKISMO SASOIAN BAKION KONFISKATUTAKO ONDASUNAK INCAUTACIONES DE BIENES EN BAKIO DURANTE EL FRANQUISMO

ERAGINDUA / PERSONA AFECTADA	DATA / FECHA
Álvarez Ormilugue, Eduardo	30.09.1938
Arrizabalaga, Bonifacio	30.09.1938
Atutxa, Manuel	30.09.1938
Azkorra Olaskoaga, Francisco	29.02.1939
Ereño, Andrés	19.06.1938
Ereño, Cirilo	30.09.1938
Erreñeria Izpizua, Pablo	10.09.1938
Etxebarrieta Uriarte, Julia/Gloria/Ana/María/Trinidad	30.09.1938
Ganboa Aurrekoetxea, Joaquín	30.09.1938
Ganboa Aurrekoetxea, Rafael	30.09.1938
Garai Ibinaga, Martín	24.09.1938
Goienetxea Bilbao, Juan	9.11.1938
Goikoetxea Lotina, Justo	29.02.1939
Imatz Bilbao, Casiano	9.11.1938
Jauregizar Gaubeka, Cipriano	20.08.1938
Longarai Lauzirika, Cecilio	28.02.1939
Muruaga Olaskoaga, Félix	9.11.1938

FET de la JONS y las penas impuestas contemplaban la imposición de multas económicas, la pérdida total o parcial de bienes, la inhabilitación laboral y restricciones a la libertad de residencia determinando, en ocasiones, el destierro del acusado<sup>83</sup>. En el caso de penas económicas, estas se aplicarían aun cuando el inculcado hubiese fallecido antes de haberse iniciado el procedimiento o durante su tramitación, debiendo asumir sus herederos dicha sanción.

Para llevar a la práctica estas leyes represivas se creó el Tribunal Nacional de Responsabilidades Políticas y los Tribunales Regionales. A Bizkaia, en concreto, le correspondía el Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas de Burgos que sustituía o continuaba con la labor de la CPIBV, contando con un juzgado de instrucción en Bilbao.

De la documentación obtenida, se ha podido constatar que, en Bakio, se practicaron incautaciones de bienes a las personas y familias, las cuales quedan recogidas en el cuadro que se acompaña<sup>84</sup>:

Otra forma colateral de ejercer la represión económica fue el uso de la Interdicción Civil, que es una sanción judicial, añadida a la sanción penal, por la cual los afectados no podían administrar sus propios bienes. A fin de gestionar estos últimos se nombraban representantes legales para que actuaran en su nombre.

Las personas a las que se les aplicó la Interdicción Civil son citadas en el segundo cuadro<sup>85</sup>:

ERAGINDUA / PERSONA AFECTADA	DATA / FECHA
Olaskoaga Zumarraga, Aniceto	28.01.1939
Olaskoaga Zumarraga, Ignacio	9.11.1938
Pérez Anuntzita, Ángel	12.08.1938
Pérez, Ángel	14.08.1938
Uriarte Erreñeria, Francisco	28.01.1939
Uriarte Ugalde, Doroteo	9.11.1938
Uriarte Ugalde, Valentín Luis	1945
Zurutzarreta, Justo	19.10.1938

#### GALARAZPEN ZIBILA BAKION FRANQUISMO SASOIAN INTERDICCIÓN CIVIL EN BAKIO DURANTE EL FRANQUISMO

ERAGINDUA / PERSONA AFECTADA
Agirre Jauregizar, Florentino
Agirre Jauregizar, Rufina
Arrutzabalaga Agirre, Rosalía
Santa Ana Iturain, Jovita
Uriarte Ugalde, Valentín Luis

<sup>83</sup> Estaduko Aldizkari Ofiziala, 44. zk., 1939/02/13koa, 824.-847. or. / Boletín Oficial del Estado núm. 44, de 13/02/1939, págs. 824 a 847.

<sup>84</sup> BAUA, Udal Epaitegiko Jakinarazpenen Sarreren Erregistroa, 1935-1940, 701. or., Sig.: 0014/001. / AMBA, Registro de Entradas de Comunicaciones del Juzgado Municipal 1935-1940 pág. 701., Sig.: 0014/001.

<sup>85</sup> BAUA (epaitegia), Sig.: 0005/005, 0006/001, 0005/003, 0006/003 (epaitegia). / AMBA (juzgado) Sig.: 0005/005, 0006/001, 0005/003, 0006/003 (juzgado).

### 4.3. ESPETXERATU EBEZAN BAKIOTARRAK

1937ko bagilaren 19an, soldadu-talde frankistek Bilbo konkistau eban, eta Larrinagako kartzelea zein espetxe be egindako Deustuko Unibersidadea espetxealdirako zentrorik handienak izan ziran Bizkaian. Hilebete geroago baino ez, abuztuaren 24an, “Santoñako Ituna” sinatu zan, eta, horren arabera, Euzko Gudarosteak agintari militar italiarren aurrean kapitulau behar eban. Iparraldeko Frontea jausi ostean preso egindako soldaduen kopurua ikaragarria zanez, Duesoko espetxe-kolonia kontzentrazino-eremu moduan atondu zan Santoñan. XX. gizaldiaren hasieran eregi eban, eta, ostean, zigor irmeak eukiezan presoak espetxeratzen ebezan bertan.

Aurretiaz, Bizkaiaren kontrako azken eraso hasi baino lehentuago, 1937ko martiaren 11n, Gorengo Jeneralaren Kuartel Orokorra Presoak Saillkatzeko Agindu Orokorra emon eban argitara, eta lau kategoriatan egorzan bananduta:

- A. Mobimentu Nazionalaren alde egozala justifikau leien presoak edo “*aurkeztutakoak*”, bando aurkarian derrigorrean egor baziran be. Orokorrean, aske izen ebezan arren, “*zalantzagarriak*” ei ziranei euren jokabidea bermatzeko txostenak egiten eutseezan, eta B taldean sartzen ebezan.
- B. Arerioagaz borondatez egor ziran eta beste erantzun-behar sozial, politiko edo bateratu batzuk ez eukiezan presoak.
- C. Soldadu-talde nazionalen kontra gogor egin eban arerioen armadako buruak eta ofizialak, alderdietako eta jarduera aurkarietako buruzagiak edo matxino sozial eta politikoak. Kasutan be, Mobimentu Nazionalaren aurretik edo ostean egin ebena hartzen zan kontuan.
- D. Mobimentu Nazionala jazo baino lehen eta ostean, delitu arruntak edo jentearen eskubideen aurkakoak egin ei ebezan presoak edo “*aurkeztutakoak*”<sup>86</sup>.

Saillkapen horren arabera, B taldeko presoak eta A taldeko zalantzagarriak kontzentrazino-eremu eta espetxe frankistetan sartzen ebezan, Beharginen Batailoiren batera eroiezan arte. Holan, gerrako milaka preso zapaldu ebezan, eta, espetxe bakotzeko Saillkapen Batzordeak egiten eban saillkapenaren arabera, urteetan eta urteetan era guztietako beharrak egin behar ebezan bertan. Beraren ebazpenak hartzeko orduan, Batzorde horrek presoek bizileku ziran udalerrietako agintariak bialdutako txostenak eukazan kontuan, eta presoek eurek batzorde horrean aurrean egiten ebezan autormenak be bai. Hori bai, ez eukien defentsarako ezelako eskubiderik.

Prozesuetan parte hartzen eban tokiko agintariak udal Korporazinoko, Falangeko, Guardia Zibileko eta Eleizako kideak ziran, eta espetxeetako batzordeetara bialtzen ebezan errua leporatzeko egiten ebezan txostenak. Epealdi horretan, honako honeexek egozan kargutan: Manuel María Arredondo (lehenengo alkate

### 4.3. BAKIOTARRAS INGRESADOS EN PRISIÓN

El 19 de junio de 1937 las tropas franquistas ocuparon Bilbao y, tanto la prisión de Larrinaga, como la Universidad de Deusto transformada también en cárcel, fueron convertidas en los mayores centros de reclusión de Bizkaia. Apenas un mes más tarde, el 24 de agosto, se firmó el “Pacto de Santoña”, por el que el ejército vasco capitulaba ante mandos militares italianos. Para albergar el enorme número de soldados apresados tras la caída del Frente Norte se habilitó en Santoña, como campo de concentración, la Colonia Penitenciaria de El Dueso, construida a comienzos del s. XX y que posteriormente pasaría a albergar a presos con condenas en firme.

Previamente, poco antes del inicio de la ofensiva final contra Bizkaia, el 11 de marzo de 1937, el Cuartel General del Generalísimo había emitido una Orden General de Clasificación de los reclusos, que los distinguía en cuatro categorías:

- A. Prisioneros o “presentados” que pudieran justificar estar a favor del Movimiento Nacional aunque obligadamente hubieran estado en el bando contrario. Por lo general estos eran puestos en libertad, si bien los considerados “dudosos” quedaban a expensas de informes que avalasen su comportamiento, quedando unidos a los del grupo B.
- B. Prisioneros que hubieran estado voluntariamente en las filas del enemigo y que no tuvieran otras responsabilidades de índole social, política o común.
- C. Jefes y oficiales del ejército enemigo que hubieran actuado hostilmente contra las tropas nacionales, dirigentes de partidos y de actividades contrarias o rebeldes de índole social y política que hubieran actuado, también, antes o después del Movimiento Nacional.
- D. Prisioneros o “*presentados*” que parecieran responsables de delitos comunes o en contra de derecho de gentes, tanto antes como después de producirse el Movimiento Nacional<sup>86</sup>.

En función de esta clasificación, los presos del apartado B y los dudosos del A eran retenidos en campos de concentración y cárceles franquistas, hasta ser integrados en algún Batallón de Trabajadores. De esta forma, miles de prisioneros de guerra fueron represaliados, dependiendo de la clasificación que hacía la Comisión Clasificadora de cada penal, mediante la realización, durante años, de todo tipo de trabajos. Esta Comisión emitía sus resoluciones en función de los informes que se enviaban por parte de las autoridades de las localidades de residencia de los presos y en función, también, de las declaraciones que los propios presos hacían ante las citadas Comisiones, eso sí, sin ningún derecho a defensa.

Las autoridades locales que tomaban parte en los procesos eran los miembros de la Corporación Municipal, la Falange, la Guardia Civil y la Iglesia, quienes remitían sus informes inculpatorios a las Comisiones de los penales. Dichos cargos se correspondían en este periodo con Manuel María Arredondo (primer alcalde franquista de mayo a junio

<sup>86</sup> AAMO, Saillkatzeko Agindu Orokorra. Gai Orokorra. / AGMA. Cuartel General del Generalísimo. Asuntos Generales. “Documento nº 5. Orden General para la clasificación de prisioneros y presentados dictada por S.E. el General del VI Cuerpo de Ejército, fecha 11 de marzo de 1937 y aprobada por S.E. el Generalísimo en Orden de la misma fecha”.

Orr.



Beharginen 14. Batalioia Lesakan. / Batallón de Trabajadores nº14 Lesaka. Martín Legarreta Uriarte. (Iñigo Legarretak itxitakoa / Cedida por Iñigo Legarreta).

frankistea, 1937ko maiatzetik bagilera), Juan Ormatza Goitia (alkatea, 1937ko bagiletik 1939ko urrira arte) eta Gernikako Guardia Zibilaren postuko komandantea (Bakio beragaz egoan lotuta), Tiburcio Núñez. 1940ko bagilean, Santiago Sobera imini eben azken horren orde. Arakatzeko prozesu horreetan, Antonio Alegria, abade parrokoa, eta Jose Maria Zirarda, udalerriko medikua, nabarmendu ziran, sarri askotan aldeko txostenak egin ebezalako auzipetutako biztanleen jarreraren inguruan eta txostenok zeresan handia eukielako egileen garrantzi sozial eta moralagaitik.

Alde horretatik, gehitu egin behar dogu José María Zirarda, udalerriko medikua, "Batasun Patriotikoa" alderdiko "tokiko burua" izan zala Bakion. Hain zuzen be, Primo de Rivera diktadoreak sortu eban 1924. urtean, beraren erregimen politikoaren helburuetarako erakunde zibila eratzeke eta beraren eretxiz ustelak ziran alderdi tradizionalistak ordezteko. Alderdi hori diktadurea jausi ostean desegin zan, eta eragin handia euki ei eban FET eta JONSen idea politikoetan.



José María Zirarda. (BAUA/AMBA).

de 1937), Juan Ormatza Goitia (alcalde desde junio de 1937 hasta octubre de 1939), y el comandante del puesto de la Guardia Civil en Gernika (al que quedaba adscrito Bakio) Tiburcio Núñez, que fue reemplazado, en junio de 1940, por Santiago Sobera. En estos procesos indagatorios destacaron el cura-párroco Antonio Alegría y el médico del municipio, Jose María Zirarda, quienes emitieron, numerosas veces, informes favorables respecto de las actitudes de los vecinos encausados, informes que tenían gran peso por la importancia social y moral de sus autores.

Podemos añadir, en este sentido, que José María Zirarda, médico municipal, había ostentado el cargo de "Jefe local" en Bakio del partido "Unión Patriótica", que fue fundado por el dictador Primo de Rivera en el año 1924 al objeto de crear una organización civil que sirviera a los fines de su régimen político y que sustituyera a los partidos tradicionales a los que consideraba corruptos. Este partido se disolvió tras la caída de la dictadura y se considera que tuvo una gran influencia en el ideario político de la FET y de las JONS.

El 26 de julio de 1937, el alcalde franquista Juan Ormatza remitió un informe, al juez instructor correspondiente, con datos personales sobre la conducta política de 19 personas de Bakio: 14 hombres y 5 mujeres a los que se les abrieron dos Consejos de Guerra, por el procedimiento sumarisimo de urgencia, en el que se juzgaba a todos ellos.

Tras la caída de Bizkaia, Bilbao se convirtió en el punto donde se concentró la represión física más dura contra los antifascistas, soldados republicanos, gudarís y demás detenidos. A las prisiones ya existentes se sumaron otras surgidas de la asignación de ese uso carcelario a otras construcciones. Además de la ya citada cárcel de Larrinaga, inaugurada en 1871, cabe citar, entre otras, la Prisión de El Carmelo, la Prisión Provisional de los Escolapios y el Campo Penitenciario de Deusto, habilitado en la Universidad, centros de reclusión en los que estuvieron detenidos bastantes

1937ko garagarriaren 26an, Juan Ormatza alkate frankistek instrukzinoko epaileari bialdu eutsan txostena, eta Bakioko 19 lagunen jokabide politikoaren ganeko datuak agertzen ziran bertan: 14 gizon eta 5 andra ziran, eta, preminazko prozedura sumarismoaren bitartez, gerra-kontseju bi edegi eutseezan, eta guzti-guztiak epaitu ebezan bertan.

Bizkaia jausi zanean, Bilbon bertan garatu zan faxisten aurkakoen, soldadu errepublikanuen, gudarien eta garetiko atxilotuen kontrako zapalkuntza fisikorik latzena. Lehendik egozan espetxeak ez eze, beste batzuk be sortu ziran beste helburu batzuetarako eraikinak kartzela moduan erabiltean. Lehen aitaturako eta 1871n edegitako Larrinagako kartzalea ez eze, honako honeexek be nabarmendu behar doguz, besteak beste: Karmeloko espetxea, Eskolapioetako behin-behineko espetxea eta unibersidadean atondutako Deustuko espetxe-eremua. Espetxealdirako zentro horreetan, nahikoa bakiotar egon ziran atxilotuta. Kartzela batzuk Santutxu auzoan egozan, eta oso argigarria da Bilboko espetxe askok ordena erlijiosoakaz eukiezan loturea eta hurrekotasuna. Izan be, presoak ostera be hezten ebezan bando irabazlearen berezko sentimentu ultrakatoliku barrietan.

Bizkaia behin betiko jausi zanenean eta horren ondorioz atxilotetak itzelean gehitu ziranean, hainbat preso beste probintzia batzuetako kartzela asagoetara eroan ebezan; esate baterako, Vigoko itsasadarreko San Simon ugarteko espetxe-koloniara bidean Bilboko portutik preso z ganezka itsasoratu zan "Upo-Mendi" espetxe-itsasontzia edo Cádizeko probintziako Puerto de Santa Mariako kartzalea.

Era beratan, Iruñeko (Ezkaba mendiko tontorreko) San Kristobal gotorlekuko kartzela probintziala be aitatu beharra dago, lau preso bakiotar egon ziralako bertan.

San Kristobal gotorleku hori espetxe militar moduan erabili zan 1934tik 1945era arte, eta oso ezaguna da, Europaren historiako preso-inesaldirik handiena jazo zalako bertan. Kartzela horretan, zapalkuntza frankistearen biktimak ziran 2.497 preso egozan pilotuta, eta ia-ia danak errepublikanuk ziran. 1938ko maiatzaren 22an bertako hormetatik ines egin eben 795 preso errepublikanuetatik, 585 arrapau ebezan, eurretario 14 fusilau egin ebezan, 207 inesaldian hil ziran jazarleen erasoaren ondorioz eta 3k baino ez eben askatasuna lortu. Ines egin eta arrapau ebezanen artean, lau bakiotarrak egozan: Demetrio Ugarte, Segundo Markaida, Martín Legarreta eta Rufino Erreterria.

Presoak behin eta barriro eroaten ebezan leku batetik bestera, agintari militar eta espetxe frankistek arbitrariotasunez jokatzen eben eta sailkapen-batzordeek emondako erespenen inguruko iturriak sakabanatuta egozan. Hori guztia dala eta, oso gatxa da zehatz-mehatz jakitea Bakioko zenbat biztanle eroan ebezan Beharginen Batailoietara.

Beharginen Batailoi bitartez, irabazleek doako beharreskua lortzen eben gerrako presoak esplotetean. Beharaldi luzeetan eta esklabotzatik hur egozan baldintzetan, gerreagaz beragaz lotutako era bateko eta besteko zereginetarako erabili ebezan, eta, euren ahaleginaz, errepideak, trenbideak, gotorlekuak edo eraikinak be eregi ziran.


Atal honetako ondorio moduan, hona hemen gerrearen ostean atxilotutako eta espetxeratutako zibil eta gerrako preso bakiotarren zerrendea.

bakiotarras. Varias de las cárceles estaban situadas en el barrio de Santutxu y resulta clarificadora la vinculación y cercanía de muchas de las prisiones bilbaínas con las órdenes religiosas, encargadas de reeducar a los presos en los nuevos sentimientos ultracatólicos propios del bando vencedor.

Con la caída definitiva de Bizkaia y el terrible incremento de detenciones que ello supuso, muchos de los presos fueron trasladados a cárceles de otras provincias y lejanas, como fue el caso del barco-prisión "Upo-Mendi", que partió desde el puerto de Bilbao, lleno de prisioneros, trasladándose hasta la Colonia Penitenciaria de la isla de San Simón, en la ría de Vigo, o el caso de la prisión de Puerto de Santa María situada en la provincia de Cádiz.

Ha de mencionarse, igualmente, la Prisión Provincial del Fuerte de San Cristóbal, en Pamplona (en la cima del monte Ezkaba) donde permanecieron cuatro presos bakiotarras.

Este Fuerte de San Cristóbal se utilizó como penal militar desde 1934 hasta 1945 y es conocido porque sufrió la mayor fuga de presos de la historia de Europa. En su interior se agolpaban, víctimas de la represión franquista, 2.497 reclusos, casi todos republicanos. De los 795 presos republicanos que huyeron de sus paredes el 22 de mayo de 1938, 585 fueron capturados, siendo fusilados 14 de ellos, 207 murieron en la huida, abatidos por los perseguidores, y solo 3 alcanzaron la libertad. Entre los escapados y luego capturados estaban los cuatro bakiotarras: Demetrio Ugarte, Segundo Markaida, Martín Legarreta y Rufino Erreterria.



Iruñeko San Kristobal gotorlekuko espetxea. / Prisión del Fuerte de San Cristóbal en Pamplona.

Debido al traslado continuo de presos, a la arbitrariedad con la que las autoridades militares e instituciones penitenciarias franquistas actuaban, y a la dispersión de las fuentes relativas a los dictámenes emitidos por las diferentes Comisiones Clasificadoras, resulta difícil conocer con exactitud cuántos vecinos de Bakio fueron encuadrados en Batallones de Trabajadores.

Los Batallones de Trabajadores se configuraron como un medio para la obtención, por parte de los vencedores, de mano de obra gratuita, mediante la explotación de prisioneros de guerra. En largas jornadas de trabajo y en condiciones cercanas a la esclavitud, se les usó para diferentes cometidos relacionados con la propia guerra, y con su esfuerzo se construyeron también carreteras, vías férreas, fortificaciones o edificios.

Como conclusión de este apartado, se refleja a continuación el listado de civiles y prisioneros de guerra bakiotarras detenidos y encarcelados tras la contienda.

Orr.

Aitatu egin beharra dago Bakioko Udalak 1938ko bagilaren 13an egindako osoko bilkurako aktean azaltzen dala Máximo Zabala Garai, Benito Bilbao Zumarraga eta Vicente Agirre Goiriena auzokoek idatzia aurkeztu ebela eta, bertan adierazoten eben lez, kasuan kasuko agintariari eskatu behar jakela udalerriko honako biztanle honeek zergaitik zigortu ebezan ostera be aztertzeko: Félix Larrazabal, Rufino Errenteria, Demetrio Ugarte, Valentín Uriarte, Florentino Agirre eta Jovita Santa Ana, Rosalía Arrutzazabala, Rufina Agirre eta María Bilbao neska gazteak. Korporazioaren eretz bidezko eskabidea zanez, idazkariari agindu eutsan hori guztia azaltzen eban behar dan moduko idatzi errazoitua egin eiala. Ezin izan dogu egiaztatu gero eskabide horren inguruko izapiderik egin zan.

Ha de mencionarse que en el acta del Pleno municipal del Ayuntamiento de Bakio del 13 de junio de 1938 se reflejó la presentación de un escrito por parte de los vecinos Máximo Zabala Garai, Benito Bilbao Zumarraga y Vicente Agirre Goiriena, pidiendo que se solicitase a las autoridades correspondientes la revisión de las causas por las que habían sido condenados los vecinos de esta localidad: Félix Larrazabal, Rufino Errenteria, Demetrio Ugarte, Valentín Uriarte, Florentino Agirre y las jóvenes Jovita Santa Ana, Rosalía Arrutzazabala, Rufina Agirre y María Bilbao. La Corporación, que estimó que la petición era de justicia, determinó que el Secretario redactase el oportuno escrito fundamentado que así lo recogiese. No se han podido confirmar posteriores trámites de dicha demanda.

V. ZERRENDEA: ATXILOTUTAKO ZIBILAK ETA GERRAKO PRESO BAKIOTARRAK  
LISTADO V: CIVILES APRESADOS Y PRISIONEROS DE GUERRA BAKIOTARRAS

ERAGINDUA / PERSONA AFECTADA
Agirre Jauregizar, Florentino
Agirre Jauregizar, Rufina
Álvarez Omilugue, Eduardo
Antxustegi San Pedro, Crisanto
Ariznabarreta Arkarazo, Luisa
Arrugaeta Expósito, Tomás
Arrutzazabala Agirre, Rosalía
Artetxe Arana, Lucio
Azkorra Olaskoaga, Francisco
Bilbao Markaida, María Rosario
Bilbao Markaida, Vicente
Bilbao Zabala, Víctor
Elxpuru Olagibel, Alejandro
Elxpuru Olagibel, Manuel
Elorriaga Fernández, José Ramón
Errenteria Armendaritz, Rufino
Errenteria Elu, Justo
Errenteria Izpizua, Pablo
Etzebarrieta Uriarte, Ana María
Etzebarrieta Uriarte, Ramón
Gaminde Elortegi, Eugenia

ERAGINDUA / PERSONA AFECTADA
Gaminde Elortegi, Pablo
Garai Baskaran, Isidro
Garai Ormatza, Félix
Garai Uriarte, Venancio
Garai Zabala, Eduardo
Goienetxea Bilbao, Juan
Goikoetxea Lotina, Justo
Goitia Goitia, Pilar
González Sánchez, Josefa
Ibinaga Olaskoaga, Celestino
Imatz Arrutzazabala, Tomás
Imatz Bilbao, Casiano
Jauregizar Ugarte, Ignacio
Laradogoitia Murua, Francisco
Larrauri Bilbao, Miguel
Larrazabal Bilbao, Félix
Larrazabal Unibaso, Julián
Lauzirika Elortegi, Angel
Legarreta Oar, Martín
Legarreta Uriarte, Esteban
Longarai Lauzirika, Cecilio

ERAGINDUA / PERSONA AFECTADA
Markaida Azeretxo, Segundo
Matía Pascual, Juan
Mintegi Bilbao, Segundo
Muruaga Agirre, Crescencio
Muruaga Olaskoaga, Félix
Olaskoaga Mardaraz, Pascual
Olaskoaga Zumarraga, Ignacio
Ormatza Goiriena, Gregorio
Puente Conde, Matías
Santa Ana Iturain, Jovita
Suárez Bilbao, Ciriaca
Ugalde Artetxe, Josefina
Ugalde Bilbao, Julián
Ugarte Agirretxu, Demetrio
Uriarte Basarte, Serapio
Uriarte Intxausti, Mateo
Uriarte Ugalde, Doroteo
Uriarte Ugalde, Valentín
Uriarte Uriarte, Pedro
Zabala Ugalde, Luis

#### 4.4. AUZITEGI MILITAR FRANKISTEK EPAITUTAKO BAKIOTARRAK

Presoak Saillatzeko Agindu Orokorren arabera C eta D taldekoak ziran presoak auzitegi militar frankistek epaitzen ebezan. Gero, euren epaia jasotakoan, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren esku lotuten ziran, eta epaitegietatik hur egozan kartzeletara eroateko agindua emoten eban.

Gerra-kontsejuetan, prozesuaren bermeak eta zigor-zuzenbidea arautzen daberen printzipioak urrutu ebezan behin eta barriro, prozesu militar *“arin eta eredugarriaren”* mesedetan. 1931ko Konstituzinoa indar barik ixteko ezarri zan jurisdikzio militarrek jazarpenera penala egiten eutsan 1936ko garagarrileko estatu-kolpeari aurka egin eutsan edonori. Batez be, epaitegi militar frankisten epaiak honako honeexek egindako txostenetatik lortzen ziran datuetan egozan oinarrituta: udalerririk bakoitzeko alkateak, Falangeko arduradunak, Guardia Zibila eta Eleizea, baita biztanleek auzipetutakoaren ustezko delituzko egitateen ganean lekuko, salatari eta salaketa-gile moduan egiten ebezan autormenetan be. Dana dala, alkateenak eta Guardia Zibilarenak ziran erabagigarrienak.

Epaiketa sumarisimoetan, lekuko batzuen autormenak erabilten ebezan. Orokorrean, lehenengo eta behin, Gernikako Guardia Zibilean emoten eben testigutzea; eta, ostean, Bilboko Instrukzinoen Epaitegian. Alde horretatik, Tomás Abio Mendizabalen (karlistea, FET eta JON-Seko tokiko burua), Manuel María Arredondoren eta Juan Ormatza Goitiaren lekukotasunak nabarmentzen dira, kasurik gehienetan errua leporatzeko orduan gogor-gogor jokatu ebelako eta lekuko moduan egon ziralako bakiotarren kontra dokumentatutako ia-ia epaiketa guztietan.

Dana dala, aitaturako kasuetan izan ezean, bakiotarren aurkako gerra-kontsejurik gehienetan, prozesamenduak ez ziran oso larriak izan, aurretik erabilitakoak *“agintaldi gorri separatistan”* Bakion garatu eben jarduera edo kideztza politikogaitik bakarrik epaitzen ebezalako orokorrean eta ez gerran bertan miliziano edo gudari moduan artezean parte hartzeagaitik. Horrexegaitik, holako kasurik gehienak artxibatu egin ebezan.

Bestetik, epaitutako andrari gehienei *Emakume Abertzale Batza* alkarte nazionalistako kideak ziralako leporatzen eutseen. 1941etik aurrera, Zigorrek Aztertzeo Batzordeak kondena txikiagoakaitik ezarritako zigorrak jatsi ebazan. Hori dala eta, zapaldukorik gehienak jagoletzapeko askatasunerako araubidepean askatu ebezan.

Nabarmendu beharra dago hiru bakiotar epaitu ebezalako, heriotza-zigorra ezarri eutseela eta, azkenean, ekutau egin ebezalako. Horrezaz ganera, beste batzuk be eroan eben erregimen frankistako kartzelen gogorkeria.

Hona hemen horren inguruko agirietan agertzen diren barri-labur personala<sup>87</sup>.

#### 4.4. BAKIOTARRAS JUZGADOS POR TRIBUNALES MILITARES FRANQUISTAS

Los prisioneros que pertenecían a los apartados C y D, según la Orden General de Clasificación de los Reclusos, eran juzgados por tribunales militares franquistas y, tras recibir la sentencia correspondiente, pasaban a depender de la Dirección General de Prisiones, que solía mandar recluirlas en prisiones cercanas a los juzgados.

En los Consejos de Guerra, las garantías procesales y los principios que rigen el derecho penal fueron sistemáticamente vulnerados en aras de la *“rapidez y ejemplaridad”* del proceso militar. La jurisdicción militar que se estableció derogando la de la Constitución de 1931, perseguía penalmente a cualquiera que se hubiera opuesto al golpe de estado de julio de 1936. Las sentencias de los juzgados militares franquistas se basaban, fundamentalmente, en los datos obtenidos a partir de los informes remitidos por los alcaldes, los responsables de la Falange, la Guardia Civil y la Iglesia de cada localidad, así como de las declaraciones de vecinos que actuaban como testigos, delatores y denunciadores de los hechos supuestamente delictivos del encausado, siendo los más determinantes, los provenientes de los alcaldes y de Guardia Civil.

Los procesamientos sumarísimos se valían de la declaración de varios testigos. Normalmente, estos testificaban en primer lugar ante la Guardia Civil de Gernika y posteriormente en el Juzgado de Instrucción de Bilbao. En este sentido destacan los testimonios de Tomás Abio Mendizabal (carlista, jefe local de la FET y las JONS), Manuel María Arredondo y de Juan Ormatza Goitia, tanto por la dureza inculpatoria que ejercieron en la mayor parte de los casos, como por estar presentes en calidad de testigos en prácticamente todos los juicios documentados contra bakiotarras.


Con todo, salvo en los citados casos, en la mayor parte de los consejos de guerra contra bakiotarras los procesamientos no revisaron una gran gravedad, ya que los perseguidos eran normalmente personas juzgadas únicamente por su filiación o actividad política en Bakio durante el *“dominio rojo-separatista”* y no por haber participado directamente en la guerra como miliciano o gudari. Por ello, gran parte de estos casos fueron sobreesidos.

Por otro lado, la mayor parte de las mujeres juzgadas eran acusadas de haber pertenecido a la asociación nacionalista *Emakume Abertzale Batza*. A partir de 1941 la Comisión de Examen de Penas procedió a la conmutación de penas por condenas inferiores, por lo que la mayor parte de los represaliados fueron liberados en régimen de Libertad Vigilada.

Es de resaltar que fueron tres los bakiotarras juzgados y sentenciados a pena de muerte y finalmente ejecutados. Además de ellos, otros también sufrieron el rigor carcelario del régimen franquista.

Se recoge, a continuación, una breve semblanza personal de aquellas personas sobre las que se ha obtenido documentación a este respecto<sup>87</sup>.

<sup>87</sup> Agertutako datuak hurrengo artxiboetatik batu dira: BAPH (kartzela espedienteak) AAO (fitxa polizialak) eta FAM (aitormenak eta ebazpenak). Biografia batzuk lekukotasunetatik lortutako informazioak eta senideek emondako argazkiak osotuta dagoz. / Los datos reflejados provienen de los siguientes archivos: AHPB (expedientes de prisión), AGA (fichas policiales) y AIRMN (declaraciones y sentencias). Algunas biografías cuentan también con informaciones aportadas por testimonios de distintas personas y fotografías cedidas por los familiares respectivos.



(FAM/AIRMN).

## ABIO ARRUTZAZABALA, CRISANTO

1908. urtean jaio zan Bakion. 1937ko apirilaren 22an, udalerrian partaide eukien herri-milizianoen taldean hartu eban baja.

Eskolapioetako espetxean eta Deustuko Unibersidadekoan atxilotuta egon ostean, gerra-kontsejua egin eutsien Bilboko plazan. 1938ko abuztuaren 22an, gerra-kontsejuak jarduketak behin-behinean artxibetea proponidu eban, leporatzen eutsiezan egitateek eragin penalik ez eukielako. Era beratan, "1937ko martiaren 11ko Aginduko B taldean sailkatu ebenez, Beharginen Batailoira eroan eben".

Nació en el año 1908 en Bakio. El 22 de abril de 1937 se da de baja en el cuerpo de milicianos populares de la localidad del que formaba parte.

Después de estar detenido en la prisión de Escolapios y en la de la Universidad de Deusto, fue sometido a Consejo de Guerra en la plaza de Bilbao. El 22 de agosto de 1938, el Consejo de Guerra propone el sobreseimiento provisional de sus actuaciones por carecer de relevancia penal los hechos que se le imputaban. Asimismo, se le "clasifica en el apartado B de la orden de 11 de marzo de 1937, y en su consecuencia su destino a un Batallón de Trabajadores".

## AGIRRE JAUREGIZAR, FLORENTINO<sup>88</sup>

1900ean jaio zan, Donatoren zein Vicentaren semea zan eta Josefa Markaida Goitiagaz egoan ezkontuta. Nekazaria zan, eta Ortube bekoa baserrikoa zan.

Sasoi haretan Bakioko alkatea zan Juan Ormatzak salatu eban, instrukzinoko epaileari bialdu eutsan txostenaren bidez. Honako hauxe inoan bertan: "Mobimentua baino lehen, alderdi nazionalista separatistan (egon zan) afiliata, eta, Mobimentu Gloriatsuan, albista gorrien propagandista handia izan zan". Antonio Alegria parrokoak, barriz, ziurtatu egin eban Florentinoren jokabide moral eta erlijiosoa atxakiabakoa izan zana beti.

<sup>88</sup> Informazioaren inguruko akatsen bat egon zan, artxibo batzuetan fusilau egin ebela azaltzen da-eta; esate baterako, Sabino Arana Fundazioan, Iñaki Egañaren "La Guerra Civil en Euskal Herria" liburuan eta Sancho de Beurco Artxiboan. Florentino espetxeratu egin ebena egiaztatu ahal izan da. / Hubo algún error de información ya que en varios archivos como en la Fundación Sabino Arana, en el libro La Guerra Civil en Euskal Herria de Iñaki Egaña y en el archivo Sancho de Beurco aparece como fusilado. Se ha podido comprobar que Florentino fue encarcelado.

Guardia Zibilak atxilotu ostean, Larrinagako kartzelara eroan eben 1937ko garagarrilaren 17an, 36 urte eukazala. Ezkonduta egoan, eta alaba bat eukan.

1937. urteko bertako abuztuaren 4an, gerra-kontsejua egin eutsien Bilbon. Gorri separatista zala eta, besteak beste, albista gorrien propagandea egin ebalu leporatu eutsien. Beraren esanetan, ez zan sekula inongo alderdi politikoko kidea izan, behar egin ahal izateko afiliatu zan, alde egiteko agindua jaso eban eta Bakiotik Bilbora joan zan. José María Zirarda eta Florencio Uriarte izentau ebazan, euren lekukotasunaren bidez, beraren jokabidea eta nortasuna behar dan lakoak zirana bermatzeko.

Kondenau egin eben, eta, 1937ko abuztuaren 4ko Epaiaren arabera, 30 urteko biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, matxinadeagaz bat egitearren. Urriaren 12an, Iruñeko kartzela zentralera eroan eben, zigorra bete eian.

1940an, ezarritako zigorra jatsi eta 6 urte eta egunbetekoa ezarri eutsien. Horren osogarrri be, epealdi horretan, ezin izango eban ezelako kargurik bete, eta ez eban botoa emoteko eskubiderik eukiko. 1943ko irailaren 13an askatu eben.

Nacido en 1900, era hijo de Donato y Vicenta, y estaba casado con Josefa Markaida Goitia. Era labrador y pertenecía al caserío Ortube bekoa.

Fue denunciado por el entonces alcalde de Bakio, Juan Ormatza, mediante un informe que envió al juez de instrucción, en el que se decía lo siguiente: "antes del Movimiento (estuvo) afiliado al partido nacionalista separatista y ante el Glorioso Movimiento fue gran propagandista de noticias rojas". Por el contrario, el párroco, Antonio Alegría, certificó que Florentino había tenido siempre una intachable conducta moral y religiosa.

Detenido por la Guardia Civil, fue ingresado en la Prisión de Larrinaga, el día 17 de julio de 1937, con 36 años de edad, estando casado y con una hija.

Se le sometió a un Consejo de Guerra celebrado en Bilbao el 4 de agosto del mismo año 1937. Fue inculcado por ser rojo-separatista que se había dedicado, entre otras cosas, a hacer propaganda de las noticias rojas. Él declaró que no había pertenecido a partido político alguno y que se afilió para poder trabajar; que tuvo orden de evacuar y que salió de Bakio hacia Bilbao. Nombró a José María Zirarda y a Florencio Uriarte para que pudieran garantizar, con su testimonio, la corrección de su proceder y de su personalidad.

Fue condenado, según la Sentencia del 4 de agosto de 1937, a una pena de 30 años de Prisión Perpetua como autor de un delito de Adhesión a la Rebelión. El 12 de octubre fue trasladado a la Prisión Central de Pamplona, a cumplir condena.

En 1940 se le conmutó la pena impuesta por la de 6 años y 1 día, con las accesorias de suspensión de todo cargo y del derecho de sufragio durante ese mismo período. El 13 de septiembre de 1943 quedó en libertad.



## ÁLVAREZ ORMILUGUE, EDUARDO

1889ko maiatzean jaio zan Bilbon, eta familia ugariko lehenengo semea izan zan. Luzio eta Aurelio Artetxeren arrebea zan Mariagaz ezkondu zanean ezagutu eban Bakio. Bakio eta Bilbo artean bizi izan bazan be, hartu-emon sendoa euki eban eleizateagaz eta bertako biztanleakaz. Bertan, hain zuzen be, Zubiaurre etxean bizi zan (emaztearena zan). Bakioko Batzoki barriaren bultzatzaile nagusietarikoa izan zan 1931n, eta zeregin handia garatu eban, 1931tik 1937ra, Primo de Riveraren diktadorearen ostean, eleizatean bertan nazionalismoa bultzatzeko eta zabaltzeko, horren ondorioz alderdi politikoen jardurea eten egin zala eta egoitza zein alkargune guztiak zarratu egin zirala kontuan hartuta.

Honako hauxe esaten da Euzkadi aldizkarian, Bakioko Longarai eraikinean edegitako Batzoki barriaren ganeko artikuluan: *"Eduardo Álvarez nekatuezina da nazionalismoa zabaltzeko orduan. Bakioko neskak edertasunez agurtu ebazan, eta eskerrak emon eutsezan ikurrina bordetako hartu eben beharragaitik. Esaldi gozoak eskaini eutsezan bertan egozan berbaginei. Aberriaren alde esandakoa amaitutakoan, telegrama bi irakurri ebazan, eta Estatutuaren aldeko euskal gitxiengoaren burua zan Beunza jaunarentzat eta gotzain jaunarentzat ziran, hurrengorik hurrengo"*<sup>89</sup>.

Gerra-kontsejua egin eutsien preminazko 110. prozedura sumarisimoaren bidez. Espedientean, Ordena Publikoko ordezkariak 20. Epaitetik epaile militar jaunarentzat egindako idatzia agertzen da, eta honako hauxe adierazoten da bertan: *"agindu eutsien lez, ezin izan eban Eduardo Álvarez Ormilugue atxilotu eta eroan, Euskadiko gobernu gorri separatistegaz ines egin ebalako"*.

Urte batzuk geroago, 1943an, Euskadira atzera etorri zanean, Fiskaltzeak ostera be leporatu eutsan matxinadeari laguntzearen egin eban delitua. Hori dala eta, auditore-epaileari eskatu eutsan 14 urteko espetxealdi txikiko zigorra ezarteko. Auzipetutakoa eta beraren defendatzailea bat etozan akusazio horregaz, baia, 1942ko zemendiko Legearen arabera delitu horreekaitik zigortutakoak behin-behinean askatu behar ebezanez, ez zan kartzelara joan. Dana dala, *"behin-behineko espetxealdian igarotako denpora osoa"* kenduko eutsiela be adierazo eben.

Nació en Bilbao, en mayo de 1889, siendo el primogénito de una familia numerosa. Su relación con Bakio surgió con motivo de su matrimonio con una hermana de Lucio y de Aurelio Artetxe, llamada María. Aunque su vida se desarrolló entre Bakio y Bil-



<sup>89</sup> EUZKADI, 5.827. zk. - 1931/08/16. / EUZKADI nº 5.827 - 16.08.1931.

orr.

bao, mantuvo una sólida relación con la anteiglesia y sus vecinos, donde fijó su residencia en la casa Zubiaurre (perteneciente a su mujer). Fue uno de los principales impulsores del nuevo Batzoki de Bakio, en 1931 y desarrolló una gran labor de promoción y difusión del nacionalismo en la anteiglesia entre 1931-1937, tras la dictadura de Primo de Rivera, que había supuesto el cese de la actividad de los partidos políticos y el cierre de todas sus sedes y establecimientos.

Esto dice la revista Euzkadi en el artículo sobre la inauguración del nuevo Batzoki de Bakio en el edificio Longaray: *Eduardo Álvarez, incansable en todo cuanto se refiera a difundir el nacionalismo, saludó bellamente a las señoritas bakienses y les agradeció el trabajo que se habían tomado en bordar la bandera. Tuvo frases de cariño para los oradores allí presentes. Al terminar sus patrióticas palabras leyó dos telegramas dirigidos al señor Beunza, jefe de la minoría vasca pro Estatuto, y al señor obispo, respectivamente*<sup>89</sup>.

Fue sometido a Consejo de Guerra, por el procedimiento sumarísimo de urgencia, nº110. En el expediente se encuentra un escrito del delegado de orden público para el señor juez militar del Juzgado nº20 en el que se informa que *“no pudo haber detenido y conducido a Eduardo Álvarez Ormilugue como se le había mandado, por haber huido con el gobierno rojo-separatista de Euzkadi”*.

Años después, en 1943, ya de vuelta en Euskadi, la fiscalía le acusó de nuevo de un delito consumado de Auxilio a la Rebelión y solicitó al Juez Auditor una pena de 14 años de Reclusión Menor; acusación que contó con la conformidad del procesado y su defensor. Pero como la Ley de noviembre de 1942 ya había declarado la Liberación Provisional de las personas condenadas por estos delitos, no ingresó en prisión, aunque se consideró que le servía de abono *“la totalidad de la Prisión Preventiva sufrida”*.

### ANTXUSTEGI SAN PEDRO, CRISANTO

1919an jaio zan Ortube goikoa baserrian, eta Álvaroren zein Sebastianaren semea zan. Baserriarra izan zan. Armada erreboltarian parte hartu behar izan eban, 1940ko kintakoa zalako. Trempeko frontean, Bartzelonan, Tarragonan eta Toledon burrukan egin eban. 1942an, lizentzia egin eban, eta Bakiora atzera etorri zan.

Urte beratako abenduaren 10ean, 23 urte eukazala, Crisanto beste auzoko batzukaz joian Bilboko 5. tranbian Errekluten Kaxan aurkezteko asmotan, eta, *“mozkorrik egoala”*, honako esaldi hau esan eban: *“Bagoaz, bai, Francoren kabroiok”*. Hori dala eta, gerra-kontsejua egin eutsien 1944ko urtarrilaren 28an. Beraren behin betiko ondorioetan, Ministerio Fiskalak egitate horreek Estaduko Seguritasunaren ganeko Legearen 25. artikuluan aurreikusitako eta zigortutako delitua zirala adierazo eban. Sei hilebete eta egunbeteko espetxealdi txikiko zigorra ezarri eutsien. Horren osogarri be, ezin izango eban ezelako kargurik bete, eta ez eban botoa emoteko eskubiderik eukiko, zigorrak iraun bitartean.

Beraren senideek baieztetan dabenez, ez eutsien zigor handiagoa ezarri frontean lortu eban Domina Militar Kolektiboari esker.

Nacido en 1919, en el caserío Ortube goikoa, era hijo de Álvaro y de Sebastiana. Fue labrador. Tuvo que formar parte del ejército rebelde ya que pertenecía a la quinta de 1940, combatiendo en el frente de Tremp, Barcelona, Tarragona y Toledo. En 1942 fue licenciado, regresando a Bakio.

El 10 de diciembre de ese mismo año, Crisanto, contando 23 años de edad, y cuando viajaba en compañía de otros vecinos suyos, en el tranvía nº 5 de Bilbao, con objeto de presentarse en la Caja de Reclutas *“estando embriagado”*, pronunció la siguiente frase: *“Aquí vamos los cabrones de Franco”*. Por este hecho fue sometido a un Consejo de Guerra el 28 de enero de 1944. El ministerio fiscal calificó estos hechos, en sus conclusiones definitivas, como constitutivos de un delito previsto y penado en el artículo 25 de la Ley de Seguridad del Estado. Se le impuso una pena de seis meses y un día de Prisión Menor y Accesorias de suspensión de todo cargo y de derecho a sufragio durante el tiempo de la condena.

Según afirman sus familiares fue el hecho de adquirir en el frente una Medalla Militar Colectiva lo que evitó una mayor pena.

### ARRUGAETA EXPÓSITO, TOMÁS

1889an jaio zan Bakion, Uribarri baserrian, hain zuzen be. EAJko Udal Batzordeko diruzaina izan zan 1934. eta 1935. urteetan.

1937ko garagarrilaren 16an, Larrinagako kartzelan espetxeratu ebenean, 48 urte eukazan, ezkondua egoan eta hiru seme-alaba eukazan. Garagarril beraren 24an, gerra-kontsejua egin eutsien Bilbon Eduardo Garai, Francisco Uriarte eta Aniceto Olaskoaga bakiotarrakaz (azken biak fusilau egin ebezan, azkenean), eta leporatu egiten eutsien *“nacionalista separatistea izan zala, alkarte separatistako batzordekoa izan zala eta Mobimentuan bertan be bide beratetik segidu ebal”*. Tomás Abio Mendizabalek eta Juan Ormatza Goitia alkateak beraren aurkako autormenak egin ebezan. Tomás Arrugaetaren esanetan, barriz, *irakurten eta idazten ez ekianez, derrigortuta onartu eban kargua*.

Astebete geroago, garagarrilaren 31n, emondako epaiak errubakotzat jo eban, beraren jokabidean *“zeozelako erantzunbeharra dagoan arren, Udal Batzordeko kidea izan zalako”*. Dana dala, garatu eban zeregina *“mekanikoa baino ez zan izan, eta agintarien agindupean jokatu eban beti”*. Hori dala eta, 1937. urteko bertako abuztuaren 3an askatu eban.



Nació en Bakio, el año 1889, en el caserío Uribarri. Fue tesorero de la Junta Municipal del PNV entre los años 1934 y 1935.

Ingresó en la cárcel de Larrinaga el 16 de Julio de 1937 con 48 años de edad, casado y con tres hijos. Fue sometido a un Consejo de Guerra, celebrado en Bilbao el día 24 de ese mismo mes de julio junto a los bakiotarras Eduardo Garai, Francisco Uriarte y Aniceto Olaskoaga (los dos últimos finalmente fusilados), con la acusación de que había sido *“nacionalista separatista, perteneció a la junta de la sociedad separatista y durante el Movimiento siguió el mismo camino”*. En su contra declararon Tomás Abio Mendizabal y el alcalde Juan Ormatza Goitia. Tomás Arrugaeta, por su parte, declaró que, *no sabiendo leer ni escribir, aceptó dicho cargo de forma obligada*.

La Sentencia, emitida una semana después, el 31 de julio, decretó su absolución porque, aunque en su conducta *“existe un supuesto motivo de responsabilidad por haber sido miembro de la Junta Municipal”*, la labor que desarrolló fue *“puramente mecánica y siempre a las órdenes de los dirigentes”*. En consecuencia, fue puesto en libertad el 3 de agosto de ese mismo año 1937.

## ARTETXE ARANA, LUCIO

Lucio, “Luki” moduan ezagutua, 1898an jaio zan Bakioko Zubiaur bekoa baserrian (Bermeokoa zan orduan), eta beraren gurasoak Aurelio Artetxe de la Quintana eta María Arana Amunarriz izan ziran. Gumersinda Boladogaz ezkondu zan, eta lau seme-alaba euki ebezan.

Euskal nazionalismoko kide nabaria izan zan, baita frankismoan ezkutuko erakundea izandako Euzko Alderdi Jeltzaleko (EAJ) arduradunetarikoa eta EAJko burukidea zan Juan Ajuriagerraren konfiantzako gizona be.

1919an, Kuban egon ostean, EAJn sartu zan. Bakioko Batzokiko buru aukeratu eben, eta, hurrengo urteetan, jarduera politiko bizi-bizia garatu eban.

1935ean, BBBko kide aukeratu eben. 1937ko bagilaren 30ean, Bilbo jausi ostean, Santanderreko probintziara joan zan, eta, bertan, italiarrakaz eraturako alkarrizketetan parte hartu eban (Santoñako Ituna), Euzko Gudarostearen errendizinoa negoziatetako.

EBBk (EAJko Batzar Nazionalak) Ingalaterrara joateko aukeratu baeban be, “Luki” Artetxek gurago izan eban Ajuriagerraren alboan lotu eta armak itxi ebezan milaka euskal gudariei lagundu. Edozelan be, bera izan zan Agirre lehendakariari alderdiaren agindua emon eutsana, erbesteratu eiten eta beraren bizia salbau eian.

Abuztuaren 26an, Artetxe Santanderreko Santoñan arrapau eben beste euskal buruzagi nazionalista batzukaz, eta udalerrri beretako Duesoko espexera eroan eben. Ganera, 1937ko abenduaren 15eko Epaiazen arabera, heriotza-zigorra ezarri eutsien, matxinada militarra egiteagaitik, EAJko aholkulari politikoa izateagaitik eta euskal miliziak eraturagaitik. Astebete geroago, Mancini jeneralari eta Cavaletti markesari idatzi eutsen gutuna, italiarrek berbatutakoa ez betetearren zelako egoera jasaten ebilzan salatzeke.

Abenduaren 24an, Larrinagako kartzelara eroan eben; eta, hurrengo urtean, Burgo-seko espetxe zentralera. Heriotza-zigorra jatsi eta behezagoko mailakoa ezarri eutsien 1939ko zemendiaren 12an. Azkenean, 1943an askatu eben, eta Bilbora atzera etorri zan.

Bizkaiko uriburuan, euskal erresistentzia zuzentzen hasi zan, eta, horretarako, beraren etxearen zein negozioen azpiegitura erabili eban estalgi moduan. Behin baino gehiagotan atxilotu eben urte hareetan garatu eban ezkutuko jardureagaitik.

1958an, BBBko parte izan zan barruko aldean, Juan Ajuriagerragaz eta beste burukide batzukaz. Urte beretako maiatzetik 1969ra arte, EBBko kidea be izan zan. 1974an hil zan<sup>90</sup>.

Lucio, más conocido como “Luki”, nació en el caserío Zubiaur bekoa de Bakio (entonces Bermeo), en 1898, siendo sus padres Aurelio Artetxe de la Quintana y María Arana Amunarriz. Se casó con Gumersinda Bolado, con quien tuvo cinco hijos.

Fue miembro destacado del nacionalismo vasco, uno de los responsables de la organización clandestina del Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) durante el franquismo y hombre de confianza de Juan Ajuriagerra, dirigente del PNV.

En 1919, y tras una estancia en Cuba, ingresó en el PNV. Fue elegido presidente del Batzoki de Bakio y en los años siguientes desarrolló una intensa actividad política.

En 1935 fue elegido miembro del BBB. El 30 de junio de 1937, tras la caída de Bilbao, se trasladó a la provincia de Santander donde participó en las conversaciones que se mantuvieron con los italianos (Pacto de Santoña) para negociar la rendición del Ejército vasco.

A pesar de ser designado por el EBB (Consejo Nacional del PNV) para marchar a Inglaterra, “Luki” Artetxe prefirió permanecer junto a Ajuriagerra y acompañar a los miles de gudaris vascos que depusieron las armas. Sin embargo, fue él quien transmitió la orden del Partido al lehendakari Agirre para que saliera al exilio y salvara su vida.



EAJko burukide enkartzelatuak. / Luki Artetxe, Iñaki Unzueta, Joseba Rezola, Juan Ajuriagerra, Ander Arcelus. Burukides del PNV encarcelados.

<sup>90</sup> Sabino Arana Fundazioa, BAHP, Ferrol, epaia. / Fundación Sabino Arana, BAHP, Ferrol, Sentencia.

orr.

El 26 de agosto Artetxe fue apresado en Santoña (Santander), junto a otros líderes nacionalistas vascos, siendo encarcelado en la prisión de El Dueso de la misma localidad y según la Sentencia del 15 de diciembre de 1937, condenado a muerte por delito de Rebelión Militar, ser consejero político del PNV y organizador de las milicias vascas. Una semana más tarde dirigió una carta al general Mancini y al marqués de Cavaletti denunciando la situación que estaban padeciendo por el incumplimiento de lo acordado por parte de los italianos.

Trasladado a la cárcel de Larrinaga el 24 de diciembre y al año siguiente al Penal Central de Burgos, se le conmutó la pena capital, por la inferior en grado, el 12 de noviembre de 1939. Finalmente recobró la libertad en 1943 y regresó a Bilbao.

En la capital vizcaína empezó a dirigir la resistencia vasca, utilizando como tapadera la infraestructura de su casa y sus propios negocios. La actividad clandestina que realizó durante aquellos años le supuso varias detenciones.

En 1958 formó parte del BBB en el interior, junto a Juan Ajuriagerra y otros líderes. Desde mayo de ese año y hasta 1969 fue, asimismo, miembro del EBB. Murió en 1974<sup>90</sup>.

### AZKORRA OLASKOAGA, FRANCISCO

Francisco, Juan Antonio Azkorraren eta Regina Olaskoagaren semea, 1912an jaio zan Ortube goikoa baserrian, eta arotza zan.

1937ko irailaren 30ean Bilboko plazan egin eutsien gerra-kontsejuaren ondorioz, hamabi urte eta egunbeteko espetxe-zigorra ezarri eutsien, eta kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben zigorrak iraun bitartean. Epaiaren arabera, borondatez egin zan Ordena Publikoko guardia, *"Bakion bertan matxinada gorri separatista hasi zanean, eta, Tokiko Batzordearen aginduz, Lorenzo Aginaga biztanlea atxilotu eban"*. Ostean, *boluntario joan zan Amaiur batailoira, "gerrako fronteetan egon zan, azkenean estolda baten babestu zan topaketa baten eta, gero, alde nazionalera pasau zan. Hasikera baten, auzipetutakoa Jaime 1.a itsasontziko marinela izan zan, bertan behar egin eban eta beraren jokabidea ona izan zala azaltzen da"*.

1937ko garagarriaren 17an, 24 urte eukazala, Larrinagako kartzelan espetxeratu eben. Urte beratako urriaren 7an, Ospitale Zibilera eroan eben, eta, bertatik, espetxera atzera eroan eben hurrengo egunean. Urriaren 6an, Guardia Zibilak Galiziako San Simon ugarteko espetxe-koloniara eroan eban. Manuel María Arredondok, herriko lehenengo alkate frankistek, zerikusia euki eban ospitalera erroteko erabagi horregaz. 1940ko garagarriaren 13an, behin betiko askatasuna lortu eban.

Francisco, hijo de Juan Antonio Azkorra y Regina Olaskoaga, nació en 1912 en el caserío Ortube goikoa y era carpintero de profesión.

Como consecuencia del Consejo de Guerra que sufrió el 30 de septiembre de 1937, en la plaza de Bilbao, fue condenado a doce años y un día de prisión y a la Inhabilitación Absoluta durante el tiempo de condena. Según la Sentencia, se había alistado voluntariamente como Guardia de Orden Público *"al estallar la rebeldía rojo-separatista en Baquio, deteniendo, por orden del Comité Local, al vecino de orden Lorenzo Aginaga"*. Posteriormente, *ingresó como voluntario en el batallón Amayur "con el que actuó en frentes de combate, refugiándose, por último, en una alcantarilla durante un encuentro y pasándose después a las filas Nacionales, habiendo sido en principio, el procesado, marinero del buque Jaime 1º, en el que actuó, y constandingo que fue buena su conducta"*.

El 17 de julio de 1937, con 24 años de edad, ingresó a la Prisión de Larrinaga. El 7 de octubre de ese mismo año es trasladado al Hospital Civil desde donde regresa a prisión al día siguiente. El 6 de octubre es conducido, por la Guardia Civil, a la Colonia Penitenciaria de la Isla de San Simón (Galicia). Manuel María Arredondo, primer alcalde franquista del pueblo, tuvo relación con ese traslado al hospital. El 13 de julio de 1940 consigue su Libertad Definitiva.

### BILBAO MARKAIDA, VICENTE

Vicente Andrésen zein Eugeniaren semea eta Saturrarango andren kartzela zentrolean espetxeratu eben María Rosario Bilbao Markaidaren nebea zan. Berarena zan Gorrondona baserriko nekazaria zan. EAJko kidea zan, eta gudari moduan parte hartu eban gerran.

Juan Ormatza Goitia alkateak salatu eban, honako hauxe inoan idatziaren bidez: Vicente *"nazionalista separatista amorratua zan, borondatezko miliziano egin zan, eskoitiarrak aurretik erabilten ebazan eta etxeak be arakatu eutsezan, bertan eskoitiarrak topetako asmotan"*.

1937ko garagarriaren 17an, Larrinagako kartzelan sartu eben 19 urte eukazala. Gerra-kontsejua egin eutsien Bilbon, eta, Vicentek beraren autormenean esan ebanez, *ez zan inongo alderdi politikoko kidea izan, eta, behar beste diru-sarrera ez eukazanez, miliziano egin zan. Ganera, Eduardo Álvarez en eraginez, Ariztimuño batailoira joan zan, eta, gaixorik paraukeran, etxera atzera etorri zan. Apirilera arte egon zan bertan. Beraren kintakoei laster deituko eutseela eta beraren anaia Rebelión de la Sal batailoiko sukaldaria zala kontuan hartuta, maiatzaren 17ra arte laguntzaile egon zan bertan, egun horretan baja emon eutsielako. Orduan, Bilbora joan zan, beraren adiskidea zan Enrique Fi falangistearen etxera, eta Bilbo jausi arte ostendu ziran bertan.*

Egun gitxi batzuk geroago, abuztuaren 4an, emondako epaiaren arabera, 30 urteko biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien. 1937. urteko bertako irailaren 4an, Vigoko itsasadarrean egoan ur ganeko Upo-Mendi espetxera eroan eben.

1938ko garagarriaren 7an, Burgozko espetxe zentralera eroan eben zigorraren garetikoa beteten. 1940ko maiatzean, Likidazio Barriaren ganeko Legea ezarri eutsienez, zigor hori jatsi eta hamabi urte eta egunbeteko espetxealdi txikiko zigorra ezarri eutsien.



1944ko irailaren 11n, jagoletzapeko askatasuna lortu eban, eta Bakion bete eban, harik eta 1948an behin betiko askatasun osoa emon eutsien arte.

Vicente era hijo de Andrés y de Eugenia y hermano de María Rosario Bilbao Markaida, también encarcelada en la Prisión Central de Mujeres de Saturrarán. Era labrador en su caserío Gorrondona. Afiliado al PNV, participó en la guerra como gudari.

Es denunciado por el alcalde Juan Ormatza Goitia mediante un escrito donde dice que Vicente era “nacionalista separatista acérrimo, miliciano voluntario dedicándose a la persecución de personas de derechas y requisas de sus casas con el objetivo de encontrar en ellas a personas de derechas”.

Fue recluido en la cárcel de Larrinaga el 17 de julio de 1937, con 19 años de edad. Se le sometió a un Consejo de Guerra celebrado en Bilbao y en su declaración, Vicente manifestó que *no había estado afiliado a ningún partido político y que, como no tenía ingresos económicos suficientes, se había presentado como miliciano. Que, por influencia de Eduardo Álvarez, se le había asignado al batallón Ariztimuño, y que, al caer enfermo, había vuelto a su casa, donde permaneció hasta el mes de abril. Siendo inminente la llamada de su quinta, y teniendo un hermano cocinero en el batallón Rebelión de la Sal, este le puso de ayudante hasta el 27 de mayo, día en el que fue dado de baja, trasladándose entonces a Bilbao, a casa de un falangista amigo suyo llamado Enrique Fi, donde se escondieron hasta que cayó Bilbao.*

Pocos días después, el 4 de agosto, se dictó la Sentencia por la que se le condenaba a una pena de Reclusión Perpetua de 30 años. El 4 de septiembre de ese mismo año 1937 fue trasladado a la prisión flotante Upo-Mendi, situada en la Ría de Vigo.

El 7 de julio de 1938 fue conducido a la Prisión Central de Burgos para el cumplimiento del resto de su condena. En mayo de 1940 se le aplicó la ley de Nueva Liquidación por lo que su pena se conmutó a la de doce años y un día de Reclusión Menor.

El 11 de septiembre de 1944 obtuvo la Libertad Vigilada, que la cumplió en Bakio, hasta que, en 1948, gozó ya de la Libertad Total y Definitiva.

## BILBAO ZABALA, VICTOR

Víctor Raimundoren zein Juanaren semea zan, 1919an jaio zan Goitisolaldeko Aurrekoetxe etxean eta arotza zan. Euzkadiko Gobernu Ordena Publikoko zuzendari nagusiari bialdu eutsan eskabidea onartu egin ebenez, 1937ko apirilaren 22an, behin-behinean onartu eben udalerriko Herri Milizianoen Taldean. Talde hori, hain zuzen be, hilebete beraren 1etik egoan abian.

1937ko abuztuaren 17an, 17 urte eukazala, Bilboko Larrinagako kartzelan sartu eben.

1937ko zemendiaren 23an, gerra-kontsejua egin eutsien Bilbon, eta, handik gixira, behin betiko askatasuna emon eutsien leporatu eutsiezan egitateak garrantzitsuak ez ziralako.

Víctor era hijo de Raimundo y de Juana, había nacido en 1919 en la casa Aurrekoetxe de Goitisolalde, y su profesión era la de carpintero. Como consecuencia de haber sido admitida su petición al Director General de Orden Público del Gobierno de Euzkadi, el 22 de abril de 1937 fue admitido, provisionalmente, en el Cuerpo de Milicianos Populares de la localidad, cuerpo que venía prestando servicio desde el 1 de ese mismo mes.

El 17 de agosto de 1937, con 17 años de edad, fue recluido en la Prisión de Larrinaga, situada en Bilbao.

El 23 de noviembre de 1937 fue sometido a un Consejo de Guerra en Bilbao. Y al de poco tiempo quedó en situación de Libertad Definitiva por carecer de relevancia los hechos de los que se le acusaba.



## EGIA MARDARAS, CIRIACO

Ciriaco Gatikakoak ziran Anicetoren zein Julianaren semea zan, eta 1889ko martian jaio zan Algortan. Dana dala, txiki-txikitan, familiagaz joan zan Bakiora biziten, eta neba-arreba txikiago guztiak bertan jaio ziran. Udaleko idazkaria izan zan 1929tik. Bertatik, ganera, Korporazio guztiagaz alde egin eban Zallara, eta udaleko agiri guztiak eroan ebazan. Lehen azaldu dogun lez, beraren lanpostutik baztertu eben, eta 1942ko martira arte ez eben ostera be hartu. Urte batzuetan, eginkizun hori ez eze, Bermeoko Udaleko ofizial nagusiaren zereginak be garatu ebazan. Bertan be, lanpostutik baztertu eben gerrea amaitu zanean. Izan be, espedientea edegi, zigortu eta zerbitzutik banandu eben.

Ekintza zapaltzaile hori ez eze, ezkondata egoala eta lau seme-alaba eukazala, 1937ko abuztuaren 17an, atxilotu ostean, behin-behineko kartzela-zigorra be ezarri eta espetxeratu egin eben. 1937ko zemendiaren 23an, gerra-kontsejuan epaitu eben Bilbon, eta behin betiko askatasuna emon eutsien leporatu eutsiezan egitateak garrantzitsuak ez ziralako.

Hijo de Aniceto y de Juliana, naturales de Gatika, Ciriaco nació en Algorta en marzo de 1889, aunque desde muy niño se trasladó con su familia a Bakio donde nacieron todos sus hermanos menores. Fue Secretario del Ayuntamiento desde



orr.

el año 1929 y evacuó junto con toda la Corporación a Zalla, llevándose consigo todos los documentos del ayuntamiento. Fue depurado de su puesto tal y como se ha recogido anteriormente y no se admitió su reingreso al mismo hasta el mes de marzo de 1942. Durante algunos años compatibilizó esa función con la de oficial mayor del Ayuntamiento de Bermeo, donde también fue depurado al término de la guerra, expedientado, sancionado y separado del servicio.

Además de esta acción represiva, casado y con cuatro hijos, el 17 de agosto de 1937, tras ser detenido, se acordó su prisión preventiva y fue encarcelado. Su juicio en Consejo de Guerra se celebró en Bilbao el 23 de noviembre de 1937 y concluyó con la concesión de la Libertad Definitiva por carecer de relevancia los hechos que se le imputaban.

### ELEXPURU OLAGIBEL, MANUEL Y ALEJANDRO

Fabiánen zein Franciscaren semeak ziran, eta Bakion jaio eta bizi ziran Elexpuru jauretxean (herriko oligarkak), Bilboko Mazarredo zumarkalean Manuelek inpretea be baeukan arren. Euren beharra arlo industrialean garatzen eben, eta kale horretako 16. zenbakian egoan inpretea. Horrezaz ganera, errentadunak be baziran, familia Bakioko baserri askoren jaubea zalako eta errentadoreek alogera ordaintzen ebelako. Horrerri esker, dirutzea irabazten eben urtean.

1937ko garagarrilaren 15ean, 67 urteko Manuel, ezkondata egoana eta lau seme-alaba eukazana, eta 50 urteko Alejandro, ezkondata egoana eta seme bat eukana, Larrinagako kartzela probintzialera eroan ebezan.

Abuztuaren 3an, beste lau lagunegaz, gerra-kontsejua egin eutseen Bilbon, baia aske itxi ebezan. Izan be, Elexpuru argitartxeko ahalordea zan Alejandro Elexpuruk, epaian bertan azaltzen dan lez, *"Euzkadiko Gobernua ei ziranen bankuko billeteen txortea egin eban tailerretan"*. Dana dala, behar hori egiteko agindua ez eban Eusko Jaurlaritzak emon, *"Espainiako Bankuak baino"*. Ganera, Alejandro ez zan inoz *"separatista moduan"* nabarmendu, *"(eta) persona arteza eta atxakia bako jokabideduna izan da beti, persona bikaina baizen nabarmena dan aita Vilariñok (SJ) bermatzen dauan lez"*. Remigio Vilariño kazetari, erlijioso eta saio-idazle jesuita zan (SJ). Bilbon bertan, oso ospe ona eukanez, beraren izena imini eutsien uriko kale bateri.

Epaia ren arabera, auzipetutakoak aske itxi ebezan guztiz, probautako egitateak ez ziralako inondik inora delitua. Alejandro eta Manuel Elexpuru 1937ko abuztuan askatu ebezan.

Hijos de Fabián y de Francisca, eran naturales y vecinos de Bakio, de la casa-palacio Elexpuru (oligarcas del pueblo), aunque Manuel tenía, también, una imprenta en la Alameda Mazarredo de Bilbao. Su dedicación profesional se concretaba en el ámbito industrial, estando ubicada dicha imprenta en el nº 16 de esa calle. También eran rentistas, ya que la familia era propietaria de un buen número caseríos de Bakio cuyos inquilinos estaban en alquiler. Ello les proporcionaba unos ingresos importantes a lo largo del año.

El 15 de julio de 1937, Manuel, con 67 años de edad, casado y con cuatro hijos y Alejandro con 50 años de edad, casado y con un hijo, ingresaron en la Prisión Provincial de Larrinaga.

El 3 de agosto fueron conducidos, junto con otras cuatro personas, a un Consejo de Guerra que se celebró en Bilbao del que salieron absueltos, por cuanto, aunque Alejandro Elexpuru, como apoderado de la Editorial Elexpuru, según señala la Sentencia *"hizo una tirada, en los talleres, de billetes de banco de los que se denominaban Gobierno de Euzkadi"*, dicho trabajo no fue por orden del Gobierno Vasco, *"sino del Banco de España"*; además, Alejandro no se había destacado nunca *"como separatista (y) habiéndose conducido siempre como persona honorable y de intachable conducta que avala una figura tan relevante y de mayor excepción como la del P. Vilariño (S. J.)"*. Remigio Vilariño era un periodista, religioso y ensayista jesuita (S. J.) muy bien considerado en Bilbao, y al que se le dedicó una calle en la Villa.

La Sentencia falló absolver totalmente a los procesados considerando que los hechos probados no constituían ninguna figura delictiva. Alejandro y Manuel Elexpuru fueron puestos en libertad en agosto de 1937.

### ELGEZABAL GAUBEKA, LORENZO

1912an jaio zan Mendiguren etxean. Ariztimuño batailoiko gudaria izan zan. 1939ko maiatzaren 30ean, Lorenzori gerra-kontsejua egin eutsien, eta 1937ko martiaren 1eko Aginduko B taldean sailkatu eben. Hori dala eta, Beharginen Batailoira eroan eben, "agintaldi gorrian" eukitako aurrekariakaitik eta jokabideagatik. 1939ko maiatzaren 25era arte, derrigorrean lotu behar izan eban batailo horreetan.

Nació en la casa Mendiguren en 1912. Fue gudari del batallón Ariztimuño. Lorenzo fue sometido a Consejo de Guerra el 30 de mayo de 1939 y se le calificó en el apartado B de la orden del 11 de marzo de 1937, y en su consecuencia se le destinó a un Batallón de Trabajadores, dados sus antecedentes y actuación durante el "dominio rojo". Estuvo, obligado a permanecer en esos batallones hasta el 25 de mayo de 1939.

### ELORRIAGA FERNÁNDEZ, JOSÉ RAMÓN

Juanen zein Felicianaren semea, José Ramón 1909an jaio zan Bakioko Benta Alde auzoan (orduan Bermeo zan). Errepublikasasoiaren ideia nazionalisten defendatzaile sutsua izan zan eta herriko Defentza Batzordean parte hartu eban 1936an.

Gogorki batailoian gudaria izan zan. Bilboren galeran Artxandan atxilotu eben baina senideek emondako informazioaren arabera, ideia frankistadun beste bakiotar bati esker lortu eban bizirik jarraitutea eta zigorra sahiestea.

Halanda be, behin etxera bueltata barrero izan zan salatua, oraingoan, El Duesoko kartzelara bidali eben non urte eta erdi iraun eban.

Gerra-kontseilua egin eutseen esandako Defentza Batzordean parte hartzea leporatuta. 1938ko martiaren 14ean gerra-kontsejuak jarduketak behin-behinean artxibetea proposatu eban eta behin betiko askatasuna emon eutsien leporatu eutsiezan egitateak garrantzitsuak ez ziralako.

Hijo de Juan y de Feliciano, José Ramón nació en 1909 en el barrio Benta Alde de Bakio (entonces Bermeo). En la época republicana fue gran defensor de ideales nacionalistas siendo parte del Comité de Defensa de la República de Bakio, en 1936.

Se integró como gudari en el batallón Gogorki. Fue arrestado en Artxanda, en la toma de Bilbao. Según la información obtenida por los familiares, pudo salvar su vida y evitar ser encarcelado gracias a la intervención de otro bakiotarra, de ideales franquistas.

Sin embargo, una vez en casa alguien volvió a denunciarlo y, esta vez, terminó en la cárcel de El Dueso, donde permaneció año y medio.

Se le sometió a Consejo de Guerra por haber sido miembro del citado Comité de Defensa. El 14 de marzo de 1938 se estimó el sobreseimiento provisional de su causa por carecer de relevancia penal los hechos que se le imputaban y se le otorgó la Libertad Definitiva con la imposición de una sanción económica.



### ERRETERIA ARMENDARITZ, RUFINO

Juan Antonioren zein Matearen semea zan, Garategi baserrikoa zan eta nekazaria zan. Txahalak eukazan, eta Gallartara joan zan ganadu-tratulari bategaz negoziatan, baia ez zan etxera atzera etorri. Juan Ormatza Goitia alkateak salatu eban, eta, 42 urte eukazala, Bilbon egoan Larrinagako kartzelan sartu eben 1937ko garagarriaren 16an.

Hurrengo egunean, gerra-kontsejua egin eutsien, eta *EAJko kidea eta alderdi horrek Bakion eukan Zuzendaritza Batzordeko bokala zala autortu eban. Horrezaz ganera, beraren esanetan, "hiru jagoletza egin ebazan Bakion, eskopeta eta guzti, biztanleen nasaitasuna bermatzeko. Horrezaz ganera, ez eban ondasunik edo etxerik konfiskatu eta arakatu. Bestetik, foru-polizia baten aginduz, beragaz eta beste bategaz joan zan Bakion bizi izan zan eskoitiar bat atxilotzen, eta foru-polizia horren etxera eroan eban". Era beratan, gerra-kontsejuan bertan azaldu ebanez, "Bakioko Aurrezki Kutxa Probintziala jagon eban, abadeak babestu ebazan, beraren etxean be hartu ebazan eta Bermeoko komentua be defendidu eban".*

Beraren errazoiak kontuan hartu ez ebezanez, 1937ko abuztuaren 6ko Epaiazen arabera, 30 urteko biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, *"nazionalista nabaria eta idea horreen propagandista izan zalako era desegokian izentautako Euzkadiko Gobernua".*

1937ko urriaren 11n, Iruñeko espetxe zentralera eroan eben, zigorra bete eian.

Ostean, San Kristobal gotorlekuko espetxera eroan eben, eta inesaldi ospetsuan parte hartu eban. Atrapau eta kartzelara eroan eben ostera be.

1940ko irailaren 2an, jagoletzapeko askatasuna lortu eban, eta ultzerea eukala atzera etorri zan etxera. Lehenengo eta behin, Guardia Zibileko Komandantzian aurkeztu behar eban Bermeon; eta, gero, Bakioko udaletxean. 1943ko maiatzean eta 1945eko maiatzean zigor bi jatsi eutsiezan, eta behin betiko askatasun osoa lortu eban.

Hijo de Juan Antonio y de Matea, era del caserío Garategi y de profesión labrador. Tenía terneros y fue a Gallarta a negociar con un tratante de ganado, pero no volvió a casa. Fue denunciado por el alcalde, Juan Ormatza Goitia y con 42 años de edad ingresó en la cárcel de Larrinaga, en Bilbao, el 16 de julio de 1937.

Al día siguiente, se le sometió a un Consejo de Guerra, en el que declaró *pertenecer al PNV y ser vocal de la Junta Directiva de ese partido en Baquio. Además, manifestó que "había hecho tres guardias, con escopeta, por Baquio, para garantizar la tranquilidad de la población, que no había incautado ni registrado bienes o domicilios, y que, por mandato de un policía foral, fue con él y con otro a detener a un derechista que vivía en Baquio, conduciéndolo a la casa del citado foral". También explicó, en el Consejo de Guerra, que "había custodiado la Caja de Ahorros Provincial en Baquio, que había protegido a curas, los cuales, incluso, alojó en su casa y que había defendido el Convento de Bermeo".*

Sus argumentos no fueron tenidos en cuenta, y, por Sentencia del 6 de agosto de 1937, se le condenó a una pena de 30 años de Reclusión Perpetua por el delito de ser *"destacado nacionalista y propagandista de estos ideales durante el dominio del mal llamado Gobierno de Euzkadi".*

El 11 de octubre de 1937 fue trasladado a la Prisión Central de Pamplona a cumplir condena.

Posteriormente, fue trasladado al Penal del Fuerte de San Cristóbal, tomando parte de la famosa fuga. Fue capturado y devuelto a la prisión.

El 2 de septiembre de 1940 obtuvo la Libertad Vigilada, volviendo a casa con una úlcera. Primero se debía presentar en la comandancia de la Guardia Civil en Bermeo y después en el Ayuntamiento de Bakio. Tras dos conmutaciones de pena, concedidas en mayo de 1943 y mayo de 1945, obtiene la Libertad de forma Total y Definitiva.



orr.

## ERRETERIA ELU, JUSTO

1914an jaio zan Torrezar etxean. Gudaria izan zan, eta, beraren kintea mobilizau ebenean, "Lenago il" 33. Batailoira joan zan 1936ko urrian. Hurrengo urteko urtarrilean, Gorbeia mendira mobilizau ebezan, eta harik eta altzautakoek Bilbo okupau eben arte egon ziran bertan. Izan be, bertako kide asko mendigoizale adituak ziranez, euskal defentsa-lerroari eusteko oinarritzkoa zan gunea batailoi horrek defendidu behar ebala pentsau zan. Bertatik, Santoñara joan ziran euren nagusien aginduz, Orozkon, Artzentalesen eta Turtziozen zehar. Bertan egon zan soldadu-talde frankistak eta italiarrak ailegau ziran arte, eta Euzko Gudarosteagaz batera errendidu zan.

1938ko zezeilean Bermeoko Guardia Zibilak jakin eragin eban ez, *borondatezko milizianoa izan zan, eskoitiarrak eukazan jagoletzapean eta gudarien 33. Batailoian sartu zan gero.* Bakioko FET eta JONSen esanetan, *nazionalista separatista zan, eta tresnen, armen... konfiskazioetan parte hartu eban.*

Justok gerra-kontsejuan autortu eban lez, Mobimentu Nazionalak ezustean arrapau eban jaioterrian, eta berak Batzorde Nazionalistek agintzen eutsazan jagoletzak baino ez ebazan egiten.

1938ko maiatzaren 10ean, 25 urte eukazala, Burgoseko Miranda de Ebroko kontzentrazino-eremuan sartu eben "D" taldeko atxilotu moduan (erantzunbehar politiko bako presoak). 1939ko abenduaren 6an, epailearen eretziz leporatu eutsiezan egitateak arau-hauste kriminala ez ziranez, behin betiko askatasuna emon eutsien 1940ko urtarrilaren 5ean.

Nacido en 1914 en Torrezar, fue un gudari que, cuando movilizaron a su quinta, ingresó en el batallón nº 33 "Lenago il" en octubre de 1936. En enero del año siguiente los movilizaron al monte Gorbea, donde estuvieron hasta que los sublevados ocuparon Bilbao, ya que al ser muchos de sus integrantes expertos montañeros se consideró que este batallón debía defender una zona que se consideraba clave para mantener la línea defensiva vasca. De allí se trasladaron a Santoña por orden de sus superiores pasando por Orozko, Artzentales y Turtzios. Allí permaneció hasta que llegaron las tropas franquistas e italianas y se entregó, en la rendición, junto con el resto de Euzko Gudarostea (Ejército Vasco).

La Guardia Civil de Bermeo informó, en febrero de 1938, *que había sido miliciano voluntario y que vigilaba a las derechas y que después había ingresado en el Batallón de gudarías nº 33.* La FET y de la JONS de Bakio informó que *era nacionalista separatista y que participó en requisas de aparatos, armas, etc.*

Justo manifestó en su declaración del Consejo de Guerra que el Movimiento Nacional le sorprendió en su pueblo y que él solo hacía las guardias que le ordenaban desde el Comité Nacionalista.

El 10 de mayo de 1938, cuando contaba con 25 años de edad, fue ingresado en el Campo de Concentración de Miranda de Ebro (Burgos), como detenido del apartado "D" (presos sin responsabilidad política). El 6 de diciembre de 1939 el juez consideró que los hechos que se le imputaron no eran constitutivos de infracción criminal, concediéndosele la Libertad Definitiva el 5 de enero de 1940.

## ERRETERIA ISPIZUA, PABLO

Estebanen eta Mariaren semea zan, eta 1889an jaio zan. Bakion jaio arren eta Bakion etxea euki arren, Bilbon bizi zan, eta EAJko kidea zan. Itsasgizona zan, Sota y Aznar ontzi-etxeke Merkataritzako Ontzidiko kapitaina, hain zuzen be. Bilbon egoan Larrinagako kartzelara eroan eben 1937ko garagarriaren 9an.

Gerra-kontsejua egin eutsien, eta, 1938ko apirilaren 23an emondako epaiaren arabera, honako honexetan oinarritzen zan akusazioa: *"udako baimena dala eta, Bakion egoan gure errebolta gloriatsua hasi zanean. (Izan be), unada horretatik 1937ko urtarrilaren 18an aitaturako ontzi-etxearen aginduz itsasoratu zan arte, gogo biziz zabaltzen ebazan irrati gorrietako albistak eta herri horretako biztanleei emoten eutsen batez be agintari sozialistek parte hartzen ebeneko emonaldia entzuteko aukerea. Gainera, badago berezitasunik, auzipetutakoari ez deusielako inoz irrati-hargailua konfiskau".* Urte biko espetxealdi txikiko zigorra ezarri eutsien. Horren osogarri be, ezin izango eban ezelako kargurik bete, eta ez eban botoa emoteko eskubiderik eukiko, zigorrak iraun bitartean. Izan be, delitua zan *"matxinadea bultzatzea, baia ondo kualifikatuko inguruabar aringarria zan arriskutsua ez izatea".* 1939ko urtarrilaren 20an askatu eben.

Hijo de Esteban y María, nació en 1889. Natural y con domicilio en Bakio pero vecino de Bilbao y afiliado al PNV, era marino, concretamente, capitán de la Marina Mercante en la Compañía Naviera Sota y Aznar. Fue recluido, en la cárcel de Larrinaga, situada en Bilbao, el 9 de julio de 1937.

Se le sometió a un Consejo de Guerra cuya Sentencia, dictada el 23 de abril de 1938, indicaba que la acusación se basaba en que se hallaba *"de permiso de verano en Baquio al iniciarse nuestra rebelión Gloriosa. (Que) desde este momento hasta el 18 de enero de 1937, en que se hizo a la mar, por encargo de la citada naviera, se caracterizó por el entusiasmo con que divulgaba las noticias captadas por las emisoras rojas, facilitando a los vecinos del referido pueblo la audición de aquellas emisiones en que tomaban parte, especialmente, los dirigentes socialistas, con la particularidad de haberse exceptuado de requisas el aparato receptor que el procesado poseía".* Fue castigado a una pena de dos años de Prisión Menor, con la accesoria de suspensión de cargo y derecho de sufragio durante el tiempo de la condena, como autor de un delito de *"Excitación a la Rebelión, con la circunstancia atenuante, muy cualificada, de falta de peligrosidad".* El 20 de enero de 1939 quedó en libertad.



**ETXEBARRIA ARGINTXONA, LEANDRO**

Leandro Etxebarria 1894an jaio zan Ibarrurin, eta Domingoren zein Josefaren semea zan. Ibarra bekoa etxeko María Lauzirika Elortegi bakiotarragaz ezkondu ostean, emazteagaz batera Somorrostrora joan zan biziten, herri horretako foru-polizia/miñoia zalako eta udalerrri horretako miñoien kuartelean bizi ziralako.

Leandro 1937ko garagarrilaren 22an atxilotu eben. Antza, herri haretako milizianoak bultzatu ebazan, indarkeria-egintzak egin eiezan. Beraren kontra aurkeztutako txostenetan esaten zanez, tratu txarrak emon eutsezan jagoletzapean eukan espetxe-itsasontziko presoiei, eta nazionalistea be bazan. Heriotza-zigorra ezarri eutsien gerra-kontsejuan.

Geroago, barriz, epaia ostera be aztertu ebenean, errubakoa zala ebatzi eben, baia, horren barri emon ebenerako, Leandro 1937ko garagarrilaren 23an fusilau eben Derion 42 urte eukazala.

Bien bitartean, Somorrostron egindako bonbardaketakaitik, María Turtziozera joan zan hiru seme-alabakaz, eta udalerrri haretan egoan senarraren fusilamentuaren albista tristea jaso ebenean. Dana dala, ez zan Mariaren sufrimendu bakarra, beraren nebea zan Ángel Lauzirika Elortegi be preso egon zalako Santoñan, harik eta gerrea amaitu arte.

Leandro Etxebarria, nacido en Ibaruri en 1894, era hijo de Domingo y Josefa. Tras casarse con la bakiotarra María Lauzirika Elortegi de la casa Ibarra bekoa pasó a ser vecino, junto con su esposa, de Somorrostro, ya que era foral/miñón en ese pueblo, estando domiciliados en el cuartel de miñones de esa localidad.

Leandro fue detenido el 22 de julio de 1937. Se le culpaba por haber excitado en aquel pueblo a los milicianos para que cometiesen actos de violencia. Los informes presentados en su contra decían que dio malos tratos a los presos en el barco-prisión en el que prestaba servicio de vigilancia y que era nacionalista. Fue condenado a muerte, en Consejo de Guerra.

Aunque en una posterior revisión de la Sentencia quedó absuelto, para cuando esta fue notificada, Leandro ya había sido fusilado en Derio, el 23 de julio de 1937, a los 42 años de edad.

Mientras tanto, y a causa de los bombardeos sobre Somorrostro, María se había trasladado a Turtzioz con sus tres hijos, municipio en el que se encontraba cuando les llegó la triste noticia del fusilamiento de su marido. No era el único sufrimiento de María porque su hermano, Ángel Lauzirika Elortegi, estuvo preso en Santoña hasta terminar la guerra.

**ETXEBARRIETA URIARTE, RAMÓN**

Ramón 1912an jaio zan Erandion, eta Ramónen zein Mariaren semea zan. Halanda be, gero Bakiora joan zan biziten, Bakioko Ibarbarri etxera, hain zuzen be. Ingeniari argiketaria zan. Beraren aita oso ezaguna zan udalerrri horretako medikua izan zalako urte askoan. Ezelako esperientziarik euki barik, EAJko Alkartxeak batailoiko Behar Talde Nagusiko kapitai izentau eben, ikasketak eukiteagaitik baino ez. Mendian burrukan egoala, hanka baten zauritu eben. Atzera egin ebenean, Castro Urdialesen parean, noz alde egingo begira egoan jentea ikusi eben, eta oso tristura handia izan zan Julia, Trinidad, Ana Maria eta Gloria arrebak bertan egozala ikustea, ordurako Frantzian oso eta bizi egozala uste eban-eta.

Matxinadeagaz bat egitea delitua zanez, Puerto de Santa Mariako espetxe zentrolean sartu eben 1938ko abuztuaren 24an, baia Duesoko kartzelatik etorren.

Gerra-kontsejua egin eutsien Santoñan, eta, 1937ko abenduaren 6ko Epaiaren arabera, biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, matxinadeagaz bat egitea delitua zalako. 1938ko abuztuaren 24an, Duesoko espetxe-koloniatik eroan eben Puerto de Santa Mariako espetxe zentralera. Ostean, 1939ko abuztuaren 26an, Burgoseko kartzela zentralera eroan eben. 1943ko abuztuaren 7an, behin betiko askatu eben, aurretiaz jagoletzapeko askatasuna emon ostean.

Kartzelatik urten ostean, sasoi baten Durangon egon zan beharrean eta biziten. Presoa izan zanez, gatxa izan zan beraren ingeniaritza-ikasketen araberako beharra topetea. Beraren diru-sarreren osogarri, emazteak margotutako txartelak marrazten ebazan, eta inprenta bateri saltzen eutsiezan.

Ramón había nacido en 1912, en Erandio, hijo de Ramón y María, aunque después se trasladó a Bakio, de donde era vecino, concretamente, a la casa Ibarbarri de Bakio. Su profesión era la de ingeniero electricista. Su padre fue muy conocido por ser médico de este municipio durante mucho tiempo. Sin ninguna experiencia, le nombraron capitán de la Plana Mayor del batallón Alkartxeak del PNV simplemente por tener una carrera. Estando luchando en el monte le hirieron en una pierna. Cuando se retiraban y a la altura de Castro Urdiales, se encontraron con gente esperando a ser evacuada y tuvo la tristeza de ver allí a sus hermanas Julia, Trinidad, Ana María y Gloria cuando creía que ya estarían a salvo en Francia.



Ramonek eskuz margotutako Gabonetako txartelak. Aureltxuri bialtzen eutsazan Burgoseko kartzelatik, aitatxuk sinatuta. / Tarjetas de Navidad pintadas a mano por Ramón, dirigidas desde la cárcel de Burgos a Aureltxu, y firmadas por Aitatxu.

orr.

Por el delito de Adhesión a la Rebelión ingresó en la Prisión Central de Puerto de Santa María el 24 de agosto de 1938 procedente del Penal de El Dueso.

Fue sometido a un Consejo de Guerra en Santoña y condenado, por Sentencia del 6 de diciembre de 1937, a la pena de Reclusión Perpetua por un delito de Adhesión a la Rebelión. Desde la Colonia Penitenciaria del Dueso fue trasladado el 24 de agosto de 1938 a la Prisión Central de Puerto de Santa María. Posteriormente, el 26 de agosto de 1939 se le trasladó a la Prisión Central de Burgos. El 7 de agosto de 1943 fue puesto, definitivamente, en libertad después de que previamente le hubieran concedido la Libertad Vigilada.

Tras salir de la cárcel estuvo trabajando y viviendo en Durango durante un tiempo. Al haber sido preso no le fue fácil encontrar un trabajo conforme a sus estudios de ingeniero. Para completar sus ingresos dibujaba tarjetas que su mujer pintaba y vendían a una imprenta.

## GAMINDE ELORTEGI, PABLO

Agustín en eta Asunciónen semea zan, eta 1900ean jaio zan Garaitxu baserrian. Espetxeratu be egin eben Eugenia Gaminderen nebea zan. Bakion jaio arren, Otxandiora joan zan biziten, eta bertan bizi zan Gerra Zibila hasi zanean.

1938ko urtarrilaren 3an, 38 urte eukazala, Bilbon egoan Larrinagako kartzelan espetxeratu eben. Gerra-kontsejua egin eutsien, eta, horren ondorioz, hamabi urte eta egunbeteko aldi baterako kartzela-zigorra ezarri eutsien. Horren osogarrri, ganera, kargurako ezelako gaitasun barik be itxi eben epealdi horretan. Matxinadeari laguntzea izan zan beraren delitua. Izan be, epaiaren arabera, Pablo Gaminde, *“Otxandioko Batzokiko burua zana, boluntario aurkeztu zan agintari matxinoen aurrean, Defentsa Batzordeko txoferra izan zan, ugazaben automobilak konfiskatu eta agintari horreen esku imini ebazan eta Armada Nazionala sartu orduko ebakuau eban probintzia hau”*.

1938ko bagilaren 10ean, San Simon ugartearen aurrean Vigoko itsasadarrean fondeauta egoan ur ganeko Upo-Mendi espetxera eroan eben. Urte beratako abuztuaren 1ean, Cadizeko Puerto de Santa Mariako espetxe zentralera eroan eben. 1940ko urtarrilaren 26an, Sevillako Dos Hermanaseko kartzela probintzialera eroan eben. 1944ko martiaren 23an, zigorra likidatu eutsien.

Hijo de Agustín y de Asunción, nacido en el año 1900, en el caserío Garaitxu, era hermano de la también encarcelada Eugenia Gaminde. Natural de Bakio, pasó a ser vecino de Otxandiano donde residía al inicio de la Guerra Civil.

El 3 de enero de 1938, cuando contaba con 38 años de edad, fue recluido en la cárcel de Larrinaga, situada en Bilbao. Se le sometió a Consejo de Guerra, y, como consecuencia del mismo, fue condenado a doce años y un día de Reclusión Temporal con la pena accesoria de Inhabilitación Absoluta durante ese mismo tiempo, por un delito de Auxilio a la Rebelión, ya que, según la Sentencia, Pablo Gaminde *“que ostentaba el cargo de Presidente del Batzoki de Ochandiano, se ofreció voluntario ante las autoridades rebeldes, prestando servicios de chófer a la Junta de Defensa, requisó automóviles pertenecientes a sus patronos, los que puso a disposición de las citadas autoridades y evacuó esta provincia a la entrada del Ejército Nacional”*.

El 10 de junio de 1938 fue trasladado a la prisión flotante Upo-Mendi, fondeado en la Ría de Vigo. El 1 de agosto de ese mismo año fue conducido a la Prisión Central de Puerto de Santa María (Cádiz). El 26 de enero de 1940 fue trasladado a la Cárcel Provincial Dos Hermanas, de Sevilla. El 23 de marzo de 1944 le liquidaron la condena.

## GARAI ORMATZA, FÉLIX

Eduardoren eta Emiliaren semea zan, eta 1914. urtean jaio zan Bakion, Bengolea etxean, hain zuzen be. Dana dala, Lemoizera joan zan biziten, Durangoko Concha Zorrotzuagaz ezkondu zanean. “Peli” esaten eutsien, eta txoferra zan. Mungia, Ariztimuño eta Abellaneda batailoietan egon zan.

1938ko abuztuaren 18an, Puerto de Santa Mariako espetxe zentralera eroan eben Duesoko kartzelatik. *“Matxinadeari laguntzeagaitik”* kondenau eben, Santoñan egin eutsien gerra-kontsejuan 1937ko abenduaren 7an emondako epaiaren arabera. 12 urte eta egunbeteko aldi baterako espetxealdi-zigorra ezarri eutsien, eta, horren osogarrri be, kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben zigorrak iraun bitartean. Epaietan bertan esandakoaren arabera, *“jokabide onekoa zanez, mobilizatu eta sarjentu-kategoria emon eutsien; eta, ostean, antxinakotasunagaitik, tenientearena. Azkenean, kargu hori onartu eban, hasikeran ezetz esan gura izan baeban be”*. 1940ko agorrilaren 17an aske itxi eben.

Hijo de Eduardo y de Emilia, nació en Bakio en el año de 1914, en la casa Bengolea, pero se trasladó a vivir a Lemoiz cuando se casó con Concha Zorrotzua de Durango. Más conocido como “Peli”, era chófer. Estuvo en los Batallones Mungia, Ariztimuño y Avellaneda.

Ingresó en la Prisión Central de Puerto de Santa María el 18 de agosto de 1938, procedente del Penal de El Dueso. Había sido condenado como *“autor de Auxilio a la Rebelión”* por Sentencia del 7 de diciembre de 1937 del Consejo de Guerra al que fue sometido en Santoña a la pena de 12 años y un día de Reclutamiento Temporal, con Inhabilitación Absoluta durante el tiempo de la condena. Según se dice en la Sentencia, *“de buena conducta fue movilizado dándole la categoría de sargento y después, por antigüedad, la de teniente, cargo que acabó por aceptar aunque en un principio lo quiso rechazar”*. Fue puesto en libertad el 17 de agosto de 1940.



### GARAI URIARTE, VENANCIO

1905ean jaio zan Uribe etxean. EAJko kidea zan, eta Euzkadiko Gudontzidiko parte izan zan Gerra Zibilean.

Beste jente askori lez, gerra-kontsejua egin eutsien, hau da, gerra baino lehenago eta gerran bertan beraren ideak eta jokabidea zelakoak ziran aztertzeko prozesua. Azterketa horretako ondorioen bidez 1938an Bilbon egindako txostenean azaltzen zanez, *"Bizkaiko probintziako agintaldi gorrian"* Venanciok *"eukitako jokabidea, aurrekariak eta jarduketea nahikoa garbituta dagozanez"*, ez da ezelako *"erantzunbehar judizialik"* ikusten. Hori dala eta, ikerketa-prozesua amaitzea erabagi zan. Halanda be, *"auzipetutakoa gorriakaz borondatez behar egin ebanez eta separatista moduan jardue- ra nabaria garatu ebanez"*, Beharginen Batailoira eroatea proponidu eban txostengileak. Burgoseko erabagi-organuak proposamena kontuan hartzea ebatzi eban, eta holantxe egin eben.



Nació en la casa Uribe en 1905. Afiliado al PNV, formó parte de la Marina Vasca (*Euzkadiko Gudontzidia*) en la Guerra Civil.

Como a muchas otras personas, se le sometió a un Consejo de Guerra, es decir a un proceso examinador de sus ideas y de su proceder, antes, y durante la contienda. En el informe con las conclusiones de ese examen, realizado en Bilbao en 1938, se indica que *"suficientemente depurada la conducta, antecedentes y actuación durante el dominio rojo en la provincia de Vizcaya"* de Venancio, no se ven *"responsabilidades de carácter judicial"*, por lo que se acuerda la finalización del proceso investigador, aunque, *"por haber servido el encartado como voluntario de los rojos y ser destacada su actuación como separatista"* se sugiere, por parte del redactor del informe, que se le destine a un Batallón de Trabajadores. El órgano decisorio de Burgos resolvió atender a la sugerencia, de tal manera que así lo hizo.

### GARAI ZABALA, EDUARDO

Lorenzoren eta Lucilaren semea zan, obretako kontratistea zan eta Bengolea baserrian jaio zan. 1937ko garagarriaren 16an, Larrinagako kartzelara eroan ebenean, 59 urte eukazan, ezkondata egoan eta sei seme-alaba eukazan. Euretako bi be zapaldu egin ebezan gudariak izatearren: Félix espetxeratu egin eben, eta Sabino Beharginen Batailoira eroan eben.

Gerra-kontsejuan egin eutsien epaiketan, honako honeexek izan ziran lekukoak: Javier Bidegain eta Anastasio Olaskoaga Goitia. Lehenengoak *arriskutsua ez zana* baieztu eban. Bigarrenaren esanetan, barriz, *nazionalista separatistea zan, beharginen berbea behartu eban eta erdeinuz berba egin eban José Calvo Soteloren ganean*. Bestetik, Eduardok berak adierazo ebanez, *ez zan inongo alderdi politikoko kidea izan, ez eukan idea nazionalistarik eta ez ebazan beharginak behartu euren botoa EAJri emoteko*. Ganera, ezeztu egin eban *Calvo Soteloren ganean erdeinuz berba egin ebana*. Beraren autormenaren amaieran esan ebanez, Bakioko alkateak eta parrokoak bermatu eikien beraren nortasuna.



1937ko garagarriaren 31n emondako epaiaren arabera, askatu egin eben, beraren alde esan eben guztia kontuan hartuta. Hori dala eta, astebete geroago, abuztuaren 7an, aske itxi eben.

Hijo de Lorenzo y de Lucila, era un contratista de obras, originario del caserío Bengolea. Se le recluyó en la cárcel de Larrinaga el 16 de julio de 1937 con 59 años de edad, casado y con seis hijos. Dos de ellos fueron represaliados por ser gudarís, Félix fue encarcelado y Sabino destinado a un Batallón de Trabajadores.

En su juicio del Consejo de Guerra declararon, como testigos, Javier Bidegain, que afirmó que *no lo consideraba peligroso* y Anastasio Olaskoaga Goitia, que, en cambio, señaló que *era nacionalista separatista, que había coaccionado la palabra de obreros y que había hablado despectivamente de José Calvo Sotelo*. Eduardo, por su parte, señaló que *no había pertenecido a ningún partido político, que no tenía ideas nacionalistas y que no coaccionó obreros para que votasen al PNV, además de negar que hubiera hablado despectivamente sobre Calvo Sotelo*. Finalizó su declaración diciendo que podían garantizar su personalidad el alcalde y el párroco de Bakio.

La Sentencia, emitida el 31 de julio de 1937 decretó su libre absolución con todos los pronunciamientos favorables, por lo que, una semana más tarde, el 7 de agosto, fue puesto en libertad.

### GOIENETXEA BILBAO, JUAN

Juan 1892an jaio zan, Rufinoren zein Evaristaren semea zan eta Etxebarrialde baserriko nekazaria zan.

1937ko irailaren 6an, Bilbon egoan Larrinagako kartzelan sartu eben arren, hilebete beraren 26an askatu eben. Ez zan 1937ko zemendian epaitu behar eban gerra-kontsejuan agertu.

1938ko bagilaren 22an, Bilboko espetxe probintzialean sartu eben ostera be, baia Eskolapiokoetatik etorren, zezeilaren 16an espetxeratu ebelako bertan. 1938ko garagarriaren 12an, kartzelatik atara eta epaitu eban gerra-kontsejura eroan eben. Egun horretan bertan, ostera be eroan eben kartzelara.

Epaiari nabarmentzen zanez, idea nazionalistak eukazan, Bakioko Batzokiko burua izan zan eta, Mobimentu Nazionalaren hasikeran, Herriaren Batzordeko buru izentau eben. Kargu horretatik, hain zuzen be, irratiak zein eskopetak konfisketako aginduak emon ebazan, eskoitiarrak salatu ebazan eta, azken baten, batzorde horren berezko eginkizun guztietan esku hartu eban. Hamabi urte eta egunbeteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, matxinadeari laguntzea delitua zalako.

orr.

1938ko garagarriaren beraren 22an, Larrinagako kartzelara eroan eben. Abuztuaren 18an, 45 urte eukazala, Burgoseko espetxe zentralera eroan eben zigorra beteten. Geroago, Astogarko kartzelan egon zan, eta Sevillako Dos Hermanaseko behar-eremuetan be bai. Ostean, jagoletzapeko askatasuna emon eutsien, eta 1945eko bagilean lortu eban behin betiko askatasuna.

Juan, nacido en 1892, era hijo de Rufino y Evarista y de oficio labrador en el caserío Etxebarrialde.

El 6 de septiembre de 1937 se le recluyó en la prisión de Larrinaga, situada en Bilbao, pero fue puesto en libertad el 29 de ese mismo mes. No compareció en el Consejo de Guerra que le tenía que juzgar en el mes de noviembre de 1937.

El 22 de junio de 1938 reingresó en la prisión de provincial de Bilbao procedente de la de Escolapios donde había sido encarcelado el 16 de febrero. Es el 12 de julio de 1938 cuando fue sacado de la cárcel para ser llevado ante el Consejo de Guerra que le juzgó, siendo devuelto a prisión ese mismo día.

En la Sentencia se resalta que era de ideas nacionalistas y presidente del Batzoki de Bakio, y que, al inicio del Movimiento Nacional fue nombrado presidente del Comité del Pueblo desde cuyo puesto intervino ordenando requisas de aparatos de radio y escopetas, cursando denuncias de personas de derechas y, en suma, interviniendo en cuantas funciones eran propias de dicho Comité. Se le condenó a una pena de doce años y 1 día de Reclusión como autor de un delito de Auxilio a la Rebelión.

El día 22 de ese mismo mes de julio de 1938 fue trasladado a la cárcel de Larrinaga. El 18 de agosto, con 45 años de edad, fue conducido a la prisión central de Burgos, a cumplir su condena. Más tarde, estuvo ingresado en la cárcel de Astorga y en los campos de trabajo de "Dos Hermanas", en Sevilla. Posteriormente, le fue concedida la Libertad Vigilada, consiguiendo la Libertad Definitiva en junio de 1945.

### GOIKOETXEA LOTINA, JUSTO

Joséren eta Ferminaren semea zan, eta 1908an jaio zan. Meñakakoa izan arren, Bakion bizi zan, eta okina zan. Altamira etxean bizi zan (hondartzearen alboan), eta okindegia edegi eban bertan. 29 urte eukazala, 1937ko zemendiaren 11n, Bilboko espetxe probintzian sartu eben, baia Deustuko Unibersidadeko kartzelatik etorren.

1937ko irailaren 24an, beraren aurkako gerra-kontsejua egin zan. Izan be, epaian bertan adierazoten dan lez, *"Euzkadiko Gudarostean emon eban izena berari egokoa deialdia egin ebenean, eta berak aukeratuta sartu eben 26. Batalioiko 13. Brigadan. Ezkertiartzat joten eben, eta, batalloi horregaz, fronte baten edo bestean parte hartu eban, harik eta alde egitea lortu eta La Arboledako frontean gure indarrakaz bat egin eban arte. Izan be, egiaztauta dago bertan sartu eta Bakion bizi baino lehen, jentea borondatezko batalloi gorri separatistetan izena emoteko propagandea egin ebana"*. 12 urte eta egunbeteko aldi baterako kartzela-zigorra ezarri eutsien matxinada militarri laguntzearen.

1937ko zemendiaren 26an, ur ganeko Upo-Mendi espetxera eroan eben; eta, ostean, 1938ko maiatzaren 16an, Cuellarreko espetxe zentralera, zigorraren garetikoa beteten. 1944ko maiatzaren 6an lortu eban behin betiko askatasuna.

Hijo de José y de Fermina, había nacido en 1908. Aunque natural de Meñaka, era vecino de Bakio y panadero de profesión. Vivía en la casa Altamira (junto a la playa) donde abrió la panadería. Con 29 años de edad, el 11 de noviembre de 1937, ingresó en la Prisión Provincial de Bilbao procedente de la cárcel Universidad de Deusto.

El 24 de septiembre de 1937 se celebró un Consejo de Guerra contra él ya que, según se cita en la Sentencia del mismo, *"se alistó en el ejército vasco por llamamiento de su reemplazo, ingresando por su elección en el Batallón 26, brigada 13, considerado como de significación izquierdista, y con él actuó en varios frentes hasta que logró evadirse y pasarse a nuestras fuerzas por el frente de La Arboleda estando acreditado que con anterioridad a su incorporación y a su vecindad de Bakio, realizó labor de propaganda para el alistamiento de gente en los Batallones voluntarios rojo-separatistas"*. Su condena fue de 12 años y un día de Reclusión Temporal por Auxilio a la Rebelión militar.

El 26 de noviembre de 1937 fue trasladado a prisión flotante Upo-Mendi y, posteriormente, el 16 de mayo de 1938, fue conducido a la Prisión Central de Cuéllar para cumplir el resto de su condena. Obtuvo la Libertad Definitiva el 6 de mayo de 1944.

### IMATZ ARRUTZAZABALA, TOMÁS

Tomás 1912an jaio zan Bakion, Garai etxean, eta Marcelinoren zein Julianaren semea zan. Egokitzaila zan, eta Gerra Zibilean parte hartu eban Ariztimuño batalioian.

1937ko irailaren 30ean, gerra-kontsejua egin eutsien Santoñan. Hogei urteko aldi baterako kartzela-zigorra ezarri eutsien, eta, horren osogarri be, kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben epealdi horretan. Ganera, epaian bertan azaltzen danez, beraren kinteak mobilizau eban, eta, kabu zein teniente moduan, zerbitzuak eskaini ebazan frontean.

Lehenengotan Duesoko kartzelan sartu eben eta gero, Puerto de Santa Mariara mugitu eben. Preso egon zan 1938ko agorritetik 1940ko agorritera.

Tomás había nacido en Bakio, en la casa Garai, en 1912, hijo de Marcelino y Juliana. Su profesión era la de ajustador y tomó parte en la Guerra Civil dentro del batallón Ariztimuño.

El 30 de septiembre de 1937 se le sometió a un Consejo de Guerra en Santoña. La condena que se le impuso ascendió a veinte años de Reclusión Temporal con la pena accesoria de Inha-



bilitación Absoluta durante ese período y, según señala la Sentencia, fue movilizado por su quinta, prestando servicios en el frente como cabo y teniente.

Fue aprisionado primeramente en el Penal de el Dueso y después fue trasladado al Puerto de Santa María, permaneciendo preso entre los meses de agosto del año 1938 al del año 1940.

### IMATZ BILBAO, CASIANO

Casiano Juan Joseren eta Gregoriaren semea zan. 1866an jaio zan, arotza izan zan eta EAJko kidea zan. Ermua bekoa etxean jaio bazan be, ezkondukoan, Bidezabal etxera joan zan biziten.

Batzokiko kidea zan, EAJko udal-erakundeko burua izan zan 1911n eta, ostean, Udal Batzordeko burua izan zan 1933an eta 1935ean. Gerra-kontsejua egin eutsien, eta leporatu egin eutsien *“EAJko kidea zala, tokian-tokian eukan eraginagaitik bertako kide nabaria izan zala, Udal Batzordeko burua izan zala Mobimentuaren aurretik eta, agintaldi marxistan, bete-betea parte hartu ebala udalerriko gazteak bultzatzeko kanpainan, milizia gorri separatistetan sartu eitezan. Ganera, azaldu be egiten zan erlijioso bi euki ebazala etxean ostenduta, jazarpen marxistetatik babesteko”*.

1938ko urtarrilean emondako epaian, matxinadeari lagundu eutsala leporatu eutsien, baia ondo kualifikatuko inguruabar aringarria zan gaiztoa ez izatea eta beraren jarduketak garrantzitsuak ez izatea. Hori dala eta, sei urte eta egunbeteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, ezin izango eban ezelako kargurik bete eta ez eban botoa emoteko eskubiderik eukiko.

1937ko urriaren 22an, 71 urte eukazala, Bilbon egoan Larrinagako espetxe probintzian sartu eben. Ezkondu egoan, eta zazpi seme-alaba eukazan. 1939ko maiatzaren 4an, kartzela horretatik atara eben, eta Guardia Zibilak Galiziako San Simoneko espetxe-koloniara eroan eban. Ezin izan dira osteko datu gehiago lortu, beraren espedientea besteategaz lotu ebelako eta ezin izan dalako aztertu.

Casiano era hijo de Juan José y de Gregoria. Nacido en 1866, fue carpintero y afiliado al PNV. Nació en Ermua bekoa pero cuando se casó pasó a vivir en la casa Bidezabal.

Miembro del PNV, presidió la organización municipal en 1911 y posteriormente fue presidente de la Junta Municipal en los años 1933 y 1935. Se le sometió a Consejo de Guerra, según la acusación, por ser *“afiliado al PNV y muy destacado dentro del mismo por su influencia local, fue Presidente de la Junta Municipal con anterioridad al Movimiento, actuó muy intensamente durante la dominación marxista en campaña de excitación sobre los jóvenes de la localidad para su incorporación a las milicias rojo-separatistas, constando que mantuvo en su casa escondidos a dos religiosos para así sustraerlos a las persecuciones marxistas”*

En la Sentencia que se dictó, en enero de 1938, se le inculcó por Auxilio a la Rebelión pero con la circunstancia atenuante, muy cualificada, de falta de perversidad y trascendencia en sus actuaciones, imponiéndosele una pena de seis años y un día de prisión y la suspensión de todo cargo y derecho a sufragio.

El 22 de octubre en 1937, con 71 años de edad, casado y con siete hijos, ingresó en la prisión provincial de Bilbao (Larrinaga). El 4 de mayo de 1939 fue sacado de esa cárcel y conducido, por la Guardia Civil, con destino a la Colonia Penitenciaria San Simón (Galicia). No ha sido posible obtener más datos posteriores, debido a que su expediente se unió a otro, que no se ha podido examinar.

### JAUREGIZAR UGARTE, IGNACIO

Ignacio EAJko kidea zan, eta 1915ean jaio zan Bakion, Jaureguizar baserrian, Bilbon erroldatuta baegoan be. Sopletelari-egokitzaila zan. Bakioko nazionalista antxinakoenetarikoa zan Cipriano Jauregizarren semea zan.

Beraren zigor-espedienteko datuen arabera, ez dago jakiterik zergaitik atxilotu eta espetxeratu eben hainbat eta hainbat bider, askok egun gitxi batzuk bakarrik iraun arren. Honako honeexek dira:

- 1939ko apirilaren 21ean, 24 urte eukazan, ezkondu egoan eta ez eukan seme-alabarik. Bizkaiko espetxe probintzian eroan eben komisariatik, indar armauak bertara eroan ostean.
- 1939ko zemendiaren 27an, Karmeloko kartzelara eroan eben, baia lekualdaketa hori ezeztu egin zanez, egun bi geroago, zemendiaren 29an, aske itxi eben.
- 1940ko bagilaren 15ean, ostera be espetxeratzeko ebazpena hartu zan. Bilboko Instrukzinoko 4. Epaitegiaren esku lotu zan, eta, hiru egun geroago, bagilaren 18an, aske itxi eben.
- 1941eko urtarrilaren 18an, ostera be espetxeratu eben, eta 125. auzia edegi eutsien gerra-kontsejuan. Lau hilebete eta egunbeteko kartzela-zigorra ezarri eutsien urte beratako zezeilaren 6ko Epaiaren bidez. 1941eko maiatzaren 13an, behin betiko askatu eben.
- Ostera be, 1942ko bagilaren 16an, Larrinagako kartzelan espetxeratu eben, indar armauak eroan ostean. Egun pare bat geroago, bagilaren 18an, askatu egin eben.
- 1942ko urtarrilaren 31n, ostera be espetxeratu eben Larrinagako kartzelan, eta zezeilaren 7an baieztu eben akusazioa. Martiaren 17an, kasuan kasuko ebazpenaren bitartez, agintaritzan militarra jurisdikzino arruntaren alde inhibidu zan, eta, martiaren beraren 30ean, Bilboko Instrukzinoko Epaitegiaren esku lotu zan. Hurrengo egunean, 1943ko martiaren 31n, Gipuzkoako Gobernu Zibilaren aurrean ezelako erantzunbeharririk ez eukala ebatzi zanez, orduan bai, behin betiko itxi eben aske, 1943. urteko bertako apirilaren 9an.



orr.

Ignacio, afiliado al PNV, había nacido en Bakio en 1915, caserío Jaureguizar, aunque estaba avecindado en Bilbao, dedicándose al oficio de sopletero-ajustador. Era hijo de Cipriano Jaureguizar, uno de los más antiguos nacionalistas de Bakio.

De los datos de su expediente penal no es posible saber la razón de las numerosas detenciones y reclusiones que se le practicaron, muchas de ellas de muy pocos días de duración, y que son las siguientes:

- El 21 de abril de 1939, con 24 años de edad, casado y sin hijos ingresó en la Prisión Provincial de Bizkaia, procedente de la comisaria, siendo entregado por la fuerza armada.
- El 27 de noviembre de 1939 es trasladado a la prisión del Carmelo, aunque dicho traslado se anuló, y fue puesto en libertad dos días más tarde, el 29 de noviembre.
- El 15 de junio de 1940 se dispuso su reingreso en prisión, quedando a disposición del Juzgado de Instrucción nº4 de Bilbao, siendo puesto en libertad tres días después, el 18 de junio.
- 18 de enero de 1941 reingresó nuevamente en prisión y se le instruyó la causa nº 125 en el Consejo de Guerra, siendo condenado a una pena de cuatro meses y un día, por Sentencia del 6 de febrero de ese mismo año. El 13 de mayo de 1941 se produjo su liberación en aquel momento de carácter definitivo.
- Una vez más, el 16 de junio de 1942 fue recluido en la Prisión de Larrinaga, entregado por la fuerza armada. Un par de días después, el 18 de junio, fue puesto en libertad.
- El 31 de enero de 1942 ingresó, nuevamente, en la Prisión de Larrinaga, ratificándose la acusación, el 7 de febrero. El 17 de marzo, mediante la correspondiente resolución, la autoridad militar se inhibió en favor de la jurisdicción ordinaria, quedando, el día 30 del mismo mes de marzo a disposición del Juzgado de Instrucción de Bilbao. Al día siguiente, 31 de marzo 1943, se le declaró sin responsabilidad alguna ante el Gobierno Civil de Gipuzkoa, por lo que quedó en libertad, esta vez sí, de forma definitiva, el 9 de abril de ese año 1943.



## LARRAURI BILBAO, MIGUEL

Miguel Errotatxu baserrikoa zan. Adriánen zein Fidelaren semea aparejadorea zan.

Honako errazoi honegatik salatu eban alkateak: *"prozesuan, beraren jokabidea ezin txarragoa izan zan herriko eskoitiarrentzat. Izan be, hain gaiztoa zanez, Bakion ezkutuan egozan familiei be kidetza eskoitiarrekoak ziran esan eragiten eutsen, eta, gero, horren barri emoten eutsen gorriei"*. Hori dala eta, Larrinagako kartzelan espetxeratu eban 1937ko garagarrilaren 17an, 15 urte eukazala. Egun batzuk geroago, hilebete beraren 19an, hain zuzen be, aske itxi eban.

1948ko zezeilean, ez dakigu zergaitik, baia gerra-kontsejua egin eutsien, eta honako hauxe zala azaldu eban epaian *"Espainia iraindu eban nazionalista amorratua. Borondatez ebakuau eban Bakioko herria"*. Hilebete bi eta egunbeteko kartzela-zigorra ezarri eutsien iruzurragaitik. Hori dala eta, 1948ko maiatzetik bagilera espetxeratu eban.

Miguel era del caserío Errotatxu, e hijo de Adrián y de Fidela, de profesión aparejador.

Fue denunciado por el alcalde con el siguiente motivo: *"Durante el proceso su actuación fue desdichadísima para las derechas del pueblo, pues era de tal mala saña que a familias que estaban de incógnito en Baquio sonsacaba noticia de su filiación derechosa, comunicándole luego a los rojos"*, a raíz de lo cual es recluido en la cárcel de Larrinaga el 17 de julio de 1937 con 15 años de edad, días después, el 19 de ese mismo mes concretamente es puesto en libertad.

En febrero de 1948, se desconocen los motivos, es sometido a Consejo de Guerra y la Sentencia indicó que era un *"nacionalista acérrimo que injurió a España. Evacuó por su voluntad el pueblo de Baquio"*. Fue condenado a dos meses y un día de prisión por delito de estafa, por lo que fue encarcelado de mayo a junio de 1948.

## LARRAZABAL BILBAO, FÉLIX

Amaren izena baino ez dakigu, María. Plentzian jaio bazan be, Bakion bizi zan, eta "Iru-rak-bat" zentral elektrikoa ardurapean eukan argiketaria zan. Julián Larrazabalen aita zan, Ariztimuño batailloiko kapitaina izan zan eta gerra-kontsejua egin eutsien.

1937ko garagarrilaren 9an, 59 urte eukazan, ezkondua egoan eta 8 seme-alaba eukazan, Bilbon egoan Larrinagako kartzelan espetxeratu ebenean. 1937ko irailaren 22ko Epaiaren bidez, matxinadea bultzatzearen ezarri eutsien sei urte eta egunbeteko espetxealdi handiko zigorra. Horren osogarri be, ezin izango eban ezelako kargurik bete, eta ez eban botoa emoteko eskubiderik eukiko, zigorrak iraun bitartean. Izan be, *"lau urte lehenago, alderdi jeltzaleko kide egin zan, eta separatista nabari-nabaria zan. Beti-beti, Bizkaiko mobimentu erreboltaria baino lehen eta ostean, idea nazionalisten propagandistea izan zan bete-betea, eta, behin baino gehiagotan, tirania marxistan, eskoiko presoan kontra egin eban aldarri, jentaurrean, hil egin behar ebezala esanda"*.

1937ko urriaren 10ean, ur ganeko Upo-Mendi espetxera eroan eban. 1938ko urtarrilaren 27an, Bilbon egoan Karmeloko kartzelan sartu eban. 1939ko martiaren 4an, bertatik urten eban, eta Guardia Zibilak Galiziako San Simon ugarteko espetxe-koloniara eroan eban zigorra beteten. 1944ko garagarrilaren 26an, askatasun osoa emon eutsien.

Sólo conocemos el nombre de su madre, María. Aunque nacido en Plentzia, era vecino de Bakio y de profesión electricista responsable de la central eléctrica "Iru-rak-bat". Padre de Julián Larrazabal, fue capitán del batallón Ariztimuño y sometido a Consejo de Guerra.



El 9 de julio de 1937, con 59 años de edad, casado y con 8 hijos, fue recluido en la Prisión de Larrinaga, de Bilbao. Fue condenado por Sentencia del 22 de septiembre de 1937 y por un delito de Excitación a la Rebelión a seis años y un día de Prisión Mayor con las accesorias de suspensión de todo cargo y derecho de sufragio durante la condena ya que, siendo *"afiliado al partido nacionalista desde hacía cuatro años y considerado como separatista muy significado, actuó siempre, antes y después del movimiento subversivo en Vizcaya como propagandista activo de las ideas nacionalistas y en varias ocasiones profirió exclamaciones en público contra los presos de derechas durante la tiranía marxista manifestando que era preciso asesinarlos"*.

El 10 de octubre de 1937 fue trasladado a la prisión flotante Upo-Mendi. El 27 de enero de 1938 ingresó en la prisión del Carmelo en Bilbao. El 4 de marzo de 1939 salió, conducido por la Guardia Civil, con destino a la Colonia Penitenciaria Isla de San Simón (Galicia), a cumplir condena. El 26 de julio de 1944 se le concedió la Libertad Total.

### LARRAZABAL UNIBASO, JULIÁN

Félixzen zein Asunciónen semea zan, eta 1913an jaio zan Plentzian, Bakioko biztanle moduan Goikolea errotan bizi izan bazan be. Argiketaria zan.

Beraren edadeagaitik, mobilizau egin eben, eta Ariztimuño, Sukarrieta eta Padura bataioietara bialdu eben. Teniente egin eben; eta, gero, kapitai. Fronte batzuetan egon zan, eta, *"Reinosakoan, ez eutsen indar nazionalei eraso egin gura izan, eta Santoñarantz alde egin eban. Bertan, presoak askatu ebezan, indar nazionalen aurrean errendidu zan eta, berari esker, ez eben erreketete bat fusilau"*.

1937ko irailean Santoñan egin eutsien gerra-kontsejuan, biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien. Horren osogarri be, galarazpen zibila ezarri eta kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben betiko. 1938ko abuztuaren 18an, Puerto de Santa Marian espetxeratu eben 25 urte eukazala, Duesoko kartzelatik eroan ostean.

1940ko garagarriaren 2an, espetxealdi arindua ezarri eutsien, eta jagoletzapeko askatasunean egon zan 1950eko abendura arte.

Hijo de Félix y Asunción, nació en 1913 en Plentzia, aunque vivió, como vecino de Bakio, en Goikolea. Era electricista.

Fue movilizado por su edad y destinado a los Batallones Ariztimuño, Sukarrieta y Padura. Fue ascendido a teniente y posteriormente a capitán, actuando en diversos frentes *"negándose en el de Reinosa a atacar a las fuerzas nacionales y marchando a Santoña donde pusieron en libertad a los presos entregándose a las fuerzas nacionales y evitó el fusilamiento de un requeté"*.

En el Consejo al que fue sometido en Santoña, en septiembre de 1937, fue condenado a la pena de Reclusión Perpetua con las accesorias de Interdicción Civil e Inhabilitación Absoluta Perpetua. Fue recluido en la Prisión de Puerto de Santa María el 18 de agosto de 1938, con 25 años de edad, procedente del Penal de El Dueso.

El 2 de julio de 1940 se le decretó Prisión Atenuada, estando en Libertad Vigilada hasta diciembre de 1950.



### LEGARRETA OAR, MARTIN

Pabloren eta Margaritaren semea zan, eta, Errigoitin jaio bazan be, Bakion bizi zan, Mendialde baserrian, hain zuzen be.

45 urte eukazan, eta ezkondata egoan, 1937ko garagarrilean atxilotu ebenean. 1937ko abuztuaren lauan Bilbon egindako 461/37 Gerra Kontsejuan, 30 urteko kartzela-zigorra ezarri eutsien matxinateagaz bat egitearren. Zigor hori, barriz, jatsi egin eben azkenean, eta 6 hilebete eta egunbeteko kartzela-zigorra ezarri eutsien. Beraren autormenean esan ebanez, *"EAJkoa izan zan, eta alderdi horretako Udal Batzordeko bokal egin eben; eta, gero, buru. Halanda be, bertan behera itxi eban kargua, herrigunetik asago bizi zalako"*. Era beratan, Euskal Estatutua defendiduten ebalabada adierazo eban.

Zigorra ezarri ostean, Vigoko itsasadarrean egoan ur ganeko Upo-Mendi kartzelan espetxeratu eben, 1937ko urrian bertan, Iruñeko San Kristobal gotorlekura eroan baino lehen. Martinek be inesaldi jentetsuan alde egin eban, baia, zoritxarrez, hiru kide bakiotarrak lez, arrapau eta espetxera eroan eben osterabean.

Azkenean, espetxealdi arindua lortu eban 1940. urtean, eta 1945era arte egon zan jagoletzapeko askatasunean, urte horretan behin betiko askatasuna emon eutsien-eta.

Hijo de Pablo y de Margarita, era natural de Errigoitia, aunque vecino de Bakio, concretamente del caserío Mendialde.

Con 45 años de edad, y estando casado, fue detenido en julio de 1937. En el Consejo de Guerra nº 461/37, celebrado en Bilbao el cuatro de agosto de 1937, fue condenado a 30 años de prisión por un delito de Adhesión a la Rebelión, pena que fue finalmente conmutada por la de 6 meses y 1 día de prisión. En su declaración dijo que *"había pertenecido al PNV, que le hicieron vocal de la Junta Municipal de ese partido, y luego Presidente y que dimitió por vivir lejos del núcleo del pueblo"*. También manifestó que defendía el Estatuto Vasco.

Tras su condena fue recluido en la Prisión flotante Upo-Mendi, situada en la Ría de Vigo, antes de ser trasladado al Fuerte de San Cristóbal, en Pamplona, el mismo mes de octubre de 1937. Martín también escapó en la fuga masiva, pero, desgraciadamente, corrió la misma suerte que los tres compañeros bakiotarras y fue capturado y devuelto a la prisión.

Finalmente obtuvo la Prisión Atenuada en el año 1940, estando en Libertad Vigilada hasta 1945, año en el que obtuvo la Libertad Total y Definitiva.



orr.

## LONGARAI LAUZIRIKA, CECILIO

Dimasen eta Ricardaren semea zan, eta 1901ean jaio zan. Mungiakoa bazan be, Bakion bizi zan. Bizargina zan, eta beraren emaztearen izena Mercedes zan. Batzoki etxean (Longarai), tabernea eta bizartegia eukazan. Bakioko Batzokia be eraikin beratan egoan.

1937ko irailean Santoñan egin eutsien gerra-kontsejuko epaiaren arabera, 1936ko abendu-nduan, boluntario joan zan gudari nazionalisten Ariztimuño batailoira, eta, bertan, teniente egin eben. Ubideko frontean egon zan hilebete, eta zauritu egin eben. Gero, Padura batailoira joan zan konpainiako brigada intendente. Santoñan atxilotu eben. 30 urteko kartzela-zigorra ezarri eutsien. Horren osogarri be, galarazpen zibila ezarri eta kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben zigorrak iraun bitartean.

Antonio Alegria parrokoak idatziz ziurtatu eban Cecilioen "jokabide moral zein erlijiosoa atxakiabakoa izan zana (...). *"Ostatu" apal baten jaubea zanez, beti-beti kide eskoitiarrak euki ebazan etxean. Euren artean, Jesusen Bihotzaren abade agurgarri bat, beraren ohiko bizilekua Belgikan euki arren Santanderretik inesi ailegau zana*". Besteak beste, abadeak horixe esan eban beraren alde.

1938ko abuztuaren 6an, Puerto de Santa Mariako kartzelan sartu eben, Duesoko espetxetik eroan ostean. Preso egon zanean, emaztea eta seme-alabak Lutxanan bizi zan izeko baten etxean bizi izan ziran. Izan be, bertara joan ziran. 1940ko irailaren 14an, jagoletzapeko askatasuna lortu eban, eta familia Bakion alkartu zan ostera be. 1950eko abendura arte ez eban behin betiko askatasun osoa lortu.

1940an kartzelatik atzera etorri zanean, nazionalek beraren Batzoki etxea goitik behera laskitu ebela ikusi eban: hausitako kristalak, sutearen lorratzak... Hori dala eta, ezin izan eban edegi ez tabernea ez bizartegia. Ganera, ez eutsien ixten ezelako jaubetzarik eta jarduera ekonomikorik beraren izenean eukiten. Hori dala eta, azkenean, Isabel arrebearen esku itxi behar izan eben guztia. Bien bitartean, Ceciliok ibili behar izaten eban inoren uleak ebagiten, beraren eta familiaren bizitzako eguneroko kostuari aurre egiteko moduko diru-sarreraren bat euki ahal izateko (seme bi eta alaba bat eukazan). Jagoletzapeko askatasunean egon zanean, behin eta barriro aurkeztu behar eban Bermeoko Guardia Zibilean.

Hijo de Dimas y de Ricarda, nacido en 1901, era natural de Mungia, aunque vecino de Bakio. Era barbero de profesión y su esposa se llamaba Mercedes. En la casa Batzoki (Longarai), tenía un bar y también la barbería. En ese mismo edificio se ubicaba, asimismo, el Batzoki de Bakio.

Según la Sentencia del Consejo de Guerra, celebrado en Santoña, y al que fue sometido en septiembre de 1937, en el mes de diciembre de 1936 se había presentado como voluntario al batallón Ariztimuño de gudarías nacionalistas donde le nombraron teniente. Estuvo en el frente de Ubidea durante un mes y allí fue herido. Después pasó al batallón Padura como brigada intendente de la compañía. Fue detenido en Santoña. Se le condenó a la pena de 30 años de reclusión con la pena accesoria de Interdicción Civil durante el tiempo de la condena e Inhabilitación Absoluta.

El párroco Antonio Alegria certificó por escrito que Cecilio había tenido *"intachable conducta moral y religiosa (...) como dueño de una modesta "pensión" tuvo durante todo el tiempo en su casa afiliados derechistas, entre ellos un R.P. de los Sagrados Corazones cuya residencia habitual tenía en Bélgica y que llegó huyendo de Santander"*. Son algunas de las afirmaciones que el cura emitió a su favor.

Ingresó en la Prisión de Puerto de Santa María el 6 de agosto de 1938 procedente del Penal de El Dueso. Durante el periodo en el que estuvo preso, su mujer y sus hijos residieron en el domicilio de una tía que vivía en Lutxana, hasta donde se trasladaron. El 14 de septiembre de 1940 consiguió la Libertad Vigilada la familia se reagrupó en Bakio. No fue hasta diciembre de 1950 cuando obtuvo la Libertad Total y Definitiva.

Cuando en 1940 volvió de la cárcel encontró su casa Batzoki completamente destrizada por los nacionales: cristales rotos, restos de incendio..., de tal manera que no pudo abrir el bar ni tampoco la barbería. Además, no le permitían tener ninguna propiedad ni actividad económica a su nombre por lo que, finalmente, tuvieron que asignar todo a su hermana Isabel. Cecilio, mientras tanto, se vio forzado a cortar el pelo clandestinamente para poder, así, tener algún ingreso económico con el que afrontar el costo diario de su vida y la de su familia (tenía dos hijos y una hija). Al estar en Libertad Vigilada, tenía que presentarse continuamente ante la Guardia Civil de Bermeo.

## MARKAIDA AZERETXO, SEGUNDO

Feliperen eta Norbertaren semea zan, beraren emaztea María zan eta Azeretxo baserrikoak ziran. Bakioko Udaleko zinegotzia izan zan 1931tik 1937ra arte. "Kaixer" esaten eutsien.

1937ko garagarriaren 17an, Larrinagako kartzelan sartu eben 50 urte eukazala. Ezkonduta egoan, eta bost seme-alaba eukazan. San Pelaioko Aniceto Elorriaga Urrutikoetxea abadeak ziurtatu egin eban Segundoren jokabidea atxakiabakoa zana.

Edozelan be, Segundori gerra-kontsejua egin eutsien Bilbon. Kontseju horretan autortu ebanez, *"Euzko Alderdi Jeltzalekoa izan zan, eta erakunde horretako ordezkaria zan zinegotzi aukeratu eben 1931n. Ganera, 1937ko urtarrilean, zezeilean, martian eta apirilean, Gizarte Laguntzako Batzordeko bokala izan zan, eta janaria bananduten eban erre Fujiaduen artean"*. Beraren esanetan be, *"ez eban ezelako atxiloketan, konfiskazioan eta araketan parte hartu, eta, Bakioko gaur eguneko epailea eta Lorenzo Aginaga atxilotu ebezanean, euren jokabidea bermatu eban kasuan kasuko instantzietan, eta askatu egin ebezan"*.

Abuztuaren 6an emondako epaian adierazoten danez, *"Gizarte Laguntzako funtzionarioa izan zan, baita Batzorde gorriko bokala be, eta, horrezaz ganera, mutil gazteak be erreklutau ebazan frontera bialtzeko"*. Hori dala eta, 20 urteko biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien matxinada militarraz bat egitearren.



1937ko urriaren 11n, Iruñeko espetxe zentralera eroan eben zigorra beteten. Ostean, Iruñean be baegoan San Kristobal gotorlekuko kartzelara eroan eben. 1938ko maiatzaren 22ko inesaldian parte hartu eban, arrapau eta ostera be espetxeratu egin baeben be.

1940ko irailean, espetxealdi arindua emon eutsien. Atzera etorri zanean, birikietakoak jota egoan. Abenduan, behin betiko askatasun osoa lortu eban.

Hijo de Felipe y de Norberta, su mujer se llamaba María y eran del caserío Azeretxo. Fue concejal del Ayuntamiento de Bakio entre 1931 y 1937. Se le conocía por "Kaixer".


Fue denunciado y recluido en la cárcel de Larrinaga el 17 de julio de 1937, con 50 años de edad, estando casado y con cinco hijos. El cura de San Pelaio Aniceto Elorriaga Urrutikoetxea certificó que Segundo tenía una conducta intachable.

No obstante, Segundo tuvo que sufrir un Consejo de Guerra, que se celebró en Bilbao. En ese Consejo declaró "que había pertenecido al Partido Nacionalista Vasco, saliendo elegido concejal representante de esa organización en el año 1931 y que durante los meses de enero, febrero, marzo y abril de 1937 había sido vocal del Comité de Asistencia Social, encargado de hacer el reparto de los comestibles para los refugiados". También manifestó que "no había tomado parte en ninguna detención, incautación ni requisas, y que cuando fueron detenidos el actual Juez de Baquio y Lorenzo Aginaga, garantizó su conducta ante las instancias correspondientes y que fueron puestos en libertad".

En la Sentencia que se emitió el 6 de agosto se indica que había sido "funcionario de Asistencia Social y asimismo Vocal del Comité rojo, dedicándose además a la recluta de mozos, para enviarles al frente" y se le condenaba a una pena de Reclusión Perpetua de 20 años por un delito de Adhesión a la Rebelión militar.

El 11 de octubre de 1937 fue trasladado a la Prisión Central de Pamplona a cumplir condena. Posteriormente, fue trasladado al Penal del Fuerte de San Cristóbal, situado también en Pamplona. Tomó parte en la fuga del 22 de mayo de 1938 si bien fue apresado y nuevamente encarcelado.

En septiembre de 1940 se le concedió la Prisión Atenuada. Volvió con tuberculosis y en diciembre consiguió la Libertad Total y Definitiva.



## MATIA PASCUAL, JUAN

Juan Manuelen eta Gregoriaren semea zan, eta jostuna zan. 36 urte eukazan, ezkondua egoan eta bost seme-alaba eukazan, 1937ko bagilaren 26an Larrinagako kartzelan sartu ebenean.

1937ko urrian, gerra-kontseilua egin eutsien Bilbon, eta leporatu egin eutsien "bertatik Bakioko herrira joan zala Mobimentu Nazionala hasi ostean. Bertan, ganera, Batzorde haren konfiantzea eukanez, bertako aguazil izentau eben, eta, euren zerbitzupean, erregistroak zein atxilotetak egin ebazan jente nazionalaren etxean. Bestetik, herri horretako milizianoak be prestau ebazan, euren ariketa fisikoak eta gimnasiakoak zuzentzen ebazan-eta". Hori dala eta, hamabi urte eta egunbeteko kartzela-zigorra ezarri eutsien.

1937ko zemendiaren 20an, Bilboko Eskolapioetako kartzelara eroan eben.

la-ia urtebete geroago, 1939ko urriaren 26an, Urduñako espetxe zentralera eroan eben. Bertatik, hilebete garrenean, Valdemoroko kartzelara eroan eben, era bateko eta besteko beharrak egin eizan. 1940ko maiatzean, Soriako Burgo de Osmako kartzelara eroan eben, handik hur-hur egoan San Leonardo de Jagueko udalerrian behar egin eian. 1940ko bagilaren 2an, aske itxi eben

orr.

Hijo de Manuel y de Gregoria, Juan era modisto (sastre) de profesión. Con 36 años de edad, casado y con cinco hijos, el 26 de junio de 1937 ingresa en la cárcel de Larrinaga.

En octubre de 1937 se le somete a un Consejo de Guerra en Bilbao donde se le imputa haberse *“trasladado después de iniciarse el Movimiento Nacional de esta plaza al pueblo de Baquío donde gozando de la confianza de aquel Comité fue nombrado alguacil del mismo, a cuyo servicio practicó registros y detenciones en casa de elementos Nacionales, así como también se ocupó del adiestramiento de los milicianos del dicho pueblo, dirigiendo sus ejercicios físicos y gimnásticos”* y se le condena a doce años y un día de prisión.

El 20 de noviembre de 1937 es trasladado a la cárcel de los Escolapios de Bilbao. Casi un año más tarde, el 26 de octubre de 1939, es conducido a la prisión central de Orduña. De allí, al de un mes, se le lleva a la Prisión de Valdemoro con el fin de efectuar allí ciertos trabajos. En mayo de 1940 se le conduce a la Cárcel de Burgo de Osma (Soria) para que trabajara en la población relativamente cercana de San Leonardo de Jague. El 2 de junio de 1940 se le concede la libertad.

## MINTEGI BILBAO, SEGUNDO

Segundo Leandoren eta Anastasiaren semea zan. Zapatagina zan, eta 1913an jaio zan Saituena etxean. EAJko kidea zan, eta Ariztimuño batailoiko gudaria be izan zan.

1937ko zemendiaren 10ean, 25 urte eukazala, Larrinagako kartzelan espetxeratu eben, baia Logroñotik etorren. 1938ko zezeilaren 23an, gerra-kontsejua egin eutsien, eta leporatu egin eutsien *“jokabide oneko pertsona eta euskal alderdi separatistako kidea izanda, eskoitiar bila ibili zala. Guardiaren txostenean, barriz, ez zan besterik esaten horren ganean”*.

Hamabi urte eta egunbeteko aldi baterako kartzela-zigorra ezarri eutsienez, 1938ko urriaren 7an, Guardia Zibilak Vigoko itsasadarreko San Simoneko espetxe-koloniara eroan eban. 1940ko garagarriaren 1ean, espetxealdi arindua emon eutsien, eta, 1945eko apirilaren 13an, beraren zigorra likidau eben.

Segundo era hijo de Leandro y Anastasia. Era zapatero de profesión y había nacido en 1913 en la casa Saituena. Afiliado al PNV, fue gudari del batallón Ariztimuño.

El 10 de noviembre de 1937, con 25 años de edad, es ingresado en la cárcel de Larrinaga procedente de Logroño. Fue sometido a un Consejo de Guerra celebrado el 23 de febrero de 1938 bajo la acusación de que, siendo un *“sujeto de buena conducta y afiliado al partido separatista vasco, intervino en la busca de personas de derechas, sin que en el informe de la Guardia se concrete más sobre el particular”*.

Condenado a una pena de doce años y un día de Reclusión Temporal, el 7 de octubre de 1938 fue conducido por la Guardia Civil con destino a la Colonia Penitenciaria de San Simón (Ría de Vigo). El 1 de julio de 1940 se le concedió la Prisión Atenuada siendo liquidada su condena el 13 de abril de 1945.

## MURUAGA AGIRRE, CRESCENCIO

Crescencio nekazaria zan, Eugenioren zein Franciscaren semea zan eta 1904an jaio zan Kurtzikena etxean.

1937ko abuztuaren 17an, Bilbon egoan Larrinagako kartzelan espetxeratu eben, 33 urte eukazala. Behin-behineko espetxealdian egon ostean, urte beratako zemendiaren 23an Bilbon egindako gerra-kontsejuan epaitu eben. Hilebete beraren 30ean, behin betiko askatu eben epaitutako egitateek garrantzirik ez eukielako.

Crescencio era labrador, hijo de Eugenio y de Francisca, y había nacido en 1904 en la casa Kurtzikena.

El 17 de agosto de 1937 fue recluido en la cárcel de Larrinaga, en Bilbao, con 33 años de edad. Tras estar en prisión preventiva, se le juzgó, en un Consejo de Guerra celebrado en Bilbao, el 23 de noviembre de ese mismo año. El día 30 de ese mismo mes fue puesto en Libertad Definitiva por carecer de relevancia los hechos juzgados.

## MURUAGA OLASKOAGA, FÉLIX

Félix 1904an jaio zan Bakion, Gregorioren zein Eusebiaren semea zan eta Etxebarri baserrikoa zan. Faustina Uriagereka Iturainegaz ezkondu zan, eta seme bi euki ebezan. Nekazaria zan.

EAJko Udal Batzordeko idazkaria izan zan 1934an zein 1935ean; eta Bakioko Udaleko zinegotzia, 1936an.

1938ko zezeilean, gerra-kontsejua egin eutsien Bilbon. Leporatu egin eutsien *kide nazionalista separatistea zala, Defentsa Batzorde “gorrian” parte hartu ebala, Bakioko buruzagitzeagaz bat egin ebala, idazkaria izan zala eta jentearen zein ganaduaren ebakuazinoa bultzatu ebala soldadu-talde nazionalak Bakion sartu baino lehentxuago*. 1938ko martiaren 15eko Epaiaren arabera, 20 urteko espetxealdi txikiko kartzela-zigorra ezarri eutsien, eta kargurako ezelako gaitasun barik be itxi eben.

1938ko garagarriaren 23an, Puerto de Santa Mariako kartzela zentrolean espetxeratu eben, baia Bilbon egoan Larrinagako kartzelatik etorren. Gero, Valladolideko kartzela probintzialera eroan eben, eta beraren zigorra bete eban bertan.

1940ko garagarriaren 27an, jagoletzapeko espetxealdi arindua emon eutsien, eta lantzean-lantzean aurkeztu behar zan Bermeoko Guardia Zibileko kuartelean. 1950eko abendura arte ez eban behin betiko askatasun osoa lortu. Sabin semearen esanetan, *“3 urte, 5 hilebete eta 17 egun”* emon ebazan kartzelan.



Félix, nacido en Bakio en 1904, era hijo de Gregorio y Eusebia y originario del caserío Etxebarri. Se casó con Faustina Uriagereka Iturain con quien tuvo dos hijos. Se dedicaba al laboreo.

Fue secretario de la Junta Municipal de EAJ-PNV en los años 1934 y 1935 y concejal del Ayuntamiento de Bakio, designado en 1936.

Se le sometió a un Consejo de Guerra celebrado en Bilbao en febrero de 1938. Fue acusado de filiación nacionalista separatista y de haber formado parte del Comité de Defensa "rojo", teniendo connivencia con el cabecilla dirigente de Bakio, y ejerciendo el cargo de Secretario, así como de haber promovido la evacuación del personal y ganado momentos antes de que entrasen las tropas nacionales en Bakio, siendo condenado, por Sentencia del 15 de marzo de 1938, a la pena de 20 años de Reclusión Menor e Inhabilitación Absoluta.

Fue recluido el 23 de julio de 1938 en la prisión central de Puerto de Santa María, procedente de la Prisión de Larrinaga, en Bilbao. Después se le trasladó a la cárcel Provincial de Valladolid donde terminó de cumplir su condena.

El 27 de julio de 1940 se le concedió la Prisión Atenuada Vigilada, teniéndose que presentar periódicamente en el cuartel de la Guardia Civil de Bermeo, no obteniendo la Libertad Total y Definitiva hasta diciembre de 1950. Estuvo encarcelado, según su hijo Sabin, "3 años, 5 meses y 17 días".

**OLASKOAGA MARDARAZ, PASCUAL**

Concepciónen zein José Ignacioren semea zan, eta 1907. urtean jaio zan Basarte baserrian. Gerra Zibila hasi baino lehen, Pascual Afrikako gerran egon zan Marokon. Era beratan, Getxoko Klub Nautikoan be behar egin eban zerbitzari.

Lehenengo eta behin, Otxandiano batailoiko gudaria izan zan, baia, ostein, Malato batailoia eratuteko agindu eutsien. Horretarako, Bilbotik Gorbeia mendiaren ingurura joan zan. Otxandioko herria frankisten esku jausi zanean, Bilbora atzera etorri zan beraren batailoiaz, eta, komandantea zauritu egin ebenez, bertako komandante izentau eben.

Carlton hotelera joan zan aginduak jasoten. Bertan, Leizaola, Leiza eta Ajuriagerra egozan, eta Bilboko Zabalburu zein San Frantzisko ingurua defendiduten baldi eben. Unada jakin baten, nazionalakaz negoziatan baldi eben Ordorika eta Artiatx komandanteakaz batera. San Luiseko kuartelean egoala, preso hartu eben 1937ko garagarriaren 30ean, eta Deustuko Unibersidadeko kartzelara eroan eben. 1937ko abuztuaren 23an, gerra-kontsejua egin eutsien Bilbon. Beraren epaian adierazoten dan lez, "gorrien boluntarioa zein tenientea izan zan, eta armadearen aurkako egitateetan esku hartu eban, harik eta beraren gizon eta armakaz Barakaldon errendidu zan arte". Hogei urteko aldi baterako kartzela-zigorra ezarri eutsien, eta, horren osogarri be, kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben, matxinadeari laguntzea delitua zalako. 1940ko zezeillaren 26an lortu eban askatasuna, behin-behineko artxiboa edegi ostein. "Tenienteak gintzazan guztiok kaleratu ginduezan"<sup>91</sup>.

Hijo de Concepción y José Ignacio, nació en el año 1907 en el caserío Basarte. Antes de empezar la Guerra Civil, Pascual estuvo en la guerra de África, en Marruecos. También trabajó en el Club Náutico de Getxo, como camarero.

Primero fue gudari del batallón Otxandiano pero después le ordenaron organizar el batallón Malato, para lo que se trasladó de Bilbao a la zona del monte Gorbea. Cuando cayó el pueblo de Otxandiano en manos franquistas regresó a Bilbao con su batallón y como el comandante había caído herido lo nombraron comandante del mismo.

Fue al hotel Carlton a recibir órdenes. Allí se encontraban Leizaola, Leiza y Ajuriagerra y lo mandaron defender la zona de Zabalburu y San Francisco, en Bilbao. En un momento dado, le enviaron a negociar con los nacionales, junto con los comandan-



Pascualek gerrara eroan eban biblia da. Metrailearen bidez zauritu ebenez, Andra Mariak bizia salbau utsala esaten eban, metraila-zatiak liburuan sartu ziralako eta ez beraren gorputzean. / Es la biblia de Pascual que llevó a la guerra. Le alcanzaron con la metralla y solía decir que la Virgen le había salvado la vida, porque los tiros de metralla se habían clavado en el libro y no en su cuerpo.

<sup>91</sup> Irargi, Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa. Pascual Olaskoagari egindako alkarrizketea. / Irargi, Centro de Patrimonio Documental de Euskadi. Entrevista a Pascual Olaskoaga.

orr.

tes Ordorika y Artiatx. Estando en el cuartel de San Luis lo apresaron el 30 de julio de 1937 y lo llevaron a la cárcel Universidad de Deusto. Fue sometido a Consejo de Guerra, en Bilbao, el 23 de agosto de 1937. Según se dicta en su Sentencia: *“Voluntario y teniente de la causa roja e intervino en hechos de armas contra el ejército, hasta que se entregó con sus hombres y armas en Baracaldo”*. Se le condenó a una pena de veinte años de Reclusión Temporal con su accesoria de Inhabilitación Absoluta como autor del delito de Auxilio a la Rebelión. Logró su libertad el 26 de febrero de 1940 después de aplicársele un sobreseimiento provisional. *“A todos los que éramos tenientes nos mandaron a la calle”*<sup>91</sup>.

### OLASKOAGA ZUMARRAGA, ANICETO

Aniceto Olaskoaga (“Anis”) 1905ean jaio zan sei neba-arrebako familian. Olaskoetxe etxean bizi ziran, eta beraren gurasoak Severiano zein María Batiste ziran. Sei neba-arrebetatik, batzuk Kubara emigrau eben, baia Martin, Luis, Ignacio eta “Anis” Bakion lotu ziran alargundu zan amagaz.

Gerrako frontea hur egoanean, 1937ko maiatzean, bakiotar asko herritik alde egiten hasi ziran, armada frankistako soldaduak sartu baino lehen. Horixe bera egin eban Anisek, Zallara joan zalako, lehentxuago herriko aguazila zan Ignacio anaiak be alde egin ebanean.

Soldadu-taldeen aurrean errendidu zan, bagilaren amaieran azken herri horretan sartu ziranean. Garagarrilaren 9an, preso eroan eben Larrinagako kartzelara. 32 urte eukazan.

Handik gitxira, gerra-kontsejua egin eutsien epaiketa sumarisimoan. Tomás Abio Mendizabalek eta orduko alkatea zan Juan Ormatza Goitiak prozeduran bertan autortu eben Anis milizianoa izan zana kolpistek “agintaldi gorritzat” jo eben sasoi haretan. Izan be, buruzagia izan zan, eta suzko armak eroan ebazan aldean. Era beratan, adierazo be egin eben behin baten lehenengoaren etxean agertu zala gora-goraka, aberats guztiei eta, orokorrean, eskoitiar guztiei burua ebagi behar jakela esanda.

Bestetik, Anisek berak autortu eban lez, ez zan eta ez zan izan inongo alderdi politikoko kidea, eta, *“mobimentua hasi zanean, Bermeon egoan nekazari (...). Ganera, (...) Udalak berak behartu eban miliziano egiten (...). Zer esanik ez, zerbitzu horreek arma barik egiten ebazan, eta, salbuespen moduan, lantzean behin baino ez eroian eskopetea. Ez zan egia teniente izentau ebela (...) eta Tomás Abio jaunari esan eutsala aberats zein eskoitiar guztiei burua ebagi behar jakela (...). Era beratan, egia be ez zan inor ganadua Bakiotik ataraten behartu ebala, berak (...) Udalak ebakuazino hori agintzeko egindako ofizioaren barri baino ez eutselako emon auzokoei”* (garagarrilaren 17an 368/37 Gerra Kontseju sumarisimoan araketarako egindako autormena).

Leporatu egin eutsien *“elementu separatista amorratua zala, (...) Udalak atondutako tokiko guardiako buru izentau ebela eta errazionamentua egitea, arielak batzea eta ordena publikoari eustea zala beraren zeregina. (...) Ganera, persona batzuk behartu ebazan herritik alde egiten, jaustekotan egoanean (...), eta, horretarako, teniente egin eben. Izan be, elementu aktiboa eta ezin arriskutsuagoa zan”*. Derioko kanposantuko horman fusilau eben 1937ko irailaren 15ean.

Beraren amak, María Batistek, ahaleginak eta hamar egin ebazan semearen bizia salbetako, eta, horretarako, herriko frankista bategaine joan zan, eskuan eroian oilaskoa oparitzeko asmotan. Ordurako, barriz, semea hilda egoan.

Edozelan be, María Batistaren atsekabeak ez ziran hor amaitu. Etxea eukan hipotekauta, eta, dirua itxi eutsan personea frankistea zanez, zemaika esan eutsan maileguaren zenbatekoa atzera emoten ez baeutsan, etxea kenduko eutsala. Jatabeko nonork itxi eutsan laguntza ekonomikoari esker, etxea eta beharra salbau ebazan. Horrezaz ganera, Ignacio semea Puerto de Santa Mariako kartzelan egoan preso garagarrilaren 9tik. Antza danez, bera zan nazionalek benetan gura ebena, eta Aniseri bizia kendu eutsien ordainetan<sup>92</sup>.

Argi eta garbi dago Mari Batistek bizi izandako zapalkuntzea ezin latzagoa izan zana, seme bat fusilau eutsielako, beste bat kartzelan egoalako eta gogor behar egin ebalako, etxearen jaubetzeari eusteko eta familia aurrera atarateko. Anis semearen bikotekidea zan Inésari esker egin ahal izan eban aurrera. Izan be, adiskidetasun estu-estua eukan beragaz. María Batistek Ignacio semea egoaneko kartzelara gura eban guztietan joaterik ez eukanez, Inés zan Larrinagako eta Puerto de Santa Mariako karteletara bisitan joaten zana. Holan, alkar ezagutu eben, eta, azkenean, ezkondu egin ziran.

Ignaciok askatasuna lortu ebanean, anaiaren gorpua batzen joan zan Derioko kanposantuko “hilobi orokorrera”. Beraren garrikoari esker jakin eban nor zan. Anisen gorpua hartu eta Olaskoagatarrek Bakion eukien panteoira eroan eban.

Aniceto Olaskoaga (“Anis”) nació en 1905 en una familia de seis hermanos que residían en la casa Olaskoetxe y cuyos padres se llamaban Severiano y María Batiste. De los seis hermanos algunos emigraron a Cuba pero Martin, Luis, Ignacio y “Anis” se quedaron en Bakio con su madre que había enviudado.



<sup>92</sup> 1937ko abenduko idatzian, Luki de Artetxek Anisen ganean esan eban fusilau egin ebela eta, “seguruenik, Ignacio anaiagaz nahastau ebela, aguazila zan-eta, gorengo delitua!”. 1937an idatzi baeban, emoten dau unada haretan horixe bera uste ebala herriak. / En su escrito de diciembre 1937, Lucio de Artetxe dice de Anis que le fusilaron “seguramente por confusión con su hermano Ignacio que era alguacil, ¡máximo delito!”. Si lo escribió en 1937, es señal de que esa era la idea que latía en el pueblo en ese momento.

Al acercarse el frente de guerra, en mayo de 1937, muchos bakiotarras comenzaron a dejar el pueblo antes de que entraran los soldados del ejército franquista. Ese fue el caso de Anis, que se trasladó a Zalla después de que poco antes también hubiera evacuado su hermano Ignacio, el que fuera alguacil del pueblo.

Se entregó a las tropas cuando, a finales del mes de junio, entraron en este último pueblo. El día 9 de julio lo llevaron preso a la Cárcel de Larrinaga. Contaba con 32 años de edad.

Al poco tiempo, fue sometido a Consejo de Guerra en juicio sumarísimo. Tomás Abio Mendizabal y el entonces alcalde Juan Ormatza Goitia fueron quienes declararon en el procedimiento que Anis fue miliciano durante la calificada por los golpistas “dominación roja”, siendo el cabecilla y llevando consigo armas de fuego. También que en una ocasión se personó en casa del primero de ellos en estado de gran exaltación asegurando que debía cortarse la cabeza a todos los ricos y gentes de derechas en general.

Por su parte, Anis, declaró que él no pertenecía ni había pertenecido a ningún partido político y *“que al estallar el movimiento se encontraba en Bermeo dedicándose a las labores agrícolas (...) que (...) le obligó el Ayuntamiento a hacerse miliciano (...). Que estos servicios los prestaba naturalmente sin armas y solo alguna vez por excepción llevaba escopeta. Que no es cierto fuera nombrado teniente (...) ni que dijese a don Tomás Abio, que había que cortar la cabeza a todos los ricos y gentes de derecha (...) tampoco es cierto que obligase a la evacuación de ganado de Baquio sino (...) poner en conocimiento de sus convecinos un oficio del ayuntamiento en el que se ordenaba dicha evacuación”* (declaración indagatoria del 17 de julio en el Consejo de Guerra sumarísimo 368/37).

Acusado de ser un *“elemento separatista acérrimo, (...) nombrado jefe de una guardia local designada por el Ayuntamiento, cuya misión era la de llevar a cabo el racionamiento y recaudación de arbitrios y mantenimiento del orden público (...) habiendo obligado a varias personas a la evacuación del pueblo cuando era inminente su caída (...) para cuya actuación le fue concedido el grado de teniente, siendo elemento activo y peligrosísimo”*. Fue fusilado en la pared del Camposanto de Derio, el 15 de septiembre de 1937.

Su madre, María Batiste, se esforzó en salvar la vida de su hijo, para lo que acudió donde un franquista del pueblo con la intención de regalarle un pollo que llevaba en la mano, pero, para entonces, su hijo ya había sido asesinado.

Sin embargo, las desgracias de María Batiste no terminaron ahí. Su casa estaba hipotecada y la persona que le prestó el dinero, franquista, le amenazó con quitársela si no devolvía el importe del préstamo. Gracias a la ayuda económica que le prestó alguien de Jatabe salvó su hogar y su trabajo. Además de eso, su hijo Ignacio estaba preso en la cárcel de Puerto de Santa María desde el 9 de julio. Según parece era a él a quien realmente querían los nacionales y lo pagaron quitándole la vida a Anis<sup>92</sup>.

Queda clara la fuerte represión que sufrió Mari Batiste, con un hijo fusilado, otro en la cárcel y teniendo que trabajar duro para mantener la propiedad de su casa y sacar adelante a su familia. Pudo progresar gracias a Inés, la pareja de su hijo Anis, con quien forjó una buena amistad. Como a María Batiste no le resultaba posible ir, siempre que quería, a la cárcel donde estaba su hijo Ignacio, era Inés la que le visitaba en las prisiones de Larrinaga y Puerto de Santa María. De esa manera, ambos se conocieron y, finalmente, se casaron.

Cuando Ignacio logró la libertad, fue a recoger el cuerpo de su hermano a la “fosa común” del Cementerio de Derio e, identificándolo por su cinturón, retiró los restos del cuerpo de Anis y los trasladó al panteón de los Olaskoaga en Bakio.

## OLASKOAGA ZUMARRAGA, IGNACIO

Ignacio 1898an jaio zan Olaskoetxe baserrian, eta beraren gurasoak Severiano zein María Batiste ziran. Udaleko aguazila izan zan, eta EAJko kidea be bai. Beraren anaia zan Aniceto Olaskoaga fusilau egin eben.

1937ko agorrilaren 2an, preso eroan eben Larrinagako kartzelara; eta, ostean, Puerto de Santa Mariako espetxera.

Gerra-kontsejua egin eutsien, *“Tokiko Defentsa Batzordeko idazkaria izan zalako. Izan be, adierazo egiten zan erakunde horrek batzar baten erabagi ebala auzipetutakoari eskerona emon behar jakola behargin nekatuezina zalako. Hain zuzen be, behar dan moduko personon etxeetan egiaztutako erregistro batzuetan, erregistro horreek egin ebezan musturreko buruzagi atzerritarrei lagundu eutsen, adierazotakoaren arabera, beraren jokabidea neurritsua izan bazan be”*. 1938ko urtarrilaren 12an emondako epaiaren arabera, hamabi urte eta egunbeteko aldi baterako kartzela-zigorra ezarri eutsien. Azkenean, 1938ko garagarilaren 7an urten eban kartzelatik.

Ignacio nació en 1898 en el caserío Olaskoetxe, siendo sus padres Severiano y María Batiste. Ejerció como alguacil del Ayuntamiento y era afiliado al PNV. Su hermano Aniceto Olaskoaga fue fusilado.

Lo llevaron preso a la cárcel de Larrinaga el 9 de julio de 1937 y, después, a la prisión de Puerto de Santa María el 2 de agosto de 1938.

Fue sometido a un Consejo de Guerra, a causa de haber sido *“Secretario del Comité de Defensa local, constando que dicho organismo, en sesión celebrada acordó que constara su gratitud por la actividad incansable del procesado, el cual, en varios registros verificados en domicilios de personas de orden, acompañó a los dirigentes extremistas forasteros que los practicaron, si bien consta que su actitud personal fue moderada.”* La Sentencia se dictó el 12 de enero de 1938 y en ella se le castigaba a doce años y un día de prisión y Reclusión Temporal. Finalmente, el 7 de julio de 1940, salió de la cárcel.



orr.

### ORMATZA GOIRIENA, GREGORIO

Nicomedesen eta Tomasaren semea zan, eta Santienea etxean jaio zan. Lorazaina zan, eta Bakioko "Plaiabarri" etxean bizi zan. Antza danez, beste etxe bat be baeukan Mungian.

Gerra-kontsejua egin eta 6 hilebete eta egunbeteko espetxealdi txikiko zigorra ezarri eutsien, matxinadeari laguntzea delitua zalako. Honako hauxe adierazoten zan 1938ko apirilaren 1eko Epaian: *"ezker errepublikanuko kidea zan 1934. urtetik, eta, era beratan, erreboltea hasi zanean, ordena publikoko guardia be izan zan. Hasikeratik 1936. urteko zemendira arte egon zan zerbitzuan, eta bertako agente moduan esku hartu eban S. Barqueroren etxearen erregistroan eta iratiaren konfiskazioan. Bestetik, ez zan modu berezian nabarmendu milizianoen kabu moduan eukan kargua beteteko orduan. Edozelan be, Mobimentuagaz bat egin eben persona zehatz batzuk babestu ebazan, eta, ostera be, beraren betiko ogibidera atzera etorri zan, soldadu-taldeak Mungiajako urian sartu baino lau hilebete lehenago. Bertako biztanlea da, hain zuzen be"*.

1938ko apirilaren 1ean Bilbon egoan Larrinagako kartzelan sartu ebenean, 47 urte eukazan, ezkondata egoan eta bost seme-alaba eukazan. Aste bi geroago, apirilaren 16an, Karmeloko kartzelara eroan eben. 1938ko abuztuaren 14an askatu eben.

Hijo de Nicomedes y de Tomasa, nacido en Santienea, era jardinero y estaba domiciliado en la casa "Playabarri" de Bakio. También parece que tenía otro domicilio en Mungia.

Fue sometido a un Consejo de Guerra siendo condenado a una pena de 6 meses y 1 día de Prisión Menor por un delito de Auxilio a la Rebelión, constando en su sentencia, fechada el 1 de abril de 1938, que *"afiliado a izquierda republicana desde el año 1934 actuó así mismo al iniciarse la rebelión como guardia de orden público, presentando sus servicios desde el primer momento hasta el mes de noviembre del año 1936, e interviniendo, en calidad de tal agente, en el registro e incautación de aparato de radio efectuado en casa de S. Barquero; que no se distinguió, por otra parte y de modo especial, en el cumplimiento de su cargo como cabo de miliciano, protegiendo en cambio a determinadas personas afectas al Movimiento y reintegrándose a su oficio habitual cuatro meses antes de la entrada de las tropas en la villa de Munguía, de donde es vecino"*.

Fue recluido en la cárcel de Larrinaga, en Bilbao, el 1 de abril de 1938 con 47 años de edad, casado y con cinco hijos. Dos semanas después, el 16 de abril, fue trasladado a la Prisión de El Carmelo. El 14 de agosto de 1938 fue puesto en libertad.

### PUENTE CONDE, MATÍAS

Víctorren eta Antoniaren semea zan. Urtuellan jaio arren, Bakion bizi zan. Miñoia zan, eta Bakioko tokiko postuko komandantea zan. Hain zuzen be, familia-etxea be baeukan bertan, Udalak San Pelaio auzoan atondutako logela batzuetan.

1937ko apirilaren 30ean, miliziano batzuk esan eutsien herritik alde egin behar zala nazionalak etozalako. Matíasek udaletxera joatea erabagi eban, behar dan moduko informazioa jasoteko. Ciriaco Egia udal-idazkaria topau eban udaletxeko agiri guztiak batzen eta kamioneta baten sartzen, Zallara eroateko. Matías Puente familia osoa Bilbora eroatea lortu eban arratsalde horretan bertan.

1937ko irailaren 24an, 38 urte eukazan, ezkondata egoan eta lau seme-alaba eukazan Larrinagako kartzelan espetxeratu ebenean, baia Deustuko Unibersidadean egoan preso-eremutik etorren.

1937ko abenduaren 12an, gerra-kontsejua egin eutsien, eta, bertan, jarduketak behin-behinean artxibetea ebatzi zan, leporatzen eutsiezan egitateek eragin penalik ez eukielako. Horren ostean, behin betiko askatasunean ixtea erabagi eben 1938ko zemendiaren 13an.

Hijo de Víctor y de Antonia. Natural de Ortuella pero vecino de Bakio. Miñón de profesión, fue comandante del puesto local de Bakio donde también tenía su casa familiar, en unas habitaciones acondicionadas por el Ayuntamiento en el barrio de San Pelaio.

El 30 de abril de 1937 varios milicianos le indicaron que había que evacuar el pueblo porque venían los nacionales. Matías tomó la decisión de acudir al Ayuntamiento para informarse adecuadamente, encontrando al secretario municipal Ciriaco Egia recogiendo toda la documentación del Ayuntamiento y cargándola en una camioneta para evacuarla a Zalla. Matías Puente consiguió evacuar toda su familia a Bilbao esa misma tarde.

El 24 de septiembre de 1937, con 38 años de edad, casado y con cuatro hijos, Matías fue internado en la cárcel de Larrinaga, procedente del campo de prisioneros de Deusto, situado en la Universidad.

El 12 de diciembre de 1937, después del Consejo de Guerra al que se le sometió, en el que se resolvió el sobreseimiento provisional de las actuaciones por carecer de relevancia penal los hechos que se le imputaban, se acordó dejarlo en Libertad Definitiva el 13 de noviembre de 1938.

### SAN JORGE ITURAIN, JUAN CRESCENCIO

1915ean jaio zan Aurrekoetxe etxean. Gerra-kontsejua egin eutsien, eta, 1937ko irailaren 10eko Epaian, leporatutakoa erretirau zan, eta aske itxi eben. Izan be, bertan adierazoten dan lez, Juanek *"idea nazionalistak eukazan, eta jagoletza batzuk egin ebazan beraren alderdiak Bakioko herrian eukan Batzordearen aginduz. Gero, frontera joan zan beraren kintakoei deitu eutseenean, eta Zallako herrian ostendu zan, beraren nagusiek Santanderrerrantz urteteko agindua emon ebenean. Zallako herrian bertan, gurera etorri zan. Probautako egitateak"*. Altzautako bandoaren aurrean errendidu eta epaitu ostean, Beharginen Batailoira bialdu eben.



Nacido en 1915 en la casa Aurrekoetxe, se le sometió a Consejo de Guerra y en la Sentencia del día 10 de septiembre de 1937, se retiró la acusación y quedó en libertad, ya que como se explica en ella, Juan *“de ideas nacionalistas hizo algunas guardias por orden del Comité de su partido del pueblo de Baquio. Yendo después al frente al llamar su quinta, logrando quedar escondido en el pueblo de Zaya al ordenar sus jefes salir en dirección a Santander. En cuyo pueblo de Zaya se presentó a nuestras filas. Hechos probados”*. Después de entregarse al bando sublevado, y de ser juzgado, lo destinaron a un Batallón de Trabajadores.

### UGARTE AGIRRETXU, DEMETRIO

Franciscoren eta Manuelaren semea zan, eta Eitzaga baserriko nekazaria zan. 1937ko garagarriaren 17an, Bilbon egoan Larrinagako kartzelan espetxeratu eben, 37 urte eukazala.

Egin eutsien gerra-kontsejuan autortu ebanez, *Euzko Alderdi Jeltzalekoa zan, eta, gerrea baino lehen, alderdi horrek eraturako ekitaldi publiko batzuetan parte hartu eban. Mobimentuaren lehenengo egunetan, herriko gazte guztiei agindua emon eutsen Udalaren aginduz, hiru jagoletza egin behar izan ebazan eskopeta eta guzti, Banco de Bilbao Bakion eukan bulegoan. Bestetik, ez eban ezelako atxiloketan, erregistroan eta konfiskazioetan esku hartu.*

1937. urte horretako bertako abuztuaren 4ko Epaiaren arabera, 30 urteko biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien matxinada militarraitik, jazoten zan guztiaren barri emon gurean, persona batzuen arteko loturea izan zan nazionalistea zala uste eben-eta.

1937ko urriaren 11n, Iruñeko espetxe zentralera eroan eben zigorra beteten. Gero, Iruñean be baegoan San Kristobal gotorlekuko kartzelara eroan eben, eta, bertan, inesaldi ospetsuan parte hartu eban, bera be arrapau egin baeben be.



Hijo de Francisco y de Manuela, era labrador del caserío Eitzaga. Fue recluido en la cárcel de Larrinaga en Bilbao el 17 de julio de 1937, a los 37 años de edad.

En el Consejo de Guerra al que fue sometido, declaró que *pertenecía al Partido Nacionalista Vasco, habiendo asistido, antes de la Guerra, a algunos actos públicos que organizaba dicho partido, que a los primeros días del Movimiento y por mandato del Ayuntamiento que así lo había ordenado a todos los jóvenes del pueblo, tuvo que hacer tres guardias con escopeta en la sucursal que el Banco de Bilbao tenía en Baquio, y que no había tomado parte en detención, registro ni incautaciones de ninguna clase.*

Su sentencia se dictó el 4 de agosto de ese año 1937 y en ella fue condenado a una pena de 30 años de Reclusión Perpetua por Rebelión Militar ya que era considerado un nacionalista que había actuado de enlace entre diversas personas, participándoles de todo cuanto ocurría.

El 11 de octubre de 1937 fue trasladado a la prisión central de Pamplona a cumplir condena. Después, fue trasladado al Penal del Fuerte de San Cristóbal, situado también en Pamplona donde participa en la famosa evasión, aunque también fue capturado.

### URIARTE BASARTE, SERAPIO

Martinen eta Poloniaren semea zan, eta Bakion jaio zan Artza baserrian. Gerrearen hasieran, Arakaldoko Aurrezki Kutxako bulegoan emoten ebazan beraren zerbitzuak Miñoien Taldeko kide moduan. Hain zuzen be, 1933. urtean sartu zan bertan. 1937ko maiatzaren 7an, Miñoien Komandantziak lehendakariaren eskolta-taldera bialdu eban, eta bertan egon zan erreboltariek Bilbo hartu ebeneko bezperara arte.


1937ko irailaren 7an Larrinagako kartzelan sartu ebanean, 29 urte eukazan, ezkondata egoan eta seme-alabak eukazan. Irailaren 14an, ur ganeko Upo-Mendi espetxera eroan eben. 9 hilebeteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, eta 1938ko martiaren 24an askatu eben.

Serapiok honako hauxe autortu eban gerra-kontsejuan: *“inoz ez zan inongo alderdi politikoko kidea izan, eta, Bizkaian zein probintziako beste herri batzuetan hainbat krimen garatu zirala entzun eban arren, ez ekian nork egin ebazan”*.

Hijo de Martín y de Polonia y natural de Bakio, del caserío Artza, al inicio de la guerra estaba prestando sus servicios en la sucursal de la Caja de Ahorros en Arakaldo como miembro del Cuerpo de Miñones en el que había ingresado en el año 1933. El 7 de mayo de 1937 fue destinado, por la Comandancia de los Miñones, al grupo de escolta del lehendakari en el que permaneció hasta la víspera de la toma de Bilbao por parte de los sublevados.

El 7 de septiembre de 1937 es encerrado en la cárcel de Larrinaga, con 29 años de edad, casado y con hijos. El 14 de septiembre fue trasladado a la prisión flotante de Upo-Mendi. Condenado a una pena de 9 meses de prisión, el 24 de marzo de 1938 fue puesto en libertad.

En el Consejo de Guerra, Serapio declaró que *“no había pertenecido nunca a ningún partido político, y que sabía por referencias que se habían cometido numerosos crímenes en Vizcaya y otros pueblos de su provincia pero que no conoce el nombre de las personas que lo realizaron”*.



Orr.

## URIARTE ERRETERIA, FRANCISCO

Francisco Uriarte edo, esaten eutsienez, Patxo, Faustinoen eta María Jesús en semea zan. Gaztetan, urte asko emon ebazan Txilen, Pedro Uriarte anaiagaz. Juliana Uriartegaz ezkondu zan Bakion, eta bertan lotu zan biziten, Zubiaurre auzoko Barturen goikoa base-rrian, hain zuzen be. Dana dala, Txilen aurretiaz eukazan negozioak jagoten segidu eban.

1931n, EAJko Udal Batzordeko burua izan zan, eta, 1936an, udal-epaile izentau eban.

Txileko Valparaíso, "Las Dos Campanas" izeneko "ebaketako eta jantzigintzako" oso denda ospetsua eukan. Sarritan egiten ebazan Bakio eta Santiago de Chile arteko joan-etorriak, eta, bera ez egoanean, Juliana emazteak jagoten eban Barturen goikoa baserria, zerbitzari biren laguntzaz. Epealdi horretan, senar-emazteen lehenengo seme biak jaio ziran: Justo eta Pedro.

Gero, Bakion behin betiko biziten lotu zanean, beste lau seme-alaba euki ebezan: María Josefa, Luis, José Mari eta Jesús. Azken horrek ez eban aita ezagutu, espetxeratu eta egoanean jaio zalako eta, artean, umetxua zalako fusilau ebanean.

Seme nagusiak akademia baten ikastea gura eban arren, Gerra Zibila hasi zanez, Justok derrigorrean behar egin behar izan eban Asuako dinamita-lantegi baten. Ganera, bertan hil zan leherketa baten ondorioz. Gerreak Pedro, bigarrena, be arrapau eban, eta bando frankistako soldadu egon zan Teruelen. Bertan, zauritu egin eban. Era beratan, San Kristobaleko kartzelan be egon behar izan eban jagoletzak egiten, eta, antza, Demetrio Agirretxu preso bakiotarra topau eban bertan.

Edozelan be, Julianaren atsekabeak ez ziran amaitu. Izan be, seme nagusia galdu ebanetik bederatzi hilebete bakarrik igaro ziranean eta armada frankistea Bakion sartu zanetik denpora gitxi-gitxi igaro zanean, senarra atxilotu eta Bilbon egoan Larrinagako kartzelara be eroan eban. Juan Ormatza alkateak salatu eban. Bost delitu leporatu eutsiezan: gorria, separatistea, udal-epailea, armadeari egindako irainak eta Batzokian egindako batzarrak.

Batutako lekukotasun batzuetan gogoratzen dabenez, Francisco patxadaz egoan atxilotu baino lehenagoko egunetan. Auzoko eta adiskide askok itaunduten eutsien zelan egon eitekean hain nasai eta zergaitik ez eban beste leku batera ines egiten. Berak honako hauxe erantzuten eban beti: *"nik neuk ez dot ezer egin, zelan egongo naz, ba?"*.

Gerra-kontsejuan, Tomás Abio Mendizabalek eta Manuel María Arredondok beraren kontra autortu eban, eta leporatu egin eutsien kide nazionalista amorratua zala eta agintari nazionalisten gaueko batzarretan parte hartu ebala, Espainia eta Armada Salbatzailea iraintzeko. Horrezaz ganera, euren eretziz "ezin arriskutsuagoa" zana be autortu eban. Bestetik, Franciscok argitu egin eban bost urte lehenago egin zala Euzko Alderdi Jeltzaleko kidea, baia idea separatistatik ez eukala eta inoz *"Gora Euzkadi" esan ez ebala*. Ez zan egia gaueko batzarretara joaten zala Espainia iraintzen. Bestetik, udal-epaile egin eban, herri guztiak jatorra zala uste ebalako, eta inparzialtasun osoz bete eban kargua.

Patxo ez zan kartzelatik atzera etxera etorri, eta heriotza-zigorra ezarri eutsien. Aurreikuspenen arabera, 1937ko urriaren 29a fusilauko eban Derion, 46 urte eukazala. Halanda be, batutako lekukotasun batzuk kontuan hartuta, ejekutau baino ordu batzuk lehenago, hur-hur eukan aduaren bildur zanez, bihotzekoak jota hil zan. Edozelan be, ejekutoreek "azken tiroa" emon eutsien beraren fusilamenturako iragarritako unadan. Ez dago baieztapen hori egiazteterik, baia honako hauxe azaltzen zan auzitegiko medikuak sinatutako heriotza-ziurtagirian: *"Francisco Uriarte Erretería. Suzko armeak egindako zaurien ondorioz hil da"*.

Pedro semeak fusilamentuaren barri euki ebanean, soldadiskatik ines egin eban, eta amak ibaiaren alboko txabolan ostendu eban. Gauetan, Pedrok txabolatik urten eta amari laguntzen eutsan kortako beharrak egiten. Azkenean, amaren neba jesuitearen bitartez, akusazio guztietatik aske lotu zan, eta ohiko bizimoduari eutsi eutson.

Julianak senarraren gorpua ezagutu eban Derion fusilau ebezan beste askoren artean, eta Bakiora eroan ahal izan eban. 1944ko abenduaren 10ean, senar-emazteen seme-alaba txikiak umezurtzen ikastetxe baten sartzeko eskabidea egin eban Julianak.

Francisco Uriarte, más conocido como Patxo, era hijo de Faustino y María Jesús, y muchos años de su juventud los pasó en Chile junto con su hermano Pedro Uriarte. Se casó con Juliana Uriarte en Bakio donde fijó su domicilio, concretamente en el caserío Barturen goikoa, del barrio Zubiaur, pero, aun así, siguió atendiendo sus negocios anteriores de Chile.

En 1931 fue Presidente de la Junta Municipal de EAJ-PNV y en 1936 fue nombrado juez municipal.

Tenía un comercio muy famoso de "Corte y Confección" en Valparaíso (Chile), llamado "Las Dos Campanas". Los viajes que realizaba entre Bakio y Santiago de Chile eran muy frecuentes y en su ausencia era su esposa Juliana la que cuidaba del caserío Barturen goikoa, con ayuda de dos criados. En ese período nacieron los primeros dos hijos del matrimonio, Justo y Pedro.

Después, cuando ya se quedó definitivamente a vivir en Bakio, tuvieron otros cuatro hijos, María Josefa, Luis, José Mari y Jesús. Este último no conoció a su padre, pues nació cuando él ya había sido encarcelado y aún era un bebé cuando lo fusilaron.

Quería que su hijo mayor estudiara en una academia, pero le afectó la Guerra Civil y Justo tuvo que trabajar obligado para el bando franquista en una fábrica de dinamita de Asúa, donde perdió la vida debido a una explosión. A Pedro, el segundo, también le afectó la guerra y estuvo como soldado del bando franquista en Teruel, donde fue herido. También le tocó estar en la cárcel de San Cristóbal haciendo guardias y allí debió coincidir con el preso bakiotarra Demetrio Agirretxu.



Pero las desdichas de Juliana no tenían fin, tras pasar sólo nueve meses desde que perdiera a su hijo mayor, poco después de entrar el ejército franquista en Bakio, detuvieron a su marido y lo trasladaron también a la cárcel de Larrinaga, de Bilbao. Había sido denunciado por el alcalde Juan Ormatza. Cinco fueron los delitos de los que se le acusó: rojo, separatista, juez municipal, injurias al ejército y reunirse en el Batzoki.

Varios testimonios recogidos recuerdan la tranquilidad con la que estaba Francisco los días anteriores a su detención. Muchos vecinos y amigos le preguntaban cómo podía estar tan tranquilo y por qué no escapaba a otro lugar y su respuesta siempre era que *“yo no he hecho nada, ¿cómo queréis que esté?”*.

En el Consejo de Guerra, Tomás Abio Mendizabal y Manuel María Arredondo declararon en su contra acusándolo de ser de acérrima filiación nacionalista y de haber tomado parte en reuniones nocturnas de dirigentes nacionalistas donde injuriaba a España y al Ejército Salvador, declarando también que lo consideraban “peligrosísimo”. Por su parte, Francisco, aclaró que pertenecía al Partido Nacionalista Vasco desde hacía cinco años, pero que no profesaba ideas separatistas ni había gritado jamás *“gora euzkadi”*. Que no era cierto que asistiera a las reuniones nocturnas donde se injuriaba a España y que si le hicieron juez municipal fue porque gozaba de simpatía de todo el pueblo, habiendo ejercido el cargo con absoluta imparcialidad.

Patxo no volvió de la cárcel, fue sentenciado con la pena de muerte estando previsto su fusilamiento para el día el 29 de octubre de 1937, en Derio, cuando contaba con 46 años de edad. Pero, según algunos de los testimonios recogidos, horas antes de ser ejecutado y por efecto de la impresión que le producía el destino que se le avecinaba, murió de un ataque al corazón. A pesar de ello, sus ejecutores le dieron el “tiro de gracia” en el momento anunciado para su fusilamiento. Sin poder comprobar dicha afirmación, en el certificado de defunción, firmado por un médico forense, dice: *“Francisco Uriarte Rentería, resulta haber fallecido como resultado de lesiones ocasionadas por arma de fuego.”*

Cuando a su hijo Pedro le llegó la noticia del fusilamiento, escapó del servicio militar y su madre lo escondió en una txabola situada al lado del río. Por las noches, Pedro salía de la txabola y ayudaba a su madre en los trabajos de la cuadra. Finalmente, gracias a la mediación del hermano de su madre, que era jesuita, quedó libre de toda acusación y pudo retornar a la normalidad.

Juliana consiguió reconocer el cadáver de su marido entre otros muchos fusilados de Derio y consiguió trasladarlo a Bakio. El 10 de diciembre de 1944 Juliana solicitó el ingreso de los hijos menores del matrimonio en un colegio de huérfanos.

## URIARTE INTXAUSTI, MATEO

Mateo 1918an jaio zan Urkitzaurren, eta Doroteoren zein Damianaren semea zan. Gudari moduan parte hartu eban gerran, Kirikiño batailoian. 1937an, Santanderreko Ampuero atxilotu eta Bilbon egoan Eskolapioetako kartzelara eroan eben. Geroago, gerrea amaitu baino lehen, Deustuko Unibersidadeko espetxera eroan eben.

1939ko apirilaren 29an, gerra-kontsejua egin eutsien, eta ebatzi egin zan ez egoala behar dan lez justifikauta leporatzen eutsien delitua egin izana eta leporatzen eutsiezan egitateak ezelako eragin penalik ez eukiela. Hori dala eta, Beharginen Batailoira bialtzea erabagi zan.

Horren ondorioz, Lesakan, Castellon, Canfrancen, Zaragozan... egon zan beharrean. 1941ean, soldadiskea egin behar izan eban, eta Melillara bialdu eben. 19 urte eukazala urten eban etxetik, eta 7 urte geroago atzera etorri zan.



Mateo, nacido en 1918 en Urkitzaurre e hijo de Doroteo y de Damiana participó en la guerra como gudari, en el batallón Kirikiño. En 1937 fue detenido en Ampuero (Santander), siendo trasladado a la cárcel de los Escolapios, en Bilbao. Más tarde y antes de que terminara la guerra, lo trasladaron a la cárcel de la Universidad de Deusto.

Sometido a Consejo de Guerra el 27 de abril de 1939 se consideró que no resultaba debidamente justificado que hubiese cometido el delito del que se le acusaba y que carecían de relevancia penal los hechos que se le imputaban, por lo que se acordó su destino a un Batallón de Trabajadores.

Como consecuencia de ello, estuvo trabajando en Lesaka, Castellón, Canfranc, Zaragoza... En 1941 le tocó hacer el servicio militar y lo enviaron a Melilla. Había salido de casa con 19 años y no volvió hasta 7 años después.

## URIARTE UGALDE, DOROTEO

Doroteo Domingoren eta María Juanaren semea, Ortube Goikoa baserrikoa eta hargina zan. 1914an, herriko eskolan (Urkitzaurrealden) bizi zan alogeran; eta, ostean, Urkitzaurre etxean (1922). Bakioko alkatea izan zan 1914tik 1916ra arte. Bakioko Udaleko lehenengo alkateordea izan zan 1931tik 1937ra arte; eta, Gerra Zibilean, Lorreta Saileko arduraduna. Seme bi, Mateo eta Domingo, gudariak izan ziran gerran, eta euretariko bat, Mateo, gerra-kontsejuan epaitu eben.

Gerra-kontsejua egin eutsien, *“lehenengo alkateordea eta Bakioko herriko Defentsa Batzordeko bokala izan zalako eta oso gaiztoa izan zalako Mobimentu Nazionalagaz bat egin ebenakaz. Ganera, Euzko Alderdi Jeltzalekoa be bazan”*. Emondako argitasunen arabera, *Defentsa Batzordean euki eban karguan, “Horniduren Saila egoan beraren ardurapean, eta azaldu egiten da errazionamentuari begira zeozelako parzialtasunaz jokatu ebalako eskoitiarren aurka”*.

1937ko garagarriaren 9an Larrinagako kartzelan sartu ebenean, 54 urte eukazan, Damianagaz egoan ezkondua eta 7 seme-alaba eukazan. 1938ko martiaren 5eko Epaiaren arabera, hamabi urte eta egunbeteko aldi baterako kartzela-zigorra ezarri eutsien. 1938ko garagarriaren 31n, Puerto de Santa Mariako kartzelara eroan eben. 1940ko apirilaren 12an, Valladolidedeko espetxe probintzialera eroan eben, eta, urte beratako garagarriaren 10ean, espetxealdi arindua emon eutsien.

orr.

Lope Intxausti udal-epaileak baserria okupau eutsan, 1937ko bagilaren 10eko udal-aktean azaltzen dan lez: *“Lope Intxaustik aurkeztutako instantzia aintzat hartzea erabagi zan. Bertan, hain zuzen be, errentadoreetako bi Urkitzaurre baserrian ez egozanez eta errazoi politikoakaitik urteko errentea ordaintzen ez ebenez, jaubeari, Lope Intxaustiri, behar besteko baimena emote-ko eskatzen eban. Holan, beraren jaubetzea, uztak eta ondasunak hartuko ebazan ardurapean, eta askatasun osoz erabili ahal izango eban”*. Hori dala eta, ondasun horreek berreskuratzeko, Eustakiok, Doroteoren semeak, konfiskau eutseen guztia erosi behar izan eban berreskuratu ahal izateko, baita baserria bera be.

Doroteo, hijo de Domingo y de María Juana, era del caserío Ortube Goikoa, y trabajaba como cantero. En 1914 vivía en la escuela del pueblo (Urkitzaurralde), en renta, pasando posteriormente a vivir en la casa Urkitzaurre (1922). Fue alcalde de Bakio entre 1914 y 1916. Fue primer teniente alcalde del Ayuntamiento de Bakio entre los años 1931 y 1937 y durante la Guerra Civil responsable del área de transportes. Dos de sus hijos, Mateo y Domingo fueron gudarís en la guerra y uno de ellos, Mateo, juzgado en Consejo de Guerra.

Se le sometió a un Consejo de Guerra por haber sido *“primer teniente alcalde y vocal del Comité de Defensa en el pueblo de Bakio, portándose mal con las personas afectas al Movimiento Nacional. Pertenecía al Partido Nacionalista Vasco”* detallándose que, en su puesto en el Comité de Defensa, *“se encargó de la sección de Abastos, constandingo que tuvo alguna parcialidad en cuestión de racionamiento en contra de las personas de derechas”*.

El 9 de julio de 1937, cuando contaba 54 años de edad y estaba casado con Damiana, con la que había tenido 7 hijos, ingresó en la prisión de Larrinaga. Fue condenado, por Sentencia del 5 de marzo de 1938, a la pena de doce años y 1 día de Reclusión Temporal. El 31 de Julio de 1938 fue conducido a la prisión de Puerto de Santa María. El 12 de abril de 1940 se le trasladó a la prisión provincial de Valladolid y el 10 de julio de ese mismo año se le concedió la Prisión Atenuada.

Lope Intxausti, juez municipal, ocupó su caserío como bien se indica en el acta municipal del 10 de junio de 1937: *“Se acordó tomar en consideración la instancia presentada por Lope Inchausti solicitando que habiéndose ausentado del caserío Urkitzaur dos de los inquilinos y habiendo dejado de satisfacer la renta anual por motivos políticos, se le autorizase al propietario, Lope Inchausti, para que se hiciese cargo de su propiedad, cosechas y pertenencias, y que pudiese disponer de la misma libremente”*. A consecuencia de ello, para poder recuperar estos bienes, Eustakio, hijo de Doroteo, tuvo que comprar todo lo que se les había incautado para poder recuperarlo, así como el caserío.



## URIARTE UGALDE, VALENTÍN

Domingoren eta María Juanaren semea eta espetxeratu eben Doroteoren anaia zan. Bakioko Erreterria baserriko nekazaria zan. EAJko kidea zan. Aguazila eta kobratzailea izan zan, eta ordeko udal-fiskala be bai, Eusko Jaurlaritzak 1936ko abenduan egindako izentapenaren bidez.

Juan Ormatza alkateak beste 19 zibil bakiotarregaz salatu eban, *“separatista amorratua”* zalako eta *“alkarte hori osotzen eben kideak nor ziran argitu leialako”*.

1937ko garagarrilean Larrinagako kartzelan espetxeratu ebenean, 50 urte eukazan, ezkondata egoan eta bederatzi seme-alaba eukazan. 1937ko garagarrilaren 17an Bilbon egin eutsien gerra-kontsejuan, *EAJkoa zana autortu eban. Dana dala, ez eban propagandarik egin, eta mitin batera baino ez zan joan Durangon; eta beste batera, Bermeon. Era beratan, beraren esanetan, inoz ez eban ezertxu be egin Bakioko ordeko udal-fiskal moduan. Abuztuaren 4an emon zan epaia, eta leporatu egin eutsien denpora guztian bat egin ebala “jazarritako matxinadeagaz”*. 30 urteko biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien.

1938ko bagilaren 29an, Puerto de Santa Mariako espetxera eroan eben zigorra beteten. 1940an, jagotzapeko askatasuna emon eutsien, 1945eko bagilean behin betiko askatasun osoa lortu eban arte.

Hijo de Domingo y María Juana y hermano del encarcelado Doroteo, era labrador del caserío Erreterría de Bakio. Estaba afiliado al PNV. Alguacil y cobrador, también fue fiscal municipal suplente, por nombramiento del Gobierno Vasco en diciembre de 1936.

El alcalde Juan Ormatza lo denunció, junto a otros 19 civiles bakiotarras, por *“separatista acérrimo”* siendo un *“individuo que podía dar mucha luz sobre los afiliados que conforman dicha sociedad”*.

Fue ingresado en la cárcel de Larrinaga en julio de 1937, con 50 años de edad, casado y con nueve hijos. En el Consejo de Guerra, celebrado en Bilbao el 17 de julio de 1937 declaró *ser del PNV, aunque no había realizado propaganda y que sólo fue a un mitin en Durango y a otro en Bermeo. También señaló que no había actuado ni una sola vez como Fiscal municipal suplente de Bakio*. Se dictó Sentencia el 4 de agosto acusándolo de haber estado identificado, en todo momento, con *“la rebelión que se persigue”*. Fue condenado a la pena de 30 años de Reclusión Perpetua.

El 29 de junio de 1938 fue conducido hacia la prisión del Puerto de Santa María, para cumplir su condena. En 1940 se le reconoció la Libertad Vigilada hasta que, en junio de 1945, obtuvo la Libertad Total y Definitiva.



**URIARTE URIARTE, PEDRO**

1918an jaio zan Barturen goikoa baserrian, eta fusilautako Francisco Uriarteren zein Juliana Uriarteren semea zan.

Datu dokumentalik ez badago be, beraren adinagaitik derrigorrean parte hartu behar izan eban armada erreboltarian, 1939ko kintakoa zalako. Iruñera bialdu eben, baia ez zan inoz ailegau, Bilboko ospitaletik uri haretarantz urten ostean, beraren lorratza galdu zalako.

Auzipetu moduan sailkatu eben, *“Amerika 23. Erregimentuko soldadua zalako eta ustezko arau-hauste larria egin ebalako gerra-sasoiko lehenengo inesaldi bakunaren ondorioz”*. Ez da inon azaltzen atxilotu ebenik eta artez-artezean epaitu ebenik. Dana dala, jakin badakigu 1939an gerra-kontsejua egin eutsiena Iruñeko plazan, matxinotzat hartu ebena eta atxilotzen ebenean auzipetuko ebena.



Nacido en el año 1918 en el caserío Barturen goikoa, era hijo del fusilado Francisco Uriarte y de Juliana Uriarte.

Aunque no hay datos documentales, se habría visto obligado a formar parte del ejército rebelde por su edad, ya que formaba parte de la quinta de 1939, no habiéndose incorporado al destino asignado, que era Pamplona, pues, tras salir del hospital de Bilbao con dirección a esa ciudad se pierde su rastro.

Fue clasificado como encartado por ser *“soldado del Regimiento América nº 23 y supuesta falta grave de primera deserción simple en tiempo de guerra”*. No se tiene constancia de que fuera apresado ni juzgado presencialmente y únicamente se sabe que fue sometido a Consejo de Guerra en la Plaza de Pamplona en 1939 declarándolo rebelde, quedando pendiente su enjuiciamiento hasta que fuera apresado.

**ZABALA UGALDE, LUIS**

Luis 1915ean jaio zan Errotabarri baserrian. Gerran, Martiartu batailoiko gudaria izan zan. Bilbon egoan Eskolapioetako kartzelan espetxeratu eben, eta, 1939ko zemendiaren 9an, gerra-kontsejua egin eutsien Bilboko plazan. Bertan ebatzitakoaren arabera, behin-behinean artxibau zan kasua, eta, geroak garreanean, behin betiko askatasuna emon eutsien.

Nacido en 1915, Luis era del caserío Errotabarri. Durante la guerra fue gudari del batallón Martiartu. Encarcelado en la prisión de Escolapios de Bilbao fue sometido a un Consejo de Guerra en la plaza de Bilbao el 9 de noviembre de 1939, en el que se dictó el sobreseimiento provisional del caso que se transformó, al cabo de un tiempo, en la concesión de la Libertad Definitiva.



Urizarreta 1941. 1- Segundo Markaida, 2- Juan Legarreta, 3- María Goitia, 4- Luciana Uriarte, 5- Francisca Atxirika, 6- Lukene Legarreta. (Gaizka Uriagerekak itxikitakoa / Cedida por Gaizka Uriagereka).

Orr.

#### 4.5. ANDRA BAKIOTARREN GANEKO ZAPALKUNTZEA

Bakioko alkate frankistea zan Juan Ormatza Goitiak bost andra salatu ebazan. Honako honeexek izan ziran 1937ko garagarrilaren 26an instrukzinoko epaileari bialdu eutsan txostenean salatutako andrak: Rosalía Arrutzazabala, Jovita Santa Ana, Rufina Agirre, Pilar Goitia eta Maria Rosario Bilbao.

Zigortutako lau andra Mutrikuko Saturraraneke andren kartzelara eroan ebezan. Andrentzako espetxe zentrala zan, eta 1938tik 1944ra arte egon zan abian. Lau mila preso errepublikanu baino gehiago igaro ziran bertako geletatik. 1987an bota eben. 116 andra eta 57 ume hil ebezan bertan.

#### 4.5. LA REPRESIÓN SOBRE MUJERES BAKIOTARRAS

Cinco fueron las mujeres denunciadas por el alcalde franquista de Bakio, Juan Ormatza Goitia. Las mujeres denunciadas en el informe que remitió al juez de instrucción el 26 de julio de 1937 fueron: Rosalía Arrutzazabala, Jovita Santa Ana, Rufina Agirre, Pilar Goitia y María Rosario Bilbao.

Cuatro de las mujeres condenadas ingresaron en la cárcel de mujeres de Saturrarán (Mutriku). Esta fue una prisión central para mujeres que funcionó como tal entre 1938 y 1944. Por sus celdas pasaron más de cuatro mil presas republicanas. Fue demolida en 1987. Allí encontraron la muerte 116 mujeres y 57 niños.



Jovita eta Saturraraneke andren kartzelan preso egon zan beste andra batzuk. Eskoitik hasita bigarrena, lehenengo erreskadan dagoana, Jovita Santa Ana bakiotarra da. / Jovita junto con otras mujeres presas en la prisión de mujeres de Saturrarán. La segunda desde la derecha, en la primera fila, es la bakiotarra Jovita Santa Ana. (Senideek itxitakoa / Cedida por familiares).

2º

durando Garay - Este individuo antes del movimiento se portó bien y durante el movimiento rumpe con el Glorioso Movimiento, ocultando en su casa personas de derechas, propagaba noticias del movimiento a personas de derechas.

Diego Olasoaga Imurriaga. Antes del movimiento fue un accionista nacionalista-separatista y durante el movimiento se portó infame, pues fue miliciano voluntario, persiguió a derechas y a muchachos que estando ocultos en casa no ir al frente los buscaba.

Francisco Uriarte Reuteria - Antes del movimiento fue separatista y durante el movimiento fue el jefe del Ayuntamiento: su comportamiento fue desueto, era afiliado al partido separatista.

Francisco Arriaga Exposito. Antes del movimiento fue separatista, perteneció a la junta de la ciudad separatista y durante el movimiento siguió al bando separatista.

Francisco Legarreta Obar: Lo mismo que el anterior.

Francisco Aguirre Jareguizar. Antes del movimiento se afilió al partido nacionalista separatista y durante el Glorioso Movimiento fue gran propagandista de noticias rojas.

\* Rosalba Arriaga Abala Aguirre: Afiliada al partido separatista marginante entre las de Kruzes; durante el movimiento se portó repugnantemente.

\* Ignacia Santa Ana Iturain: Antes del movimiento fue desaparecida y durante el movimiento fue propagandista de sus ideas y charra.

\* Elizabet Larrañaga Bilbao. Durante el periodo de actuación fue desdichadísima para las derechas y el partido pues era de tan mala suerte que a familiares estaban de espionaje en Baquio sorocaban noticias de planes de derechas, comunicábale luego a los rojos.

\* Rafina Aguirre Jareguizar. Antes y durante el movimiento exaltada nacionalista separatista.

\* Francisco Carradoigortia: Antes fue de derechas pues votó dicha candidatura y trabajó por ella y luego durante el movimiento, seguramente debido a los rojos hallaba a su favor.

\* Segundo Mariarte Recero. Antes del movimiento fue del bando nacionalista separatista, durante el movimiento fue del comité rojo, reclutador de mozos rojos.

Francisco Joritia - Votó a las derechas y durante el movimiento fue nada más que charlatana.

Francisco Uriarte. Agrícola, cobrador del partido separatista, siempre accionista separatista; individuo que podía dar mucha luz sobre los afiliados que componían dicha sociedad.

Francisco Carragabal; Nacionalista separatista accionista, durante el movimiento se portó infame, en su casa se reunían personas de alta relieve rojo, y propagador de noticias en contra del Glorioso Movimiento.

Francisco Uriarte Aguirreche. Nacionalista accionista de enlace, hoy en la actualidad, entre sus pinches de lo que ocurría en el pueblo.

Francisco Reuteria Ormendari. Nacionalista separatista accionista y propagandista, y afiliado al partido.

Francisco Bilbao Marcada. Nacionalista separatista accionista, miliciano voluntario, dedicándose a perseguir a personas de derechas y requisar sus bienes con el objeto de encontrar en ellos a personas de derechas.

Francisco Rosario Bilbao Marcada - Separatista accionista y gran propagandista de sus ideas en todo su tiempo, probablemente emigrado.

! Segundo día Barrenfajal !  
 ! Viva España !  
 ! Viva Franco !  
 ! Viva España !

*Francisco Rosario*



Alkatearen salaketa txostena. / Informe de denuncia del Alcalde. (FAM/AIRMN).

orr.

### AGIRRE JAUREGIZAR, RUFINA

Rufina Aguirre 1904an jaio zan Ortube bekoa baserrian. Bizitzearen zatirik handiengan, Bakion bizi bazan be, Leioan hil zan. Gaur egun, bertan dago lurperatuta. Emakume Abertzale Batzako bazkidea izan zanez, zapaldu egin eben.

Gerra-kontsejua egin eutsien, idea nazionalistak *“gora-goraka”* defendidutearren. Biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben eta galarazpen zibila be ezarri eutsien. 1937an Larrinagako kartzelan espetxeratu baeben be, Saturraranekora eroan eben ostean. 1940an lortu eban askatasuna, 1944ra arte jagotzapeko askatasunean egon bazan be.

Honako hauxe azaltzen da epaian: *“denpora guztian, etxean egon da, eta errosarioa errezetako baino ez dau urten. Hori dala eta, ez dau ezelan be parte hartu iraultza gorri separatistan. Orain dala hiru urte emakumeen alkartean baja hartu baeban be, Euzko Alderdi Jeltzalekoa izan da”*.

Antonio Alegria Erreterria abadearen lekukotasunaren arabera, *“beraren jokabide moral eta erlijiosoa atxakiabakoa izan da beti”*.

Rufinak espetxealdiaren ganeko argitasun handirik emoten ez ebanez, familiak ez dauka horren inguruko informazio asko. Halanda be, gogo-gogoan daukie guztiz kaskamotz egoala etxera bueltatu zanean.

Rufinaren familiak be bete-betean bizi behar izan ebazan okupazio frankistaren ondorioak: Floren nebea Larrinagako kartzelan egon zan; eta, ostean, Iruñeko San Kristobal gotorlekuan. Víctor nebeari, barriz, etxea zein estankoa konfiskau eutsiezan, baia, azkenean, birreskuratu egin ahal izan ebazan beste anaia jesuita bateri esker.

Rufina Aguirre nació en 1904, en el caserío Ortube bekoa. Aunque vivió gran parte de su vida en Bakio murió en Leioa, donde está enterrada actualmente. Fue socia de Emakume Abertzale Batza y por ello represaliada.

Fue sometida a Consejo de Guerra por haber defendido ideas nacionalistas *“en términos exaltados”* y fue condenada a Reclusión Perpetua con Inhabilitación Absoluta e Interdicción Civil. Ingresó en la cárcel de Larrinaga en 1937 siendo trasladada después a la de Saturrarán. Obtuvo la libertad en 1940, aunque estuvo bajo Libertad Vigilada hasta 1944.

Esto dice su declaración en la Sentencia: *“ha permanecido durante todo el tiempo en su casa, sin salir más que para rezar el rosario y que por lo tanto no ha tenido intervención alguna en la revolución roja separatista. Aunque hace tres años se dio de baja de la sociedad de emakumes ha sido del partido nacionalista vasco”*

El cura Antonio Alegria Erreterria testificó que *“ha tenido siempre intachable conducta moral y religiosa.”*

Rufina no contaba muchos detalles de su época en prisión, por lo que la familia no tiene mucha información al respecto, pero sí recuerdan muy bien cómo llegó, de regreso a casa, con la cabeza completamente rapada.

La familia de Rufina también sufrió mucho las consecuencias de la ocupación franquista: su hermano Floren estuvo encarcelado en Larrinaga y después en el Fuerte de San Cristóbal de Pamplona. A su hermano Víctor, en cambio, le incautaron la casa y el estanco, los cuales consiguió recuperar, finalmente, gracias a otro hermano jesuita.

### ARIZNABARRETA ARKARAZO, LUISA

Narcisoren eta Maríaren alabea zan, eta bainuetxean bizi zan (Itxasbegi). 1937ko abuztuaren 7an, 30 urte eukazala, Larrinagako kartzelan espetxeratu eben. Gerra-kontseiluan, preminazko 906. prozedura sumarismoa egin eutsien, eta, 1937ko irailaren 7ko Epaiaren arabera, leporatzen eutsiezan egitateak eragin penalik ez eukienez, behin betiko askatasuna emon eutsien irailaren 11n.

Hija de Narciso y de María y domiciliada en el balneario (Itxasbegi). El 7 de agosto de 1937, con 30 años de edad, ingresa en la cárcel de Larrinaga. Fue sometida a Consejo de Guerra, procedimiento sumarísimo de urgencia nº 906, y en su Sentencia de 7 de septiembre de 1937, al carecer de relevancia penal los hechos que se le imputaban, tramitaron la puesta en Libertad Definitiva, que tuvo lugar el 11 de septiembre.

### ARRUTZAZABALA AGIRRE, ROSALÍA

Rosalía Arrutzazabala Garaibari baserrikoa zan, eta 1908an jaio zan bertan. Juan Joséren eta Eugeniaren alabea zan. 1937ko garagarrilaren 16an, Larrinagako kartzelan espetxeratu eben, eta, 1938ko zezeilaren 19an, Saturraraneko kartzelara eroan eben. 1940ra arte egon zan bertan. Handik aurrera, 1944ko irailera arte, jagoletzapeko askatasunean egon zan.

Gerra-kontsejuan autortu behar izan eban, eta, bertan argitu ebanez, *“orain dala lau urtetik hona emakumea izan da. Ez gerrea baino lehen, ez gerrea bitartean, ez dau ezelako jarduera politikorik garatu. Hartu-emon ona dauka herriko jente guztiagaz, eta inoz ez deutso inori minik egin. Hori dala eta, zurtz eginda lotu da salatu eta atxilotu egin dabenean”*.

Rosalíari biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben eta galarazpen zibila ezarri eutsien, *“nazionalista amorratua zalako eta, agintaldi gorrian, behin eta barrero, Bakioko herriko emakumeak erabilten ebazalako eurek egindako ekitaldi guztietan, matxinada gorri separatistea bultzatzeko”*.



Rosalía Arrutzazabala procedía del caserío Garaibarri, donde nació en 1908, hija de Juan José y Eugenia. El 16 de julio de 1937 fue recluida en la prisión de Larrinaga y el 19 de febrero de 1938 se la trasladó a la prisión de Saturrarán, donde permaneció hasta 1940. A partir de entonces, y hasta septiembre de 1944, estuvo en Libertad Vigilada.

En el Consejo de Guerra que tuvo que declarar, aclaró que *“desde hace cuatro años hasta la fecha ha sido emakumes. Que ni antes de la guerra ni durante la misma ha desarrollado ninguna actividad política. Que se lleva bien con todas las personas del pueblo sin haber hecho nunca daño a nadie por lo cual se extraña de haber sido denunciada y detenida”*.

Rosalía fue condenada a Reclusión Perpetua, con Inhabilitación Absoluta e Interdicción Civil. El motivo de su condena se refiere a que era una *“empedernida nacionalista que durante el dominio rojo mangoneaba constantemente entre las emakumes del pueblo de Baquio en todos los actos que estas realizaban para favorecer la subversión rojo-separatista”*.

### BILBAO MARKAIDA, MARÍA ROSARIO

María Rosario Bilbao Gorrondona baserrikoa zan. 1913an jaio zan, eta Andrésen zein Eugeniaren alabea zan. Rosariori gerra-kontsejua egin eutsien Jovita Santa Ana, Rufina Agirre eta Rosalía Arrutzazabalagaz. Lau urtean, Emakume Abertzale Batza alkarteko kidea izan zan, harik eta mobimentua hasi zan arte, hain zuzen be. *“Nazionalista amorratua”* zala esan ebenez, biziarteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, kargurako ezelako gaitasun barik itxi eben eta galazpen zibila ezarri eutsien. 1937ko garagarrilaren 16an, Guardia Zibilak atxilotu eta epaitegi militarren esku imini eban. 1937ko zezeilaren 19an, Saturraraneko kartzelara eroan eben. 1941eko zezeilaren 28an, baldintzapeko askatasuna emon eutsien. 1945eko garagarrilera arte, ez zan ezelako zigor barik lotu.

María Rosario Bilbao provenía del caserío Gorrondona. Nació en 1913 y era hija de Andrés y Eugenia. Rosario fue sometida a Consejo de Guerra, junto con Jovita Santa Ana, Rufina Agirre y Rosalía Arrutzazabala. Estuvo afiliada a la sociedad Emakume Abertzale Batza durante cuatro años, concretamente, hasta que estalló el movimiento. Se la consideró *“acérrima nacionalista”* y fue condenada a Reclusión Perpetua, con Inhabilitación Absoluta e Interdicción Civil. El 16 de julio de 1937 fue detenida por la Guardia Civil y puesta a disposición del juzgado militar. El 19 de febrero de 1937 fue conducida a la prisión de Saturrarán. El 28 de febrero de 1941 se le concedió la Libertad Condicional. Quedó totalmente extinguida de penas en julio de 1945.



### ETXEBARRIETA URIARTE, ANA MARÍA

Ana María Etxebarrieta Ramónen zein Mariaren alabea zan, eta Bakioko Ibarrabarri etxean bizi zan. Halanda be, ez egoan udalerrri horretan erregistrauta, Erandion baino, aita bertako medikua izan zalako Bakiora mediku joan baino lehen. Etxebarrieta ahiztak Bakioko Batzokiko *Emakumeak* ziran, horregatik, gerrea hasi zanean Ana Mari, hiru ahiztak eta Enrique nebea Iparralden babestu ziran, Baionatik hur. Beraren hiru ahiztak bertatik erbesteratu ziran Venezuelara, eta ez ziran luzaroan atzera etorri. Enrique eta Ana Mari, barriz, etxera atzera etorri ziran. Ramón, beste nebea, EAJko Alkartxeak batailoiko Behar Talde Nagusiko kapitaia izatearren espetxeratu eben. Ana Mari Hegoaldera ailegau orduko, 1941eko martiaren 26an, hain zuzen be, Larrinagako kartzelan espetxeratu eben, baia hilebete beraren 26an askatu eben. Zigor ekonomikoa ezarri eutsien eta ondasunak be kendu eutsiezan. Klausurako monjak sartu jakozan etxean, geroak garrenean Ibarrabarri berreskuratu ahal izan baeben be. Kartzelatik urten eta denpora gitxira, José Antonio Zumalabegaz ezkondu zan.

Hija de Ramón y de María, Ana Mari Etxebarrieta tenía su residencia en la casa Ibarrabarri de Bakio, aunque no estaba registrada en esta localidad dado que figuraba inscrita en Erandio, donde trabajaba su padre como médico



1- Enrique, 2- Gloria, 3- Ana María, 4- Ramón, 5- Julia, 6- Trinidad Etxebarrieta Uriarte.

orr.

antes de que se trasladase a ejercer como tal en Bakio. Las hermanas Etxebarrieta fueron Emakumes del Batzoki de Bakio por lo que al comenzar la guerra Ana Mari junto con sus tres hermanas y su hermano Enrique se refugiaron en Iparralde, cerca de Baiona. Sus tres hermanas se exiliaron desde allí a Venezuela y no volvieron en mucho tiempo, pero Enrique y Ana Mari volvieron a casa. Ramón, su otro hermano, fue encarcelado por haber sido capitán de la Plana Mayor del batallón Alkartzeak del PNV. Nada más llegar Ana Mari a Hegoalde, concretamente el 26 de febrero de 1941, fue recluida en la cárcel de Larrinaga, el 26 de marzo fue puesta en libertad. Se le impuso una sanción económica y también fue desposeída de sus bienes. En su casa entraron monjas de clausura, aunque al de un tiempo consiguieron recuperar Ibarbarri. Al de poco de salir de la cárcel se casó con José Antonio Zumalabe.

### GAMINDE ELORTEGI, EUGENIA

Agustín en eta Asunciónen alabea zan, 1887an jaio zan Garaitxu etxean eta espetxeratu be egin eben Pabloren arrebea zan. Bakion bertan jaio bazan be, Bilbon bizi zan. 1938ko urtarrilaren 21ean Larrinagako kartzelan espetxeratu ebenean, 49 urte eukazan, ezkondata egoan eta hiru seme-alaba eukazan. 1938ko bagilaren 7an, egin eutsien gerra-kontsejuaren ostean, 9 urteko kartzela-zigorra ezarri eutsien, matxinadea bultzatzea delitua zalako eta gaiztotasuna bera inguruabar astungarria zalako. Leporatu egin eutsien *“eskoitiarrak aurretik erabilten ebazala eta horniduteko egiten ziran errenkadetatik botaten ebazala. Izan be, aldarrika esaten eutsen faxistak ziralako eta biziteko eskubiderik ez eukiela. Ganera, iraindu be egiten ebazan”*. 1941eko garagarriaren 5ean, baldintzapeko askatasuna lortu eban.

Hija de Agustín y de Asunción, nació en 1887 en Garaitxu y era hermana de Pablo, también encarcelado. Aunque de nacimiento fuera de Bakio era vecina de Bilbao. Con 49 años de edad, casada y con tres hijos ingresó el 21 de enero de 1938 en la cárcel de Larrinaga. El 7 de junio de 1938, después de su Consejo de Guerra, se la condenó a la pena de 9 años de prisión como autora de delito de Excitación a la Rebelión con el agravante de perversidad. Se le acusaba de *“perseguir a las personas de derechas echándolas de las colas que se formaban para abastecer llamándoles fascistas en voz alta, diciéndoles que no tenían derecho a la vida e insultándolas”*. El 5 de julio de 1941 obtuvo su Libertad Condicional.

### GOITIA GOITIA, PILAR

Pilar Goitia 1910ean jaio zan, eta Bakioko Bigoitia etxean bizi zan (geroago, “Pili-palace” esaten eutsien). Tomás en eta Estefaniaren alabea zan. Pilar 1937ko garagarriaren 16an sartu eben Larrinagako kartzelan, 27 urte eukazala. Guardia Zibilak eroan eban, eta urte beratako irailaren 13an askatu eben.

Egin eutsien gerra-kontseiluko epaian adierazoten dan lez, nahastau egin ziran. Hori dala eta, argitu egin eben *“eskoitiarra zala eta ez ebal inondik inora aurretik erabilten zan ezelako matxinadan parte hartu”*. Berak autortu eban, *“mobimentuan, herrian bertan lotu zan, eta ez eban ezelan be esku hartu matxinada gorri separatistan. Ez zan inongo alderdi politikoko kidea. Ez da egia Euzkadiko hegazkinerako fondoak batu ebazala eta artillero gorriei esan eutsela nor zan eskoitiarra. Katekesia eukan, ideologia guztietako umeei irakasten eutsen eta inor ez eukan begibeteko”*. Horrezaz ganera, orduko abade parrokoa zan Antonio Alegria Erreterriaren lekukotasunaren arabera, *“Pilar parrokiakoa eta bertako eleiztarra zan, eta beraren jokabide moral zein erlijioa ona izan da beti”*. Delituzat hartzeko moduko egitatek ez egoanez, aske ixtea erabagi eben.

Pilar Goitia nació en 1910 y tenía su residencia en la casa Bigoitia (más adelante conocida como “Pili-palace”) de Bakio, siendo hija de Tomás y Estefanía. Pilar ingresó en la cárcel de Larrinaga el 16 de julio de 1937 con 27 años de edad y fue entregada por la Guardia Civil y puesta en libertad el 13 de septiembre del mismo año.

En la Sentencia del Consejo de Guerra al que se la sometió se indica que hubo una confusión, aclarándose que era *“de derechas sin que haya realizado ningún hecho de participación en la rebeldía que se persigue”*. Su declaración decía que *“en el movimiento permaneció en el pueblo sin intervenir absolutamente en la revolución rojo separatista. Que no está afiliada a partido político alguno. Que no es cierto que recogiese fondos con destino al avión de Euzkadí ni que indicase a los artilleros rojos quienes eran personas de derechas. Que tenía una catequesis en la que enseñaba a niños de todas las ideológicas sin mostrar preferencias por ninguno”*. Además, el entonces cura párroco Antonio Alegria Erreterría testificó que *“Pilar, natural y feligrés de la parroquia, había ofertado buena conducta moral y religiosa”*. Al no haber hechos constitutivos de delito, se decretó su libre absolución.

### GONZÁLEZ SÁNCHEZ, JOSEFA

Josefa González Bakion bizi zan, Alacanteko Torrevejakoa zan arren. Beraren gurasoak Julio eta Gregoria ziran. 1937ko irailaren 6an espetxeratu eben, agintaritzako agenteek eroan ostean, eta 1938ko garagarriaren 3an askatu eben, gerra-kontsejuan Josefari leporatutako egitateek eragin penalik ez eukiela ebatzi ostean.

Josefa González fue vecina de Bakio, aunque era natural de Torreveja (Alicante), siendo sus padres Julio y Gregoria. Ingresó en prisión el 6 de septiembre de 1937, después de ser entregada por los agentes de la autoridad, siendo puesta en libertad el 3 de julio de 1938 tras acordarse en Consejo de Guerra que los hechos que se le imputaban a Josefa carecían de relevancia penal.

### SANTA ANA ITURAIN, JOVITA

Jovita Santa Ana Bakioko Sumusu baserrikoa zan. 1917an jaio zan, eta Raimundoren zein Venanciaren alabea zan. 1937ko abuztuaren 6an, gerra-kontsejua egin eutsien, hiru urtean “Batzokiko emakumea” izatearren (Emakume Abertzale Batza). Jovitak

autortu eban lez, “gerrea baino lehen, bajea emoteko agindu eutsen, aita hil jakonez, ez eukalako Batzokira joaterik. Halanda be, euskal idea nazionalistearen jarraitzailea zan artean”.

30 urteko kartzela-zigorra ezarri eutsien matxinadeagaz bat egitearren. Biziar-teko espetxealdi-zigorra ezarri eutsien, kargurako gaitasun barik itxi eben eta galarazpen zibila ezarri eutsien, okupazio frankista baino lehen idea nazionalisten propagan-dea egiteagaitik. Ostean, zigorra jatsi eta hiru urtekoa ezarri eutsien. Lehenengo eta behin, Larrinagako kartzelara eroan eben 1937ko garagarriaren 16an; eta, gero, 1938ko zezeilaren 19an, Saturrarane-ko andrentzako espetxera. Bertan, 1940ko ba-gilaren 25era arte bete eban zigorra, egun horretan baldintzapeko askatasuna emon eutsien-eta.

Hurrengo lau urteetan, “jagotzapeko askatasunaren” bidez kontrolau eben, harik eta 1944ko bagilean askatasun osoa lortu eban arte.

Jovitaren esanetan, kartzelako bizimodua sano latza zan, eta, hobeto eroateko, ber-tako monjek sortutako abesbatzan zein bertan eskaintzen ziran beste jarduera batzue-tan parte hartu eban.

Jovita Santa Ana era originaria del caserío Sumusu de Bakio. Nació en 1917, siendo hija de Raimundo y de Venancia.

El 6 de agosto de 1937 se la sometió a Consejo de Guerra por haber pertenecido a “emakumes del batzoki” (Emakume Abertzale Batza) durante tres años. Jovita pudo declarar que “antes de la guerra mandó que le dieran de baja porque a causa de haber muerto su padre no podía asistir al batzoki, a pesar de lo cual, continuaba simpatizando con la idea nacionalista vasca”.

## Antxustegi San Pedro, EDURNE



Edurne 1931an jaio zan Ortube Goikoa baserrian. Bakion gudea egon zan sasoian bost urte eduki ebazan. Sebastiana, bere ama, Bakiotarra izan zan be, baia Álvaro, bere aita, ostera, Jatabekoa zan. Álvaro Ameriketara emigratu eban, Sebastianagaz ezkontzeko bueltatu ondoren, beste bidaia batzuk egin ebazan barriro be Ameriketara. Edurnek bederatzi neba arreba eduki ebazan eta eurretari zaharrenak gudean hartu eban parte. Jose, zaharrena, gudaria izan zan, preso hartu eben eta beharginen batailoietan egotera kondenatua izan zan. Crisanto, bigarrena, Murtzian egon zan soldadu eta epaitua izan zan.

Ondo gogoratzen dau Edurnek zelan jaten eben euren etxeke janaria baserri ondotik pasatzen izan ziren soldadu italiarrek. Edurneren etxean Jatabeko familia oso bi hartuta egozan ganadua eta guztiz.

Edurne nació en el caserío Ortube goikoa, en 1931. En la época de la guerra en Bakio tenía 5 años. Su madre Sebastiana era también de Bakio, pero su padre Álvaro, en cambio, de Jatabe. Álvaro emigró, primeramente, a América para después regresar para casarse con Sebastiana, realizando posteriormente más viajes a América. Edurne tenía nueve hermanos, y los dos mayores fueron a la guerra. El mayor, José, fue gudari, apresado y condenado a permanecer en batallones de trabajadores. El segundo, Crisanto, estuvo como soldado en Murcia y fue juzgado.

Edurne recuerda mucho a los italianos que solían pasar junto a su caserío y cómo se alimentaban con su comida. En su casa estuvieron acogidas dos familias de Jatabe, incluso con su ganado y todo.

***“Nik bost sei urte euki neusen. Nik soldaduek eta ikusten neusen ámetik eta tiroak asmetan gendusen ta dxeusten siren ta orduen barrure sartuten giñen. Gero geidxen akordetan nasena da: antza or goidxen sera on san, ta bajetuten sirenien soldadu illek olesko kajatan, ámetik gure ondotik eta bajetan seurien lepoan soldaduek baie illedatas akordetan nas ni.***

***Gortan ostuten giñen, bonba asko esan on. Baie bonbak dxeusten sirenien eseurien asko eitxen, sillo bat eitxen seurien bakarrik. Bat dxeusi san alboko etzien atzien justo ta sillo bat ein seuen. Ta asmetan gendusen balan saratak bai, ori akordetan nas. Ta oten giñen ostute, geldi etzien. Egendun eukiten non ostu geidxau, gortan.”***

Orr.

## Artetxe Bolado, KARMELE



Karmele 1932an jaio zan Bilbon. Lucio Artetxeren alabea eta Aurelio Artetxeren lobeia da Karmele. Bere aita Bakion jaio zan eta EAJ-ko Bizkai Buru Batzarreko partaidea zalako oso gogor zigortua izan zan.

Guda sasoian, 4 urtegez, Frantziara joan zan bere ama eta 4 nebarrebakaz eta han egon ziran errefuxiatuen ospitale batean. Isilpeko eskutitzen bidez komunikatzen ziran kartzelan egoan euren aitagaz. Karmelek pasadizu moduan gogoratzen dau, bere aita Burgoseko kartzelan egon zanean, orfeoian abesten ebalia eta zuzendariak katedralean kontzertua lortu ebanean, hara eroan ebezala. Orduan, presoen familiartekoek aukerea aprobetxatu eben euran senarrak ikusi eta bisitatzeko. Gumersinda, Karmeleren ama, esaterako, han egon zan.

Kartzelatik urten ebanean Lucio ondo ostuta egon zan.

Karmele nació en Bilbao en 1932. Es hija de Lucio Artetxe y sobrina de Aurelio Artetxe. Su padre, nacido en Bakio, fue miembro del Bizkai Buru Batzar del PNV, razón por la que fue duramente represaliado.

En la guerra, con 4 años, Karmele se exilió a Francia junto con su madre y sus cuatro hermanos, donde permanecieron en un hospital para refugiados.

Se comunicaban mediante cartas clandestinas con su padre encarcelado. Como anécdota Karmele recuerda que cuando su padre estuvo en la cárcel de Burgos, pertenecía al orfeón y el director de este consiguió un concierto en la Catedral donde trasladó a los presos que pertenecían al coro. Las mujeres y familiares de los presos aprovecharon esa cita para visitar y ver a sus maridos. La madre de Karmele, Gumersinda, asistió al evento.

Al salir de la cárcel Lucio estuvo muy vigilado, ***“Estuvo escondido muchas veces, en casas, pero no sabíamos dónde. Cuando nosotras íbamos al colegio, él solía ir a vernos desde las esquinas. Alguna vez vino a casa con bigote, con gafas, con sombrero... disfrazado para que no lo conociese nadie. Cuando salía había policías en las esquinas y teníamos que mirar y decirle si había alguien para poder salir.”***

## Barrenetxea Baranda, JUAN



Juan 1925an jaio zan San Pelaio auzoko Ermua goikoa baserrian (Sasoi haretan ondino Bermeoko auzoa zan San Pelaio). Gudako pasarte batzuk ardiak jagoten izan ebazan artean bizi izan dauz Juanek: Gernikako bonbardeaketa, Matxitxakoko burrukaldia, zaurituak kamioietan eroatea eta beste hainbat gertakizun. Bere etxean gabaz trintxerak egiten ebezan zulozailleak eta Itxas-Alde batailoiko gudariak euran baserrian egoten ei ziran eukan kokapen estrategikoagaitik.

Félix Uriarte Abaroa ere, Juanen osabea, gudaria izan zan Itxas-Alde batailoian. Sasoi haretako egun batean bere baserrira jaitsi ei zan bere arrebea, Juanen ama, ikustera eta holan esan eutsan: **“Ez iñora be mobidu, au galdute dau te. Bidxer dxoango gara gu erretiradan”**. Ordutik ez da gehiago agertu. Gaur egun be desagertua jarraitzen dau.

Juan nació en el caserío Ermua goikoa, de San Pelaio, en 1925 (en aquella época, el barrio de San Pelaio pertenecía a Bermeo).

Vivió la guerra mientras cuidaba ovejas y es así que pudo ver el bombardeo de Gernika, la batalla de Matxitxako, el traslado de heridos en camionetas y otras muchas cosas. En su casa estuvieron los zapadores que por las noches cavaban las trincheras y también los gudarís del batallón Itxas-Alde, ya que estaba en un punto estratégico.

Su tío Félix Uriarte Abaroa fue gudari y tomó parte, en el batallón Itxas-Alde. En uno de aquellos días de la batalla, bajó a su caserío para ver a su hermana, la madre de Juan, y le dijo: **“Ez iñora be mobidu, au galdute dau te. Bidxer dxoango gara gu erretiradan”** y nunca volvió. Hoy en día sigue desaparecido.

**“Ni, 12 urtegas, Bakidxotik ardidxekas ibiltzen nintzen bedarlekuetara ardidxen sasoi ixeten san amillotxak jaidxo eta arik eta aprillerarte.”**

**“Kamionetie artu ta dxoan siren Mendialdera, Martiñen bille, soldadu bi atzetik ta Bakidxoko bat, txapel gorridxegas, eurretik ta arek atzamarragas erakutzizien. Ta gure áitxitxe abidxedan dxoan zan estratzara, negarres, urrungo beran bille etorriko direla ta! Lagun ixen siren ta! Ta Mendialdekoa, eskuek atzien eroan seurien kamionetan kartzelara.”**

Orr.

## Barturen Uriarte, MARÍA CONCEPCIÓN



María Concepción ("Kontxa") 1921an Goikolea baserrian jaio zan. Tropa italiarrak Bakiora heldu ziranean bere familiagaz batera Gabantxo baserrira lekualdatu ziran. Gabantxon egon ziran denboran Goikoleaz jabetu ziran, etxeko egongelea aginte tokia bihurtu eben matxinatuek, etxea kablez eta komunikazio ekipoz betetuz. Holan jarraitu eben bertan maiatzatik ekainaren amaiera arte. Kontxaren familiak sukaldea eta logela bakarra baino ezin eben erabili Goikolean.

Kontxak ondo gogoratzen dau bere aitite gaixotu egin zala maiatzean eta handik gitxira hil egin zala guda harek sortu eutson bihotzondokoagaitik. Bakioko abadeak esan eutsen Matxitxakorantza doazela aurkitu ebazala soldadu asturiarrak Zintxiri etxaldean eta ikaratuta egoala **"aquí viene algo malo, la guerra viene muy mal"**. Bere aitite guda frentea Bakion sartuta egoala hil zan eta hiletea goizaldeko bostetan ospatu behar izan eben.

María Concepción ("Kontxa") nació en el caserío Goikolea, en 1921. Cuando llegaron las tropas italianas a Bakio se trasladó, junto con su familia, al caserío Gabantxo. Mientras estaban en Gabantxo les ocuparon Goikolea, convirtiendo el salón de la vivienda en un puesto de mando y llenando de equipos y de cables toda la casa. Estuvieron así desde mayo a finales de junio. La familia de Kontxa no podía usar, en Goikolea, nada más que una habitación y la cocina.

Recuerda que su abuelo se puso enfermo en el mes de mayo, y murió por la impresión que le produjo la guerra. Un día el cura de Bakio les dijo que se había encontrado en Zintxiri con los soldados asturianos que iban hacia Matxitxako y que estaba asustado **"aquí viene algo malo, la guerra viene muy mal"**. Encontrándose el frente de la guerra ya en Bakio cuando se murió, tuvieron que celebrar su entierro a las cinco de la madrugada.

***"Aitxé dxoan san erreka artetik Goikolara, Aritxetako errekan sartute, eskiñerik eskiñe, kamiñotik esin dxoan ta! Tiroak botaten sitxuesan Dxatátik, an on siren milisianoak. Aquello era duro. Pase san a egune bere, ta urrungo egunerako libretxuau dauela ta aitxék esan seuen "Goikola esta lengoa! koltxoi gustidzek daus kanpora atarata ilekas ta eriduekas ta... nora goas gu ara ba!"***

# Barturen Uriarte, MARÍA EUGENIA



María Eugenia 1937an jaio zan San Pelaioko Ibillaurre baserrian. Toki estrategikoan kokaturiko baserria zan, Bakiotik al-denduta baia handik oso argi ikusten izan ziran Jata eta Burgoa mendiak, Baita Bakio herria bera be.

Bere aita Gernikako bonbardaketan bertan egon zan, azokan egoala izan zan, baia mendietatik ihes egitea lortu eban eta oso ikaratuta heldu zan etxera.

Bere gurasoak kontau eutsien 1937an intendentzia postua kokatu ebela Ibillaurren, militarrek eta Estatu Nagusia berataz jabetuz. Mola jenerala be han egon ei zan gau eta egunez soldaduz babestuta. Etxe guztia hartu ei eben eta Eugeniaren familiarrentzat sukaldea eta logela bat baino ez eben itxi. Beste espazio guztia irratiz, telegrafoz, tresneriaz eta kablez bete ei eben.

María Eugenia nació en el caserío Ibillaurre de San Pelaio, en 1937. Este caserío estaba en un lugar estratégico, a distancia del pueblo Bakio, pero se veían claramente Jata, Burgoa y Bakio mismo.

Su padre estuvo en el bombardeo de Gernika, había ido al mercado, pero consiguió escapar por los montes, llegando a casa asustadísimo.

Por lo que le habían contado sus padres, en mayo de 1937 emplazaron un puesto de intendencia en Ibillaurre, y se estableció allí el Estado Mayor con todos los militares. Según le dijeron, el General Mola debió estar también instalado allí, protegido noche y día por dos soldados que hacían guardia. Debieron de ocupar toda la casa, dejando libre para la familia de Eugenia solamente la cocina y una habitación. Todo lo demás lo llenaron con radios, telégrafos, aparatajes y cables.

***“Mola egon sanien amák esaten seuen, ámen egon sirela militarrek eta Dxtán frentie egon sanien, orden egoten sirela kartatara olgetan ta derrepente asmetan sitxuesanien bonbak asten sirela billurtuten itzelien, esaten seuriela “ónek dispartan asko daskus berton” ta billurrez egoten sirela.”***

***“Ta ámen eitxen san rantxoa frentien egon siranantzako. Etze éurrien ta gero errepartiduten seurien. Upelatan sartu ta mandotan Burgora eroaten seuriela ta aitxék kontetan seuen, nosonos batanbat ekarten seuriela andik saurixute.”***

Orr.

## Barturen, MARÍA VICTORIA y Ormatza Muruaga, IÑAKI



Maria Victoria, “Pitxirri” izenagaz ezaguna eta Iñaki, bere senarra 1933an jaio ziran. Ignacio Olaskoagak, fusilatua izan zan Anicetoren anaiak, kontau eutsen zelan izan zan fusilamentua. Beste askoren artean Aniceto be fusilatua izango zanean, hildakoen gorpuakaz zuloan ezkutatzea lortu eban, antza. Dana dala, bere arnasea igarri eban eta zuloan bertan egoala tirokatu eban soldaduek.

Anicetok bere aita zelan agurtu eban gogoratzen dau Maria Victoriak: **“Se despidió de mi padre abajo, lo llevaron a Bermeo al pobre, llevaba la comida en el saco que se hacía con un atadito, iba diciendo que volvería enseguida porque él no había hecho nada”**.

Iñaki, Jesus Ormatzaren semea da, bidegilea, eta gogoratzen dau bere aita Larrauritik Bermeorako Sollubeko bidea egiten egoanean lagunek abisatu ebela: **“Jesus, soas, se su ilko saitxue! Sure bille datos! Bisikletie artu ta etor san Bakidxora. Urrungo egunien barkuen sartu san Terranovarentza. Aimet denporan on san an. Ta bueltan, diputasiñoeko kamiñeru les bota seurien”**.

María Victoria, más conocida como “Pitxirri”, y su esposo Iñaki, nacieron los dos en el año 1933. Ignacio Olaskoaga, el hermano del fusilado Aniceto, les había contado cómo fue el fusilamiento de este. Al parecer, a Aniceto lo quisieron fusilar junto con otros muchos, pero de alguna manera consiguió esconderse metiéndose en la fosa con los demás cuerpos inertes. A pesar de ello, los soldados notaron su respiración y le dispararon allí mismo.

María Victoria recuerda cómo se despidió Aniceto de su padre: **“Se despidió de mi padre abajo, lo llevaron a Bermeo al pobre, llevaba la comida en el saco que se hacía con un atadito, iba diciendo que volvería enseguida porque él no había hecho nada”**.

Iñaki es hijo de Jesús Ormatza, el caminero, y recuerda muy bien que cuando su padre estaba haciendo el camino de Larrauri a Bermeo por Sollube, sus compañeros le avisaron: **“Jesus, soas, se su ilko saitxue! Sure bille datos! Bisikletie artu ta etor san Bakidxora. Urrungo egunien barkuen sartu san Terranovarentza. Aimet denporan on san an. Ta bueltan, diputasiñoeko kamiñeru les bota seurien.”**

## Barturen Uriarte, PASCUAL

---



Pascual 1936an jaio zan Goikolea baserrian. Kontxa Barturenen neba txikiena da. Bere etxean gudari buruz berba gitxi egiten izan zala dino Pascualek. **“Isiltasune eta billurre, besterik es egoan”**.

Pascualek dino Pedro Barturen, bere anai nagusia, gudara joan zala 18 urtegaz. Joan aurretik, **“Egunes eskutatzen san ganbaran eta gaubes basorantza dxoaten san, billurres, gerrarako deitukotzielakoan”**. Azkenean joan egin behar izan eban. Momentu jakin batean elektrikari legez aurkeztu behar izan eban bere burua eta ordutik aurrera hori izan zan bere beharra frankisten artean. Gerran hiru urtez ibili zan eta gero beste bi urte soldadiskean.

Pascual nació en el caserío Goikolea, en 1936. Es hermano menor de Kontxa Barturen. Pascual dice que en su casa se hablaba poco de la guerra. **“Isiltasune eta billurre, besterik es egoan”**.

Pascual nos cuenta que su hermano mayor, Pedro Barturen, fue a la guerra con 18 años de edad. Antes de ir, **“Egunes eskutatzen san ganbaran eta gaubes basorantza dxoaten san, billurres, gerrarako deitukotzielakoan”**. Al final tuvo que ir. En un momento dado se tuvo que postular como electricista y desde entonces fue ese su trabajo con los franquistas. Estuvo tres años en la guerra y después, dos años en la mili.

## Bidasolo Erretereria, ANA MARÍA



Ana María 1952an jaio zan Garategi baserrian. Berak gudea artezean bizi ez dauan arren, horren inguruko istorio asko entzun izan dauz bere etxean. Bere amak kontetan izan deutso, esate baterako, gabean ez ebela bonbardatzen eta iluntasuna aprobetxetan izan ebela soloetatik indabak batuteko. Julian eta Rufinok, bere amaren nebeak, bai bizi izan dabela gudea lehenengo pertsonan: Julianek gudariakaz batera borrokatu eban eta Rufino Iruñako San Kristobaleko Espetxean kartzelatua izan zan *“abertzale nabarmendua”* izateagatik. Ana Mariaren amak, makina bat ahalegin egin behar izan eban nebeari paketeak bialdu eta bisitea egiteko. Osabeak kartzela horri buruz kontetan izan dauazan istorioak Ana Marik ondo gogoratzen dauz, gehienbat, hain ospetsua izan zan 800 presoan ihesaldiari buruzkoa. Bakiotik lau izan ziren kartzelaratuak Ezkaban (San Kristobaeko gotorlekuan): Martín Legarreta, Segundo Markaida eta bere osaba Rufino nabe batean, eta, ondoko nabean, Demetrio Ugarte.

Ana María nació en el año 1952, en el caserío Garategi. Ella no vivió la guerra, pero ha escuchado muchas historias respecto de la misma en su casa. Su madre le contaba cómo de noche no solían bombardear y que aprovechaban la oscuridad para recoger alubias. Los hermanos de su madre, Julián y Rufino, sí que vivieron la guerra. Julián luchó con los gudaris y Rufino fue encarcelado por *“destacado nacionalista”* en el Fuerte de San Cristóbal de Pamplona. La madre de Ana Mari tuvo que hacer grandes esfuerzos para enviar paquetes y visitarlo. Ana Mari recuerda las historias que contaba su tío sobre esta última cárcel. Sobre todo, acerca de la famosa fuga de casi 800 presos. De Bakio, fueron cuatro los encarcelados en Ezkaba (Fuerte de San Cristóbal): Martín Legarreta, Segundo Markaida y su tío Rufino en una nave, y Demetrio Ugarte en la nave de al lado.

***“Guriek apenas dxakin seuen ser datorren, surrupurrue bai baie siñistu sekule eseuen ein ak. Eta orduen geu atan derrepente, argidxe dxoan i siren. Dana isil-isillik lotu i san. Eta “prisa, presa, presa, presa” ta bisirik lotuko bada, urten ein bier. Eurretik jentie, albotik be bai txe atzetik be bai. Bisirik lotuko bada dxoan ein bier! Eta jentien artien korridu ein bier. Eta allege sirenien mendí punte betera, andik eperdidxen ganien bajetu bier ixen deuriela se sutunik burueri eutzi esin. Eta dirijiduten dxoan sanak, esatentziela “jarrastras! jarrastras!” ta bajetu siren eta idxe-idxe Bidasoara allege siren.”***

Irunera heldu ziranean preso hartu ebezan. Bataran batzuk errenditu egin ziran eta fusilatuak izan ziran. Atzeragotik joan ziran Rufino eta beste batzuk, kartzelara eroan ebezan. Ondoren, zigortuak izatera eta oso egoera txarrean bizi izatera pasatu ziran: jan barik, behenganean lo egin beharra, bisitarik jaso ezinik... Ana Marik gogoratzen dau osabeak kontetan eutsala be, beldurrez bizi izan zirela, guardiak agertu eta pertsona batzuk deitzen ebezalako eta, orduan, *“alerta esta”* berbakaz erantzun behar izaten ebela. Gaberdian hartzen ebezan eta *“bueno mutilek, seruen topeko gara”* berbakaz besteak agurtuz gero, fusilatze erabiltzen ebezan armen tiroak entzuten ebezala.

Cuando llegaron a Irún, fueron apresados. Algunos se entregaron y los fusilaron. Pero a Rufino y a algunos otros que iban más atrás los llevaron a la cárcel. Después de aquello, fueron castigados y pasaron a estar en muy malas condiciones: sin comer, durmiendo en el suelo, sin recibir visitas... También recuerda cómo su tío le contaba que vivían con miedo, venían los guardias y llamaban a ciertas personas que debían responder con *“alerta está”*. Los llevaban en la madrugada, y después de despedirse con *“ya nos veremos arriba”* oían el sonido de las armas con las que eran fusilados.

## Elgezabal Garai, MIREN

---



---

Miren 1934an jaio zan Errenteria baserrian. Bentura Elgezabal Goitia, bere aita, abertzale sutsua izan zan.

Miren nació en el caserío Errentería, en 1934. Su padre, Bentura Elgezabal Goitia, era nacionalista de fuerte convicción.

*“Ormatan daus gure etzien liburuek eta geusek. Aitxék eukiten seuen ikurriñe, aitxék eta ónek bost edo sei lagun ixeten siren. Ta San Inasidxo egunien dxoaten siren Andíñora eta pertxeben bille eta gero or goidxen or oin eukalitoak daus baie or bedarlekue ixen san da or nire aitxék-eta ataraten ixen seurien tallen artetik ikurriñe ta “Gora Euskadi” ta... orregas konformetan siren. Ta ostabere talletuen barruen ikurriña. Ta gero ez erreketako, orma barrutik botata dau. Or ongo da ondiño, ormatan ongo da!”*

## Elortegi Arrieta, MARTÍN



Martín 1933an jaio zan San Pelaio azoko Urgitxi baserrian. Gerrea amaituta, Bakioko errota guztiak prezintauta eta erabiltzea debekauta egon zirenean bere aita atxilotu egin eben etxeko errotea erabilteagatik.

Urgencio Elortegi, bere aitak, gosea kentzeko erabili eban errotea eta urun zati bat auzokideen artean banandu eban taloa egin eien. Orniduratakoak etxera heldu eta mila pesetako isuna ipini eutsien eta "separatista" legez atxilotua izan zan Larrinagako kartzelan. ***"Mille peseta orduen ba diru asko san"***.

Martín nació en 1933 en el caserío Urgitxi, de San Pelaio. Su padre fue detenido por haber utilizado el molino de su caserío en la posguerra, cuando estaban todos precintados y prohibido su uso.

Su padre, Urgencio Elortegi, utilizó el molino para intentar superar el hambre, y repartió parte de la harina producida entre los vecinos, para que pudiesen hacer talo. Los de abastos llegaron a casa y tuvo que pagar mil pesetas de entonces como multa y fue detenido y trasladado a la cárcel de Larrinaga "por separatista". ***"Mille peseta orduen ba diru asko san"***.

***"Eseuen ein denpora asko ak. Ixen sanes errosoi bako geuse bat, konprendidu ein seurien. Eta etor san permiso bategas eta esin seuen etzetik urten. Baia, ganadue-eta, beidxek-eta, egoten siren les, ba aiek mantenidu ein bier siren ta solora urtetan seuen. Ta euki seuen ainbeste billur! Egon san gurien, etzien, jesuitxe bat, aman léngusue, eta orrek jesuitxiek beran erropie emotentzon, eukiten seuen kapa bat. Aren kapiegas dxoaten san bedarra ebaten eta ganaduentzako eroaten, fraillie dala, pentse deidxen. Kamufleta."***

## Errenteria Gaubeka, GREGORIA

---



Gregoria 1926an jaio zan Gaubeka baserrian. Soldadu italiarren etorrerea Bakiora ondo gogoratzen dau eta baita zelan amatatzen ebezan sua eta argiak, hotzakilik egon behar izanda, soldaduak euren baserri ondolik pasauko zirala jakiten eben bakotxean.

Gregoriaren amak esnea eroaten eutsen Bakion oso ezaguna zan Artetxetarren familiari eta ***“Les dio lomo, tocino y todas esas cosas que tenían para que marcharan a Francia, a exiliarse.”***

Gregoria nació en 1926, en el caserío Gaubeka. Recuerda la llegada de los soldados italianos a Bakio, y que cada vez que sabían que iban a pasar por las cercanías de su caserío, apagaban el fuego y permanecían sin luz, con frío. Lo hacían para que no los vieran.

La madre de Gregoria les llevaba la leche a los “Artetxes”, familia muy conocida en Bakio, a quienes. ***“les dio lomo, tocino y todas esas cosas que tenían para que marcharan a Francia, a exiliarse.”***

Orr.

## Garaikoetxea Oraindi, TERESA



Teresa 1936an Basaurin jaio zan guda erdian. Iraultzea berak ekarri ebala esaten eutsan amak.

Tere Leandro Oraindiren ilobea da, Errepublikasasoiko alkatea Bakion. Udaleko kideakaz batera Zallara alde egin ostean Iparraldera ihes egin eban gudea amaitu arte, ondoren, bere Bakioko "Urbitate" etxera bueltatu zan. Terek ez eban ezagutu aitate momentu horretara arte. Bakion hil zan 68 urtegeaz. Terek be Zallara alde egin eban urte bakar bat eukanean. Zallatik Bakiora bueltan, etxea hartuta aurkitu eban baia Asturiasetik milizianoz jantzita etorri zan osaba baten laguntzari esker berreskuratu ahal izan eban etxea.

Juan Antonio Garaikoetxea Ormaetxe, Tereren aita, Lizartzan jaioa zan eta Lina, bere ama, Bakiotarra zan. Juan Antoniok Bilboko aroztegi batean egiten eban behar eta gudaren erruz itxi egin behar izan eban. Atxilotua izan ondoren, Beharginen Batailoi batean ibili zan. 1945. urtean desagertu egin zan eta ordutik hona, ez dabe bere barririk izan. Orduan Terek 9 urte ebazan.

***"Sekule geidxau estu dxakin beran barri. Frantzire pase ete san ez ete san... Ni gogoratzen nas egune bisikletan dxoan sana etzetik! Eta saarrena egon san, 14 urte euki sitxusen ta atzeko erruedie engrasetako eskatutzon eta dxoan san. Bateri, Tolosan lotu sanien, esan i sotzon "amen ixten dot bisikletie ta geuberako es banoa abiseu..." ta hasta hoy. Ta gero ixen da un tabú en casa. Sekule esta ein berba."***

Teresa nació en Basauri en plena guerra, en el año 1936. Su madre siempre le decía que ella "había traído la revolución".

Tere es nieta de Leandro Oraindi, alcalde municipal de Bakio en la época republicana. Después de evacuar a Zalla con los miembros del ayuntamiento, Leandro se exilió a Iparralde hasta que se terminó la guerra, momento en el que volvió a su casa "Urbitate" de Bakio. Tere no lo conoció hasta que volvió de allí. Leandro murió en Bakio, a los 68 años. Tere también evacuó a Zalla, cuando tenía solo un año de edad. Al regresar de Zalla, encontraron la casa incautada, pero con ayuda de un tío, que vino desde Asturias vestido de miliciano, pudieron recuperarla.

El padre de Tere, Juan Antonio Garaikoetxea Ormaetxe, era natural de Lizartza y su madre Lina, bakiotarra. Juan Antonio trabajaba en una carpintería de Bilbao que tuvo que cerrar a causa de la guerra. Tras ser detenido, estuvo destinado en un Batallón de Trabajadores. En el año 1945 desapareció, sin que sus familiares volviesen a tener noticia de él nunca más. Tere tenía entonces 9 años.

## Goiarrola Arrien, SANTIAGO

---



Santiago 1936an jaio zan Arrien etxean. Entzun dauanetik, Cristina, bere izekoa, Quinta Torre etxean atxilotuta egon zan egun batzuetan, sasoi haretan kuartela moduan erabilten eben eta. Santiagoren osaba bi, Asensio eta José Luis Arrien Elorriaga, frentera joan ziren. Gerra ostean, Asensiok Lisboara alde egin behar izan eban eta José Luis ***“le cogieron y le pusieron en el otro bando dando tiros al revés. Y estuvo en el frente del Ebro. Llegó hasta San Carlos de la Rápita defendiendo y vistiendo el uniforme de los franquistas”***.

Santiago nació en la casa Arrien, en 1936. Recuerda, de haberlo oído, que su tía Cristina había estado detenida durante unos días en la casa Quinta Torre, que en aquellos momentos se había habilitado como cuartel. Dos de sus tíos, Asensio y José Luis Arrien Elorriaga, fueron al frente. Asensio se tuvo que exiliar en Lisboa después de la guerra y a José Luis ***“le cogieron y le pusieron en el otro bando dando tiros al revés. Y estuvo en el frente del Ebro. Llegó hasta San Carlos de la Rápita defendiendo y vistiendo el uniforme de los franquistas”***.

## Ibinaga Aurrekoetxea, FELISA



Felisa 1926an jaio zan Ugarte baserrian. Celestino Ibinaga Olaskoaga izan zan bere aita, Eusko Alderdi Jeltzaleko militantea eta alderdi honetako zinegotzia Bakioko Udalean. Aurrekoaz gainera, Udal Kontseilutik nekazaritza eta kultura gaiak kudeatzeko agindua hartu eban guda sasoiari.

Baia gudatalde frankistak Bakioko herria hartu ebenean eta agintari barriek errepresioa antolatzen hasi ziranean, egonezina sentitu eban. Bere alderdikideen kontrako zalaketak eta lagunen zein auzokideen atxiloketak areagotzen ziran heinean bere burua be jazarpen eta errepresalia biktima bihurtuko zala aurreikusten eban. Eta halan, gau erdi batean, aguazila Ugarte baserrian aurkeztu zan "errekadu" bategaz.

Felisa nació en 1926, en el caserío Ugarte. Su padre fue Celestino Ibinaga Olaskoaga, militante del Partido Nacionalista Vasco y concejal por esta formación en el Ayuntamiento de Bakio. Durante la guerra, además, la Corporación le encomendó gestionar las áreas de agricultura y cultura.

Pero cuando las tropas franquistas ocuparon la anteiglesia y las nuevas autoridades empezaron a organizar la represión, se vio invadido por la inquietud. A medida que aumentaban las denuncias contra sus compañeros de partido y se multiplicaban las detenciones de amigos y vecinos, empezó a pensar que también él podía ser objeto de persecución y represalias. Y así fue. Una noche, a altas horas de la madrugada, el alguacil se presentó en el caserío Ugarte con un "recado".

***“Goixeko seiretan non datosen guardia bi euren fusillekas. Eta koidxu, eta eroan seurien aitzé. Fraka mil rayakas, etxat astu be eingo. Ama negarres. Kamioiek gisonak Bakidxotik eroaten. Eta tio Patxiko dxoan san lelenengo medikuañe, Don Jose María difuntuañe, eta firmetzen enseguida. Abadieñe, alkatieñe, eta danak firmetzien. Eta gero Bakidxon askok. Eta eroan seurien papela emon eutsiena... se papel aundi bet ekar seren, atze eta eurre firmeta papelakas. (...) Ni amagas ibiltxen nintzen, ama eneuen isten esertarako bere, eta dxoan gintzesan bedarrak ebaten, eta andik ikusten da frontoie eta kamiñoa, autobuse etorri an Egianera eta andik non eitxen doskun fiii, fiii, fiii, txistue, aitzék!! Emotentzo amari mareo batek, (seindun egoan, bikiak) soloan dauela dxesarritxe egon gintzesan apurtxu beten eta aitzén begire egon barik dinost amak ese... ‘goasen etzera teatroa bertan ein es deigun, aitzék eroangotzus bedarrak eta’, eta dxoan gintzesan etzera. Ama arrasta esinik, koixoa les, emosiñoagas, aitzé datorrela etzera eta. Eta ni negarres, aitzé allega sanien.”***

## Longarai Larragan, IÑAKI



Iñaki 1930an jaio zan Batzokian (Longarai). Cecilio Longarai, bere aita, guda aurreko militante abertzale nabarmendua izan zan Bakion eta baita Ariztimuño batailoiko tenientea gerra sasoian. Hori dala eta, errepresaliatua izan zan Cecilio.

Bakioko Batzoki barria Sozietate etxean kokatu zan, Cecilio Longarai zuzendaria zan orduan eta Errepublika sasoian, beran semea, Iñaki, ezpatadantzari kideakaz dantzatera joaten zan bertara. Raimundo Larragan, Iñakiren osabea, Santanderren hil zan frankisten kontra borrokatuz. Aurreko arrazoi guztiakaitik Iñakik makina bat zoritxarreko ondorio sufritu behar izan eban guda ostean be.

Iñaki nació en 1930, en la casa Sociedad (Longarai). Su padre, Cecilio Longarai, fue destacado militante nacionalista en Bakio antes de la guerra y teniente del batallón Ariztimuño durante la guerra. Fue represaliado por todo ello.

En la casa Sociedad se estableció el nuevo Batzoki de Bakio, en el año 1931, regentado por Cecilio Longarai, y al que, en la época republicana, Iñaki iba a bailar junto con su grupo de ezpatadantzaris. Su tío Raimundo Larragan murió en Santander luchando contra los franquistas. A causa de todo ello, Iñaki sufrió innumerables secuelas adversas y penalidades de todo tipo, incluso una vez finalizada la contienda.

***“Cuando volvió mi aita de la cárcel, no nos dejaban hacer nada. No le dejaron abrir el bar ni la barbería. No nos daban permiso para nada. Nada, nada. Ibas a pedir al ayuntamiento alguna cosa y nada. No había nada para nosotros. Aita todos los domingos tenía que ir a donde la Guardia Civil, a Bermeo, a presentarse continuamente allí.”***

***“Cuando vivía con mi abuelo, me mandaba a por tabaco a Pujen y a la vuelta, los fachas me tiraban piedras diciéndome “¡separatistas! ¡rojos!” Los fachas no nos podían ver. Nosotros éramos los despreciados en todos los sentidos.”***

Orr.

## Longarai Garai, MARÍA JOSEFA



María Josefa ("Pepita") 1933an jaio zan San Pelaioko Luzarraga bekoa baserrian. Pepitak 4 urte ebazan Frankoren tropak Bakiora sartu ziranean. Gogoratuten dau italiarrek txokolatea emon eutsiela Luzarragatik bakiorantza jaitsi ziranean.

Hegazkinak agertzen ziranean Axkadako kobazuloan sartzen izan ziran. Kontu hadiz joaten ziran hara eta aititek otzaretan eroaten eutsien janaria.

María Josefa ("Pepita") nació en el caserío Luzarraga bekoa de San Pelaio, en 1933. En el momento de la entrada de las tropas franquistas en Bakio tenía 4 años. Recuerda cómo bajaban los italianos por Luzarraga hacia Bakio y les dieron chocolate.

Cuando venían los aviones se refugiaban en una cueva que había en Axkada. Iban allí con mucho cuidado y el abuelo les traía la comida en unos cestos.

***“A mi abuelo le llevaron detenido, Demetrio Garai Uriarte. Le dijeron que había tirado piedras a unas de falange que había ahí, venían en verano y así por temporadas. Y que había tirado piedras, ¡mi abuelo qué va a tirar piedras! Los llevaron en un camión a unos cuantos, no sé quiénes, de la edad de mi abuelo, y estuvieron dos o tres días en la cárcel. Los llevaron en un camión, como a los cerdos. Estuvo unos días en una cárcel de Bilbao, Larrinaga igual.”***

## Mintegi Barrena, MARÍA VICENTA

---



María Vicenta Bilbon jaio zan 1931an. Bere aita Bakiotarra zan eta bere ama Arteakoa. Bilbon bizi izan zan baia aitite-amama jagoten joan zan Bakiora gudea heldu zan urte haretan. Urte beratan jaunartzea egitea toketan izan jakon eta Bakion egin eban. Horretarako, Bilbora joan zan jaunartzeko jantziagaz argazkia ataraten eta bere etxean egoala, etsaien abiazioaren erasoaldia-  
ren alarma jo eben eta familia osoa tunel batean sartu behar izan zan. María Vicentak ondo goratzen dau Jatako mendia sutan ikusten ebala euren Bakioko etxeko kamaratik.

María Vicentaren senarrak hildako italiar gerlariak Bakioko hilerrira eroan behar izaten ebazan.

María Vicenta nació en Bilbao, en 1931. Su padre era de Bakio y su madre de Artea. Ella vivía en Bilbao, pero coincidió que vino a Bakio, a cuidar a sus abuelos, el mismo año que llegó la guerra al pueblo. Justo le tocó también hacer la Primera comunión en aquel año y la hizo en Bakio. Fue a Bilbao a sacarse una fotografía con el vestido, y estando en su casa sonó la alarma del ataque de los aviones enemigos, y toda la familia tuvo que esconderse en un túnel. Recuerda también cómo veían Jata en llamas desde el camarote de su casa de Bakio.

El marido de María Vicenta tuvo que trasladar combatientes italianos muertos al cementerio de Bakio.

***“Italianoak etor sirenien, gure amák dxoan ein bier dule ta dxoan ein bier dule. Urten ein bier dule. Ta ámamak berak esteuela urtetan andik, se gero etze barik lotuko dala. Ta askori pase dxakien ori, e!”***

Orr.

## Muruaga Uriagereka, SABIN



Sabin 1936an jaio zan Etxebarri baserrian. Felix Muruaga Elorriaga, bere aita, Errepublikako EAJ-PNV alderdiko Batzordeko Idazkaria izan zan, eta Larrinagakako kartzelan lehenengo eta Puerto de Santa Marían ondoren, atxilotuta euki eben, guztira **“Iru urte, bost ile eta amaspi egun”**. Fusilatua izan zan Ignacio Olaskoaga be, bere aitaren lehengusua zan.

Faustina Uriagereka Iturainek, Sabinen amak, Zallara alde egin eban bere seme bi eta senarragaz. Han atxilotu eben Félix Bakioko alkate frankistearen zalaketeagaitik. Orduan Sabin ume txikia zan eta aurrerago bere amak esan eutsonetik, egunez Zallako trenaren tunelean ezkutatuten ziren eta gauetan eskolan afaldu eta lo egiten ei eben.

Sabin nació en el caserío Etxebarri, en el año 1936. Es hijo de Félix Muruaga Olaskoaga, Secretario de la Junta Municipal de EAJ-PNV durante la época republicana y que posteriormente estuvo preso, primero, en la cárcel de Larrinaga y, después, en la de Puerto de Santa María cumpliendo un total de **“Iru urte, bost ile eta amaspi egun”**. de condena. El también fusilado Ignacio Olaskoaga Zumarraga era primo de su padre.

La madre de Sabin, Faustina Uriagereka Iturain, evacuó junto con sus dos hijos y su marido a Zalla. Allí le detuvieron a Félix, por denuncia del alcalde franquista de Bakio. Sabin entonces era un bebé y por lo que le contó más adelante su madre, durante el día se refugiaban en el túnel del tren de Zalla y por las noches cenaban y dormían en la escuela.

**“Zallatik etor giñenien, Etxebarrin ya egendun euki entrararik. Etxebarri ixen san bisileku bikoia. Besinoak ein siren dxeube gure aldarridxegas, abandoneta itxi seuriela-ta etzie. Gero amak dxoan bier ixen seuen Ugaldera, berauko etzera, beran etzera, umiekas, aitzé kartzelatik etorri artien. Ta an, Ugalden, on giñen gero.”**

# Ormatza Errenteria, JUAN eta Meñaka Ormatza, BEGOÑA, EDURNE, PEDRO eta FELI



Juan Ormatza 1940an jaio zan Barturen bekoa baserrian. Antzeko sasoiari jaio ziren Bego, Edurne, Pedro eta Feli Meñaka Ormatza bere lobak baia honeek, oster, Urizarreta aurrekoa baserrian bizi izan ziran.

Juanen aita zan Gregorio Ormatza Uriartek, 50 urte euki ebazan 1937an Bakiora gudea heldu zanean eta hiru egunez atxilotuta eduki eben herriko Quinta Torre etxean. Francisco, Patxo, bere anaia, oster, gudara joan zan eta Ariztimuño batailoian ibili zan. Errepresaliatua izan zan eta beharginen batailoietara zuzendua izan zan.

Benito Meñaka, lau loba honeen aita, 20 urte gaz joan zan gudara Lenago-il batailoian parte hartuz. Gitxitan egiten eban berba gudari buruz **“es seuen gure, guk miñ ori gorde deigun eta renkorerik euki deigun inona”**. Benito, gudako frentean egon zan Gernikako bonbardeaketa izan zanean. Beharginen batailoietan be egon zan, beran koinatu Patxogaz batera. Ondino be, gordeta daukiez orduan sortu eta erabilitako gudarako tresnak.

**“Konte dosku aitzék Teruelen on sanien, txintxek edo ardidxek eukiten sitxusela ta pike eitxen ixentzien les, erre kara bota san. Otz! Ta lelengo pulmonidxe an koidxu seuen. Ta iltxen on san. Dirutxue batu seuri en kuadrilekoak, ardao kankarroi-txue ekarteko. Berotan sartzioko-ta, kankiloi oso-oso a emon eta bistu!”**

Juan Ormatza nació en 1940, en el caserío Barturen bekoa. Sus sobrinos Begoña, Edurne, Pedro y Feli, en cambio, nacieron en el caserío Urizarreta aurrekoa, a lo largo de la misma década.

El padre de Juan Ormatza, Gregorio Ormatza Uriarte, tenía 50 años cuando llegó la guerra a Bakio, en mayo de 1937 y estuvo detenido 3 días, en la casa Quinta Torre. Su hermano Francisco, Patxo, en cambio, fue a la guerra, integrado en el batallón Ariztimuño. Fue represaliado, siendo destinado a batallones de trabajadores.

Benito Meñaka, el padre de estos cuatro sobrinos, fue a la guerra con 20 años, tomando parte del batallón Lenago-il. Comentan que raras veces les hablaba sobre la guerra, **“Ees seuen gure, guk miñ ori gorde deigun eta renkorerik euki deigun inona”**. Benito estuvo en el frente durante el bombardeo de Gernika. Estuvo también en batallones de trabajadores, junto con su cuñado Patxo. Todavía guardan las herramientas que crearon y usaron allí.

**“Konte dosku aitzék Teruelen on sanien, txintxek edo ardidxek eukiten sitxusela ta pike eitxen ixentzien les, erre kara bota san. Otz! Ta lelengo pulmonidxe an koidxu seuen. Ta iltxen on san. Dirutxue batu seuri en kuadrilekoak, ardao kankarroi-txue ekarteko. Berotan sartzioko-ta, kankiloi oso-oso a emon eta bistu!”**

## Ormatza Muruaga, ROSARIO



Rosario 1922an jaio zan Torrea etxean. Jesus Ormatza, bere aita, bidegilea zan eta Aldundirako egiten eban behar. Tropa matxinatuak Bakiora sartu ziranean aita-alabak beste bakiotar askogaz batera Zallara alde egin eben kamioi batean. Zallan, eskola batean bizi zirela gogoratzen dau eta sireneak jotzen ebanean zubi azpira joaten zirela bombardaketetatik babesteko. Rosarioren amama, oster, Bakion lotu zan iloba txikiakaz etxea jagoten.

Zallatik bueltatu ziranean, bere aita beharretik kanporatu eben abertzalea izateagatik. Horregatik, handik aurrera, familiako baserrian beharrean jardun behar izan eban, Jauregin (Dxéuri), bere familiartekoak aurrera atara ahal izateko.

Rosario nació en la casa Torrea, en 1922. Su padre, Jesús Ormatza, era caminero y trabajaba para la Diputación. Al entrar las tropas sublevadas a Bakio, padre e hija evacuaron a Zalla, junto con otros muchos bakiotarras, en un camión. Recuerda como en Zalla estaban alojados en una escuela y que cuando sonaba la sirena se escondían bajo el puente, para protegerse de los bombardeos. Su abuela, en cambio, se quedó en Bakio, con los nietos pequeños, custodiando la casa.

Al volver de Zalla, su padre fue depurado en su puesto de trabajo por ser nacionalista, por lo que, a partir de entonces, se tuvo que dedicar a las labores del caserío familiar, en Jáuregui (Dxéuri), para poder sacar adelante a su familia.

***“Txikerrak ixen siren, ta nora dxoango siren ba? Ámama nora mobiduko sendun? Se moroak datosela ta, ni gastetxue ta ni eroandxien, bestiek umiek ixen siren ta.***

***Semet etorri siren ámumañe... bera lotu salako!, ostantzien kentzen doskuen etzie bere. Askori kendutzien!”***

## Uriarte Barturen, ESTHER



Esther Bakion jaio zan 1945ean Panadiena baserrian. Berak artezanez eban bizi izan Gerra Zibila baia bere familia artekoak bai sufritu ebela modu ezbardinetara. Bere aitaren aldetik, bai berak, Vicente Uriarte Abaroak, eta bai Dionisio, Eugenio, Felix eta Francisco, bere anaiak, gerran parte hartu eben eta handik etorri ondoren, zigortuak izan ziran, legearen alde ipintzeagatik.

Esperanza, Estherren amaren partetik be, Alejandro Barturen osabea, "Naviera Aznar"en ibili izan zan eta errepublikanuen bandorako armen garraioan parte hartu eban. Horren ostean, Frantziara pasatu zan eta "La Gurs" izeneko errefuxiatuen esparruan egon zan denporaldi batez. Leku hori agintari frantsesek 1939.urtean eraiki eben errepublikanuak eta nazioarteko brigaden boluntarioak errepresalietatik ihes eginez mugea gurutzatzen ebenentzako. Handik, Valparaisora mugitu zan kontsuleak eta Pablo Neruda olerkariak kudeautako "Winnipeg" izeneko itsasontzian. Chilerako lekualdatze hori 1936. urteko abuztuan egin zan Frantziara erbesteratuta egon ziran 2.200 errepublikanuak hartuta bertan.

Esther nació en Bakio, concretamente en Panadiena, en el año 1945. Aunque ella no viviera la Guerra Civil, sus familiares la sufrieron de distinta manera. Por parte de su padre, tanto él, Vicente Uriarte Abaroa, como sus hermanos Dionisio, Eugenio, Lélix y Francisco fueron a la guerra y tras su regreso sufrieron diversos castigos por defender la legalidad.

Y por parte de su madre, Esperanza, su tío Alejandro Barturen Sasiain estuvo navegando en la "Naviera Aznar" y participó en un transporte de armas para los batallones del bando republicano. Después de este episodio pasó a Francia y permaneció un tiempo en el campo de refugiados de La Gurs, construido por las autoridades francesas en el año 1939 para albergar a los combatientes republicanos y voluntarios de las brigadas internacionales que cruzaban la frontera huyendo de las represalias. Desde allí se trasladó a Valparaiso, en el barco llamado "Winnipeg" y que, gestionado por el cónsul y poeta Pablo Neruda, partió en agosto de 1939 hacia Chile, con 2.200 republicanos que se encontraban exiliados en Francia.

***"Winipen euki seuen barkuek ixena, an dxoan san Valparaisora. An il san gero, etorri san urtiak paseta, se esin etorri onantza, ta an on zan, ta eskondu ein san, ta an ein seuen beran bisimodue gero."***

Orr.

## Uriarte Uriarte, JAVIER



Ureta baserrian jaio zan Javier. Pedro Uriarte Azeretxo, bere osabea, San Pelaio eleizako parrokoa zana, sei hilabetez El Carmelo espetxean kartzelaturatu ebela Jabierren oroitzapenen barruan dago. Ondoren, gaixorik egoala libre itxi eben eta Ereñora bialdu eben. Jabierren osabeak politikaz ez ebala ulertzen dinosku lobeak baia osabearen aitak, Felipek, Errepublikara garaiant botoak batu eta beste ekintza politikoetan parte hartu ebalako zigortu ei eben semea.

Javier nació en el caserío Ureta. Recuerda muy bien a su tío Pedro Uriarte Azeretxo, cura de la parroquia de San Pelaio, que fue encarcelado en la prisión de El Carmelo durante 6 meses, y que consiguió la libertad estando enfermo siendo trasladado a Ereño. Javier cuenta que su tío no entendía de política, pero que fue represaliado por las acciones de su padre, Felipe, quien “recogía votos” y participaba en otros actos políticos en la época republicana.

***“Kamioi beten eroan seurien. Kamiñoan fusiletako ixen siren, baie Bermion sartu san beste abade bat kamioire (politiken apurtxu bet frankistie), eta areri esker ez seurien il bidien.”***

## Uriarte Errementeria, MARÍA



María ("Maritxu") 1925an jaio zan Florencio, bere aitak, behar egiten izan eban aroztegiaren etxean. Etxe harek begiratokia eukan eta handik Jata mendia oso argi ikusten zan. Begiratokirik prismatikoen laguntzaz soldaduak hiltzen ikusi ebezan.

Maritxuren aita Jatako borrokan hiltzen ziranentzat hilkutxak egitera behartuta izan zan, gero Bakioko hilerrian lurperatzeko. Egur barik be lotu zan arrazoi horregatik. Era berean, bera eta beste gizon bat gauetz Jatan hiltzen zirenen gorpuak batzera behartuten ebezan. Baia etxean eukan militarrek esan eban zibilak ezin zirela borroka eremuan sartu eta halan itxi eutsen behar hori egiteari.

María ("Maritxu") nació en 1925, en la misma casa en la que se situaba el taller de carpintería y ebanistería en el que trabajaba su padre Florencio. Aquella casa tenía un mirador desde el que se veía claramente Jata. Desde ese mirador veían, con prismáticos como morían los soldados.

A su padre le obligaban a hacer las cajas para los fallecidos en la batalla de Jata que después enterraban en el cementerio de Bakio. Hasta se quedó sin madera por esa razón. Y también le mandaban a él y a otro hombre, por la noche, a recoger los cuerpos de los fallecidos en la batalla diaria de Jata. Pero el militar que tenían en casa dijo que los civiles no podían ir a un campo militar de batalla, y entonces dejaron de hacerlo.

***"Y arriba, donde la tía, los italianos pusieron la bandera italiana. Nos obligaban a poner la bandera española. Y entonces no teníamos bandera nosotros. Allí al lado de nuestra casa tu bisabuela tenía carnicería allí. Y luego había como un almacén que tenía mi padre de maderas. Y en esa casa había italianos y entonces los italianos nos prestaron la bandera a nosotros. Pero arriba, a la tía, era por un lado española y por la otra italiana. El viento le dio la vuelta y a mi prima le quisieron llevar a la cárcel. Una facha que vivía por aquí le denunció. Entonces el militar que nos dio las banderas le explicó y así nos salvamos."***

## Uriarte Uriarte, MARÍA JOSEFA



María Josefa “Andereño” izenetik ezagutzen da Bakioko lehenengo ikastolaren sortzailea izateagaitik 60ko hamarkadean. 1928an jaio zan Barturen Goikoa baserrian. Fusilatua izan zan Francisco Uriarte Errenteriaren alabea da. Bere aitak Txilen negozioa eukan anaiagaz batera eta urte asko handik egin eban arrazoi horregaitik. Juliana Uriarte bere emazteak eta Franciscok lau seme eta alaba bakarra euki ebezan. Txikienak ez eban bere aita ezagutu. María Josefak ondo gogoratzen dau bere base-ritik ikusi ebazan sugarrak Gernika erretzen egoanean.

María Josefa, conocida en el pueblo como “Andereño”, por ser la mujer que creó la primera Ikastola en Bakio en la década de los 60, nació en 1928, en el caserío Barturen goikoa. Es hija del que fue fusilado, Francisco Uriarte Errentería. Su padre tenía un negocio en Chile con su hermano, razón por la que Francisco residió muchos años allí. Su esposa Juliana Uriarte y Francisco tuvieron cuatro hijos y una hija. El más pequeño no conoció a su padre. María Josefa recuerda perfectamente las garras de fuego que veía desde su caserío cuando se quemaba Gernika.

***“Nire aitxé afusile ein seurien ta gogorra ixen san. Ta nire ama an lotu san, bost umegas. Eta jolin! Nire amák eitxen sitxusen negarrak!, orregas akordetan nas.”***



Orr.

## 1. BAKIOTAR GERLARIAK FRANKOTARREN ARMADAN

Jarraian argitaratuko diran guda mutilen zerrendeak 1939ko martiaren 20an Bakioko Udalak egindakoak dira, gudaren amaierarako egun gitxi batzuk falta zirela. Eurotan adin ezbardineko Bakioko 89 gaztek (1926tik 1942ra arteko ordezkapenetakoak) frankotarren armadako unitate militar ezbardinetan parte hartu ebela azaltzen da.

Kasu gitxitan baino ez da azaltzen errebeldeen armadan boluntarioki parte hartu izana. Beraz, abagune horretan, Frankoren inguruan eratu ziren pentsakera taldeetakoak izan zirela ondoriozta daiteke: tradizionalistak, falangistak edo eskoitar dinastiakoak.

